



ZEGAMA
UDALA

URTEKARIA
Zegama
08

10. Zenbakia. Abendua



ZEGAMAN DAUKAZU ERANTZUNA



GOIERRI BEHEKO
INDUSTRIALDEA

c/Mallutz, s/n - 20240 - ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 880617 Fax. 943 881152 e-mail: ordizia@industrialdea.spri.es

HERRITAR ADISKIDEA AGUR!

2008. urtea amaitzera doa, eta gehienok ere, urte amaiera bakoitzera zalapartaka iristen garelakoan nago, izan ere, urte sasoi honetan, era askotako lanak izaten baititugu guztiok bukatzeko. Eskolan, fabrikan, bulegoan, norbanakoen etxean, nork ez du bada zeregin berezirik izaten?

Bestalde, urteari atzeraka begiratzeko astia ere hartzen dugu, aurtengoan egin gabe utzi ditugun ekimenak hurrengo urterako berriro ere zereginen lehenengo zerrendan ipini, gaizki egin ditugun lan eta oker hartu ditugun erabakiak hurrengo urterako hobeto gauzatzeko asmoa hartu etabar. Beti dugu zertan hobeturik.

Aurten, Zegaman, behar bada, astindurik handiena Olaberria eta Juan Telleria auzoetako herritarrek hartu dute eta baita Ugarteburu eta Urgain Berriko biztanleek ere, obrez gain, aparkatzeko leku gutxi izan baitute etxe inguruetan. Hala ere, eskertzekoa beraien jarrera eta pazientzia, gauzak asko erreztu dizkigute Udaletxean beraien pazientziarekin. Mila esker!

Bestalde, gure errepidean ere pazientiaren beharrea izan gara, baina lanak bide onetik doaz eta 2009 eta 2010 urteak zegamarrontzat bereziak izango direlakoan nago. Errepide eroso amaituta izango dugu eta bidegorriaren etorrerarekin bizi kalitate bikaina izango dugu oinez ibiltzea gustoso dugunok.

Oinezkoa gogoan hartuta, Udalak, abenduaren 9an onartu zuen, Udalerrian aparkatze ezegokiei aurre egitea eta horretarako ertzaintzari, eskuordetza ematea, arazo honi irtenbide bat emateko.

Eta azkenik, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren aitortza egin zenetik, Zegamako Udala burubelarri dabil gure herriak, parkearen barnean dagokion lekua izan dezan eta, bioaniztasuna balioan jarriz, ibilbide ikusgarri bat prestatu da Aizkor barrenean zehar, herritar eta bisitariarentzat. Hauexek dira, begirada batean, 2008. urtean hartu ditugun erabaki eta ekimen garrantzitsuenak. Datorren urterako ere asmoak baditugu eta ea lanean asmatzen dugun.

Eskerrik beroenak ere, Urtekaria egiteko bazter guztietatik laguntza eman diguzuen guztioi, herriko elkarte guztiei, udal langile, etab. ezinezkoa litzateke zuen laguntzarik gabe, ekimen hau bideratzea.

Besterik gabe, Udala osatzen dugun guztion izenean Eguberri Jai Zoriontsuak guztioi opa dizkizuegu eta Urte berri On!.



**ZEGAMAKO
UDALA**

Ederne Albizu
Alkatea

San Bartolome
Jaiak
72

San Martin
Feria
84

Erlezain
eguna
88

VII Zegama
Aizkorri
Mendi Maratoia
100

Maria
Arizkorreta
114

Maria
Mujika
122



Bittori Agirre
ELKARRIZKETA

106

Alkatearen agurra	1
Agenda	3
Joseba Zubizarreta	4
Jose Mari Ormazabal	5
Udala	6
Partzoneria	40
Industrialdea bizi-bizirik	42
Lehen eta orain	44
Aitxuri Herri Eskola	46
Tobera Musika Eskola	48
Orkatx Abesbatza	50
Jubilatuen Elkarte	51
Elkartu Nahi Txirringulari Elkarte	52
Aitzgorri Futbol Taldea	52
KZ gunea	53
Carlos Sastre	53
Amezti Elkarte	54
Aizkorri Guraso Elkarte	55
Odol Emaileen Elkarte	55
Tartaloetxe Kultur Elkarte	56
Zegamar Batasun Kasinoa	58
Gazte Herexa Elkarte	59
Aizkorriko Lagunen Elkarte	59
Pili Arizkorreta	60
Amaia Viana	61
Idoia Apaolaza	62
Juan Mari Elorza	63
Leire Ugartemendia	64
Maidar Garaiar	65
Ainhoa Irastorza	66
Karmele Telleria	67
Loli Otaegi	68
Arrate Igoa	69
Naiara Gomez	70
Alaitz Zubizarreta	71
San Bartolome Jaiak	72



Martin Gorospe
ELKARRIZKETA

80

Martin Gorospe	80
San Martin Feria	84
Erlezain Eguna	88
Zegamako Intxaur Pastak	90
Quebrantahuesos	91
Zegamarrak Behobian	91
Urdanetaren sekretua	92
Tradizioak	93
San Martin Parrokia	95
Aratzeko Elur-zuloa	96
Gure baserriak eta parajeak	97
VII. Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia	100
Jesus Zabaleta	103
Andraitz Fisioterapia zentro berria	103
Mordoxka taberna berria	103
Jose Mari Ormazabal	104
Bittori Agirre	106
Anjel Irigoras	109
Jose Mari Artola	110
Xabier Arakama	113
Aitor Perez	113
Maria Arizkorreta	114
Zegamako aizkolariak omenduak	117
Ramoni Arizkorreta	118
Mari Karmen Berrioategortua	120
Iker Zubeldia	121
Xabier Azurmendi	121
Maria Mujika	122
Luis Arraiago	124
Otzaurteko Benta	126
Mega Garmendi, S.A.	126
Ba al zenekien?	127
Atzoko Zegama	128
Ukenduak	131

Udalak antolaturiko ekimenak 2009

Apirila:	5	Erlezain Eguna
Maiatza:	24	Zegama-Aizkorri mendi maratoia
	31	Arantzazura peregrinazioa
Ekaina:	1	Arantzazura peregrinazioa
Uztaila:	5	Aizkorriko Lagunen Eguna
Abuztua:	22-25 eta 29-30	San Bartolome jaiak
Azaroa:	14	San Martin Feria

EGILEAK ETA KOLABORATZAILEAK

Jose Mari Ormazabal	Ainhoa Irastorza
Joseba Zubizarreta	Karmelet Telleria
Mikel Berasategi	Loli Otaegi
Begoña Olarte	Arrate Igoa
Arantxa Gorrotxategi	Naiara Gomez
Jose Luis Berasategi	Alaitz Zubizarreta
Aloña Gorospe	Jose Anjel Telleria
Igor Alustiza	Martin Gorospe
M ^a Isabel Ugartemendia	Milagros Telleria
Julian Beloki	Gipuzkoako Erlezainen Elkartea
Begoña Albisu	Diego Arratibel
Oihana Zubizarreta	Zegamako Okindegia
Nerea Tauschke	Mordoxka Taberna
Agustin Izagirre	Bittorio Zabalgogea-koa
Aitxuri Herri Eskola	Isabel Elorza
Tobera Musika Eskola	Maria Mujika
Goierriko Agenda 21eko Lan Taldea	Luis Arraiago
Orkatz Abesbatza	Mikel Zabaleta
Xabier Otaegi	Jesus Zabaleta
Jubilatuena Elkartea	Bittori Agirre
Elkartu Nahi Txirindulari Elkartea	Anjel Irigoras
Kzgunea	Jose Mari Artola
Ainitze Azurmendi	Xabier Arakama
Amezti Elkartea	Aitor Perez
Aitzgorri Futbol Taldea	Maria Arizkorreta
Aizkorri Guraso Elkartea	Ramoni Arizkorreta
Asier Galdos	Juan Migel Garcia
Odol Emaileen Elkartea	Mari Karmen Berriotegetortua
Iñaki Albizu	Iker Zubeldia
Tartalo-Etxe Kultur Elkartea	Xabier Azurmendi
Zegamar Batasun Elkartea	Nati Otaegi
Gazte Herexa Elkartea	Alberto Aierbe
Aizkorriko Lagunen Elkartea	Juan Inazio Galdos
Pili Arizkorreta	Inazio Urbizu
Amaia Viana	Mari Jesus Larrea
Idoia Apaolaza	Jose Luis Atxa
Juan Mari Elorza	Jose Inazio Oiarbide
Leire Ugartemendia	Jaione Gorrotxategi
Maidar Garaia	San Telmo Museoa

Gure eskerrik beroenak

KUTXARI
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI
EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA
SAILARI urte guztian zehar eman
diguten laguntzengatik

Zegamako Urtekaria 2008
© Zegamako Udala
Lege-gordailua: SS-1324/99


Zegamako Udalak ez du bere gain hartzen Urtekarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Halaber, adierazi, argitaratutako argazkiak Elkarte bakoitzak Udalaritza bakoitzak direla.

2008KO HERIOTZAK

BERASATEGI ARRIETA MARIA CASIMIRA	2008-01-07
ARRONDO ARRONDO JOSE	2008-01-11
GOIA AZURMENDI JOSE	2008-01-21
BIDAOLA ASEGINOLAZA PILAR	2008-03-02
MARTIKORENA MUJIKA GREGORIA	2008-03-08
BADIOLA ZINKUNEGI JOSE MARIA	2008-04-13
ARRIETA ORMAZABAL PATRIZIO	2008-04-18
CALDERON MORALES FRANCISCO	2008-06-21
AZURMENDI ZABALETA AGUSTIN	2008-07-29
ARIZKORRETA ALDANONDO M ^a ASCENSION	2008-10-12
ALTOLAGIRRE GORROTXATEGI ANTON	2008-10-25
URBISTONDO GOIKOETXEA JESUS	2008-11-23
LARREA ORMAZABAL MARIA TERESA	2008-12-01

2008KO JAIOTZAK

ARIZKORRETA BEGIRISTAIN MANEX	2008-01-25
MENDIZABAL LEKUONA MADDI	2008-02-15
ETXEBERRIA OIARBIDE URTZI	2008-03-13
ETXEBERRIA OIARBIDE IRATXE	2008-03-13
NUÑEZ DUBREUIL UNAX	2008-03-27
LARREA PEREZ JON	2008-05-07
GOIA ELORZA IHINTZA	2008-05-19
LANDA TELLERIA ENAITZ	2008-06-05
AGIRRE BORREGO LEIRE	2008-07-14
ROZAS PEÑA ENAITZ	2008-07-18
COLLADO MENDIZABAL ARATZ	2008-07-21
REGIL OLARTE MADDI	2008-08-17
GALDOS IMAZ JULEN	2008-08-22
MORAN URIBE-ETXEBARRIA ANE	2008-09-02
JAHJAH HIDAYA	2008-09-12
ZEBERIO IRASTORZA OIER	2008-10-03
OTAEGI OLARAN OINATZ	2008-10-08
MORILLO MENDOZA ANE	2008-11-06
IRAOLA RUIZ NAIARA	2008-11-13
OTAEGI ARIZKORRETA MANU	2008-11-27
IZAGIRRE BERASATEGI JUNE	2008-11-30
GOIBURU TELLERIA LIBE	2008-12-03



ZEGAMAKO UDALA

AGENDA - TELEFONOAK

Idazkaritza

943 801 115

Faxa

943 800 073

Bake Epaitegia

943 801 115

Kultura, Euskera eta Ongizate saila

943 801 351

Web orria:

www.zegama.net

E-mail:

zegama@udal.gipuzkoa.net


Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren web orria:

www.zegama-aizkorri.com

BESTE TELEFONO BATZUK

Aitxuri Herri Eskola	943 800 042
Haurreskola	943 800 087
Tobera Musika Eskola	943 801 570
Osasun Zentroa	943 801 306 / 943 027 700
Eguneko Zentroa	943 801 610
Udal Liburutegia	943 802 137
Turismo Bulegoa	943 802 187
Ostatua	943 801 051
San Adriango Aterpetxea	943 582 076
Sasieta Mankomunitatea	943 161 590 / 943 161 555
Ertzaintza	943 088 800
Zumarragako Ospitala	943 035 000
Beasaingo Anbulategia	943 027 700 / 943 027 701
Beasaingo Larraldiak	943 461 111 / 943 880 967
Gurutze Gorria	943 161 010 / 943 162 150
Ur Zerbitzuak	902 302 222
RENFE (Beasain)	902 240 202
SOS Deiak, Suhiltzaileak	112
Taxia (Arantza Ormazabal)	645 006 737
Goierrialdea Autobusak	943 885 969
Goitur	943 161 823
Goieki	943 161 537
Goimen	943 161 244
Ordiziako Zerbitzu Forestala	943 881 793
Goierri Beheko Industrialdea	943 880 617
Goierriarra	943 882 719
Goierriko Hitza	943 160 056
Goierri Telebista	943 085 477
Partzoneria	943 801 006
Iberdrola	943 884 654
Ikastolen Fundazioa	943 160 089
INEM	943 880 548
Langai	943 884 401
Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa	943 886 600
Gazte informazioa	943 805 634
Gipuzkoako Baso Elkartea	943 652 900
Akabatutako animaliak biltzeko zerbitzua	943 112 348

JOSEBA
ZUBIZARRETA
URBIZU



Zeamako hitzek

Zeama gai hartuta hitz batzuk idazteko enkargue jaso non. Zeamak merezi bezalako hitzen bila hasi ta konturau naiz, Zeamak badola hitzekin zerbait berezie. Ez diela berdin hitzen esanahiek Zeaman eo beste lekutan.

Adibidez, Zeaman gutun bat bialtzeko seilu bat nun erosi daiken galdetzen bazu txurreria bialduko zaitue oaindio. Lurrin eo kolonian bat erosi nahi izanezkio, Sakristauenea joaten ginen. Janak zapaterin erosten ginutzen eo bestela koperatiban. Ta taberna bat nahi izanezkio konfiteria juten zienak e bazien. Gurpilen bat zulauta izanezkio, pentsau, alkilerristak konpontzen ziun. Ze pasatze ote zaie hitzei Zegaman?

Anekdotaz aparte, badau Zegaman hitz garrantzitsuik. Mendillerro batek ainako pisue daukena nabarmenena: Aizkorri. Gerizpe earra eskaintzen dio herri. Eta adituk esaten duenez, bere eraginekatio eo, haize-leku bilakatzen da Zeama. Nabarmena izatea eun batzutan haizek hartzen don indarra gure herrin. Baino tia, herrin esaten deun bezela, Zeamarrak haizea aske jareiten deulako da gure herrie haizetsue ta ez beste herri batzutan bezala, haizea aske orde burun izaten duela.

Aizkorri beida jarri ta geo, ezin deu San Adriango kuebea aipau be utzi. Garai

bateko pasaleku garrantzitsunetakoa esaten duenez. Hainbat errege, printzipe ta jauntxo pasau omen zan bertatio. Ta pentsau ze garrantzie ematen zien Zeama aldeko paraje honei, Castilla aldetik zetortzenek zalditio jaitsi ta txapel eo sonbreroa ere erantzi eiten zuela. Zeamai begirunekatio izango zan noski, bueno ta kobazulon alde bat oso bajue dalako re igual bai.

Pasabidez eta kondairez oroitzen hasita, beste hitz bat etortzen zat gogo: tunel-haundi. Nola ibiltzen ginen bizikletan apeaderoa karrerak einez, nola amonakin paseon. Ta tunel haundi nola ein omen zuen. Hasi batzuk zuloa alde batetio ta bestek bestetio. Ingenierok ein omen zitun kalkulok noiz juntau behar zuen bi zulok. Ta egune ailau, ta batez. Ta estutu omen zan ingenieroa, ta zulok gaizki zuzenduta zerelakon bere buruz beste ein zon, hurrengo eunen bi zulok elkartuko ziela jakinbe.

Goialdetio herria jatsita, badauzkeu aipatzeko beste hitz berezi batzuk e, bakoitzek be ikuttue daukienak. Bat natural-naturala, ugatsako iturrie, bere zapore bereziko urekin. Ustel zaporea batzuntzako ta munduko urik onena bestentzako. Ezin ados jarririk gaitze oaindio. Festa giroa maitte duenak, ez due oaindio aztuta izango Joxe

Arretxene re. Reynolds-ekon ostatu izana, festa eta parrandatako taberna onena urtetan. Han izango die oraindik Indurainen mailot hori, maglia roxa eta gainerakok ikusgarri. Ta festan seituz, hor daukeu kontzejue ta kasinoa. Izenak aldrebes xamar izanatio re, herriko ostatue eta soziedade zarrena dienak. Ez da parrandako aukera faltaik herrin!

Hitzez hitz saltoka ibili ta geo, Zeamai lotuk bauzket oso garrantzizko beste bi, aipaube utzi ezin dituanak: familie eta launek. Familiz ze esangoet ba? Ba Pedro Zubizarreta eta Maritxu modistan semea naizela ni herrin, Joxepa eta Joaquinan biloba. Zubi azken finen, aitte ta anaie bezela. Ta launek, ba Zeaman dauzket gehianak eta onanak. Izane errexa da Zeaman launek eukitzea. Ez do inokin aurretio geau beharrik. Kalea azaldu ta beti izatea, Zer alle motei? Bizi al haiz? Ze kontatzek ba? Esangoizun ezaunen bat bost minutu baino lehen. Horrelakoik ez dau beste inon.

Nolabait esateko, Zeaman, beste inun sentitu ez dian bezala, gauzak errexak, arruntak diela sentitzet. Dana da berezkoa, naturala, Ugatxako ure bezalako, zer alle motei? Ta ondoengo bizkarrekoa bezala. Ta hitzek e holaxe die Zeaman: hitz arruntak, xinplek, bizimodue eroso eiten duenak. Zeamako hitzek.

JOSE MARI
ORMAZABAL
ORMAZABAL



Zegamako “Herreriak” dakarzkidan oroitzapenak

Zegamako Herreriaz pentsatzean, nik hamar dozena bat urte nituen garaira eramaten nau. 1970. urte inguru horretara alegia. “Hiru-bide” izeneko (nahiz denek “Herrerie” bezala ezagutu) etxearen azpi-aldean kokatutako 50 metro karratu inguruko tailer koxkor bat zen. Bertara, txirrika gainean zintzilikatutako egurrezko bi ate alboetara irekiz sartzen zen. Sartu eta eskuinetara ferratoki bat zegoen. Bertan, behiak eta idiak lotzen ziren ferratzeko edo herrenak sendatzeko garaian. Ezkerretara berriz, sutegia zegoen. Bertan, ikatzarekin eginiko eta haizagailuz kontrolaturiko sua egiten zen burdinak berotzeko. Sutegia gerriera kokatua zegoen, azpian ikatza gordetzeko lekua zeukan, goian tximinia-kanpai bat eta inguruan sutegian lan egiteko erremintak. Haizea emateko, bi haizagailu zituen sutegiak, bat motor elektriko batez mugitzen zen eta bestea berriz, eskuz palanka bat biratuz. Sutegia eta ferratokiaren tartean ingude bat zegoen, lurrean sarturiko egurrezko enbor baten gainean kokatuta. Ezker-aldeko paretan leiho kontran, lanerako mahaia zegoen “tornu-zil” bat (guk tornilloa esaten genion) erdigunean lotuta. Mahaiaren azpian berriz, eskuin aldean, soldatzeko makina elektriko zahar bat zegoen. Soldadura gauzatzeko baldintzak aldatu nahi izan ezker, torlojuak askatu eta kableak

posizioz aldatu egin behar izaten ziren, ondoren berriz torlojuak lotuz. Sartu eta aurreko paretaren kontra, zulagailua eta aldi berean geztera-harria erabiltzen zituen makina bat zegoen. Makina hau motor elektriko batek erabiltzen zuen eta hainbat ardatz, polea eta uhalen bidez, zulagailuaren abiadura finkatzen zen edo geztera-harria martxan erabili edo ez erabaki. Geztera-harria oso handia zen eta azpian ur ontzi baten murgilduta zegoen, horrela, erremintak zorrozterakoan urak errefrigeratu egiten zituen. Oraindik gogoan ditut aitona Joxe Martin aizkorak zorrozten aritzen zeneko irudiak. Makina honen eskuinetara, etxe barrura joateko atea zegoen eta honen eskuinean burdinak ebakitzeko erabiltzen zen zizaila koxkor bat. Zizaila honetan ebakitzen ziren tamaina txikiko burdinak, pletinak, angelu erakoak edo borobilak. Bere alboan, zerrautsez elikatutako berogailu bat zegoen. Neguko hotzari aurre egiteko behar beharrezko tresna zen eta era berean “herrerira” gerturatzen ziren jubilatua ere oso estimatu izaten zuten. Bere bueltan jarrita hamaika aldiz egon ziren, aitona Joxe Martin, Anselmo Ercilla, Joxe Elizondokoa eta beste zenbait lagun. Garai bateko kontu ugari enteratzeko leku aproposa zen berogailu inguru hura! Hamaika ipuin kontatu zizkidaten eta beste horrenbeste aholku eman ere bai!

Inguru horretan, aita Roman datorkit burura jo eta puska lanean, ganadua ferratzen, burdinazko atek eta burdin hesiak moldatzen, asto eta zaldi karroak egiten edo hainbat konponketa lan burutzen. Hala ere zerbaitek txunditzen banituen, sutegitik ateratako burdin gorituari forma emanez, lortzen zituen emaitzak ziren. Burdin goritua ingude gainean jarri eta mailuaren kolpe hutsez, berak nahi zuen itxura ematea lortzen zuen. Garai horretan lan asko izaten zuen aitak, erremintak egiten, pikatxoak eta baserritarren lanabesak zorrozten e.a. Zaldi, mando edo astoak ferratzeko behar zituen ferrak ere egiten zituen. Zenbait kasutan porraz laguntza behar izaten zuen eta lan horretan nahiko gazte hasi nintzen ikasten. Itxura batean ematen duena baino zailagoa da forjatze lana. Nik, aitak horren erraz egiten zituela ikusita, asto ferrak egiten hamaika ahalegin egin nituen eta ez nuen berehala lortu itxura-antzeko ferra bat egitea. Hala ere lortu nuenean, altxor bat aurkitu banu adinako poza sentitu nuen.

Gaztaroko ordu asko pasa nituen aitarekin herrerrian eta oso oroitzapen onak ditut. Jende askorekin harremana izateko aukera ona izan nuen, eta den-dena lana ez zen izaten, umore ederrean makina bat tertuli egiten genuen eta arrantxo gozoak jan ere bai, ama Mariatxok prestatuta edo norbaiten kaletik erosita. Momentu atseginak ...



ZEGAMAKO UDALA

LANDABIDEEN ERABILERAREN ARAUDIA GAURKOTZEA

Udal jabetzakoak diren landabideen erabilera erregulatzen duen araudia du Udalak 1988 urtetik. Ordutik, erabileraren kuota gaurkotu gabe zegoen eta, landa bideetan gertatu zitezkeen kalteen aurrean, erabiltzaileak jartzen zuen fidantza nahiko urria izaten zen. Ondorioz, 2008ko urtarrilaren 2ko Udalbatzarrak, udal jabetzako landabideen erabilera berezia erregulatzen duen Araudiaren 12. atala egokitu zuen, kalkulu oinarritzat 0,64 €ko prezioa finkatuz, estero eta kilometro erdi edo frakzio bakoitzeko.

OLABERRIA AUZOAN, 30 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK

2007an hasitako 30 etxebizitza, garaje, trasteleku eta haurreskolaren lanak aurrera doaz. Udalak 2008ko otsailaren 4ko Udalbatzarrean onartu zuen Saiatu S.A. enpresak, 10. eremuko (Olaberria) 10.1 H.E.U.n, 30 etxebizitza, garaje eta trastelekuak eraikitzeko Egite Proiektua onartzea. Lanak, 18 hilabeteko epea dutenez, 2009ko udarako amaituta egotea aurreikusten da eta 2009-2010 ikasturterako bertako beheko solairuan egiten ari diren haurreskola berria irekitzea.



Olaberri auzoan egiten ari diren etxe berriak

PREVECILAN ENPRESAREKIN ARRISKUEN PREBENTZIOA KIROLDEGIRAKO

2008ko otsailaren 18an, Udalbatzarrak udal kiroldegia erabileran arriskuak ekiditeko Prevecilan S.L. enpresak aurkeztutako

egitasmoa onartu zuen; ondorioz, hainbat pauso idatzita jarri dira, batez ere ezbehar edo istripu baten aurrean, unean kiroldegian dauden arduradunek eman beharreko pausoak jasoz. Protokolo honen arabera, udal kiroldegia erabiltzaileek, edozein eratako ekimenaren aurretik Udaletxean eskaera egin behar dute eta Udalak, larrialdi kasuan, jendearen ebakuaziorako eman beharreko pausoak idatzita emango dizkie.

UDALA ETA JUAN MARI APAOLAZAREN ARTEKO PERMUTA

2008ko martxoaren 31ko Udalbatzarrean, Zegamako Udala eta Juan Mari Apaolaza Estensororen arteko hitzarmena onartu zen. Hitzarmenean Juan Mari Apaolazak Bosthaitzeta izeneko parajea 100 m²ko lursaila eman dio Udalari eta horren ordainean, Zegamako Udalak, Arakama Haitzgaina mendian kokatzen den mendi-bidearen erabilera eta mendi horretan dagoen kargalekuaren erabilera utziko dio.

HITZA ETA GOIERRI TELEBISTARI DIRULAGUNTZA

Azken urteetako ildoari jarraituz, Udalbatzarrak 2.814,00 €ko dirulaguntza eman dio bai Goierri Tebistari eta baita Hitzari ere. Aurten ere, iaz bezala, biztanleko 2 €ko laguntza ezarri izan dute euskarazko bi komunikabidek.





Kultur Etxean dagoen Gazte-txokoa

GAZTE TXOKOA

2008ko apirilaren 14an, Kultur etxeko goiko solairuko gela batean Gazte-txoko bat jartzeko ekipamendua erosi ahal izateko 3.000 €tako diru partida jartzeko erabakia hartu zuen Udal Gobernu Batzarrak. Ondorioz, sofa, telebista, bi ordenagailu eta hainbat mahai joku erosi dira 12-16 urte bitarteko gazteek erabil ditzaten.



Zegama herriko ikuspegi orokorra



Aulki hidrauliko berria

IGERILEKUAN AULKI HIDRAULIKOA

2008ko apirilaren 28ko Udalbatzarrak Juper enpresari esleitu zion, Udal igerilekuan aulki hidrauliko bat jartzearen lana 4.280,89 €tan (BEZ barne). Era honetara edozein ezindu, edadetu eta harmailak jaitsi eta igotzeko zailtasunak dituenak, aukera eroso du igerilekuan sartu eta irtetzeko. Ekainaren 9ko Gobernu Batzarrak, Juper enpresak aurkeztutako 4.280,89 €tako fakturaren onarpena egin zuen.

TOPOGRAFIA

Maiatzaren 26ko Gobernu Batzarrak, Erain enpresari 1.920,00 €tan (BEZ barne) esleitzea erabaki zuen Udalerrian oraindik egin gabe dauden altxamendu topografikoak egitearen lana. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, Zegamako Udalarri, 1.137,92 €tako dirulaguntza eman dio helburu honetarako. Udalerrian obrak egiten direnean, egoera topografiko berria jasota gera dadin, obra bakoitzaren ondoren, lan hau eginda edukitzea komenigarria izaten baita.

ZEGAMA eta ZEGAMA-AIZKORRI MARKA BEZALA ERREGISTRATZEA

Zegama-Aizkorri Mendi maratokiak duen arrakasta kontutan hartuta, 2008ko otsailaren 18ko Udalbatzarrek, Zegamako Udalaren izenean Zegama eta Zegama-Aizkorri marka erregistratzea erabaki zuen. Era honetara izen horien erabilera eta batez ere erabilera komertziala Zegamako Udalaren esku izatea bermatu da. Ildo honekin jarraituz, orainarte Zegama-Aizkorri mendi maratokiaren logoa daraman kamisetak egin dituen "Brooks" enpresari, urtebetez izen honen erabilpena onartu zaio. Itxitako tratuaren arabera, Brooks etxeak, Udalez kanpo saltzen dituen kamiseta bakoitzeko Udalak 6€tako irabazi zuzena izango du. Aurten, dagoeneko 1.800 €ko dirusarrera izan du Udalak kontzeptu honengatik.



Zegamako zorroak Aizkorri-Aratz parke naturala eta Anduetza Museoen irudiekin



2008ko Zegama-Aizkorri Mendi Maratokiako atera zen kamisetak izugarritzko arrakasta izan du

kudeatu du. Aurtengo enpresa hartzaileak igerilekuak egoera osasuntsuan mantentzeko erostea beharrezko diren gai kimiko guztien kostua ere bere gain hartu du. Esleipenean, lizitazioaren oinarriari hobakuntza bezala, 2.500,00 €ko inbertsioa aurreikusten zuen Goierriko Kirol Teknikoak enpresak, honela, kloroarentzat edukinontzi bat igerilekuko makinaren gelan jartzeko konpromezua hartuz, hiru urterako lana bermatuz gero. Igerilekuak ekainaren 14tik irailaren 14ra egon dira irekita.

ZEGAMAKO POLTSAK

Askotan, bai Udaletxeko dokumentu, oroigarri edota publicitateko edozein foileto herri batera bidali edo Zegamara etortitako edozein bisitariri eskaintzeko momentuan, esku-hutsik aurkitzen zen Udala, elementu hauek ematerakoan. Hau da, herriarekin zerikusia zuen zorro egoki baten beharra askotan sentitzen zen, edozein ekintza ofizialaren aurrean. Hutsune hau bete nahian, apirilaren 28ko Gobernu Batzarrek paperezko poltsa batzuk Zegamako elementuen argazkiak sartuz egitearen lana Rotula Studio enpresari esleitzea erabaki zuen 2.146,00 tan (BEZ barne). Rotula Studio enpresak aurkeztutako eredu ezberdinen artean, Gobernu Batzarrek,

Anduetza Museoa eta Aizkorriren perfla alde batean, eta Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren logoa daraman eredu onartu zuen. Poltsa hauek, Udaletxeak ekoizten dituen, DVD, liburu, kamiseta etabar erosterakoan ematen dira eta Anduetza museoen ere, bertako publicitate foileto eta bestelako opariak erosterakoan banatzen dira.

ANDUETZA ZEHARRA KALEA

San Bartolome auzoan, Arau Subsidiarioetako 7.2. H.E.U.n eraikitako etxebizitzaren eremuari izena jartzeko ardura udalarena denez, eremuari buruzko agiriak aztertzen hasi zen Udala. Ohi denez, lekuan lekuko izena haintzakotzat hartzea izaten da bidezkoa, betiere gure herriaren bilakaeraren azterna kale-izenetan txertatuz. Ondorioz, toponimi maparen arabera eta Udaletxean dauden agiriaren arabera, San Bartolome etxeak eraiki diren eremu horren izena, "Anduetza Zeharra" denez, eremu eta kale horri ofizialki Anduetza Zeharra izena finkatzea erabaki zuen uztailearen 7ko Udalbatzarrek.



Anduetza Zeharra kalean lau etxebizitza berri egin dira.

TANTEO ETA ERRETRAKTO ESKUBIDEA UDALAK

Zegamak Udalak, herrian saltzen diren prezio tasatuko etxe eta garajeen erosleentzako eta atzera eskuratzeko lehen tasuna eskubidea ezartzen du. Izaera hau, batez ere, etxebizitzekin hiruzurrik egin ez dadin dago ezarrita, era horretara norbait, etxebizitza saldu beharrean gertatuz gero, lehenik Udalarik eskaintzea behartzen da.

Aurtengoan Aseginolaza Anaien Etorbidean kokatutako 8C-A etxea eta garajea erosi ditu Udalak, ondoren zozketa bidez hautatutakoari salduz prezio tasatua. Era berean, Olaberriaren eraikitzen ari diren etxebizitzetako eroste bat atzera bota zenez, martxoaren 31ko Udalbatzarrek, etxebizitza hau erosi ahal izateko izangaien baldintzen plegua ere onartu zuen, eta ondoren, izena emandakoen artean zozketa egin zen kasu honetan ere eroste berria izendatuz.

Era honetara, etxebizitzaren salneurriari eustean gain, etxebizitza tasatua, Udalak onartutako baldintzak betetzen dituzten herritarrengan istea bermatzen da.

UDAL IGERILEKUEN KANPAINA

2008ko otsailean Gurutze Gorriak, Udala honi jakinarazi zion, Udala igerilekuetan aurten ez zuela sorospen zerbitzurik emango. Udalak, Udala igerileku eta tabernaren zerbitzuen kudeaketa kontratatuzko deialdi publikoa egin ondoren, 2008ko martxoaren 19ko Udalbatzarrek, Juan Ignacio Moyua Ayalari, (Goierriko Kirol Teknikoak) igerilekuen gestioa esleitzea ebatzi zuen 32.000 €tan (BEZ barne). Igerilekuko sarreraren dirua ere, Goierriko Kirol Tekniko enpresak



Aseginolaza Anaiak Etorbideko 8 A, 8B eta 8C etxeen ikuspegi orokorra

ELIZALDE KALEAN SEGURTASUN NEURRIAK

Juan Telleria eta Olaberria kaleen eraberritze lanak hasi ahal izateko Udalaren aldetik, lehen pauso bezala segurtasun neurriak hartzea ezinbesteko pausoa zen. Ondorioz, Juan Telleria kalea trafikoari istea erabaki zen, obrak ahalik eta bizkorren egiteko, eta ondorioz, trafiko guztia Elizalde kaletik, Aitxuri Herri Eskolaren aurretik pasatzea behar beharrezkoa zen. Eremu horretan herriko haur guztiak ibiltzen direnez, bai eskola orduetan eta baita opor garaian ere, eta etorkizunean ere, futbol zelaiko etxe berrietara doan errepidea bukatzean, bide eroso eta luzea bertan geratuko zela ohartuz, bai obrak irauten zutenerako eta etorkizunean ere, abiadura murrizteaz ibili beharreko eremua dela kontutan hartuta hiru pasabide altxatu egitea erabaki zuen Udalak uztailaren 7an egin zuen Udalbatzarrean. Lana Construcciones Donosti S.A. enpresari esleitu zitzaion uztailaren 7ko Udalbatzarrean 29.578,45 €tan (BEZ barne) .



Elizalde kalean segurtasun neurriak hartu dira hiru pasabide altxatu jarri

Udalerriko KIROL ETA KULTUR ELKARTEEN ARTEAN DIRULAGUNTZEN BANAKETA

Gobernu Batzarrak maiatzaren 26an onartu zuen Udalerriko kultur eta kirol elkarten artean 2007ko dirulaguntzen banaketa egitea, behin urtean zehar egindako ekintzen memoria Udaletxean aurkeztu eta gero. Era honetara, 11.500,00 €ren banaketa bideratu zen hurrengo era honetara:

ORKATZ ABESBATZA	3.600,00 €
GAZTE HEREXA ELKARTEA	1.500,00 €
AMEZTI MENDI ELKARTEA	1.400,00 €
ELKARTU NAHI ELKARTEA	1.750,00 €
AIZKORRI FUTBOL TALDEA	1.850,00 €
TARTALO PILOTA ELKARTEA	1.400,00 €

Bestalde Kasino Elkarteari ere, Bertso Jaialdiak sortzen dizkien zorrak kitatzeko Udalak, dirulaguntza ematen die urtero eta 2008an emandako dirulaguntza, 696,76 €koa izan da

ALTZIBARGO TEILERIAREN KONPONKETA

Altzibargo teileria, Zegamako Udalak 2002ko uztailaren 10ean egindako Udalbatzarrean erabaki zuen erostea. Behin Udalak eskuratu ondoren, eta teileria ondare modura errekonstruatu asmoz, aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiak "kultur ondarea eta interes kulturalerako ondasunak gorde, babestu eta hedatzeko" laguntzen deialdira aurkeztu du. Honela, 2008ko irailaren 30eko bileran Diputatuen Kontseiluak, Altzibargo teileria berreskuratzeko, 24.000,00 €tako laguntza onartu dio Udal honi. Ondorioz, 2009ko azarorako, Altzibargo teileria teilatua emateko beharrezko diren bideak martxan jarriko ditu. Teilatua ematearen aurrekontu osoa, 71.861,00 €tako da (BEZ barne), ondorioz, 2009ko aurrekontuetan egiteko hau jasotzea aurreikusten da.



Altzibargo teileria berritzeko bidean

TRAFIKO ETA APARKATZE ezegokiak hirigunean

2008ko apirilaren 14ko Udalbatzarrean hartu zenerabakia ahobatasunez, Zegaman trafikoa antolatzeko Udal araudi bat martxan jartzea. Horretarako udal arkitektoari, hiribarruan trafikoaren eremua, aparkaguneak, nahiz karga etra deskargarako guneak zehaztuko dituen proposamen bat prestatzearen lana esleitzea erabaki zen. Azaroaren 24ko Udal Batzarrean, ahobatasunez, aparkaleku, oinezkoen guneak eta plaza publikoak zehazten zituen proposamena, atxikitutako planoarekin batera onartu zen.

Aldi berean, Udalbatzarrak, herrigunean aparkaleku gehiago non egin daitezkeen

aztertzen hastearen lana Hirigintza Batzordean martxan jartzea erabaki zuen, eta honekin batera, gaur egun, aparkalekuak zenbaiteraino beteta egoten diren ere aztertzea erabaki zen. Azkenik, Ertzaintzari, herrigunean trafikoaren eskuordetza ematearen erabakia astebete atzeratzea erabaki zen.


Ondorioz, abenduaren 9rako, deitutako Ezohiko Batzarrean, Udalbatzarrak, Zegama Lantzeneko aldeko bost botoekin eta ANVko etorritako bi gorporaziokideen abstentzioarekin, Ertzaintzari sailari eskumen hau ematea erabaki zuen. Ondorioz,

erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, Udalak herritarrei jakinaraziko die honen berri eta, Ertzaintzaren eskuordetza zein egunetatik aurrera izango den ere garaian jakinaraziko da.

Udalak, erabaki honekin lortu nahi duena da herriko aparkalekuak finkatu eta bertan soilik aparkatzeko modua arautu, espaloi eta beste leku desegoki batzuetan aparkatzea eragotziz.

Bestalde, ondoan, onartutako aparkaleku, plaza publiko, oinezkoen eremu eta karga eta deskargarako eremuen planoak.







OLARAN AUZOAN FAMILIBAKARREKO ETXEBIZITZA

Arau Subsidiarioetako Olanar 5 Eremuko 3.1. H.E.Un famili bakarreko etxebizitza egiteko aukera jasota zegoenez, Eusebio Arrizabalaga eta Rosa Begiristainek famili bakarreko etxe bat egiteko baimena eskatu ondoren, maiatzaren 26ko Gobernu Batzarrak, eskatutako Egite Proiektua onartuz familibakarreko etxebizitza bat eraikitzeko lanak hasteko baimena ematea erabaki zuen.

OLABERRIA ETA URGAIN ARTEKO ESPALDIA HANDITU ETA ZUBIA ZABALTZEA


2008ko maiatzaren 26ko Gobernu Batzarrak, eremu horretako Zegamako Arau Subsidiarioen 10. Eremuko 10.1 E.H.U.ren urbanizazio proiektua hasera batean onartu zuen. Futbol zelai zaharreko etxeek, urbanizazio zama bezala, zubia zabaldu eta espaloia zabaltzearen lana bere gain dute, datorren udaberri aldera aurreikusten delarik lan hauen hasiera. Bestalde, Gipuzkoako Ur Zuzendaritzak inola ere ez duenez uzten, erreka gainean espaloia zabaltzen, mendiaren aldera bideratuko da errepeidea eta, erreka aldean dagoen espaloia zabalduko da, gaur egungo errepeidearen zati bat hartuz; honela, Olaberria auzora, espaloitik jaitsi gabe joatea ahalbidetuko da urbanizazio lan hauek eginda.



Espaloia obrak egin aurretik

XABIER AZURMENDI bekaren III. deialdia

Ekainaren 9an Udalbatzarrak Xabier Azurmendi bekaren III. Deialdia martxan jartzea erabaki zuen eta aldi berean, ikerketa gaia ere zehaztu zuen. III. Bekaren gaia, Erregebidea eta Done Jakue Bideak izan duen eragina eta utzi dituen aztarnak aztertzea da. Ikerketa eremua, San Adriandik hasi eta Ordiziaraino zehaztu da, batez ere, Zegamako eremuan jarri beharko delarik prisma. Gai hau lantzeak, Zegamako Udalerrian duela gutxi arte indarrean egon den Erregebideak zituen azpiegiturak argitara ateratzea da besteak beste (zubiak, ospitalak, bideak, iturriak, ermitak etab.) eta ondoren balioan jartzea. Lehiaketara, proposamen bakarra aurkeztu zen eta Udalbatzarrak, 2008ko irailaren 8ko bilkuran, Isabel Elorza Puyadenari esleitu zion 12.000 €ko ikerketa lana. Ikerketa lana egiteko urtebeteko epea eman zaio.



Zubitxoak Done Jakue bideak Zegaman utzi duen aztarnetariko bat

TURISMO BULEGOAN

enpresa berria

Anduetza Museoan kokatuta dagoen Turismo Bulegoa kudeatzen zuen Aldabe enpresarekin hitzarmena ekainaren 15ean iraungitzen zenez, eta hitzarmena berritu asmoz, maiatzaren 26ko Udalbatzarrak turismo bulegoaren kudeaketaz arduratuko zen enpresa aukeratu ahal izateko baldintzen plegua onartu ondoren, lehiaketa gonbidapen prozesuaren bidez burutu zen. Lehiaketara

enpresa bakarra aurkeztu zen eta ekainaren 25eko Udalbatzarrak, Aldabe enpresari esleitu zion urte t'erdirako bere kudeaketaren lana 30.000 €tan (BEZ barne). Udalak, aurreko urteetako ordutegia betetzearen baldintzapean egin zion Aldabe enpresari esleipena. Ordutegiaren gainean, Udala eta Aldaberen artean adostasunik eman ez zenez, Aldabe enpresak, uztailaren hasieran

jakinarazi zion Udal honi, abuztuaren 20an bere zerbitzuak bukatutzat emango zituela Zegamako Turismo Bulegoan. (Aldabe enpresaren eskaera 6.000 € gehiagokoa izan zen urte osoa goiz eta arratsaldez ireki ahal izateko.

Ondorioz, Udalbatzarrak uztailaren 21eko bilkuran, "Zegaman turismo bulegoa (eta Egur Museoa) antolatu, martxan jarri eta kudeatzeko zerbitzua" kontratazeko baldintzen plegua onartu zuen, aurreko baldintza plegu bera onartuz, eta deialdia ireki zuen prozedura negoziatu bidez. Gonbidapen prozedura enpresei egin ondoren Nerea Tauschke Lanberrik aurkeztutako plegu bakarra jaso zen epe barruan Turismo Bulegoa eta Anduetza Museoaren kudeaketa aurrera eramateko eta ahobatasunez, Nerea Tauschke Lanberri esleitu zion Anduetza Museoa eta Turismo Bulegoaren kudeaketa 30.000,00 €tan (BEZ barne) urte eta erdirako. Museoa goizez eta arratsaldez izango da irekita, astelehenetik ostiralera 10:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 18:30etara, igande eta jaiegunetan 11:00etatik 13:00etara 16:00etatik, 19:00etara.

Zorte on opa diogu Nerea Tauschkeri ibilbide berri honetan, eta mila esker eta zorte on Aldabe enpresari, gure herrian emandako zerbitzuengatik.



Nerea Tauschke, Anduetza Museoko eta Turismo Bulegoko arduradun berria

BEGOÑA ALBISURI KONTRATO LUZAPENA

Ekainaren 25eko Udalbatzarrak, kultura arloko lanak egin ahal izateko, Begoña Albisuri uztailaren 1etik abenduaren 31 arte lan kontratua luzatzea erabaki zuen. Era honetara, egunero-egunero sortzen diren lanez gain, urtekaria, San Bartolome jaiak eta San Martin feriarekin antolatutakoak sartarazten dituen lanak izango ditu eskuartean.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Udako ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak emateko prozedura onartu zuen Udalak, ekainaren 25eko Udalbatzarrean, eskaera bakarra egin denez, ordaindutako matrikularen % 50^a ordaindu zaiou.

TXARAPE ETA SAN MARTIN KALEAN ARRAPALAK

Txarape auzoan, irisgarritasun arazo larriak daude, Txarapeko eraikuntzen egitura dela medio. Hori dela eta, Txarape auzoko aurrealdean dagoen plazara ibilgailuz iristea ezinezkoa da eta bestalde, lehen blokeka kamila bat eramateko ere aparteko zailtasunak daude, ez duelako aurrealdera sartzeko irisgarritasunik. Horiek horrela, errepidera anbulantzi eta gurgildun aulkiaz iritsi ahal izateko, Udalak, Natxo Ibarretxe arkitektoari, irisgarritasuna bermatzeko proiektua idaztearen lana esleitu zion uztailaren 21eko Udalbatzarrean 3.248,00 €tan (BEZ barne). Era berean, San Martin 7an, Aizkorpe Taberna dagoen eremura iristeko ere harmailak daudenez, eta etxe honetan gurgildun aulkia behar duen herritar bat bizi denez, lehentasunezko ekintza bezala ikusi da arrapala hau ere egitea. Horiek horrela, azaroaren 10eko Gobernu Batzarrak, aurrez esleipena bideratzeko prozedura negoziatua jarraitu ondoren, Pedro Iparragirre Eraikuntzei 25.554.59 €tan (BEZ barne) esleitzea erabaki zuen, ondorioz, lanak urtarilean hastea aurreikusten da.



San Martin kalean arrapala egingo da



Txarapen, eremu honetan, arrapala egingo da

JUAN TELLERIA ETA OLABERRIA AUZOAK

eraberrituta

Zegamako hiruguneko ia eremu guztiak eraberrituta bazeuden ere, Olaberria eta Juan Telleria kalea oso egoera kaxkarrean zeuden. Hori dela eta, 2005eko abenduaren 19an, Gobernu Batzarrak, Ignacio Ibarretxe Parienteri, Juan Telleria eta Olaberria kaleen urbanizazioa egiteko proiektuaren idazketa lana esleitu zion. Proiektuan jasotako lanen aurrekontua, 696.889,93 €tan (BEZ barne) zehaztu zen. 2008ko martxoaren 31ko Udalbatzarrak lan hauen kontratazioa bideratzeko, lehiaketa ireki bidez araututako baldintzen plegua onartu zuen. Deialdi publikoa egin ondoren, lanaren exekuziorako eskaintza aurkezteko epea, maiatzaren 13an iraungitu zen eta guztira sei enpresek aurkeztu zituzten beren eskaintzak.

Maiatzaren 26ko Udalbatzarrak, aurkeztutako eskaintzak baloratu ondoren eta udal arkitektoak egindako txostena kontutan hartuta, Juan Telleria eta Olaberria kaleak urbanizatzeko lana, Construcciones Donosti S.A eta Urbanizaciones Iruña, S.A. (bi enpresa hauen artea egindako aldi bateko enpresen elkarteari) enpresei esleitzea erabaki zuen 646.772,32 € BEZ barne; era berean, lanen egite epea 7 hilabetekoa ezarri

zen, birplanteo akta jasotzen zen egunetik kontaktzen hasita.

Lanak, ekainean hasi ziren eta esan enpresak ezarritako epea baino hilabete lehenago amaitu dituela lanak.

Obra garratzitsu hau egiteko, Eusko Jaurlaritzako, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailari, Zegamako Udalak egindako dirulaguntza eskaerari erantzunez, 2007ko azaroaren 20ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Udalari emango zitzaion laguntzaren berri, hain zuzen ere 450.000 €tako laguntza.

Laguntza jasotzeko baldintzetako bat, legez ezarritako neurriko espaloiak egitea izan da eta ondorioz, semaforoen bidez antolatu behar izan da trafikoa, norabide bakoitzari txandaka bidea emanaz. Zegamako Udaletxean maiatzaren 19an Gipuzkoako Foru Aldundiko, Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendari Nagusia den Felix Urkolarekin egindako bileran, semaroak jartzearen kostua, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du bere gain eta bere mantenimendua ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku geratu da, azken batean, GI-2637 errepidearen zati bat delako, Zegamako hirigunetik igarotzen dena.

Udalaren ustez, bai Juan Telleria eta bai Olaberria auzoko herritarren bizitza kalitateak hobera egin du obra hauen ondorioz. Oinezkoentzat lekua, segurtasuna eta erosotasuna lortu da. Sanemendu azpiegitura berriak sartu dira, argiteri eta argindarraren kableak berehala lurperatuko ditu lberdrolak kale hauei beste itxura bat emanaz.

Bestalde, azpimarkatzeako da, aurrez urbanizatu diren herriko beste kaleetako herritarrek egin zuten modura, Juan Telleria eta Olaberria Kaleetan etxeak dituzten herritarrek ere, orohar, etxaurrean, hau da, Udalak, bere lanak egin behar zituen eremuaren zesioa egin dutela obrak hasi aurretik.

Erronka orain, aparkatzeko guneak guztiok errespetatuz, espaloiak oinezkoentzat bakarrik erabilgarri izatea lortzea da.

Obren finantziazioa, 2008ko aurrekontuetatik 617.629,08 € bideratu dira eta 2009ko aurrekontuetik gainerako 29.143,24 € jasotzeko konpromezua hartu zen aurrekontuak onartu ziren 2008ko urtarrilaren 2ko Udalbatzarrean.



Juan Telleria kaleko eraberritze-obrak



Olaberri kalean eskabadorak lanean



Olaberri auzoan adokinak jartzen



Olaberri auzoan asfaltoa botatzen

ARAU SUBSIDIARIOEI ALDAKETA PUNTUALAK

2008ko irailaren 8ko Udalbatzarrean, onartuta dauden Arau Subsidiarioei aldaketa puntual batzuk egiteko agiria prestatzeko izapideei hasiera ematea erabaki zen. Aldaketak, hiru tokitan aurreikusten dira: Murgisarrin, Udalak duen lursailean bungalow batzuk jartzeko aukera aztertzen ari da hirigintza Batzordea. Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren sarreretako bat Zegama izatea aurreikusten denez, Zegaman, ere bisitariak hartzeko azpiegiturak beharrezkotzat jotzen dira. Bestalde, famili egitura aldatzen ari denez, Arretzeko eremuan etxebizitza berrien ordezkapena bideratzeko eta Olaberria aldeko Zegamako Hiri Antolaketako Arauen 11. Eremuan, etxebizitza gehiago eta aldi berean txiki gehiago egin ahal izateko aukera aztertzen ari da Udala. Oraindik, agiria haserako azterketa fasean dago eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia behar beharrezkoa izango da aldaketa hauek burutu ahal izateko. Aldaketei buruzko zehaztasun gehiago eskuartearen izatean, herritarrei zuzeneko informazioa ematea aurreikusten da, gainerako berrieekin egiten den moduan.

Zegamako herrigunea



UDAL SAREA 21 eko ekimenak



Zegamako Udala, Udalsarea 21eko kide denez, urtero Agenda 21 eta Udalsarea 21 programaren babesean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduaren Sailak ateratzen dituen dirulaguntzetara aurkezteko modua dugu. Aurtengoan, Zegamako Udalak, 18.250 €tako proiektua aurkeztu zuen. Alde batetik, proiektuak herriko eta inguruko politikoen trebaketa paisaiaren berreskuratzea emateko jasotzen du eta beste aldetik, Zegamak duen bioaniztasuna herritarren artean zabaltzea eta ondare kulturalak eta naturalak ezagutzea jasotzen du.

Proiektu hau aurrera eramateko, Udalak, gonbidapen prozedura erabilita hiru aurrekontu eskatu ondoren, irailaren 29ko Gobernu Batzarrak proiektuaren garapena Aizkorribidean (Nerea Tauschke Lamberri) enpresari esleitzea erabaki zuen 17.999,70etan (BEZ barne).

Proiektuaren garapena, abendurako antolatutako Iraunkortasunari buruzko jardunaldiez gain, Udalak argitaratu dituen programa eta katalogoaren bidez ezagutzeko aukera izan dugu.

Iraunkortasunari buruzko jardunaldien barruan, hiru hitzaldi eman dira:

Abenduaren 1ean, " Mendiz mendi...Mendez mende" izenburupean, Asier Arrese Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendariak hitzaldia eskaini zuen. Bertan, giza jarduerak basoetan utzi dituzten arrastoei buruz eta egungo basoen egoerari buruz hitz egin zuen.

Abenduaren 2an, Miren Askasibar Paisaia S.L.-ko teknikaria izan genuen Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko paisaiari buruz hizketan. Paisaiaren garrantziaz eta kudeaketaz hainbat xehetasun eman zituen. Hitzaldi honen laburpen gisa, Udalak txosten bat argitaratu du.

Abenduaren 3an Aranzadi Zientzia Elkarteko Leire Oreja izan genuen hizlari. Berak Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko landare mehatxatuei buruz hitz egin zigun eta landare hauen iraupena bermatzeko martxan jarri dituzten kontserbazio-planak ezagutzera eman zizkigun.

Hitzaldiez gain, Zegamako natura- eta kultura-ondarea bilduko dituen katalogo bat argitaratzekoak gara.

INDUSTRIA ARLOKO

Agenda 21

“Agenda 21 industrialia” proiektua, eskualdeko enpresei ingurumen arloan dohaineko informazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzean datza. Enpresa bakoitzari legediak ingurumen arloan ezartzen dizkion betebeharrak aurrera eramateko laguntza ematea alegia.

Proiektu honek bigarren urtea du martxan dagoela eta aurten, orain arte egiten ari garen lanarekin jarraitzeaz gain (enpresetara bisitak egin, bakoitzak bere egoeraren berri eman, egiteke egon daitezkeen tramiteak egiten lagundu etab.) ekintzak berriak jarri dira martxan:

Batetik, buletin elektronikoa bat sortu da egungo ingurumen arloko betebeharrari eta albisteei buruzko informazioa jasotzen duena eta bestetik, Orkli eta ArcelorMittal enpresetara bisitak antolatuta dira eskualdeko enpresa txiki eta ertainek, hondakin, isuri etab.en kudeaketari buruzko “Ingurumen Praktika Onak” ikusi ditzaten.

Bestalde, urtero eskualde mailan antolatzen den XI. Enpresa Berrien Sariketaren barnean, enpresan burututako “Ingurumen proiektu onenaren saria” eman da. 6000 €-ko sari honek, enpresek ingurumen arloan egingo dituzten inbertsioetan laguntzea du helburu.

Ekintza hauen bitartez, ingurumenarekiko babesa handitu eta legediak ezartzen dituen arauak gainditu nahi dira. Proiektu honek



Zegamako Industrialdea

2009 urtean ere martxan jarraituko du enpresek izan ditzaketen beharrei erantzun asmoz.

UDAL FOTOTEKA

Zegamako Udalak, Udal Fototeka egitearen lana 2007ko martxoaren 5eko Gobernu Batzarrak Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresari esleitu zion, 4.500, €tan. Dagoeneko lana amaitutzat eman dute. Guztira 1800 argazki dokumentatu, digitalizatu eta gorde dituzte Udal fototeka osatuz eta esan herritarren partehartzea oso ona izan dela. Herritarrek argazki ugari ekarri dituzte Udaletxera eta, ondorioz herritar guztion artean osaturiko fototeka aberatsa osatu da. Fototekaren aurkezpena abenduaren 18an egin zen Udaletxean eta erakusketa irekita dago astelehentik ostiralera goizez eta arratsaldez urtarrilaren 4 arte. Ordutegia, aste egunetan goizez 9etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 19:00etara, larunbatetan 17:00etatik 19:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara izango da. Bestalde, fototekan jasota dauden argazki guztiekin liburuak ere egin dira jendeak nahi duenean ikuskatzeko eta nahi duena bertatik eskatzeko. Era berean, fototekan dauden argazki guztien kopiak egitea ere posible izango da CDtan sartuz.

EUSKARAREN ALDEKO EKIMENI LAGUNTZAK

Aurten ere, euskararen aldeko ekimeni dirulaguntza eman zaie Zegamako Udaletxetik. Hona hemen laburpena:

Kilometroak:	100 €
Ibilaldia:	100 €
Araba Euskaraz:	100 €
Nafarroa Oinez:	150 €
Herri Urrats:	100 €
Urruña/Ziburuko ikastolak:	200 €

GOIMENEN DIRULAGUNTZAK 2008rako

Goimen, Goierriko Mendi Nekazaritza Elkartera, Udalak 2008rako hainbat proiektu aurkeztu zituen eta horietatik bi izan ziren onartuak: bata, lzei gorriaren ekoizpen lurren azterketa bat egitea da, hau dan gabon pinuei buruzko azterketa, honetako Goimenek Udalarari 6.032,00€ tako dirulaguntza emango dio eta bestalde, Altzibargo teileria garbitzeko ere dirulaguntza eskatu zion eta honetarako 4.758,00 €tako dirulaguntza emango dio lanak burutzen direnean.



Altzibargo teileria berritzeko dirulaguntza lortu da

1500 BIZTANLETIK GORA

Azken urteotan Zegamak gero eta biztanle gehiago ditu. Esan 2006ko urtekarian 1400 biztanlera iritsi ginenaren berria ematen bagenuen ere, 2008ko abenduan 1503 biztanletara iritsi garenaren berri eman beharrean gaudela. Hona hemen azken 4 urteetako datuak:

2005 urtean :	1.345 biztanle
2006 urtean:	1.401 biztanle
2007 urtean:	1.485 biztanle
2008 urtean :	1.503 biztanle

“KIROLARI Ateak zabalik”

EGUNA 2008KO EKAINAREN 8AN

Zegamako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzutik “Kirolari Ateak Zabalik” ekimena aurrera eramateko gonbidapena jaso zuen. Udaletxeak onespina eman zion eta horrela egun horretarako ekintzak nola burutu zitezkeen aztertzen hasi ginen. Egun honetarako helburuak ondorengoak ziren:

- Herritarrei eskura dituzten kirol baliabideen berri ematea
- Edozein adinetan kirola egitera sustatzea
- Herritarren arteko harremanak sendotzea
- Jendeari jabeazki kirolaren garrantziaz gizarte kohesioaren ikuspegitik, osasunarentzat dakartzan onuz eta beste herri eta kultura batzuekin harremanak izateko bitarteko modura ikustea

Mendi irteera: Amezti Elkarteak antolatuta, goizeko 8:30etan zen irteera. Egun goibela eta tristea atera zen. Adin guztietarako pentsatutako ibilbidea honako hau izan zen: Zegamako Enparantzatik atera, San Bartolome auzora igo, Arrieta Haundi baserritik pasa eta Apeaderoraino iritsi. Handik Izarragako gurutzera igo, Atxatxe baserrira jaitxi eta polikiroldegian bukatu. Parte hartzea eskertzeko sari banaketa egin genuen.

Bigarren ekintza: txirinduarekin hainbat froga eta jolas Elkartu Nahi elkarteak antolatuta goizeko 10:30etan:

- Konoak tartekatuz trebetasuna azaltzea
- 0,50 zentimetrotako marra batetik atera gabe ibiltzea
- Helmugara azkena zein iritsi hiru lasterketa egin ziren Aitxuri Herri Eskola aurrean

Agerian geratu zen gaztetxoek kemena eta trebetasuna. Horren ordainetan sari txiki batzuk banatu genizkien.

Kirolaren egun honetan, bisita bitxi bat ere izan genuen Zegaman, Gipuzkoako motorzale elkartearen bisita alegia. Zegamako Udalak hamaiketako eman zion motorzale guztiei eta bitartean, hauen motorrak ikusgai egon ziren herriko plazan motorzale guztien gozamenerako.

Herri kirol jokoak Tartaloetxe elkarteak antolatuta eguerdiko ordu batean :

- Zaku lasterketa
- Morkol biltzea
- Marmitekin lasterketak
- Sokatira haurrentzat eta helduentzat.

Ordu berean Txarapen, bolo eta toka jokoan aritu ginen Olaberriko eta Txarapeko auzokideen laguntzarekin. Ekintza honen helburua batik batik gaztetxoeneri boloetan eta tokan nola jolasten den erakustea izan zen. Nahiz eta herri txikia izan Zegama, joko hauek nahiko galduta ditugula bistan geratu zen eta jokalariei eta ikusleek gustura hartu zuten.

Arratsaldean nesken arteko futbito partida Tartaloetxe elkarteak antolaturik. Neska talde batek eskatuta aurrera eraman zen ekintza bat izan zen. Emaizari begiratu gabe, bikain aritu ziren.

Ondoren bi pilota partida ere izan genituen ikusgai: bata alebinena eta bestea federatuena. Tartaloetxe Pilota Eskolak urtean zehar egiten duen lana agerian geratu zen.

Arratsaldeko 6:30ak aldera eman zitzaion amaiera “Kirolari Ateak Zabalik” egunari. Herritarren parte hartzea, elkarteek laguntza eta eskuzabaltasuna ezinbestekoak izan ziren egun hau aurrera eramateko. Guztioi, mila esker!



Nesken futbito partiduan giro bikaina izan zen



Morkol biltzen ere fin saiatu ziren gaztetxoak



Egun honetan motor zaleen bilkura ere izan genuen herriko plazan



Sokatiran berotu zen jendea



Julian Retegi gazteekin boloetan nola egiten den erakusten

AITXURI HERRI ESKOLAN MARKESINA ETA PORTXEA EGITEA

Aitxuri Herri Eskola, eraikin modura, egokia bada ere, gabezieta bat, sarreran estalperik ez izatea da. Ondorioz, ikasleek nahiz hauen gurasoek euri egunetan nahiko egoera desegokiak jasan behar izaten dituzte aterpe falta hau dela medio. Arazo hau ikusirik, Udalak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, sarreran markesina bat eta patio txikiko portxea handitzeko dirulaguntza eskatu zion. 2008ko irailaren 5eko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen, Ebazpenaren arabera, Udalarari 49.501,08€tako dirulaguntza onartu zaio. Udalak, urriaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran, publizitaterik gabeko gonbidapen prozedura erabili ondoren, eta obra hauek burutzeko eskaintzak aztertu ondoren, azaroaren 24ko Udalbatzarrak, Pedro Iparragirre Eraikuntzei obrak esleitzea ebatzi zuen 80.968,29 €tan. Ondorioz, sarrerako markesinaren lanak, abenduan zehar hasiko dira eta patio txikiko lanak, 2009ko udan egitea aurreikusten da.



Aitxuri Herri Eskolaren sarrera nagusia

LURRALDEBUS TXARTELA KARGATZEKO ZERBITZUA

Lurraldebus txartelak eskatu eta diruz hornitzeko, Udalerrian aukerarik ez zegoenez, Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarekin harremanetan jarri zen eta hitzarmen baten bidez, zerbitzu hau Udaletxeko bulegoetan jartzea adostu zen. Ondorioz, Lurraldebuseko txartelak eskatu eta kargatzeko zerbitzua udal bulegoetan ematen da ekaina geroztik.

Autobusen ordutegi berria:

Bestalde, aurten autobusaren ordutegia eraberritu da, zerbitzuak areagotuz. Esan ia orduero autobusa dugula Beasaina joan eta handik etortzeko eta ondorioz, jende ugari animatu dela, txartela ateratzea zerbitzu hau erabiltzeko.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATETIK BISITA

Azaroaren 2an, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek San Adrian Kobazulora txangoa egin zuten, bertan Arantzadi Zientzia Elkarte, Gipuzkoako eta Arabako Patzuergoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak bultzaturik, egiten ari zen indusketen berri izateko. Ondoren, Zegamako Ostaturun bazkaldu ondoren, arratsaldean Isabel Elorza Puyadenak eskainitako, "Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoko Artzaintza" ri buruzko hitzaldia izan zuten Kultur Etxean eta Anduetza Museoara bisita eginez, bukatu zuten txangoa.

ZEGAMARI BURUZKO GIDA TURISTIKOA

Hirugarren aldiz, editatu zen martxoan, Zegamari buruzko gida turistikoa. Gida hau,



herrira datorren bisitariari ematen zaio batez ere, eta gure herriak bisitariarentzat dituen interedun elementuak jasotzen dira bertan. Honen aurrekoa, 2005ean argitaratu zen. Zegamari buruzko gida turistikoa "herriko merkataria eta enpresen laguntzari esker."

ZEGAMAREN PROMOZIO DIRULAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak, urtero, Turismoa Sustatzeko eta Merkaturatzeko Zuzendaritzatik dirulaguntzak bideratzen ditu, tokian tokiko turismo sustapena egiteko. Programa horren barnean, "Euskadi Atsegina Handiz" lemapean

Udalak, urteko feria eta kirol ekimenen foiletokak egiteko dirulaguntza eskatzen du eta 2008rako, urriaren 14ko Ebazpenaren arabera, 5.222,12 €tako laguntza onartu zaigu Departamentu horretatik Zegamaren sustapen turistikora bideratzeko.

22 APARKALEKU AITXURI HERRI ESKOLAKO EREMUAN

Eskolako sarrera eta irteeran orduetan Aitxuri Herri Eskolaren aurrera kotxe kopuru ugari gerturatzen zen, eskolaurrak hartu edo uztera. Kotxeak bi norabideetatik sartzeko modua zegoenez, oztopo ugari sortzen zen, batzuk gora eta besteak behera egin nahian. Hori dela eta, Aitxuri Herri Eskolaren alderdian aurretik pasatzen den bideari norabide bakarria eman zaio, hain zuzen ere, Olaberri aldera joateko norabidea. Ondorioz, Eskolaren alderdian 22 aparkaleku sortu dira eta eskolaurrak hartu edo uzterakoan, kotxeak egoki eta arriskurik gabe uzteko modua jarri da.



Aitxuri Herri Eskolaren ondoan 22 aparkaleku berri

ZEGAMAKO EGUR PAISAIETAKO- Baso-Ekosistemen Iraunkortasuna Bermatzeko Proiektua

2007ko deialdian, Zegamako Udalak "Zegamako Egur Paisaietako Basoen Ekosistemen Iraunkortasuna bermatu eta hedatzea" izenburuko 579.401,96 €tako proiektua sartu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailean, bioaniztasunaren ildoaren barnean, eta 2008ko urtarrilaren 22ko Ebazpenaren bidez, Zegamako Udalari, 399.588,00 ko dirulaguntza onartu zitzaion.

Proiektuaren nondik norakoa

Zegamarrek azken urteotan herriko hainbat ondare berreskuratzeko egindako ahaleginari esker makina bat elementu atondu eta abian jarri dira. Horien artean Andueza Egur Museoa eta bertatik bideratzen diren hainbat ekintza dira adibide argienak. Bertan 173 zuhaitz eta zuhaixka mota ezberdinen enborrak, hostoak, fruituak... daude ikusgai eta kanpo aldean berriz arbola bilduma zabal bat.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren izendatzeak, herriko natur guneen iraupenena bermatzeko eta gure etorkizuna jorratzeko bide berriak zabaldu ditu. Aukera hauen jabe, Zegamarrok eta gure arbasoek inguru honetako balio naturala zaintzen egindako lanaz eta Aizkorrik Zegaman duen indarrak jabeturik, Zegamako udalak Egur Museo eta Interpretazio Zentroko edukia Aizkorriko basoetara zabaldu nahi du ondoren azalduko den bezala. Honela, gureak diren Aizkorriko natur paraje hauek, zegamarrei eta Zegamara eta Goierriara hurbiltzen diren turista eta bisitari gero eta ugariagoari, ibilbide tematiko batzuen bidez erakutsiko zaie.

2008. urte honetan abian jarri den ekimena Anduetatik abiatu eta Aizkorri-Aratz Parke Naturean barrena murgiltzen den ibilbide tematiko sorta bat antolatzean datza. Ibilbide hauetan natur ekosistema ezberdinak erakutsiko dira non hauen funtzionamendua, izaera eta egoera esplikatzen azalpen-panel batzuen bidez gune ezberdinak antolatu diren. Ibilbidea, norberak bere erara egokitzen den luzerara eta abiapuntu ezberdinetatik antolatzeko aukera izango du. Honetarako lau gune nagusi edo abiapuntu prestatu dira: Egur Museoa, Murgizelai, RENFE Geralekua edo San Pedro Eskolak. Gune hauetan panel nagusi bat jarri da.

Ibilbidean zehar azalpen-panel batzuk jarri dira. Hauetan hainbat gai landu dira eta bakoitza hiru ardatz nagusitan banatu da: gune horretako natura, bertako arbola eta abarren identifikazioa eta gune horren ikuspegi kulturala edo nondik norakoa. Hona hemen landu diren panelen izenburuak:

1. Lizardiak: sarotako eguzki-galda eta gose babes

2. Ameztia zegamarren baso kuttun
3. Pagadiak: baso-gizonen ezagutzaren testigu
4. Haritzia: zur ondasun
5. Gaztainadiak: giza elikagai, animalien pentsu eta egur preziatu
6. Koniferoen basoak: XX. Mendeko paisaia
7. Belardi edo larreak: gizakiak garatutako paisaia baten testigu
8. Garo-lekuak: inaurkina soroan artoa mandioan
9. Heze gune eta haltzadiak barrendik gora nonahi
10. Basoetako gerri-txoria arbolen azal jorratzailea
11. Oria ibaiadarra bisoi europarraren ezkutaleku
12. Hegazti migratzaileen pasabide: uso, antzar edo kurrilo
13. Erle beltzaren gotorleku
14. Gesal iturburuak: aparteko ekosistema baten hondar
15. Haitz gorri: formazio karstikoa
16. Errege bidea eta Donejakue bidea Zegaman barrena
17. Karobiak: "porlan eta pestizida" ekoizle
18. Aizkorri ur emari
19. Norteko ferrokarrila Aizkorri 13 zatitan banatuz
20. Ehiztari eta perretxiko zaleen biltoki

Ibilbidea, aipatutako lau gune nagusiak barneratuz honako eran antolatu da:

Ibilbide nagusia Andueza Egur Museotik abiatuko da eta norberak lau luzera ezberdinetan antolatzeko aukera izango du:

1. Andueza – Murgizelai – Altiturri Azpikoa 1 – Andueza

1 2 tramuarekin eransteko aukera izango da

2. Andueza – Murgizelai – Altiturri Azpikoa – Altiturri Garakoa – Arrieta Handi – Gorosporta – Iraikorta1 – Renfe – Lurpilloeta – Ospitalaundi – Etxezuri – Altiturri Garakoa – Altiturri Azpikoa – Andueza

2 3 tramuarekin eransteko aukera izango da

3. Andueza – Murgizelai – Altiturri Azpikoa – Arrieta Handi – Gorosporta – Iraikorta – Soroaundi – Labeta – Aztibai – kanala – Iturbietak3 – Txarakorta – Baratzatxo – Lurpilloeta – Ospitalaundi – Etxezuri – Altiturri Garakoa – Altiturri Azpikoa – Andueza

3 4 tramuarekin eransteko aukera izango da

4. Andueza – Murgizelai – Altiturri Azpikoa – Arrieta Handi – Gorosporta – Iraikorta – Soroaundi – Labeta – Aztibai – kanala – Iturbietak4 – Liñazasorotxo – Pagalinda – Donejakue bidetik Anduezara (Buenabista – Irutxueta – Galtzadamakur – Idiakaitzaldea – Zegama – Andueza)

4 Errege bidea edo Donejakue bidearekin eransteko aukera izango da (San Adrian – Santi espiritu)

Beste gunetatik ere ibilbidea egiteko aukera izango da edonoren aukeretara zabalduz.



Pagomotzak ugari dira gure paisaian



Bideak garbitu eta zabaldu dira eta zubi berria ere eraiki da

Gune hauetan panel nagusi bat eta aparkalekua egokituko dira.

- RENFE geralekua: bertan autoa eta autobusa utzi eta kanaleko tramua egin ahal izango da

- San Pedro eskola aurrealdean autoa utzi eta bertatik San Pedro ermitatik barrena, Irutxueta alderako ibilbidea edo Donejakue bidea hartu ahal izango da.

Ibilbide guzti hauen kudeaketa Egur Museotik zuzenduko da, bertan edonork informazioa jasotzeko aukera duenak: planoak, luzerak, ibilbide aukeraketa, eta abar. GPS gailuarekin ere ibilbidea egin ahal izango da, museoan bertan ibilbidearen mapa edo trak-ak GPS gailura kargatuz.

Ibilbide tematiko honekin batera Zegaman abian zeuden Ibilbide laburreko bidezidorrak ere barneratu dira eta hauen seinaleztapena errebisatu da.

BURUTUTAKO LANAK

a/ Anduza Egur Museo aurrealdeko arbola-bilduma indartu da, bertan Lizardia, Pagadia eta Harizti bat osatu direlarik.

b/ Andueza eta Murgizelai eta Zupurruti eta Murgizelai lotzen dituen bideak berriro dira.

c/ Mendian barneratzen diren ibilbideko bideak ere garbitu, urak bideratu eta pasabideak jarri dira.

d/ Kanalean pasabidea galarazi edo zailtzen zuten lekuetan parrilla jarri da.

e/ Hainbat langa txukundu dira.

f/ Guztira 4 panel nagusi, 20 azalpen panel, 80 norabide baliza eta 38 seinale jarri dira.

Lan guzti hauek burutzeko inguruko hainbat lan-talderen zerbitzuak kontratatu dira:

Panelak diseinatzeko, ibilbidea egokitzeko, sastrakak garbitzeko, seinalek jartzeko eta abar. Ibilbidea, abenduan amaitutzat emango da eta honen berri ematen duen informazio foiletokak etxetara bidaliko dira.



Ibilbide seinaleztatu berriaren planoak



Olioa biltzeko edukinontzia

SUKALDEKO OLIOA BILTZEKO EDUKINONTZIA

Birziklaketa gero eta indar handiagoa hartzen ari da gure gizartean, dagoeneko, eta aurten gure Udalerriari beste edukinontzi berri bat jarri da, sukaldeko olio biltzeko edukinontzia hain zuzen ere. Era honetara erroka duen edozein ontzitan erabiltako sukaldeko olio biltzeko edukinontzia bertan botatzeko aukera dugu edozein egun eta orduan.

BOST LIBURU EURO BATEN TRUKE

Era horretara "banatu" edota saldu zituen Udalak, Udaletxeko ganbara eta udal liburutegian aspaldiko urtetan pilatuta zeuden liburu pila. Baratz enpresarekin katalogazio eta garbiketa lanak 2007. urtean zehar egin ondoren, errepikatutako liburu edota urteetan erabili gabeko liburuei irteera emateko, liburu feria antolatu zuen Udalak otsailaren 16an



Liburu azokan jende ugari ibili zen

arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara eta otsailaren 17an, goizez 11:00etatik 14:00etara. Feriak harrera oso ona izan zuen herritarren artean eta, esan ia liburu denak izan zutela estimazioa.

LAN POLTSA UDALETXERAKO

Udalean, langileren batek baja hartu, lan pilaketa sortu edota legezko oporraldietarako ordezkapenak egiteko, askotan, langile beharra sortu ohi da.

Bajako kasuan, egun batetik besterako ordezkapenak izaten dira eta, langileak hartzeko aukera bakarria INEMeko bulegoetara jotzea izaten da. Honek, prozedura luzatzen du eta udalaren funtzionamendurako ez da hobereena izaten. Honela, aurtengo udarako opor ordezkapenak eta langile baten baja ordezkapena egiteko langile beharrean gertatuenez Udala, presakako izaeraz, lan poltsa bat egiteko oinarriak onartu zituen uztailearen

21eko Udalbatzarraren bilkuran, aldibaterako kontratazioak bideratzeko aurrerantzean.

Lan poltsaren azterketak, LKS enpresak egin zituen eta ondorioz udalean ordezkapenak egiteko zerrenda horretatik jarraituko da hurrenez-hurren.

AITAMARRENGO URBANIZAZIO BERRIAK BEHIN BETIKOZ JASOTZEA

Udalak, urriaren 13ko ohiko Udalbatzarraren bilkuran, Zegamako 9. Eremuko (Aitamarren) 9.1. H.E.U.ren urbanizazioa eta 9. Eremuko Oria gaineko zubia behin betikoz jasotzea onartzea erabaki zuen ondorioz Aitamarrengo urbanizaziori dagokionean Gailur Berri S.L. eta zubiari dagokionean (Txarape eta Aitamarren lotzen dituen zubi berria) Sestra S.L. eta Gailur Berri S.L.ekin behin-betiko harrera aktak sinatzea.

GIZARTE LAGUNTZAILEA

lanaldi osoan



Begoña Olarte Garmendiak, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako langileak, bere lanaldia % 100 gizarte zerbitzuetara jartzeko eskaera egin zien, lan egiten duen lau Udalerriei, Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloa; eskaera bere lan zama lau herrietan, azken urteotan igo delako bideratu du besteak beste, gizarte zerbitzuek, gero eta zerbitzu gehiago ematen dizkielako herritarrei eta gero eta izapide eta pertsona gehiago atenditzen direlako. Begoñak, lanaldiaren % 75^a gizarte langile bezala betetzen zuen lau Udaletxe hauetan eta % 25^a, liburutegizain bezala Zegamako Udaletxean. Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako udal ordezkariek hainbat bilera egin ondoren, eta ordutegi eta herri bakoitzeko lanaldiaren ehunekoa adostu ondoren, uztailearen 29ko Udalbatzarrak, ahabatasunez, Gizarte Laguntzaile zerbitzuak betetzen dituen Begoña Olarteri, aurkeztutako idatzia edo eskaera onartu eta

horren arabera urriaren 1etik aurrera, bere lanaldia % 100era igotzea erabaki zuen. Ondorioz, udal bakoitzak, proportzionalki, dagokion hitzarmena egitea erabaki zen eta Zegamari dagokionean, lanaldiaren % 43,99 beteko du. Hona hemen urriaren 1etik aurrera Zegaman duen ordutegia:

Asteleheneretan: 8.00etatik 13.30etara eta 15.00etatik 17.30etara

Astearte eta ostegunetan: 8.00etatik 12.00etara

UDAL LIBURUTEGIAN ORDEZKAPENA

Begoña Olartek Udal Gizarte Laguntzaileak, bere liburutegizain lanpostua utzi ondoren, bertako zerbitzuak betetzeko, udal lan-poltsan zerrendan lehenengo zegoen pertsonari, Ainitze Azurmendi Alustizari hain zuzen ere deitu zitzaion hutsik geratutako lanpostua aldibaterako betetzeko.

SEU D'URGELLERA

Bisita



Seu D'Urgellen Pirineotako gazten txapelketa egiten da urtero. Aurten urriaren 18-19an izan zen txapelketa hau eta Zegamako udaleko ordezkariak gonbidatuak izan ginen, Idiazabal eta Ordiziakoekin batera ferian parte hartzera. Aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo eta Kanpo Ekintza Departamentuarekin batera, Gipuzkoako mahaian partehartze aktiboa izan genuen aurrean aipaturako hiru Udalerriek, izan ere, txalapartari, dantzari eta txistulariak eraman baikenituen Gipuzkoako izaera erakusteko. Bertan izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Diputatuak den Iñaki Galdos eta Kanpo Harremanetarako eta Turismoko Zuzendari Nagusia den Agustin Arostegi.

Albert Batalla alkatea eta dantzari eta txistulariak



HERRIKO MUGARRIA SARTZEN

Apirilaren 10ean, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoko ordezkariak eta Zegamako Udaleko ordezkariak, bi erakunderen lur barrutiak mugatzen dituen mugarría ordezkatu zuten. Azken elurtean, elurra kentzeko makinak, mugarría hautsi zuenez, aurrekoa kendu eta berri bat sartu zen bere tokian.

ZUHAITZ EGUNA

Urtero bezala, aurten ere, Zuhaitz Eguna antolatu da Udala eta Aitxuri Herri Eskolaren artean. Jose Ramon Agirre, Udal ordezkaria izan zen zeregin hauetan Aitxuri Herri Eskolako haurrak gidatzen.



Herriko mugarría sartzten

Aitxuri Herri Eskolako haurrak landaketak egiteko prest



Santiago Bidea lokatzez beterik

NORTEKO TRENBIDEA

Uztailaren 21eko Udalbatzarrak, Pello Jose Aramburu eta Luis Mari Inzak idatzitako "Norteko Trenbidearen Eraikuntza Ebaluaketa eta Ondorioak Gipuzkoan" liburuaren 50 ale erostea erabaki zuen, honetarako 500,00 € bideratuz. Bestalde beste 300,00 €tako dirulaguntza onartu zen, inprimaketa gastuetarako.

Edozein herritarrek erosi nahi badu Udaletxean du aukera.



Norteko Trenbidearen Eraikuntza Ebaluaketa eta Ondorioak Gipuzkoan liburuia

SANTIAGO BIDEA EDO DONE JAKUE BIDEA KONPONTZEA

Zegamako Udalerritik Done Jaque bidea igarotzen da eta, Buenavistatik gora doan eremuan, hainbat tokitan egoera txarrean dagoenez, Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailera, dirulaguntza eskaera bideratu zuen egoera txarrean dagoen trazadura konpontzeko. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, 32.565,00 €tako dirulaguntza onartu dio Udalari, 2008ko urriaren 27ko ebazpenean jasoz. Konponketalanak, abenduaren 31 aurretik egingo dira. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak ere, beste 1.290,00 €ko laguntza eman du zeregin honetarako.

ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIAREN KITAPENA ONARTZEA

Urriaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak, ahobatsunez, maiatzaren 25ean ospatu zen Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren kitapena onartzea erabaki zuen. Guztira 8.376,59 € kostatu zaio aurten Udalari Zegama-Aizkorri mendi maratoia antolatzea.

KIROLDEGIAN SEGURTASUN NEURRIAK

Behin baino gehiagotan entzun da, kiroldegietan futbitoko porteria

haurren baten gainera erori eta ezbeharren bat gertatu izana. Horrela, Zegamako kiroldegian dauden porteriak ere egonkortzeko erabakia hartu zuen Udalak eta, atzealdetik kable baten bidez lotuta jarri dira irauli ez daitezen.



Porteria iraultzeko modurik ez dago

ZEGAMAKO HERRIA SARITUA

Euskal Mendizale Federazioak, urtean zehar gehien nabarmendu diren pertsona edo erakundeei ematen dizkien sarietan, 2007ko urteari dagokion saria, Zegamako Udala eta aldi berean Zegama herria saritzea erabaki zuen. Sari banaketa, Iruñeako Planetarioan gauzatu zen 2008ko otsailaren 15ean Anaitasuna Elkarteak antolatuta, Euskal Mendizale Federazioaren XII. Galaren barnean. Saria, Udala eta herriaren izenean, Edurne Albizu alkateak jaso zuen. Sari banaketa ekitaldian, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia mailarik gorenean gautzatzeko, ezinbestekoak ziren osagaiak azpimarratu ziren. Herritarren laguntza, erakunde eta enpresen dirulaguntzak, ikuslego aparta eta korrikalari leialak.



GIZARTE GAIETARAKO LAGUNTZA

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailak, Zegamako Udalari 10.190,87 €etako dirulaguntza eman dio Zegama, Segura, Mutiloa eta Zeraingo Udaletan Gizarte Ongizateko zerbitzuak garatzeko. Zegamako Udalak, lau Udalerrien izenean eskatuko laguntza izanik, lau Udalerrietan, lan egingo duen gizarte laguntzaile bat kontratatuzko erabaki hartu zuen apirilaren 28ko Tokiko Gobernu Batzordean, % 50eko lanaldian, ondorioz, Josune Aldasoro segurarra, kontratatuz zeregin honetarako, maiatzaren 1etik abenduaren 31ra.



Euskal Mendizale Federazioak Zegamako herriari emandako saria



IGERILEKUKO TABERNA LEGEZTATUA

Igerilekuen tabernak ere, dagokion legeak bete beharra dituzenez, Udalak, IGOKA espedientearen izapidetu ondoren ekainaren 9ko Gobernu Batzarrak, tabernaren jardura irekitzeko baimena onartu zuen. Era honetara, igerileku eta tabernaren utsiaketa lana hartzen duenak, legeztatutako azpiegiturak izango ditu eskuartean.

IRISGARRITASUN PLANA OSATZEA

Udalerriko Irigarritasun Plana, azken urteotan burutu egin da ia neurri handi batean. Gaur egun, gurgildun aulkian Zegamako herriguneari ibiltzea posible da, egin diren irisgarritasun inbertsio garrantzitsuak direla medio.

Udalbatzarrak urriaren 13ko bilkuran, Irigarritasun Planaren barnean, kiroldegi ondotik, San Bartolome auzora, igogailu bat barneratzeko egitasmoa sartzeari erabaki zuen. Ondorioz, erakunde ezberdinetatik, egindako dirulaguntza deialdietara, proiektu hau aurkezteko moduan izango du Udalak.

ZEGAMAKO UDAL ARTXIBOA EGUNERATUTA

Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresari, 2007ko martxoaren 5eko Gobernu Batzarrak, Zegamako udal artxiboa eguneratzeko lana esleitu zion. 2008ko apirilaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Ereiten Kultur Zerbitzuei, hitzarmena zabaltzea erabaki zuen eta, artxibatutako geratu diren idazkari-kontuhartzailearen espedienteak bukatu dituzten beste 3.927,32 €tako diru partida ezartzea. Falta den lana, beste 180 ordutan amaitzea aurreikusten du Ereiten Kultur Zerbitzu enpresak.

Kiroldegi ondotik San Bartolome auzora igogailu bat jartzeko egitasmoa dago

MARKEL OLANO diputatu nagusiaren bisita zegamara



Markel Olanok zegoan pleno aretoan

Uztailaren 10ean, Zegaman, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia den Markel Olanok Arreseren bisita jaso genuen.

Zegamako Udal ordezkariok Udaletxe aurrean egin genion harrera eta kasu honetan, herriko zinegotzia eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuaren Diputatu den Carlos Ormazabalekin batera etorri zen kotxean. Udaletxe aurrean ongietorria eman ondoren, Udaletxeko Batzar Aretoan egin genuen bilera.

Bertan, Zegama Udalerriaren berri eman genion, bere izaera ezagutzera emanaz batez ere. Bestalde, eskuartean ditugun arazo eta proiektuen berri zuzena jaso ahal izan zuen; besteak beste, Zegamak Aizkorri-Aratz Parke Naturalarekin duen harreman estuaren berri eman genion, azpimarkatuz gure herriaren erronka garrantzitsuenak Aizkorri-Aratz Parke Naturalari lotuta dauden ekimenak direla.

Ondoren, Anduetza Egur Museoa eta San Bartolome Ermita bisitatu genituen, bertatik, Aizkorrirako bista ederraz gozatzeko modua izanez.

Ondoren, herriko Ostaturun bazkari bat emanaz agurtu genuen.



Markel Olanok Anduetzako Egur Museoa ezagutu zuen

18/98 PROZESUKO EPAIAREN GAITZESPEN MOZIOA

Urtarrilaren 21eko Udalbatzarrak, Inma Berriozabal herritarren atxiloketa zela aurkeztutako bi mozioetatik (bata ANV alderdiarena eta beste Zegama Lantzen alderdiarena), ondorengo mozioa onartu zuen:

“Gaur goizean, Zegaman Inma Berriozabalen atxiloketaren aurrean, Zegama Lantzen Udal Taldekideok honako adierazpen hau aurkezten dugu bere onarpenerako:

1.- 18/98 prozesuko epaia gaitzesten dugu, praktikan demokrazian oinarritutakoak diren eskubideak eta askatasunak urratzea suposatzen baitu, hala nola askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna edota elkartzeko eta parte hartzeko askatasuna.

2.- Adierazten dugu gatazka politikoak bakarrik giza-eskubide guztien erabateko errespetuaren bidez, bizitza eskubidetik hasita, eta soilik elkarrizketa demokratikoaren bitartez konpon daitezkeela.

3.- Berresten dugu egun Euskal Herria eta espainiar Estatuaren arteko gatazkaren konponbidea herritarrek demokratikoki ordezkatzeko dituzten indar politikoaren arteko elkarrizketaren eta negoziazioaren eskutik iritsiko dela.

4.- Elkartasuna adierazten diegu modu baketsuan eta demokratikoki Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duten eta horregatik bidegabeki zigortuak izan diren guztiei.

5.- Herritar guztiei dei egiten die, norbanakoen eskubideak erabiliz, modu baketsuan eta demokratikoki lanean jarraitzea, normalizazio politikoa eta Euskal Herri askea eta bakean lortzeko.”

GI-2637 ZABALTZE LANAK

aurrera doaz

Diputatuen Kontseilauk 2007ko maiatzaren 22an GI-2637 errepidea Seguratik Zegamaraino (Kortaberriko bidegurutzeraino) zabaldu eta hobetzeko proiektua onartu zuen. Honela, obrak kontratatzeko espedienteak, 4.889.604,93 €-ko lizatazioko oinarriko aurrekontuarekin eta obrak egiteko hamabi hilabeteko epea ezarrita atera zuen.

Lizitazio tramitea kegin ondoren eta aurkeztutako proposamenak aztertu eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak Construcciones Donosti S.A eta Urbanizaciones Iruña S.A. enpresek osatu beharreko aldi baterako enpresa batasunak aurkeztutako proposamena 4.047.025,01 €-ko prezioduna eta hamar hilabeteko epea duenari esleitzea erabaki zuen.

Obra honen helburua, egungo errepidea zabaltzea da; besteak beste 3 metrotako zabalera duten bi karril egingo dira eta albo bakoitzean beste metro banako artzenak. Gainera, desmontea egiten den alderdian, hau da mendi alboan beste metro beteko kuneta ere ezarriko da.

Zeraingo bidegurutzetik hasi eta Kortaberriko bidegurutzeraino hiru errotonda egingo dira. Bat Zeraingo bidegurutzean, bi karrilekoa, bigarrena Agerre edo Ermasoroko bidegurutzean eta azkena Kortaberriko bidegurutzean.

Obrak maiatzaren 21ean hasi ziren eta exekuzio epea 10 hilabetekoa dute aurreikusita.

Kortaberriko bidegurutzetik Zegamara:

Kortaberriko bidegurutzetik Zegamaraino bidea zabaltzeko proiektua idaztearen esleipena ere egina du Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, hain zuzen ere Gain enpresari eta, proiektua 2009an onartua izatea aurreikusten da. Ondorioz, bigarren fase honen obrak ere 2009an hasiko dira.

BIDEGORRIA BADATOR

2007ko abenduaren 12ko Garapen Iraunkorreko Diputatuaren Agindu Foralaren bidez, Zeraingo bidegurutzetik Kortaberriko bidegurutzerainoko bidegorriaren proiektua idazteko izapideak hastea erabaki zen.

2008ko apirilaren 29ko Diputatuen Kontseiluak GI- 2637 errepidean, Zeraingo elkargunetik Segurako Kortaberria auzoko sarrera artean

bizikleta eta oinezkoentzat bide zatia egiteko proiektua onartzea erabaki zuen, obra hau herri onurako deklaratu.

Azkenik, azaroaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denez, obra hauen esleipena Construcciones Donosti S.A. eta Urbanizaciones Iruña S.A. enpresek osatuko duten Aldi Baterako Enpresa batasunari esleitzea erabaki du 670.413,90 €-tan. Obrak urtarilean hasiko dira.

Azkenik esan, bidegorria, Zegamaraino 2010erako iristea aurreikusten da.

Honek, zegamarroi ekarriko digun onura begibistikoa da, izan ere, Zegama kokatua dagoen eremuak, irteera guztiak hain aldapatsua izanik, bidegorria exekutututakoan, oinezkoentzat ibilbide egoki, seguru eta erakargarri bat herritar guztion eskura jarriko baita.

Kortaberriko bidegurutzean errotonda egiteko lanak hasiak dira



Kortaberri auzoko bidegurutzetik Segura aldera ateratako argazkia lanak hasi aurretik



Argazkian ikus daiteke bidegorria nondik joango den


INTXAUSTIKO ERROTA eta Udalerria balioan



2007an Zegamako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari dirulaguntza eskatu zion, Intxaustin dagoen buztin errotaren alboan azalpen panel bat jartzeko eta baita Udalerrian ere, Zegamako gure interesgarrien bilduma egiten duen panel bat jartzeko. Eusko Jaurlaritzako, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, gai honetarako 2.341,05 €tako dirulaguntza eman dio Udalari. Panelak egitearen lana Artelatz enpresari esleitu zitzaion 2007ko maiatzaren 7ko Udalbatzarrean, hauen kostua kostua, 5.148,00 €takoa izanez (BEZ barne).

ESKOLAKO PATIO HANDIA, HERRITAR GUZTIENTZAT JOLAS ETA KIROL EREMU BERRIA

Udalerrian, udal kiroldegia da, kirola egiteko herritarrek erabiltzen duten eremu erabiliena. Bai haurrak, gaztetxoak eta gazte nahiz edadetuek ere eremu bakarra konpartitu beharrean gertzen ziren, askotan, bi erabilera ezberdin emateko zailtasunak izanez. Ondorioz, Udalak, Aitxuri Herri Eskolako patio handia, eskola orduz kanpo, herritarren zerbitzura jarri asmoz, 2008ko apirilaren 28 Gobernu Batzordeak, Itsasgama S.L.ri 9.191,24 €tan (BEZ barne) esleitu zion, Aitxuri Herri Eskolako patio handiko leihotako babesak egitearen lana eta baita zulo eta gimnasia doan pasadizoan langa bat jartzearen lana. Lanak, ekainaren azken astean eta uztaillaren lehen hastean bukatu ziren eta harrez gero, herritarrek kirola egiteko eremu bat gehigo dute herrigunean. Astegunetan, eskolako irakasleek uzten dute patio zabalik eta iluntzean kiroldegiarekin batera, kiroldegia eta kultur etxea isteko arduraduna den Martxeli Berasategik egiten du lan hau. Asteburuetan, ere, kiroldegiko arduradunaren esku dago goizetan ireki eta iluntzetan istea; era honetara eta diru gutxiren truke, herritarrok espazio interesgarri bat gehiago dugu kirola egiteko.



Aitxuri Herri Eskolako patioa herritar guztien zerbitzura

UDAL BASOETAN

inbertsioak

Azken urteetan egin ohi dugun bezala, bukatzeaz dugun 2008 urte honetan ere, egin diren lanak eta hauek burutzeak ekarri duen inbertsioaren xehetasunak ematea du helburu txosten honek.

Horrela, eta besteetan bezala, lan arlo ezberdinetan sailkatuko da txosten hau, bakoitzean zer egin den eta zer inbertsio suposatzen duen azalduz.

1.- Landaketa berriak eta falta berritzeak

Aurtengoan "TRINTZELAIETA" sailean egin zen aldaketan sortu diren landare faltak osatzeko lanak burutu dira. Sailaren azalera 1,90 hektareakoa da, eta 1.800 landare berri sartu dira.

GUZTIRA 1.835,01 €

2.- Aldaketa gazteetan zakarrak jotze lanak. Beste baso lan batzuk

- TRINTZELAIETA, OLATZA, ALDABIDE, ARMUÑOETA eta TXERMATXO, sailetan egin dira aurtengo udarako garbitze lanak, guztira 26,90 ha-ko azalera (3,90 ha errenkadan eta beste 23 ha erabat) 14.637,78 €

- Aurten ez da egokitu beste sail batzutan kimaketa edo antzeko lanik egiterik.

GUZTIRA 14.637,78 €

3.- Basoko bideetan egindako lanak

- AZTIO-SAADER inguruko mendi sailean luizua konpontze lanak egin dira, lurra atera eta ondoren harri handiz osatutako eskoilera muntatuz.

- AZTIO-SAADER inguru horretan ere, bertako hainbat bide zati konpondu beharra izan da, basoa atera heinean, han eta hemen zulo galantak sortu direlako. Horretarako, harrobiko materiala eraman eta zabaldu da, baita ere hartarako aproposak diren makinekin bideak

berdindu eta garraiatutako harriak zabaldu eta zapaldu ere.

GUZTIRA 10.255,83 €

INBERTSIOEN ERRESUMENA

Aurreko ataletan ikus daitekeena batuz gero, aurtengo urtean H.O. 2.025.1 zenbaki dun "ZEGAMAKOMENDIA" mendian egindako inbertsioen kopurua 26.728,62 € izan dela esan behar da.

Hauetan nagusia, baso hobekuntzetan gastatutakoa litzateke, aurtengo kasuan, udarako garbiketetan joan diren 14.637,78 €, alegia.

Bigarren atala baso bideetan erabilitako kopuruak beteko luke, beste hainbat urteetan ez bezala, aurtengoan bigarren mailara etorri delarik. Ekintza hauetan erabilitako diru kopurua 10.255,83 € izan da.

Azkenik, baso aldaketetan sortu diren faltak osatzen erabilitakoa legoke, eta sail koxkor batean bakarrik aritu beharra izan denez, erabilitako diru kopurua ere neurtua izan da, guztira 1.835,01 €.

AZKEN AZALPENAK

Hemen esan behar da, iazko txostenean esandakoak gogora badakarzkigu behintzat, AZTIO eta SAADER inguruko sailetan bakanketak aurreratuta jotzen zirela ordurako, eta horrez kanpo, urte azkenerako edo pentsatzen zela guztiz bukatuko zirela lanak eta ondorioz, ordurako zegokion diru banaketa ere egiteko aukera izango ote zen.

Gaur berriz, zera esan behar da, alegia, usteak erdia baino gehiago ustel suertatu zirela, eta hainbat arazo tarteko izan direlarik, egun bi bakanketa horietatik bat dagoela erabat bukatuta eta likidatzeko moduan, eta bestea berriz, moztu beharrekoak moztuta bai, baino menditik oraindik ateratzeko 500 bat estereo

edo badaudela, noiz giroa egokituko, eta orduan, handik ateratzeko kamiorik izango ote denaren zain.

Horrela, bukatuta dagoen bakanketaren likidazioa eta diru banaketa urte honen amaierarako egin litekeela esan behar dut, eta besteara berriz, menditik egurrak atera eta kamioietan neurtu ordurako egingo dela.

Aipatu behar dut ere, TXERMATXO alboan dagoen ARAKAMA HAITZGAINA saileko piñudi gazteari, zakarrak jo eta lehen kimaketa egiteko asmoa dugula, jakinik etorkizunean kalitatezko egurra ekoiztu behar bada, bere garaian kimaketak burutzea ezinbesteko lana dela.

Baso bakanketa lanei dagokionean berriz, zera esan behar dut, alegia, azken garai honetan lehen saila bakandu zen ARRANOAITZ-en 2009an sartzeko asmoa dela, egur merkatuaren egoera ezagutu arren, eta hartarako jenderik badugu behintzat.

Lan horietan sartu aurretik, han eta hemen denborarekin eta erabilerarekin, bideetan hausteak eta akatsak sortu direnez, konpontze lanak egiteko asmorik ere badugu.

Txosten hau ezin bukatu lur trukaketak aipatu gabe. Bere egunean, aspaldi jada, eta hainbat kostatuta zenbait kasutan gainera, azken bultzada eman eta guztia bukatzeko neronen haitzakitan dago. Paperak gainean eduki arren, beti beste zerbait aurrera jartzen dut, eta ez zaie iristen egunik, heldu eta behingoz bukatzeko, niretzako lanik txarrenak lehen egindakoak ditudala jakin arren. Ahalegin bat egingo dudala besterik ezin dut esan, datorren urteko txostenean, guztiak bukatuta eta notario aurrean eskriturak sinatuta eta dena eginda dagoela esan dezadan.

Bixente Dorronsoro (Gipuzkoako Foru Aldundiko Basozaintza 1. Ataleko Burua)




ZEGAMAKO

Euskara Plana 2008

Zegamako Udalak herrian euskararen erabilera handitzeko ekintzak aspaldi martxan jarri bazituen ere, 2007an herriko sektore ezberdinen diagnostikoa egiten aritu ginen iazko urtekarian azaldu genizuen bezala. Herriko eragile ezberdinekin elkartu ginen eta beraien egoera, inpresioak, euskararekiko jarrera... bildu genituen. Enpresak bisitatu genituen, merkatariekin egon ginen, eskolako irakasleekin... Aurten, elkarte gastronomikoekin eta kirol elkarteekin ere egon gara, besteak beste.

Diagnostikoa osatuta, aurtengoan ekintzak egiteari ekin diogu eta urtean zehar aurrera pausoak eman ditugu, nahiz eta gauzatxo batzuk oraindik bukatu gabe dauden. Artikulu honetan, 2008an zehar egindako ekintza horien berri emango dizuegu:



EUSKARA PLANAREN LOGOA

Euskara plana herriratzea aurtengo erronka nagusienetakoa izan da eta horretarako zer hobeto, euskara planaren logotipo bat sortzea baino. Leire Igoa herritarrak irudi mordoxka bat egin zizkigun eta hemen ikusten duzuen hauxe da guztien artean aukeratutakoa. Hemendik aurrera irudi hau ikusten duzuen bakoitzean euskara planetik ateratako gauzak direla esan nahiko du. Seguru dagoeneko nonbait ikusi duzuela!

MERKATARIENTZAT ORDUTEGIA ETA FORMAZIO SAIOA

Dendako atera iritsi eta euskarazko ordutegia aurkitzeak harritu ere egin gaitu

ezta? Zegama bezalako herri euskaldun batean zer gutxiago! Herriaren irudian eragin handia dauka eta gainera euskaraz elkar komunikatzen laguntzen du. Ordutegi hauekin, merkatariek ze ordutatik ze ordutara irekitzen duten denda irakurri dezakegu, euskaraz.



Horrez gain, diagnostikoa zera ikusi genuen: dendari batzuk zailtasunak dituztela euskaraz ohar motzak eta halakoak idazteko. Horregatik, azaroan bi formazio saio antolatu ditugu eta helburua oso sinplea izan da: euskaraz idazteko oinarriko gauzak ikastea (atean idazteko oharra, datak, orduak, apaletan jartzeko gauzak...). Eta baita ikasi ere! Ze ikasle finak! Oso ongi atera da eta etorritako merkatariei zorionak eman nahi dizkiegu, asko saiatu direlako eta euskarari tarte bat eskaini diotelako. Zer pozgarriago, herri euskaldun batean dendariak euskararekiko halako apustua egitea baino. Bejon degizuela!

ENPRENTZAKO ITZULPEN ZERBITZUA

Zegamako enpresek ia paper guztiak erdaraz dituztela ikusita, paper garrantzitsuenetakoak euskaratzeko zerbitzua jarri dugu martxan udaletxean. Horrela, Zegaman dauden enpresei fakturak, albaranak eta nominak euskaratuko dizkiegu, beraien eskatuz gero.



ESKOLAN ETORKINEN INGURUKO HITZALDIA

Herri eskolan badute kezka bat irakasleek, azken urteetan etorkinen seme-alaba ugari etorri baita eskolara. Bai irakasleek eta baita bertako umeek ere, nahi gabe gaztelaniara jotzen omen dute hobeto ulertuko digutelakoan, nahiz eta umea errumaniarra izan eta bere hizkuntza bakarrik ezagutu. Horrelako egoeren inguruan hausnartzeko eta pentsatzeko, hitzaldi bat antolatu da azaroan eta irakaskuntzan etorkinen gaia lantzen duen aditu bat ekarri dugu. Irakasleen asistentzia oso ona izan da eta guraso elkarteko ordezkari bat ere etorri da.

Hemendik aurrera, udaletxearen eta eskolaren artean zera landuko dugu: zer egin dezakegun eskolan umeekin eta gurasoekin, euskararen erabilera ez jaisteko edota igotzeko.

FESTETAKO PLASTIKOZKO EDALONTZIAK

Euskara Plana herriratzeko helburuarekin plastikozko edalontziak egin ditugu festetarako. Batzuetan erdaraz hitz egiteko joera daukagunez, euskaraz hitz egitera animatzeko esalditxo bat erantsi diegu edalontzietan, festetan ere euskaraz egin dezagun: "eingo al deuz?... euskaraz barra-barra!"

Tabernariekin hitz egin genuen eta beraien izan dira edalontziak banatzeko



EGA titulua ateratzeko Euskara eskoletara joan diren ikasleak



Euskara ikasten aritu diren ikasle taldea

arduradunak. Koadrila egunean saltsa pixka bat sortu nahi izan da eta guk nahi beste erabili ez badira ere, jendeari zeresana sortu dio.

EUSKARA ESKOLAK

2007-2008 kurtsoan bi talde aritu dira euskara ikasten edo hobetzen Kultur Etxean. Lehen taldean euskara ikasten aritu dira Maizpideko irakasle batekin eta bigarren taldea EGAko titulua ateratzeko aritu da lanean. Denek esfortzu galanta egin duzue eta zorionak lortutako guztiagatik!


Udalak diru laguntza ematen du euskara ikasten aritzeagatik edo EGAko titulua ateratzeko klasean ibiltzeagatik; aurten baldintzak bete dituztenek ere jaso ahal izan dute laguntza hori. Aurten bakarren bat euskaltegian baldin badabil, kurtso bukaeran udaletxetik pasa dadila eta bertan galde dezala diru laguntza jasotzeko zer egin behar den.

HERRITARREK UDALAREKIN EUSKARAZ!

Etxe guztietara esku orri bat bidali dugu, bi gauzari buruzko informazioarekin. Alde batetik, udaletxeak nahi luke herritarrek ahal duten guztietan euskara erabiltzea udaletxearekin. Ahozkoan normalean ez dugu arazorik, baina idatziz askotan ez gara ongi moldatzen. Horregatik zuen eskura jarri ditugu zenbait esaldi eta ohar, udaletxean obra baimenak eta horrelakok eskatu behar dituzuen euskaraz idazteko.

Beste alde batetik, bere abizena euskarazko grafiaz modu ofizial batean idatzi nahi

duenak zer egin behar duen azaldu dugu: "Izaguirre" edo "Urquia" edo "Echeverria" edo "Leizeaga" bezalako abizenak, "Izagirre" "Urkia" "Etxeberria" edota "Leizeaga" nola jarri.



UME JAIOPERRIEN GURASOENTZAT OPARIA

Guraso izan zaretenok eta ingurukoek dagoeneko jakingo duzuenek, herrian ume bat jaiotzen denean gurasoei ipuinez, kantuz eta jolasez betetako liburu bat oparitzen diegu. Betiko jolasak, kantuak eta ipuinak, eta berriak ere bai, erabat euskaraz. Maiatzean hasi gara hori egiten, baina aurretik jaio direnei ere banatu diegu.

Euskarak iraun dezan eta euskaraz bizi gaitezen, oso garrantzitsua da txiki-txikitatik umeari eta umearen aurrean helduek euskaraz egitea eta euskaraz bizitzen erakustea. Horretarako biderik errazena gurasoek umeari euskara transmititzea da, etxean eta kalean euskara transmititzea eta beraien aurrean helduon artean euskaraz hitz egitea. Transmisio horretan laguntzeko dira liburu hau eta bi CD.

UDALETXE BARRUAN ERE, EUSKARAZ

Oraindik hasi besterik ez gara egin, baina udaletxe barruan ditugun hutsuneak konpontzeko ekintzak egiten ari gara. Ordenagailuetako programak euskaratzeari ekin diogu eta horiek erabiltzen laguntzeko, bi hiztegitxo sortu ditugu. Hitz batzuekin zalantza dugunean, hortxe izango ditugu guri laguntzeko!

EUSKARA BATZORDEAN PARTE HARTZEKO GONBITA

Herritarren parte hartzea euskara batzordean handitzeko, interesa duen guztiari gonbita luzatu nahi diogu udaletxean izena emateko. Leihatilan esan euskara batzordean izena eman nahi duzuela eta euskara teknikariari jakinaraziko zaio. Horrez gain, badugu asmoa herriko sektore ezberdinetako jendearekin egoteko, denak ordezkaturata egon daitezen. Animatu eta parte hartu!



ERAIKUNTZAK
Construcciones
PEDRO IPARRAGUIRRE, S.L

¡Gabonak ondo pasa eta
Urte Berri On!



Kale Nagusia, 48 Bajo IDIAZABAL
943 188 008 - 670 588 472

KULTUR Ekimenak

Ondoren aipatzen ditugu urtean zehar izan ditugun kultur ekimenak, 2007ko abendutik 2008ko azarora. Erlezain Egunaren inguruan eta San Martinetako ekitaldiak ez ditugu hemen sartu.

- Abenduaren 27an **Pello Añorga ipuin kontalariak** 2 saio eder eskaini zituen Kultur Etxean. Bata haur txikienentzat (3-5 urte bitartekoak) eta bestea handik aurrerakoentzat. Haurrak hasiera-hasieratik bereganatu zituen Pellok eta arratsalde hotz hartan gozamen ederra izan zuten.
- **“Goierri Kolore Adierazpen Artistikoa” erakusketa** izan genuen otsailaren 11tik 17ra. Migrazio esperientzia bizi duten 12 pertsonen testuz eta argazkiz landuriko adierazpen artistikoa izan zen. Goierriko herrietan batetik bestera ibili izen erakusketa honek Zegaman arrakasta izan zuen. Besteen artean, Iruetxetako Patxi eta Andres Zabaletaren esperientzia hobeto ezagutzeko aukera izan genuen.
- **“Dietak eta sukaldaritza osasungarria”** ikastaroa. Berrogei orduko iraupena zuen eta alde teorikoa eta praktikoa landuz osatu ziren. Cebanc-Cdearen bidez burutzen den ikastaro honetarako 17 ikasletako taldea osatu zen.
- **“Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketa eta ondorioak Gipuzkoan”** II. liburukiaren aurkezpena, hau da, **“Otzaurlgartza”ren aurkezpena** egileen eskutik: Pello Joxe Aranburu eta Luis Mari Inza uztailaren 17an izan zen Kultur Etxeko Areto Nagusian.

Ikus-entzunezkoaren proiektzioak eskaini ditu **Jose Mari Artola Agirretxek** aurtengo urtean zehar. **1936tik 1995era bitarteko Zegamako imajinak eta testigantzak.** Ikus-entzunezkoak uztailaren 18, azaroaren 12 eta 28an bota zituen. Zegamako historiari errepasoa eginez aurreko hamarkadetan herria eta herritarrak nolakoak ziren gogora ekartzen lagundu digu dudarik gabe Jose Mari. Joan zirenak berriz ikusteko aukera, eta gazteak ginenekoak ikusiz. Une gogoangarriak pasa arazi dizkigu. Horrezaz gain, azpimarratzekoa da material guzti honen kopia bat Udalari eman diola, Udal Artxiboan gordetzeko eta herritarren artean banatzeko. Bere jarrerak Zegamari dion maitasuna adierazten du. Mila esker Udala eta herritar guztien izenean.



Migrazioaren esperientzia bizitakoen erakusketa



Pello Añorgak txundituta eduki zituen haurrak




Sukaldaritza ikastaroko ikasleak zati teorikoa eman zuen irakaslearekin

- **“Ogirik gabe etorri zen semea” antzezlana** uztailearen 24an, arratsaldeko 20:00etan Udaletxeko arkupetan eskaini zuen Edurne Agirrezabala aktoreak. Guztiz arrakastatsua gertatu zen Kutxari esker aurrera eraman zen ekintza hau.

- **Egur taila ikastaroa:** apiriletik uztaileira Jabier Arrietaren inguruan bildu ziren hamar ikasle, neska eta mutil. Batzuk urteak daramatzatenak eta etxea beraiek egindako tailaz dotoretzen ari direnak eta beste batzuk aurten lehen pausoak eman dituztenak.

- **Eskularen tailerra:** urritik hasita asteazken arratsaldero biltzen dira hogeit hamar emakume gero San Bartolometako erakusketan ikus ditzakegun artelan horiek egitera. Aurten Iñaxi Urreagak, Itziar de la Granja Alustizaren laguntza izango du eskulan tailerra emateko.

- **Pintura tailerra:** eskulan tailerrekoak bezala, behin hasten denak ez du uzten Maria Luisa Gorrotxategiren gidaritzan duen pintura tailerrik. Hamar ikasle izango ditu aurtengo ikasturtean, astelehen eta ostegunetan. Ikusi egin behar da zenbat gozaten duten kuadroak egiten!



San Bartolometan egur taila, pintura eta eskulan tailerrekoek egiten duten erakusketaren irudi bat



Eskulan tailerrekoak lanean



Lehen aldiz egur taila tailerrean hasi diren ikasleetako batzuk



Maria Luisa Gorrotxategi ostegunetako ikasleekin



Zegaman estimatzen da antzerkia ikustea

www.rotulastudio.com

Diseño
Rotulación
Impresión Digital
Serigrafía

Rotula Studio



Diseinua
Errotulazioa
Inpresio Digitala
Serigrafia

Polígono Intxausti, 14 C 20215 ZEGAMA (Gipuzkoa) Tel. 943 801 244 - Fax: 943 801 245

UDAL GIZARTE Ekimenak

Zegamako Udalak bere aurrekontutik 11.000 € edo 1.830.246 pezeta banatu zituen giza elkarte ezberdinen artean aurrez onartutako Ordenantzaren arabera eta deialdi publikoa egin ondoren aurkeztutako eskaerak azterturik. Banaketa bi multzotan egin zen:

A. Gobernuz Kanpoko Erakundeak.

B. Elkarte ezberdinak.

A. GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK, 2007KO DIRU BANAKETA:

World Rural Forum	1.000 €
Izaki: Asociación Chernobil	1.000 €
Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús	1.000 €
Kasongo Lunda	1.000 €
Sahararen alde	600 €
Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa	810 €
Oscar Romero	300 €
Esku Elkartuak/ Manos Unidas	300 €
Garabide	300 €
Acasgi	300 €
Aprendeh Euskadi	300 €

GUZTIRA 6.910,00 €

GKE 2007 URTEA ZEGAMAN

1.- World Rural Forum: EEG

Arduraduna: Miren Larrea Olaberria (Zegama)

Dirulaguntza: 1.000 €.

Helburua: Pool Maleboko arrantzale kooperatiba sustatzeko euskarria izatea du helburua.

Non: Kongoko Errepublika Demokratikoan AFRIKA.

2.- IZAKI: Asociación Chernobil

Arduraduna: Axun Mendizábal Elizegi (Zegama).

Dirulaguntza: 1.000 €.

Helburua: Chernobil zentralako hondamendia nuklearraren eta bestelako katastrofen adin txikiko biktimei laguntza humanitaria eskaintzea.

Non: CHERNOBIL.

3.- “Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús”: EEG

Arduraduna: Victoria Urriolabeitia Arangüena (Peroren Urriolabeitiaren arreba Zegama).

Dirulaguntza: 1.000 €.

Helburua: Bolivian eskola berri bat eraikitzea. Haurren hezkuntza helburutzat hartuaz eskola berria eraikitzearen garrantzia jabetuta eginiko proiektua.

Non: BOLIVIA.

4.- Kasongo Lunda eskualdearen garapena: EEG

Arduraduna: Alejandro Aldanondo (Idiazabal).

Dirulaguntza: 1.000 €.

Helburua: Ganaderitzako proiektuan sartuta dauden pertsonentzat anbulategi berriaren eraikitze eta hornikuntza osatzen joatea.

Non: CONGO ERREPUBLIKA DEMOKRATIKOA POPOKABAKA ESKUALDEA.

5.- SAHARAREN ALDE.

Arduraduna: Axun Apaolaza (Zegama)

Dirulaguntza: 600 €

Helburua: Herri Saharaiari laguntza eskaintzea duten egoera larria kontutan izanik

6.- Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioa: EEG

Arduraduna: Javier Sodupe (Zegama).

Dirulaguntza: 810 €.

Helburua: Hushé bailarako komunitateko sistema produktiboan garapena sustatzea izango da, geroz eta bere buruaren jabeago izan ditzaten. Nekazaritza, baratzak, fruitu arbolak bultzatuaz era honetara bertako ekonomia indartuaz.

Non: Valle de Hushé en Baltistan. PAKISTAN iparra.

7.- “OSCAR ROMERO”

SOLIDARITZA BATZORDEA: EEG.

Arduraduna: Mijlagros Anduela Aramburu (Bergara).

Dirulaguntza: 300 €.

Helburua: Chagüite kantoieko “Centros Escolares La Concordia y el Cantón Sincuyo”rako 10 ikasgela berri, 6 sukalde ekologiko bere bodegarekin, 24 komun eraikitzea eta 3 ikasgelen sapaia konpontzea izango da.

Non: TACUBA AHUACHAPAN EL SALVADOR.

8.- ESKU ELKARTUAK/

MANOS UNIDAS

Arduraduna: Rosario Vicuña Iruña (Donostia)

Dirulaguntza: 300 €.

Helburua: Aljiberen Ur-biltegiaren hornikuntza eta ASPEKA (Kayenzi barrutian hezkuntza sustatzeko gurasoen Elkarte) ikastetxeko instalazioen hobekuntza lanak egitea.

Non: Kayenzy landan dagoen herria, RWANDAN.

9.- GARABIDE EEG

Arduraduna: Amaia Antero Intxausti (Aretxabaleta)

Dirulaguntza: 300 €.

Helburua: Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuekin lankidetzat bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperietzien trukean oinarrituta. Adibide modura “Fundación Rigoberta Menchu Tum” eta Ikastolen Elkarte-Elkar Fundazioaren artekoa.

Non: BOLIVIA

10.- ACASGI ELKARTEA

Arduraduna: Acasgi elkarteak.

Dirulaguntza: 300 €

Helburua: Sexua lanbidetzat duten pertsonen HIESaren aurrean prebentzio lana egitea, adibidez preserbatiboak banatuz, xiringak banatuz, hitzaldiak antolatuz.

Non: Gipuzkoan zehar.

11.- APRENDEH EUSKADI:

Arduraduna: Nerea Alustiza San Vicente

Dirulaguntza: 300 €

Helburua: Venezuelako Merida estatuan aurkitzen den Saprendeh elkartearentzako arropa garbigailua erosi. El Velerito etxean bizi diren eta bertan lan egiten duten pertsonen bizimodu hobea izan dezaten.

Non: Venezuelako Merida estatuan.

B. ELKARTE EZBERDINEI LAGUNTZAK:

Giza Elkarte Ezberdinei, Zegamako Udalak urteko aurrekontutik 4.090 € laguntza banati dizkie, modu honetara:

Guruze Gorria	1.880,00 €
Herriko Parrokia	800,00 €
Odol Emailak	450,00 €
ATZEGI	160,00 €
ASPACE	160,00 €
GIZAKIA HELBURU	160,00 €
FONTILLES	160,00 €
HIES	160,00 €
MINBIZIAREN AURKA	160,00 €
GUZTIRA	4.090,00 €

• SAHARAR HERRIARI LAGUNTZA:

Zegamako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik Saharar herriari lagundu nahian, Zegaman urtarilaren 11tik 31ra elikagai bilketaren kanpaina antolatu zen.

Kanpaina honen helburu, lau produktu konkretu biltzea zen: atun latak, azukrea,

lentejak eta konpresak. Bilketa egin ondoren, Sahararen aldeko Euskal Karabanaren bidez, Saharara eraman ziren produktu hauek laguntza zuzena izanik.

Zegaman hiru bilketa gune antolatu ziren: Udaletxea, Kooperatiba eta Edurne Janari Denda.

• NARO 2008

Zegamako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamenduak, urtero emakume eta gizonezkoen berdintasuna bultzatu nahiean ekintza bat egiten saiatzen da eta Eusko Jaurilaritzaren NARO 2008 programan sartzen da. NARO 2008 programaren sartzan delarik NARO Berdintasunerako Gunea, erakunde publiko eta pribatuek, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako ekimenak kokatzen dituen gunea da.

Aurten maiatzaren 15ean, Zegaman dauden emakume ekintzaileak eredutzat hartu dira. Herrian emakume aktibo ugari daude, sektore ezberdinetan lanean. Hitzaldi honen helburua, emakume hauen esperientziak, emakume izateagatik izan dituzten zailtasunak etab entzutea izan da, tertulia giroa sortuz. Sektore ezberdinetako emakumeak nahiz artzain, baseritar, industria mundukoak, negozio bat aurrera eraman duten emakumeak, artesauak, zerbitzutan lanean ari direnak...

• JUBILATU ETA PENTSIODUNENTZAT SOIN HEZIKETA IKASTAROA

Urrian hasi eta ekainerarte, ikasturtean zehar ematen den ikastaroa da. Ikastaro hau, jubilatutako eta pentsiodunentzat bideratua dago; hau da, soin heziketa bai, baina patxadan. Astean bi egunetan biltzen dira, astearte eta ostegunetan eta Joakin Elkoro ordiziarra da ikastaroaren arduraduna.

Zegamarrek, ikastaro honi harrera ona egiten diote. Urtero, ikasle ugari biltzen ditu, aurtengo ikastaroan hau da, 2007-2008 ikastaroan 30 pertsona daude izena emanak.

• JUBILATUEN EGUNA

Uztailaren bigarren igandean hilaren 13an, Jubilatuen eguna antolatu zuen Udalak.

Urtero bezala, eguna txistularien kalejirarekin hasi zen; ondoren herriko Parrokian Meza, bertan, Joxe Agirre eta Txomin Garmendia bertsolariak eta Orkatz abesbatzak parte hartu zuten. Meza entzun ondoren herriko Ostatu Jatetxekoek polikiroldegian emaniko bazkaria izan zen. Ondoren Joxe Agirre eta Txomin Garmendiak bertsolariek, saio ederra emanez egin zen bazkalostea Iturrioren doinuaz lagundurik; sari banaketa ere izan zen eta azkenik dantza saio bat ere bai.

Garrantzizko eguna beraz guztiontzat, horrelaxe urte askotan izan dadila!

• ETXEBIZITZA BABESTUA

2005eko urriaren 10ean Zegamako lehen nuradunarekin jarri zen martxan. Etxebizitza



Zegamako sektore ezberdinetako emakumeek beraien esperientziak azaldu zituzten

Babestuan iaz lau egun ziren arren aurten bi onuradun egon dira urte osoan.

Bertan bizi ahal izateko, onuradun bakoitzak tasa bat ordaindu behar izaten du eta zerbitzu guztiak aurtengo tasa honen zenbatekoa, hilean 638,38 €koa izan da. Tasa hau, hala ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazio baten ondoren zehaztuko da.

Etxebizitza Babestuan, ondorengo zerbitzuak eskaintzen dira: Etxearen garbiketa, arropa garbiketa eta plantxa, Katering zerbitzua (otorduak), beharra izanez gero, mediku tratamenduen gestio eta kontrola, administrari lanak, autonomia eta laguntza beharrezko gainbegiratzea.

• EGUNEKO ZENTROA

Eguneko Zentroa 2004ko urriaren 1etik martxan dagoen zerbitzua da. Zegaman Eguneko Zentroaren eta Etxez Etxeko Laguntzaren gestioa, GSR S. KOOP enpresak eramaten du.

Eguneko Zentroa, gaur egun, 8 plaza onartuak dituen zentroa da eta aurtengo urtean zehar zortzi onuradun egon dira, nahiz eta momentu honetan sei pertsona egon, hau da, lau alta berri eta bi baja izan ditugu. Zortzi onuradun hauetatik hiru zegamarrak dira, bi segurar, zeraingar bat eta bi mutiloak.



Jubilatuaren eguneko bazkaria



Eguneko zentroak lau urte bete zituenean "ateak zabalik" eguna ospatu zen ezagutzera emateko

ZEGAMA KO

Turismo Bulegoa

Urtea amaitzear dagoen honetan, iritsi da 2008ko turismoariburuzko balorazioa egiteko tenorea. Orain arteko datuak aztertuta, alde guztietan bolo-bolo dabilen krisia turismo-bulegoan oraindik ez dela igarri esan behar! 2007 urtearekin alderatuta, bisitari-kopurua mantendu egin dela ikusi da, bai herria eta ingurua bisitatzera etorri direnena eta baita Egur Museoa ikustera etorri direnena ere.

Jatorriari dagokiola ere gauzak ez dira batere aldatu. Katalanak dira hein handi batean gure herrira hurbildu diren kanpotarrak. Urtariletik ekainera eta urritik abendura bitartean euskaldunak dira hurbildu diren gehienak. Udako hiru hilabeteetan eta zubietan ordea datuak bestelakoak dira, hilabete hauetan zehar nabarmen hazi da kanpotarren presentzia: Kataluniarrak, Valentziarrak, Castellon-goak... Espainiatik ezezik, Europa aldetik ere etorri dira turistak eta baita bitxikeria moduan Asia aldetik ere.

Europa aldetik etorri diren turista gehienak, Santiago Bideak erakarrira etorri zaizkigu bisitan, besteak beste Alemania, Frantzia,

Kanada, Belgika eta Britainia Handitik. Erdi Aroan hemendik pasa ziren bisitarien testigantzak irakurrita San Adriango igarobide mitikoa ezagutzeko grinak erakarrira edo, urtetik urtera ugariagoa da Santiago Bideari jarraituz Zegamara datozen bisitarien kopurua. Aurten, aurreko urteko datuekin alderatuz, bikoiztu egin da erromesen kopurua, 58 dira aurten etorri zaizkigunak.

2008 urtean zehar, turismo-bulegoak hainbat dinamizazio-ekintza burutu ditu Zegaman turismoa sustatu eta bisitariak erakarrira asmoz:

Aizkorri-Aratz Parke Naturala izanik Zegamako baliabide turistiko indartsuenetarikoa, bere balio naturala eta historikoa ezagutarazi asmoz, bi bisita gidatu antolatu dira gai ezberdinak jorratuz. Martxoan, Aste Santuetako oporraldiaren barruan, San



Kanalera egindako bisita gidatua

Adriango koba eta galtzadara antolatu zen ibilaldia bertako natura eta historia ardatz zuela. Urrian berriz, Aizkorriko magalean zehar Norteko Ferrokarrila eta ur kanala hizpide izan zituen ibilaldia egin zen bertako natura-ondarea ahaztu gabe.

San Martin egunaren ildotik, Aitxuri Herri-Eskolako haurrentzat Aizkorri-Aratz Parke Naturala gaitzat harturik, marrazki-lehiaketa bat antolatu zen. Marrazki hauekin erakusketa bat antolatu zen Egur museoan eta San Martin egunean, sari banaketa egin zen. Lehiaketako epaimahaikideak haurrak eurak izan ziren eta honela, haur bakoitzak bere marrazki gustukoena aukeratzeko parada izan zuen.

ZEGAMA KO EGURRAREN

INTERPRETAZIO ZENTROA EREDUGARRI

Urriaren 27an Kataluniako talde baten bisita izan genuen Egurraren Interpretazio zentroan. Talde hau San Celoni ingurutik etorri zitzaigun zeina Montseny eta Mont Negree parke naturalen oinean kokatuta dagoen. Inguru aberats eta zoragarria!

Talde hau etortzearen arrazoia, Zegamako Egurraren Interpretazio zentroa izan zen. Kataluniako talde hau Basoaren Interpretazio Zentro bat irekitzekoa da San Celoni herrian eta ideiak hartu nahian Zegamara etorri zitzaizkigun bisitan.

Zegamako Egurraren Interpretazio zentroak, beraiek bere museoari eman nahiko lioketen egitura du eta gainera antzeko tematika lantzen du. Hori dela eta, egurraren interpretazio zentroaren

hastapenak eta funtzionamendua ezagutu nahian etorri ziren Zegamara.

Gure artean izan genituen San Celoni herriko alkatea (Francesc Deulofeu Fontanillas), kultura zinegotzia (Jordi Cuminal Roquet), udaletxeko teknikari bat (Montse Guitart Mas) eta Ingurumenaren Garapen eta Jasangarritasunerako zinegotzia (Marià Perapoch Valls). Unibertsitate autonomotik Zientzia eta Ingurumen Teknologia Institutuko ikertzailea (Martí Boada Juncà) eta Zientzia Fakultateko dekanoa (Jordi Bartrolí Molins) eta ikertzailea (Neus Puy Marimón).



San Celoniko bisitariak egurraren interpretazio zentroan, Edurne Albizu, Nerea Tauschke, Asier Galdos eta Imanol Artolarekin

Eguna Egurraren Interpretazio Zentroa bisitatu hasi zuten, bertako arduraduna den Nerea Tauschke bertako edukien berri emanez. Imanol Artolaren interpretazio zentroaren sorreraren eta bertako zuhaitz bildumaren berri eman zien eta Edurnek Albizu alkateak, administrazio atala ezagutarazi zien.

Bisita emankorra izan zen bi herrientzat eta harremanetan jarraitzeko asmotan gara bi herriak. Basoari diogun errespetuaren alde lan egingo dugu bi herriak aurrerantz!

2008ko irailetik aurrera, kudeatzaile berria dugu Zegamako turismo-bulegoan eta Egurraren museoan. Enpresa kudeatzaile berriak Aizkorribidean du izena eta bertako arduraduna Nerea Tauschke da. Berarekin izan gara hizketan hurrengo urterako dituen asmoen berri jakin nahian.

ELKARRIZKETA

Zegamako Turismo bulegoko eta Egurraren Interpretazio-Zentroko arduraduna



Nerea Tauschke Lamberri

Nolatan hartu duzu Zegamako Turismo-bulegoa eta Egurraren Interpretazio-zentroaren ardura?

Zegamako turismo bulegoa eta Egurraren interpretazio zentroa azken urte hauetan kudeatzen aritu den Aldabe Koop. Elk. enpresako langilea izan naiz orain arte eta beraz, ezagutzen nuen aurrez ere bai lekua eta bai lana.

Jendearekin harreman zuzena gustuko dut, informazioa ematea, mendi ibilbideen inguruko xehetasunak azaltzea, Egurraren Interpretazio Zentroa erakustea etab.

Nire ikasketekin, biologia ikasketekin alegia, zuzenki erlazionatuta dago lan hau eta beraz, horrek animatu ninduen lan hau hartzera. Oso gustura sentitzen naiz mendi ingurune honetan egurrez inguratuta.

Nola sortu zen Aizkorribidean enpresa?

Turismo bulegoaren eta Egurraren Interpretazio Zentroaren kudeaketa hartzeko, enpresa bat sortzea beharrezkoa zen eta ildo horretatik Aizkorribidean enpresa sortu dut. Nahiz eta enpresa nik sortu, herriko bi neska hasi ari dira nirekin lanean. Aizkorribidean enpresaren helburuetako bat Zegamako gazteei lana ematea da.

Nolatan jarri diozu izen hori?

Egokia iruditu zitzaidan izen hori jartzea enpresari. Enpresaren izena irakurtzen duen edonork, enpresa Zegama eta Aizkorribidean erlazionatzea nahi nuen eta hori izan zen izen hau aukeratzearen arrazoiatariko bat.

Nola ikusten duzu turismoaren etorkizuna Zegaman?

Ni baikorra naiz eta ondo ikusten dut. Zegaman erakargarritasun turistiko ugari ditugu eta datorren urteari begira, jadanik martxan daudenez gain, beste proiektu batzuk jarriko ditugu abian. Beraz, etorkizun ona ikusten diot Zegamako turismoari.

Bi produktu turistiko berri jarriko ditugu martxan hurrengo urteari begira

Turismoari begira beti ere, zein da Zegamara jende gehien erakartzen duen eskaintza turistikoa?

Aizkorri-Aratz parke naturala dela esango nuke nik jende gehien erakartzen duen eskaintza. Jende ugari etortzen da

Aizkorribidean eta San Adrian inguruan egin daitezkeen ibilbideen berri galdetuz. Hala ere mendiak ezezik, Egurraren museoak ere erakartzen du jendea. Museora datozen asko basoa ezagutzeko beste modu baten bila datoz eta beste batzuk berriz, denbora atsegin bat pasatzera.

Hurrengo urtean proiektu berriak martxan jartzekoak zaretela esan duzu, aurreratu al diezagukezu zerbait?

Bi produktu turistiko berri jarriko ditugu martxan hurrengo urteari begira: Alde batetik Intxaustiko errotara bisita gidatuak egiten hasteko asmoa dugu, errota martxan jarri eta buztina nola ehotzen zen erakusteko asmoz. Bestetik, bioaniztasuna eta beste hainbat gai jorratuko dituen ibilbide seinaleztatu bat jarriko da martxan.

Bi proiektu berri hauez gain, orain arte bezala ibilaldi gidatuak egiten jarraitzeko asmoa dugu. Ekintza honen helburua, kanpotarrei nahiz herritarrei Zegaman ditugun altxorrak ezagutaraztea da eta bide batez, daukagun natura- eta kultura-ondareari merezi duen garrantzia ematea.

Azkenik esan, turismo bulegoak kanpotarrei zerbitzua eskaintzeaz gain, herritarrek ere kontuan hartu behar dituela eta hori dela-eta, herritarren interesekoak diren ekintzak antolatzea duela helburu.

GOIERRI AUKERA, S.L.

METAL ETA ALUMINIO AROTZERIA

Pol. Industrialdea, 10-11
ORDIZIA - 943 881 563
aukera@golemiaukera.com

HERREREGINTZA ETA FORJA ARTISTIKOA (DISEÑUA)

ALUMINIOKO ETA METALEKO AROTZINTZA

EREA GUTXITAKO ATEAK: PVC, FINSTRALIZADAK ...

TECNICAL MATERIAL ANITZAK

SUAREN KONTRA HOMOLOGATUTAKO ATEAK

ATE ETA PORTILANA AUTOMATIKOAK

GIPUZKOAKO ETA Arabako Partzuergoa

2008an zehar, Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoan egindako bileretan hartu diren erabaki garrantzitsuenen laburpena eta informazioaren berri:

Urtarrilaren 16ko Batzarra

- Batzarra hasi aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Landa Ingurunearen Departamentuko, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendari Nagusiarekin, Asier Arreserekin bildu da Junta. Bertan, Arrese Jaunak, adierazi du IKT enpresa, Parke Naturalaren Erabilpen eta Kudeaketa zuzenduko duen Plana egiten ari dela. Adieraziz, gaurko egunean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arantzazun aurreikusten duela Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko sarreretako bat. Bestalde adierazi du, gainerako harrera-guneak, herrien esku uzten dituela Foru Aldundiak.

- Mikel Etxezarretaren bordaren eraikuntzaren kitapena onartu da, guztira, 107.508,80 €.

- Urbian ura jartzeko instalakuntza obren kitapena onartu da, guztira, 20.271 €.

- Idiazabalgo Otsoa ehiz elkarteari eta Segurako Txoritagi ehiz elkarteari, baimena ematea, ehiz lehiaketak antolatuzeko Partzuergoan.

- Ganaduzale elkarteak eskatu du, Partzuergoan eta ganaduzaleen foroaren gaia lantzen denean bilerara deitzeko.

- Mikel Etxezarretari, jarduera baimena egiteko, beharrezko dokumentuak eskatzea.

- Ehiz postuen fiantza itzultzeko eskaerak aztertu dira eta hainbat kasutan, ehiz postuak zikinak agertzen direla eta, gai hau nola kontrolatu eztabaidatu da.

- Oltzako txabolen obrak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak, azaroaren 30 arteko luzapena eman du.

- Partzuergoaren Juntaren barnean hiru Batzorde osatzea erabaki da: Azpiegiturak eta Parkearen batzordea, Ganadu batzordea eta Ehiz batzordea.

Otsailaren 20 Batzarra

- Garagartzako txabolen kontzesio administratiboa bertan behera uztea eta bere erabiltzaileak duen txabola berreskuratzeko bideak jartzea.

Apirilaren 17ko Batzarra

- 2007ko Kitapena onartu zen, hala nola 2008rako Aurrekontuak ere onartu ziren.

- Aitzgorri Mendizale Elkarteari ekainaren 8an, Euskal Mendizale Federakundeak antolatzen duen Iraupen Luzeko Koparako baliagarria den froga Partzuergoan zehar pasatzeko baimena eman zitzaion.

- Garagartzako txabolen erabiltzailearen eta

Partzuergoaren arteko ezadostasunaren berri ematen da, Garagartzako txabolen prezioaren gainean eta Partzuergoak, Sagastitako txabolara bisita egitea erabakitzen du, bere egoera aztertu eta erabakiak hartzeko.

- Etxabe Eraikuntzekin harremanetan jartzea, eskorta bat egiteko aurkeztu duen prezioa, Gipuzkoako Partzoneriko "Kortijo" izeneko txabolen teilatua egin gabe ere mantentzen duen jakiteko. Izan ere "Kortijo"ren teilatua egitearen lana Gipuzkoako Partzuergoak Garmendia Eraikuntzei eman dio eta, Etxabe Eraikuntzak eskortaren lana nahiko ez balu teilatuaren lana esleitu gabe, bi lanak Garmendia Eraikuntzei ematea ikusi zen bidezkoena.

- Gazbide eta Maie paraheetako egur aprobetxamendua Central Forestal Enpresari esleitzea 2.700,00 € BEZ barne (450 estereo, estereoko 6 €ko prezioan).

Emandako hainbat informazio:

- Lehendakariak, Otzaurteko Bentako bidea konpontzearen beharra azaldu zuen. Otzaurteko Bentakoak ados leudeke zati bat beraien ordaintzeko. Partzuergoak %85 eta Bentakoak % 15aren ordainketa egitearen proposamena luzatu zen.

- Urbia eta Otzaurteko pasoetan, kateen ordez, langak jartzea komenigarria dela aipatu zen, arriskutsuak direlako kateak txirriindulariantzat.



Iramendiko eskorta hormigonatuta

- Asier Arrese, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Departamentuko, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendari Nagusia etorri zen hainbat informazio Partzuergoaren Juntari ematera:

a) Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoari Foru Aldundiak urtero ematen dion diru partidarako, komenigarria dela urtearen hasieran Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztea urteko proiektuen berri, beraiek ere aurrekontuetan kontutan hartzeko.

b) Berehala martxan jarriko den Ganaduzaleen Fororako, Junta honetatik bi izendatzea komeni dela adierazi zuen: Partzuergoaren Juntak, Haritz Eguren eta Jesús Mari Berasategi izendatzea erabaki zuen.

c) Eusko Ikaskuntzaren berri eman zuen. Honek, Partzuergoko larrei buruzko ikerketa bat egiteko, dirulaguntza baten eskaera egin asmoz, baimena eskatu zion Junta honi. Dirulaguntza eskaera Estaduko Biodibertsitateko Fundazioari egingo lioke eta Europako Fondo Sozialera bideratuko litzateke eskaera.

d) Jesus Aduriz, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikoaren eskutik, larreen hobakuntzarako ikerketa bat egiten ari direla.

e) Pottoka Elkartearen berri eman zuen: Elkartea honen helburua pottokak hazi eta domatzea dela aipatu zuen, 60 bat Ha.tako herrilurra behar zutela jarduera hau kokatzeko eta hainbat parke natural eta herri mendietako eskaintzak zituztela eskuartean. Otzaurteko parajearekin interesatuta daudela adierazi zuen eta Partzuergoaren iritzia jakin nahi zutela. Partzuergoaren Juntak begi onez ikusten du jarduera honen kokapena Otzaurten.

f) Parke Naturala: Honen gainean, Diputazioak uda aurretik Patronatoa osatzeko asmoa duela adierazi zuen. Otzaurten kotxeentzat aparkaleku bat egiteko asmoa dagoela adierazi zuen eta bestalde, errepideak non itxi behar diren, pentsatzen hastea komeni zela aipatu zuen. Beundan aisia gunea egin behar den etab. aztertzen hasi beharrean zegoela adierazi zuen, Junta honi zeregin honetan abiatzeko eskatuz.


g) San Adriango refugioari dagokionean, Gipuzkoako Mendi Federazioekoekin etxea ikustekotan dela zein behar dauden bertan ikusteko eta bestalde, refugioarako sarrera nola ordenatu ere aztertu beharra dagoela.

h) San Adriango pasoaren berreskuratzea. San Adriango pasabidea egoera kaxkarrean dagoela eta hau berreskuratzeke 50.000,00 €tako partida dagoela eta Kultura Departamentuaren iritziaren zain dagoela.

Azkenik, Zegamako ordezkariek adierazi zuen Zegama Udalerrri modura pausoak ematen hasia dela Parkearen harrera gune osagarria Zegaman jartzeko. Hala nola, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saitetik dirulaguntza jaso duela, Anduetza Museotik Parkera bioaniztasun ibilbide bat antolatzeko eta San Adriandik barrena, Zegamatik pasatzen den Errege Bidea eta Santiago Bidearen eragina eta aztarnak aztertzeke beka ere abian jarri duela.



San Telmo Museoa utzitako argazkia: Ermita zaharra bota aurretik



San Telmo Museoan dagoen agiria, San Adriango Ermita zaharraren erretaula

Maiatzaren 14ko Batzarra

- Aitor Esnaola Dorronsorok, Partzuergoan txabola bat eskatuz eskaera aurkeztu du. Partzuergoaren Juntak, ezezkia ematea erabaki du, hiru urteko aintzinasuna erroldaturik ez duelako Partzuergoa osatzen dugun herriren batean.

- Jose Mari Azurmendik, maiatzaren 19an, Garagartzako etxabola utziko durenaren agiria aurkeztu du, lehengo txabola berreskuratzeko eskatuz.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak sarnaren aurkako kanpainarako Junta honek pertsona bat arduradun izendatzea eskatu du. Partzuergoko Juntak, Gipuzkoako Foru Aldundiari, artaldeak sarnarik ez duen zertifikatzen duen agiria eduki ezker ere, sarnaren kontrako tratamendua egitea beharrezko den argitzeko eskatuko dio.

- Taraigorri parajea, Goikoetxandia Egurzaleak, eskatu zuen 15 Ha.ko egurraren aprobetxamendua ez zaiola interesatzen eta, honen errenuntzia idatziz aurkezteko eskaera egitea erabaki da, Diputazioko Mendi Zuzendaritzari, mendi honen aprobetxamendua bideratu ahal izateko, plegu teknikoak prestatzeko eskatzea ere bai.

- 2008ko urterako egin asmo diren inbertsioen taula, Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkezteko, honek partida ekonomikoa jar dezan.

- Berdabio Basogintzari, ehiz postuak soldeatzearen lana egin dezan erabakitzea. Aurrekontu zehatzik gabe lan hau ematea erabaki da, enpresa honek adierazi duelako, ezinezkoa dela aurrez jakitea zein lan izango duten. Hala ere, andamioak oso garestiak direnez, lan hau aurrekonturik gabe egitea hobetsi da.

- Txirbil enpresak jakinarazi du, maiatzaren bukaera edo ekainaren hasieran egingo dituela Oltzako bordako lanak.

Uztailaren 9ko Batzarra

- Lehendakariaren aldaketa. Orainarte Idiaza-balگو ordezkaria den Jesús Mari Insaustik

bere kargua urtebetez bete ondoren, lekukoa Zeraingo ordezkaria den Haritz Eguren hartu du, berau izendatuz Lehendakari urtebeterako.

- Mari Paz Oiarbidek, Oltzako txabolan hainbat konponketa egiteko eskaera. Gaia aztertzeke geratu da.

- Milagros Oiarzabalek ere, hainbat eskaera Arbelargo txabola batean konponketak egiteko. Aztertzeke geratu da.

- Gregorio Balerdik, Garagartzako txabolaren erabilera eskatu du. Ganaderoen forora eskaera hau bideratzea erabaki da, azterketa egiteko.

Ehizaldiaren prestaketa:

- Subasta egiteko eguna, irailaren 14a jarri da.

- 60.000,00 € inguruko partida jartzea erabaki da, 4 edo 5 postu berri egiteko.

- Basozainei ehiz postuen azterketa bat egitea eskatu zaie, zein konpondu, zein konponketa egin etab. erabakitzeke.

- Ehiz postuen materiala Ulmari erostea erabaki da eta hauek montatzearen lana Berdabio Basogintza enpresari ematea.

- Txabolaxoko ehiz postuen orientazioa aldatzea erabaki da.

- Leitango ehiz postuak, Diputazioari erdiak subastatu eta beste erdiak herriko ehiz postu bezala subastatzeko eskaera egitea erabaki da.

- Urbiako jaiak antolatzeko urteroko ekintzak martxan jartzea erabaki da.

- ---

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zuzendaria den Jesus Argiñarenak idatzi batean adierazi du, ganadero guztiek ez dutela aurkeztu bere ganaduak sarnarik ez dutela adierazten duen egiaztagiria. Bestalde, sarnaren tratamendua ardiei egin nahi dienak (nahiz eta egiaztagiria eduki) beraiek eskatu behar diotela Diputazioari.

- Zalduekoko alkateak, eskuizkribu batzuk aurkeztu ditu, Partzuergoko mendien

“bueloaren” eskubideen erosketei buruzkoa.

Irailaren 14ko Batzarra

- Eguneke aztergaiez kanpo, Batzarraren aurretik egin den ehiz postuen subastan, Larrebil 19 ehiz postua hutsik geratu denez, Partzuergoaren partaide garen herrien artean eta Partzuergoaren artean egunez egun banatzea erabaki da, ondoren, bakoitzak bere herrian erabakiko du zer egin postu hauekin.

- Era honetara, aurten Partzuergoa osatzen duten 6 herrien konpromezuetarako urteroko bi postuez gain (Añabaso 7, Iturgain 9) Larrebil 19 geratu da.

- Era berean, Leotaran 4, Letain 6-8-10-12 eta 14 ere hutsik geratu direnez, Partzuergoa osatzen dugun 6 herriren artean zozketatuko dira, bakoitzak bere herrian banatzeko.

2008an Diputazioari aurkeztuko zaizkion inbertsio asmoak onartu dira:

- Oltzako bordarako 80.000,00 €

- Etxegarateko “Kortijo”aren telatua: 90.000,00 €

- Iramendiko eskorta 6.000,00 €

- Eusko Jaurlaritzak, (Itelazpi enpresaren bidez), Hirumugetara doazen kableak lurperatzeko ikerketa ekonomikoa aurkeztu zien Juntakideei uztailan, eta, ondoren honen proiektua aurkeztu dute.

- Garoa Sozietate Zibilak Partzuergoko larreak erabiltzeko baimena eskatu du eta Garagartzako txaboaren erabilera eskatu du. Gai hau ere, ganaderoen foroa bidaltzea erabaki da.

- Hamasei ganaduzaleek, kexa bat aurkeztu dute, ganaduzale baten jarrera mendian ez dela egokia adieraziz. Gai honen gainean, Juntakideen artean eztabaida sortu da, hiru urteko errola aintzinasuna beharrezkoa denaren gainean larre eskubidea edukitzeko. Honela, Araudian anbiguetatea edo ez dela batere garbi arautzen gai hau ikusi denez, Araudi Erregulatuzailea aldatzekotan edo zuzentzekotan legezko prozedura jarraitu



Aranzadi Zientzia Elkartekoak indusketak egiten

beharko dela adierazi du Idazkariak. Arraudi Erregulatuak aztertzen hasteko erabaki hartu da.

- Inazio Urbizu eta Jose Manuel Oria basozainei ehiz garaian laguntzeko, bi goarda laguntzaile kontratatzea, bata urriaren batetik azaroaren 9 arte eta bestea, urriaren 1etik abenduaren 9 arte.

- Oltzeko txabolako tximinia konpondu dela jakinarazi da.

- San Adriandik Urbia aldera doan senda konpontzea erabaki da.

- Partzuergoko ehiz postuak pintatzearen komenigarritasuna adierazi du Juntakide batek eta bestalde, Arabako Diputazioak, Partzuergoan larrean dabilen eta "papera" gaitza harrapatu duen ganadua behera jeistea behartu duela jakinarazi du, antibiotikoa duen tratamendua aurrera eramateko eta era berean Gipuzkoako Foru Aldundiari ere beharrezkoak diren protokoloak martxan jartzeko eskaera egitea eskatu du.

Urriaren 22ko Batzarra

- Garagartzako txabolarako errolda aintzintasuna betetzen duten bi eskaera daudenez, eta lehenengo eskaera data duenari, hau da Gregorio Balerdiri eskaintzea erabaki da, betiere 158 ardiren jabetza agiriak aurkeztu eta gero.

- Urbiako ur horniduraren proiektuaren berri eman zuen Jose Antonio Prieto, Oihan enpresako teknikariak, guztira, 50.658,65 € gei BEZ jotzen duelarik aurrekontuak.

- Basozainen adierazpena: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoan ez dagozkien hainbat lan egiten dituztela eta, egoera honen berri eman zuten basozainek. Egoera hau 2000. urtean, erregulatu zela azpimarkatu zuen Idazkariak.

• **Lehenik:** Printzipioz, orainarte bezala funtzionatzen jarraitzea.

• **Bigarrenik:** Partzuergorako egiten dituzten eta ez dagozkien lanen zerrenda eskatzea.

• **Hirugarrenik:** Partzuergoaren gaiei dago kienean funtzionamendurako protokolo bat ezartzea, non basozainak, edozein ekimenetako lehendakariarekin harremanetan jarri beharko diren eta lehendakariak erabakiko du, gaiaren arabera, Juntakide guztiei jakinarazi edo ez.

• **Laugarrenik:** Batzorde Informatzaileen funtzionamendua berriro ere martxan jartzea eta batzarreko Eguneko Aztergaietan dauden gaiak aztertzeko, Batzarra baino ordubete lehenago Juntakideak bakarrik elkartzeko, tekniko eta idazkaririk gabe, ondoren, gaiak landu eta gero, Batzarra egiteko.

- Urbiako Fondako erabiltzaileek, propanozko depositoa jartzeko eskaera egin dute. Juntak dagokion proiektua ekar dezaten eskatzea erabaki du.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendariak, San Adriango pasabidea eta gazteluaren indusketen berri eman du.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Gara-penaren Departamentutik zein protokolo jarraitu behar den bidali dute, zaldi.-behorretan "paperen" gaitza azaltzen bada.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2008. urterako 200.000 €tako diru partida onartu duela idatzia bidali du.

- Pottoken haztegia jarri nahi duten enpresak Partzuergoaren Juntarekin bilera egin nahi duela jakinarazi da.

- Asier Arrese, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurunearen Zuzendariak, Beunden autoentzako aparkaleku bat egiteko Partzuergoak bere balorapena egin dezan eskatu du Partzuergoko Juntari ez zaio lekurik aproposena iruditzen.. Gaia aztergai geratu da.

- Iramendiko eskortan hainbat poste ez direla jarri eta, honi buruz galdetu da.

- Ganaduzaleei abenduaren 31rako zenbat ganadu mendiratu behar dituen eskaerak aurkeztu ditzaten eskatzea erabaki da.

SAN ADRIANEN INDUSKETAK

Aurten Partzuergoan egin den lan interesgarrietako bat, kuler aloarri begiratzuz gero, San Adrianen egin diren indusketak dira.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak bultzaturik, San Adrianen indusketak egin dira urriaren zehar. Indusketa lana negoziatutako prozedura jarraitu ondoren Aranzadi Zientzia Elkarteari esleitu zion Foru Aldundiak.

1984an egin ziren azken indusketak bertan eta hainbat materiale interesgarri aurkitu ziren garai hartan ere, besteak beste txanpon zaharrak.

Alfredo Moraza Aranzadi Zientzia Elkarteko partaide eta arkeologo buruak eman zion Partzuergoko Juntari bertan egindako lanaren berri.

Besteak beste aipatu zuena izan zen, uste baino aurkikuntza handiagoak egin dituztela, San Adriango gaztelua, koban barrena asko zabaltzen zena aztarnak aurkitu dituztela eta ondorioz Euskadiko gaztelu garrantzitsu eta handienaren aurrean egotea posible dela.

Asier Arrese, Foru Aldundiko ordezkariaren hitzetan, urteetako lana dago, eremu guzti hau ikertu eta berreskuratzen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa, horixe litzateke. Aurten hasi den lanari jarraipen serio egitea ondorengo urteetan.

Indusketak egiten aritu diren bitartean, bisita gidatuak egon dira bai Aranzadi Zientzia Elkarteari antolatuta eta baita Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta ere.

Dudarik gabe, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barnean dagoen elementu historiko garrantzitsuena Partzuergoaren eremuan dagoela esan daiteke.

...

EHIZA

ENKANTE IREKIKO ZOZKETA

Partzuergoko ehiz postuen enkante irekia, irailaren 14an egin zen Segurako Udaletxean.

Enkantean diru gehien egindako postuak, ondorengoak izan ziren:

AGIÑARAN	0	15.771 €
APOTA	10	15.166 €
ITURGAIN	7	11.674 €
APOTA	12	11.163 €
ITURGAIN	2	9.677 €

HERRIKO EHIZ POSTUEN ZOZKETA

Partzuergoko Udalerri bakoitzari, aurten hainbat postu egokitzen zaizkio zozketa bidez. Postu hauek Udalerriko ehiztarien artean zozketatzeko eta gainerako ehiz postuak Partzuergoak subastan ateratzen ditu, hauetara edonork sar dezakeelarik bere diru eskaintza.

Aurten Zegamari egokitu zaizkion postuei, enkante egunean hutsik geratutako postua erantsi behar zaio (Letain 12) eta horrezaz gain, Larrebil 19 ere hutsik geratu zenez, Zegamako Udalak, postu horretatik egokitu zitzaion egun solteak ere herritarren artean zozketatu zituen. Bestalde, aurten ehiz denboraldia, urriaren 10etik azaroaren 9ra zehaztu da, ehiz postuak mailaka sailkatu dira eta zozketaren modua aldatu egin da, era honetara lehen mailako postuak ahalik eta jende gehienari iristea lortuz. Bestalde, ehiz postu bakoitzaren kostua ere desberdina izan da, bakoitzak duen tasaren arabera. Postu bakoitza egitearen lana Arakama Anaiak enpresari eman zaio, bakoitzeko 63,00 € ordainduz.

POSTUA	ZENBAK.	EGUNEKO TASA
APOTA	11	31,30 €
ARATZ	6	29,74 €
APOTA	7	30,81 €
ULTZAMA	7	16,99 €
AGIÑARAN	3	32,57 €
ULTZAMA	11	11,33 €
PEAZULOTA	1	6,61 €
PEAZULOTA	5	21,24 €
PORTUGAIN	3	8,97 €
PORTUGAIN	5	8,02 €
LEOTARAN	5	6,69 €
GARAGARZA	1	8,5 €
LETAIN	3	6,31 €
TXABOLATXO	3	2,03 €
LETAIN	12	2,03 €

Ehiz postuen zozketa irailaren 26an egin zen Udaletxean eta zozketaren ardura, udal ordezkariak hartu zuten.

INDUSTRIALDEA bizi-bizirik

Zegamako industrialdeak harrera ona izan du enpresarien artean, ia pabiloi guztiak martxan daude behintzat. Izaera ezberdineko lantegiak daude industrialdean, hala ere gehienak galdaragintza eta burdina lantzen dute. Baditugu zenbait herritar pabiloia erosi eta langile izatetik enpresari izatera pasa direnak. Hauetako bat dugu Agustin Izagirre Ormazabal, Hirulan enpresako nagusietako bat. Berarekin izan gara solasean egiten duten lanari buruz zerbait gehiago jakin nahian.

ELKARRIZKETA

Ekintzailea



Agustin Izagirre Ormazabal

2002an Sortu genuen Hirulan enpresa hiru sozioren artean

Zein izan zen Hirulan enpresaren sorrera?

1999an hasi nintzen langile moduan lanean eta hiru urteren ondoren, ordurarte nagusi izan zirenak jubilatatu eta 2002an sortu genuen gaur egungo Hirulan enpresa.

Nondik dator enpresaren izena?

Hiru sozioren artean jarri genuen martxan enpresa eta izen horixe jarri genion. Beranduago bi sozio izatera pasatu ginen baina izen berarekin jarraitzen dugu.

Gaur egun zenbat pertsona zabilzate lanean?

Ni neu eta beste bost langile. Guztiok zegamarrak gara eta orain artean ere egon diren langile guztiak herritarrak izan dira.

Zertan datza zuen lana?

Galdaragintza da gure egin behar nagusienetakoa; prentsak, polipastoak, autoentzako kabileteak, ... egiten ditugu. Ditugun eskaeren arabera aldatzen da gure produkzioa.

Norentzat egiten duzue lan?

Hein handi batean Goierri mailako enpresentzat lan egiten dugu, baina baita Gipuzkoa mailan eta Euskal Herri mailan ere.

Lan orduak asko izango dira ezta?

Bai. Astelehenetik larunbatera egin ohi dut lan eta egunean hainbat ordu. Egun guztiak ez dira berdinak izaten baina 10-12 ordu sartzen ditut egunero.

Gustoko al duzu lan mota hau?

Bai gustoko dut eta eskerrak, izan ere, disgustora lan egin behar izango banu, egunean ordu asko dira eta ez luke pena merezi. Lan gogorra da, zikina eta askotan



Hirulan enpresaren barrualdea



Jorge Garcia tailerrean lan eta lan



Mikel Larrea Hirulan enpresako langilea



Materiala pilatuta izaten dute

ez da atsegina baina tira, gauza okerragoak ere badaude.

Langileak zure agindupean edukitzea erraza al da?

Beraien pareko senti nazaten gustatzen zait eta langileak ondo tratatzen saiatzen naiz. Beraien lana ondo egin ezkerok ez da arazorik izaten, kalitatezko lana egiteari ematen diot garrantzia. Lagun bezala hartzen ditut langileak eta hori garrantzitsua da, lanerako giroan laguntzen baitu.

Nolakoa da zuen laneko funtzionamendua?

Momentu honetan sei langile gaude; normalean bi materiala prestatzen egon ohi dira, bat muntaia arloan eta beste biak soldatzen jarduten dute. Langile bakoitza, lanketa mota batean espezializatzen da normalean. Hau guztia erreleboka egiten dugu, goiz eta arratsaldez banaturik langileak. Niri denetik egitea tokatzen zait, beharraren arabera batean edo bestean. Egia esan tailerreko lanetaz gain, klienteekin hitzegiteak eta bulegoko lanek denbora eskatzen dute eta askotan gauza denak egiteko egunak motz geratzen dira.

Asko kostatzen al zaizu lan berriak aurkitzea?

Pauso berri bat ematea, kliente berriak aurkitzea... beti da zaila. Pausoa eman ondoren, kliente berriarekin konfiantza sendotzea asko kostatzen da, denbora behar da eta hori ere ez da lanketa erraza. Tailer txikia izateak bere zailtasun eta oztopoak baditu gai honetan baina beste estrategia batzuk erabiltzen saiatzen naiz.

Eta bukatzeko, horrenbeste entzuten den krisia nabaritzen al duzu?

Bai eta gainera kezkatzen nauen gauza bat da. Ez dakit hau noraino iritsiko den. Egia esan beldurra ematen dit baina aurrera egiteko gogoz sentitzen naiz.

LEHEN eta orain



Juan Telleria kalea obrak hasi aurretik



Juan Telleria kalea obretan



Juan Telleria kalean jarri den semaforoetariko ba



Juan Telleria kalea, obrak hasi ziren egunean



Juan Telleria kalea obretan



Juan Telleria kalean obrak aurrera doaz



Juan Telleria kalea obrak amaitu ondoren



Olaberriko obrak bere hastapenetan



Olaberri auzoa obretan aurrera doa



Hau da Olaberri auzoak hartu duen itxura berria



Olaberri auzoa obrak hasi aurretik



Olaberriko espaloia berritu aurretik



Olaberri auzoa obretan murgilduta



Olaberri auzoaren itxura asko aldatu da

AITXURI Herri Eskola



Tximeletaren behaketan, mikroskopioa lagun

ZIENTZIA HEZKUNTZA AITXURIN

Zientziak pisu handia izan du beti gure eskolan. Duela bost urte konturatu ginen lantzen genuen teoria indartu egin behar genuela, laborategian praktika gehiago eginez. 2003-2004 ikasturtean Ordiziako Berritzegunean metodo zientifikoa ezagutzeko aukera izan genuen, eta harrezkero antolatutako mintegietan parte hartu dugu. Han ikasi ahala, eguneroko jardunean erabiltzen hasi ginen, hasieran 3. zikloko ikasleekin eta ondoren 2. ziklora zabaldu genuen. Hala ere garbi ikusi genuen Lehen Hezkuntza bukaerarako ikasleak zientzietan konpetenteak izateko txiki-txikitatik hasi behar genuela, hau da, Haur Hezkuntzatik. Hurrengo ikasturtean beraz, proiektu orokorra egin genuen, ikastetxe osorako. Gaur egun, esan dezakegu gure ikasleentzat laborategian lan egitea oso arrunta dela eta, era berean, oso gustukoa.

Metodo zientifikoa oinarritzen dugu laborategiaren erabilera. Lan egiteko era horretan urrats berberak jarraitzen ditugu. Lehenengo galdera edo arazoa planteatzen da, honi erantzuteko hipotesiak pentsatzen dira eta ondoren hipotesiak aurrera eramateko esperimenduak diseinatu eta egiten dira. Bukatzeko emaitzak aztertu, hipotesiak baieztatu edo ezeztatu eta ondorioak ateratzen dira. Metodo honek ikaslearengan estrategia ezberdinak erabiltzera bultzatzen du: adibidez, bere buruari galderak egitera; esperimendu bidez arazoak bilatzera eta deduzitzera; behin eta berriz probatuz, konparatu eta argudiatu ondoren, erabakiak hartzera...

Zientziaren helburua naturan gertatzen diren fenomenoak eta objektuak ikertzea da. Ikerketa hauek emango badira ideiak sortu behar dira eta ideia horiek garatu. Teknologia, ikerketak eta ezaguera zientifikoak pisu handia du gaur egungo gizartean eta gure ikasleak gizarte honetan trebeak izatea da gure helburu nagusietarikoa.



Gauza desberdinak uretara botatzen. Flotatu-hondoratu. Zer?



Gauza desberdinak uretara botatzen. Flotatu-hondoratu. Zer?



Non sartzen da ur kantitate handiagoa?



Aireak lekua okupatzen du?



Ba al dago kimikarik nire bizitzan?



Nahasketa homogeneo eta heterogeneoak



Disoluzioak ur mota ezberdinekin



Aitxuri Herri Eskolako ikasleak



TOBERA

Musika Eskola

TOBERA MUSIKA ESKOLA

Musika-obra mardula konposatu berri du Tobera Musika Eskolak. Pieza berri-berria da, desberdina eta bakarra; errepika-ezina. Eta luzea. Pentsa, urtebeteko exekuzioa behar luke osorik interpretatua izateko, hasieratik bukaeraraino. 2008 jarri diogu izenburu. 12 musika-esaldi diferentek osatzen dute, izaera propioa dutenak baina batasun baten parte direnak aldi berean. Esaldi bakoitzak pentagrama-kopuru aldagarria du, baina 29 eta 31 bitarte beti ere, eta pentagrama bakoitzean 24 dira kabitzen diren konpasak. Konpasek... uf! konpasek kontaezinezko nota-, altuera-, kolore-, ñabardura-, artikulazio-, erritmo- eta tempo-bariatatea dute! Zegamar askoren soinu-banda izan da TOBERA 2008an ere. Konposizio amaitu berri honetako zenbait pasarte dakarkizuegu jarraian, hizki eta esaldi bihurtuta.

Ezeren aurretik, ordea, esan dezagun azken urtealdiko jendaurreko ekintzak direla Urtekariaren orriotara ekarri ohi ditugunak. TOBERA Musika Eskolaren altxorra, aldiz, ikastetxeko gela eta ikasleen etxe barruko eguneroko lana eta ahalegina dira. Atzeak erakusten duelako aurrea nola dantzatu.

Herriko kultura-arloan funtsezko lekua betetzen du Segura, Zerain, Mutiloa eta Zegamako bertako ikasleak hartzen dituen Tobera Musika Eskolak. Eskolatik antolatutako ekintzen kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan, eta ekintza hauen izaera ere aldatu eta biderkatu egin da, jende-multzto desberdinengana iritsi eta ikasleen behar berriak asetu asmoz. Irteerak, elkartrukeak edota lehiaketak direla, Tobera Musika Eskolak gero eta gehiago jotzen du gainera kanpora, herrian emanaldiak ugaritzeaz gain.

• **Abenduaren hondarretan (23an)** herriko jubilatu-elkartean 25. urteurreneko ekintzetan txistu-taldeak eta dantza-ikasleetako batek Agurra dantzatzu parte hartu ondoren, ohiko moduan, Erregeen Kabalgatak ireki zuen urtea Tobera Musika Eskolaren ekintza-egitarauari dagokionean. Urtarrilaren 5ean iluntzeko 8etan abiatu zen tradiziozko segizioa biribilketa doinu artean.

• **Aurreko ikasturtean zehar ospatutako 20. urteurrenaren** zipritzinen bat ere iritsi zaigu, iazko Urtekarian aurreratu genizuen. Tobera Musika Eskola: 20 ikasturte zurekin izenburuko ikus-entzunezkoak eskolaren historiako 20 ekintza desberdinen grabaketak eta DVDraiko propio sortutako materiala biltzen ditu, ordubeteen. Tobera Musika Eskolaren sorrera-testuingurutik egungo errealitate oinarriko ibilbidea



Musika eskolako gaztetxoentzat pentsatutako ekintzak ez dira falta. 4 herrietako haurren arteko harremanak sendotzeko baliagarriak dira, musika aitzaki

jaso nahi izan genuen. Iruditan; hitzek lagunduta; eta, nola ez, gure ikasleen musika bide-lagun fidel dela. Jatorria, garapena, bilakaera, oraina eta etorkizuna. 20 musika-urteren testigantza betirako bilduta gera zedin, eta denontzako ezinbesteko oroigarria izateko. Aurkezpen-emanaldiak urtarrean egin ziren Zegaman, Seguran zein Zerainen, eta handik aurrera salgai jarri. Goierri Telebistak ekainean emititu zuen, ordutegi nagusian.

• **Otsailaren 23an** autobuskada-lagun joan ginen Donostiako Kursaalera. Ez zen nolana hikoia han entzuterako gindozena. Euskadiko Orkestrak Babar elefante txikiaren Istorioa taularatu zuen bertan, dantza-koreografiak eta irudiz lagunduta, eta goiz-pasa bikaina egiteko baliatu genuen musika eskolako gaztetxoekin. Izan ere, aipatu ipuin musikala haur eta gazteentzako zegoen prestatua bereziki, eta musika sinfonikoko errepertorioaren baitako obra garrantzitsuenetako bat da, aldi berean frantziar haur-literaturako liburu-



Debagoieneko trikitixa eguna, elkartruke eta topaketak, lehiaketak... Toberak Aizkorpe bailararen mugak gainditzen ditu. Irudian, ikasleak Kursaalera kontzertu didaktikoan

bilduma ezagunenetako batean oinarrituta dagoelarik.

• **Asteburu betea izan zen otsailaren 23 eta 24koa.** Izan ere, aurrekoaz gain, bazen bestelako zitarik ere Andoainen. Han piano-jaialdia egin zen egun horietan Toberako piano-ikasleak ere tartean zirela. Tobera Musika Eskolako 20 piano ikasleek Andoaingo Bastero kulturagunean otsailaren azken asteburuan egindako Piano Jaialdian hartu zuten parte. Hirugarren aldia zen Piano Jaialdi hau egiten zela, eta hiruretan izan da partaide gure musika eskola. Dominak paparreratuta eta diplomak eskutan itzuli ziren handik herriko piano-jole gazteak gainera.

• **Handik egun gutxitara, otsailaren 28an,** erakutsi zuten piano-ikasleek Zegaman herritarren aurrean beren maila ona. Piano entzunaldian, aurreko ikasleek gain, musika eskolako gainerako piano-ikasleak ere aritu ziren. Kultur etxeko Oria izeneko areto nagusia txiki geratu zen bildutako jendetza hartzeko.

• **Martxoaren 6an** musika-hizkuntza atek zabalik irakatsi zen Aitzuriko 207. gelan. Musika-hizkuntzako eskoletan ikasleek lantzen dituzten kontzeptu, teknika eta lan-prozedurak ezagutarazteko helburuarekin egin zen hala hirugarren urtez.

• **Martxoaren 8 eta 9ko asteburuan,** piano-jole gazteei eta ganbera-musika taldeei zuzenduta dagoen Donostia Hiria Nazioarteko Piano Lehiaketa sonatuaren XV. edizioan aritu zen Toberako ikasleetako bat, ertainen atalean eta bakarkako modalitatean. Kasu honetan ere, badu eskarmentua Toberak lehiaketa honetan, eta Andoaingo jaialdia bezala, ikasleentzat beren musika-ikasketa prozesuan motibagarri gertatzea da bilatzen dena.

• **Martxoaren 11n** trikitixa- eta pandero-ikasleen entzunaldia eskaini zen Kultur Etxean.



Elkartrukearen barruko Tolosako emanaldian talde zabalak izan ziren protagonista



Tolosako musika-ikasleek eta Toberakoek maiatzean gimnasioan eskainitako saioa ikustera jendetza elkartu zen

• Aste Santuaren ondoren 16 urtetik gorakoentzat Txalaparta-ikastaroa

abiatzeko prestaketa guztiak eginda bazeuden ere, izena emandako lagunkopuru eznahikoak bertan behera uztera eraman gintuen. 2004an antolatu zuen eskolak antzeko ezaugarriekin txalaparta-ikastaro bat, eta orduan arrakasta handia izan zuen.

• Apirilaren 6an, Erlezainen egunaren barruan, trikitilari eta panderojole zazpikote bat aritu zen kalean ordubetez giroa berotzen. Parte hartu dugun bigarren urtea izan da.

• Akordeoi-, txistu-, klarinete- eta saxofoi-entzunaldi bateratua apirilaren 8an izan zen. Azken 2 musika-tresna hauek erakusteko, eskolako Segurako ikasleak etorri ziren.

• Inguruko musika eskolekiko harremanak modu formalean eratzeko bide modura ekin zion Tobera Musika Eskolak duela 6 urte ikasturtero elkartruke bana egiteari. Bestela esanda, 2001/2002 ikasturtean hasitakoa ohitura bihurtu da, eta aurten 7. urtea izan du elkartruke-zikloak. Hasiera batean gertueneko, hau da, Goierriko, musika eskolekiko loturak sendotzea izan zen helburua. Hala egin ziren elkartrukeak Beasaingo Loinatz, Ormaiztegi Txindata, Ordizian, Zaldibian, Legorretan eta Idiazabalen eskolak ematen dituen Ordiziako ikastegiarekin eta Lazkao eta Ataungo Lazkao Txiki Musika Eskolekin, hurrenez hurren. Eskualdeko musika eskolekiko hartu-emanak bideratuta, kanpora egin eta Tolosaldeko hainbat herritan diharduen Loatzo eta Orioko Danbolin musika-zentroak ezagutu zituen Toberak, azken hau iaz, horrek ere Toberak bezala 20 urte betetzen zituela aintzat hartuta. Aurten Tolosako Eduardo Mokoroa udal musika eskolarekin egin du musika-elkartrukea Toberak. Joan-etorriko saioa izan zen, ohi denez: aurrena Tolosako etorri ziren Zegamara, eta gero Toberakoak joan ziren Tolosara.

Maiatzaren 20an, Toberako ikasleek harrera egin ondoren, gure artean hain ohikoak ez diren musika-tresnak tartekatuz eskaini zuten emanaldia tolosarrek. Astebete beranduago, 27an, Toberako 60 ikasle inguruk emanaldi berezia eman zuten Tolosako musika eskolaren kontzertu-

aretoan, han ospatzen ari ziren musika-astearen barruan. Kasu batean zein bestean, amaieran, parte-hartzaile denok afari-merienda egin genuen elkarrekin.

• Arantzazurako Erromesaldian trikitixa eta pandero zenbait ikasleek musika jarri zuten urtero legez.

• Ekainaren 3an gitarrako ikasleen entzunaldia eskaini zen.

• Ikasturte amaiera musikaz ospatu genuen ekainaren 10ean. Gimnasioko emanaldia eta gero merienda egin genuen guztiok Zegamako Udalaren eskutik.

• Ekainaren 19an dantza-saioa eskaini zuten eskolako dantza-taldeetako 4k plazan, eskolako trikitilari eta txistulariek lagunduta.

• Ekainaren 23an, seigarren urtez jarraian, Tobera Musika Eskolako dantza-taldeen, trikitilariak eta Txistulari Bandak San Joan suaren inguruko usadiozko ekintzan esku hartu zuten, nahiz eta eguraldi txarrak partaidetza hau baldintzatu.

• Aizkorriko Lagunen Egunean Toberaren lekukoa trikitixa eta pandero hainbat ikasleek eraman zuten beste behin.

• Abuztuaren 24an, San Bartolome egunez, dantza-saioa eskaini zuten ikasleek jai-egitarauaren barruan herriko plazan zazpigarren urtez. Trikitilariak, gainera, goizeresi eta erraldoi eta buruhandien kalejiran aritu ziren.

2008/2009 ikasturtean % 15 egin du gora matrikulazioak Toberan aurreko

ikasurtearekiko. 71 zegamar ikasleek 130etik gora ikasgaitan eman dute izena. Tartean ikasle helduak ere badira, taldetxoa osatuta musikaren oinarritzko ezagutzan trebatzen hasi direnak.

• Ikasturteko ekintzetan lehenengoa azaroaren 16an, San Martin azokaren biharamunean, egin zen. 'Pirritx eta Porrotx' pailazo ezagunek pilotalekuan eskaini zuten 'Eskerrik asko' ikuskizuneko dantza-koreografiak egin zituzten Toberako dantza-taldeen han elkartutako ehunka lagunengandik.

• Azaroaren 25ean Santa Zeziliamusikariaren zaindariaren omenezko kontzertua izan zen Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan. Ikasleek Kukuxumusuk diseinatutako Musikalean elastiko bana jaso zuten opari Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen eskutik, eta Euskaraz Bai mahai-joko bana Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren eskutik.

Laburki azaldu dugun ekintza-sorta honetaz gain, ezin ahaztu Zegamako Txistulari Bandak egindako lana edo Zegamatik kanpo musika eskolak berak egindakoa, Zeraingo, Mutiloako eta Segurako ikasleekin.

2008 izenburu duen doinu honen azken nota eskerrak emateko gorde dugu, eta kalderoia darama, luzea behar baitu gure eskerrona merezi duzuen guzti-guztiengana iritsi ahal izateko. Mila esker guztioi beraz eta urte berri on!

Iker Gómez de Segura

TOBERA Musika Eskolaren izenean



Zenbaitzuetan, gure jardueraren emaitza beste batzuenarekin alderatzea lagungarri da ikasi eta hobetzeko. Tobera onik atera zen, adibidez, Andoaino piano-jaialditik; gure ikasleek maila ona dute zalantzarik gabe



ORKATZ Abesbatza



Ikasturte honetan Orkatz Txikin hasi diren partaide berriak

Gure elkartearen aurtengo ibilaldia egiteko eman ditugun urrats aipagarrienak nabarmentzea batere erraza ez den arren, ekintzez eta emanaldiez gain beste hainbat bizipen, esperientzia, lan eta sentipenek osatzen baitute egunez eguneko ibilbidea, ondokoa duzue aurtengo uzta.

Urteroko Batzar Orokorra, urtarrilaren 26an egin genuen. Bertan, 2008. urteko plangintza eta aurrekontuak onartzearekin batera, Gida Batzordeko kide bat izan zen ordezkaria, horrela Leire Igoa Arizkorretak Asun Aginagalde Larrañagari utzi zion leku diruzaintzako lanetan. Zuzendaritza lanetan berriz, Jabier Otaegi Goia aritu da Orkatzekin eta Orkatz Txikirekin ekainerate Juanjo Hernandez Martin tenerifearra, honela 2007-2008 denboraldirako hitzartutako lana burutuz. Urteko azken lau hilabeteetan Jabier Otaegi Goia izan da bi abesbatzetan zuzendaritza lanak egin dituena.

Gure elkarte osatzen duten bi abestaldeentzat, Orkatz abesbatza (ahots nahasietako taldea) eta Orkatz Txiki abesbatza (haur eta gaztetxoek korua) urte honek ezaugarri ezberdinak izan ditu.

ORKATZ ABESBATZA taldearentzat bere ibilbidean sakontzeko eta sendotzeko garaia izan da, hainbat emanaldietan bere lan hau agertuz. Honela, otsailaren 23an Zegaman Ainhoako Atsulai abesbatzarekin eginiko kontzertua eta martxoaren 21ean, Zegamako San Martin parrokiako Ostiral Santuko ospakizunean abestea izan dira agerbide hauetako lehenak.

Baina, ezbairik gabe, urte honetan burututako ekintzen artean nagusiena Orkatz abesbatzak 2008ko apirilaren 30etik maiatzaren 4era Dublinera (Irlanda) egindako irteera izan da. Azken hamar urteetan Orkatz Txikiko zuzendaria eta Orkatz abesbatzako

kide den Leire Lozano Arostegi bertan dagoela eta berak eginiko harreman eta prestaketeei esker egin dugu irteera hau. Lehen aldia zen talde bezala hegazkina hartzen genuela. Taldekide batzuk apirilaren 30ean irten ginen Santandergo aeroportutik Dublinerantz. Irlandako hiriburura iritsi, lau egunetan lolekua izango genuena aurkitu eta hirian buelta bat eman genuen bertako pub esanguratsuenak bisitatu; pub-ik zaharrena, txikiena, U2koen pub-a... ibilbide honetan lurralde horretan hain preziatua diren pintak (garagardoa) dastatzeko aukera izan genuen. Hurrengo egunean falta ziren taldekideak iritsi eta talde osatuta gero, Dublin hiriko txokoak ezagutzeari ekin genion: O'Connell Street, Henry Street, Grafton Street, St Stephen's Green, Phoenix Park, Trinity College unibertsitatea, Dublineko gaztelua, St. Patrick's katedrala eta Christ Church katedrala. Ostiralean, maiatzak 2, Malahide herrian, kontzertua eman genuen. Malahide Dublinetik 30 km. inguru dagoen kostako herria da, eta bertan bizi da Leire Lozano gure kidea eta egun honetan gure zuzendari izan genuena, Jabier Otaegik, arrazoi pertsonalak tarteko, azkenean ezin izan baitzuen joan. 11:00etan meza nagusian abestu ondoren, jendez betetako elizan kontzertu arrakastatsua eskaini genuen. Ondoren, Malahide herria ikusi eta bertako gaztelu ikusgarria bisitatu genuen. Trena hartu eta berriro Dublinerantz. Larunbatean, "Dublin bus"ean ibili ginen hiria ikusten; bisita aipagarrienen artean Guinness fabrika eta Kilmainhan Gaol kartzela. Iluntzero, Dublinen famatua den Temple Bar ingurura joaten ginen pinta batzuk hartzera. Benetan pub ikusgarrietan egoteko aukera izan genuen eta gure kantuekin bisitariak harrিতuta eta txundituta utzi genituen, txalo artean ilunabar politak igaro genituelarik. Igandean

Zegamara itzultzeko unea iritsi zen. Goizean goiz hegazkina hartu eta Santandergo aeroportura etorri ginen, handik autobusez etxera bueltatzeko. Bidaia ahaztezina izan da!!!

Honen ondotik, udazken aurretiko beste emanaldiak hauek izan dira: uztailaren 13an Zegamako parrokiaren Adinekoen Eguneko mezan abestea, uztailaren 19an Ainhoan (Lapurdi) Atsulai abesbatzarekin batera kontzertua, uztailaren 26an Otzaurteko ermitan gure abeskide den Ainara Arrieta eta Mikel Goiburu lagunak ezkontzan abestea eta abuztuaren 24ean San Bartolome egunez, Zegamako parrokiaren meza nagusia kantuz edertzea.

Bestalde, ORKATZ TXIKI ABESBATZA taldearentzat ere urte berezia izan da 2008. hau. Goian aipatu bezala, 2007-2008 denboraldian Juanjo Hernandez Martin Tenerifen jaio eta Donostiako Musikene Goi Mailako Konserbatorioan bere musika ikasketak egiten ari dena izan da zuzendaria. Berarekin lan interesgarria burutu du taldeak, batez ere kantaera eta abeslarien prestaketa musikala helburu izanik. Horretarako, apirilaren 12an eta 13an lan asteburua egin zuten Zarautzko aterpetxean. Era berean, pasa den ikasturtean eginiko lana, maiatzaren 18an Zegamako parrokiaren Lehen Jaunartzean ospaketako mezan abestutako kantuetan agertu zuten dotore.

Zoritxarrez, Juanjo Hernandezek izan duen osasun arazo bat dela eta, hernia diskal larri bat, egiteko honi ikasturtearekin batera amaiera eman behar izan zion, eta honela berari ekitaldi xume eta polit batean eman genion agurra ekainaren amaiera aldera. Beraz, 2008ko irailetik aurrera Jabier Otaegi ari da zuzendari lanetan eta horrela jarraituko du 2008-2009 ikasturtean



Orkatz Malahiden (Irlanda)



Giza dorrea egiten Orkatz abesbatzako kide batzuk



Dublingo pub batean Guinness bat hartzen

behintzat. Hori dugu orain erronka, beste epealdi baterako Orkatx Txiki abesbatzaren zuzendaritza finkatzea lehenik, ondoren epe erdira (laupabost urte) orain abeslari modura ari den kideren bat edo batzuk zuzendaritza lanetarako animatu eta prestatzearekin batera.

Bi abestaldeek oporraldiaren ondoren berriz ere irailtik aurrera lanean hasita gero, beste zenbait ekintza ere burutu dituzte. Hala nola azaroaren 1ean Orkatx Txikiko kideak Tolosan izan ziren Haur Abesbatzen Lehiaketa zuzenean ikusiz eta entzuz. Azaroaren 22an berriz, Zegaman Santa Zezilia kontzertua eman zuten bi taldeek. Gabon aldian berriz, urteetako ohitura onei eutsiz Segurako egoitzan izan da Orkatx Txiki abesbatza eta Beasaingo egoitzan berriz Orkatx abesbatza bertan dauden adinduei kantuarekin batera Olentzero eguneko eskean jasotako diruarekin opari bana maitasun osoz eskainiz. Gainera, Zegamako parrokiako meza nagusietan parte hartu dute

Orkatx Txiki taldeak Urteberri egunean eta Orkatx abestaldeak Eguberri egunean. Eta urteari amaiera emanez, abenduaren 27an ospatu dute XXIV. Eguberri Jaialdia, aurtengoan Oiarzungo Lartaun abesbatza ere lagun izan dutelarik kantuan. Ekitaldi honetan abestaldeetan 25 urte bete dituen Joseba Izagirre Arozena kidea txalotu eta zoriondu dute gainera.

Beste aipatzekoen artean, apirilaren 5ean eginiko Kantu Festa ezin ahaztu, urteroko kantu eske ohituretan ere parte hartzeekin batera (Santa Ageda eta Olentzero). Azkenik, urteko errepasso azkar



Santa Zezilia egunean, Orkatx Txiki abesbatzak emandako kontzertu

honetan gure elkarteari hainbat laguntza eskaini diozuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, zuek ere gurekin zaudetela bai baitakigu eta guretzat zuek ere Orkatx Abesbatza baitzarete. Mila esker denoi eta urte berri on!

JUBILATUEN Elkartea

Elkarte honetatik saiatzen gara mugimendua jartzan edadetuenen artean, animoa mantentzen eta bidaia eginez egun ederrak pasatzen, besteak beste. Urtean zehar egin dugunaren laburpen txiki bat da honako hau:

Urtarrileko lehen egunetan jarri ginen martxan. Errege Magoak bazetozela Zegamara Goialdetik behera, eta haien arropak dotore-dotore prestatu genituen.

Otsailaren 13an Lourdesko Amaren eguna ospatu genuen. Bittorio etorri zitzaigun Jubilatuen Elkartera meza ematera eta ondoren txokolate beroa eskaini genuen guztiontzat. Askok elkarrekin ginen Lourdesko Amaren eguna ospatzera.

Martxoan elkarteko Batzar Orokorra izan genuen. Azken urte hauetan jende gutxi inguratzen gara egun honetan. Aurtengo zozketan Santi Azurmendik izan zuen zortea bere alde eta berak eraman zuen beraz etxera opari sorta.

Apirilean gure artean ohikoa bihurtzen ari den Iratxera bidaia egin genuen. Zoragarri ibili ginen!

Maiatzean lehenengo irtenaldi "ofiziala" Xabierren antolatutako zen. Goizean, Zangotza ezagutu genuen, Xabierren bazkaldu eta arratsaldean Sos de los Reyes Católicos herrian izan ginen.

Alkate dugun Edurne Albizu eta Begoña Olarte gizarte laguntzaileari eskertzen diegu gure artean izan genituelako bazkarian. Eskerrik asko.

Uztailaren Zaragozako Expora joan ginen. Buruhauste eta arazo asko eman zizkigun, baina azkenean lortu genuen. Uste dut han izan ginenok egun ederra igaro genuela hainbeste gauza ikusiz. Hemendik, Marilu Asurmendiri eskerrak eman nahi dizkiogu bidaia hori prestatzeko bere beharra izan genuen eta.

Abuztuaren San Bartolome festetako paella lehiaketan parte hartzeraz gonbidatzen gaituzte. Beste elkarteekin batera aritu ziren guretzat ere bi bikote: Begoña Etxezarreta eta Jabier de Prado alde batetik eta Maritxu Galarraga eta Dami Etxeberria bestetik.

Gure elkartera etorri da saria aurtengoan, Begoña Etxezarreta eta Jabier de Pradok irabazi bai zuten. Zorionak! Ia hurrengo urtean Maritxuk eta Damik lortzen duten, ez etsi neskak!

Irailaren Baztan aldera antolatutako bidaia. Goizean Donibane Lohizune ikusi eta bazkaltzera Elizondoko Baztan Hotelera gerturatu ginen.

Urria: elkarteko Juntan sartu dira Mari Dolores Goia eta Enkarna Irastorza.

Gipuzkoa mailan adinekoentzat antolatzen den martxan ere izan ginen. Erreterian antolatutako zuten eta han izan ziren gure elkartetik lau bikote: Eugenio Ormazabal eta Mari Karmen Zabaleta, Jesus Telleria eta Begoña Etxezarreta, Ramon Arrizabalaga eta Enkarna Irastorza eta Nieves Arratibel eta Teresa Guridi.

Hilaren 17an Gernikako Urriko Azken Astelehen ospetsura joan ginen.

Azaroaren 27, 28, eta 29an bazkide eta laguntzaileei Gabonetako loteria banatu zitzairen. Larunbatean, urtarok hala eskatzen du eta, gaztaina jatea prestatu genuen.

Abenduaren 15etik 20ra kultur astea antolatutako genuen: mahai jokoak (briska, musa, puntua, tutea, eskoba, seiko urrea, etab.), bingoa, pelikula bat ikusi... Irabazleei sariak azken egunean eman zitzaizkien eta astea txistorra janarekin amaitu genuen.

Aginaldoa eman izan zitzairen edadetuenen. Ondorengo hauei, aurtengo honetan:

- Antonio Arakama Arrizabalaga
- Francisca Larrea Azurmendi
- Pako Pikasari Larrea
- Felix Mendizábal Azurmendi
- Juana Murgiondo Telleria
- M^a Milagros Telleria Guridi
- Maria Zabaleta Galparsoro
- Jose Mari Berasategi Guridi
- Maria Zabaleta Zabaleta
- Maria Jesus Lasa Inza
- Donato Arrieta Arrizabalaga

Bukatu aurretik ONCEko taldea prestatzen ari den antzezlanaren ikustera gonbidatu nahi zaituztet. Jakinaraziko dizuegu garaiz noiz izango den.

2009a urte zoragarria izan dadila guztiontzat!

ELKARTU Nahi

Azpiru-Ugarte
taldeak irabazi
zuen Taldekako
Saria



Txirrindulariak Zegamako helmugara iristear

Viveros San Antón taldeko Gorka Olaizola izan zen lehena eta 2 ordu eta 40 minutu behar izan zituen 93 km-ak egiteko. Bigarren postuan, 38 segundo beranduago Interesport Irabia taldeko Mikel Astiz iritsi zen eta hirugarren berriz Lan Mobil taldeko Mikel Elorza.

LXXVII. SAN BARTOLOME SARIA

Abuztuaren 31an, San Bartolome jaien azken egunean, LXXVII. San Bartolome Saria ospatu zen. Txirrindulari proba honetan afizionatu mailako txirrindulariek parte hartu zuten eta 86 izan ziren guztira Zegamako proban parte hartu zutenak. Guztira, 117km burutu behar izan zituzten Zegamako helmugara iritsi aurretik. Aurtengo txirrintu probako sailkapena honela gelditu da:

LXXVII. SAN BARTOLOME SARIKO SAILKAPENA:

1. KNEPPERS, PAUL HENDRI (TELCO-ALDABEA taldea) 02:59:56
2. TAMAYO, DIEGO ALEJANDRO (AZPIRU-UGARTE taldea) 03:00:05
3. LANA, GUILLERMO (AZPIRU-UGARTE taldea) 03:00:19

EKIPOKAKO SAILKAPENA:

1. AZPIRU-UGARTE 09:00:53
2. TELCO-ALDABEA 09:01:04
3. NATURGAS ENERGIA 09:03:47

MENDIKO SAILKAPENA:

1. LANA, GUILLERMO (AZPIRU-UGARTE taldea) 9 puntu
2. KNEPPERS, PAUL HENDRI (TELCO-ALDABEA taldea) 6 puntu
3. TAMAYO, DIEGO ALEJANDRO (AZPIRU-UGARTE taldea) 3 puntu

Beste urte batez ere ez dute hutsik egin Elkartu Nahi elkarteko txirrintuzaleek. Aurten ere urtero antolatu ohi dituzten bi txirrintu lasterketak antolatu dituzte.

XXIV. ELKARTU NAHI SARI NAGUSIA

Maiatzaren 4ean, XXIV. Elkartu Nahi Sari Nagusia ospatu zen jubenilentzat. Guztira 55 txirrintularik hartu zuten parte proban eta hauetatik 35 izan ziren 93km-tako ibilbidea amaitu zutenak. Otzaurteko helmugan



AITZGORRI Futbol Taldea



Beste urte batez AITZGORRI F.T. lehia aritu da Gipuzkoan barrena Zegama ordezkatzuz. 2007-2008 denboraldian kadete mailan bakarrik parte hartu ahal izan du Foru Aldundiaren kirol-politikak jarritako mugengatik, eta bere historia luzean lehenbiziko aldiz ez diote utzi infantil mailan taldea aurkezten. Zorionez badirudi gauzak aldatu egin direla. Aurtengo denboraldian, 2008-2009an, gestio pila bat egin da eta Zegamako Udalak ere babes osoa eskaini du, eta debekua kentzea lortu da. Horrela, historian lehen aldiz neska infantilen talde bat infantil mailan ari da jokatzeko eta ia ziur esan daiteke datorren denboraldian mutilen taldea ere sortuko dela maila berdinean lehiatzeko.

Kadeteen mailari dagokionez 2007-2008an, taldeak hasiera zaila izan zuen baina azkenean oso denboraldi ona egin zuen. 4. postuan bukatu zuen 22 punturekin, Idiazabal, Lasarte, Andoain eta Usurbil talde handien aurretik.

Andres Lucas eta Roman Leozen zuzendaritzapean Zegamako 5 jokalarik jokatu zuten denboraldi horretan Aitzgorri F.T.an: Unai Aierbek, Unai Armendarizek, Aritz Olaziregik, Joseba Olaziregik eta Arkaitz Urbiztondok.

Bukatzeke, Kluba datorren denboraldia prestatzen ari dela aipatu nahi dugu eta 94, 95, 96 eta 97.urteetan jaiotako neska eta mutilak animatu nahi zaituztegu herriko koloreak defendatuz taldeetan parte hartzera.



KZ Gunea

Nor gara?

KZgunea telezentroen euskal sare publikoa Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantzak Saileko Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritzara atxikita dago. Sarea 2001. urtean sortu zen, Euskadi Informazioaren Gizartean Plana 2002-2005 (EIGP) medio; planean ekimen ugari jasotzen ziren euskal gizartea Informazioaren Gizartean sartzera zuzentzearen.

Alfabetatze digitaleko proiektu honek hasiera-hasieratik izan du Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) laguntza Euskadiko Udalerri guztietan IKTen prestakuntzarako eta erabilerarako zentro publikoen sarea abian jartzeko. Gaur egun, KZgunea sareak erregistratutako 300.000 erabiltzaile inguru ditu; horietatik 100.000 baino gehiagok jaso du Interneten inguruko trebakuntza lehen aldiz. Gehienak emakumezkoak, langabetuak eta adinduak izan dira; hauda, teknologia berrietatik urrunen dauden sektore sozialetako kideak. PESIren lehen indarraldia amaitzearekin batera, Eusko Jaurlaritzak Informazioaren Gizartea bultzatzen jarraitu du PESI

2010: Euskadiko Agenda Digitala izeneko bigarren plana onartu arte.

EIGP 2010en arabera, KZgunea zentroen sarea azpiegitura garrantzitsua da* "izan ere, hasiera batean barneratze digitalaren alorrean txertatzea baldin bazuen helburu, egun, hedapena eta kapilaritatea dela eta, herritarrei eta enpresei zuzendutako (batez ere txikiei) irismen zabaleko jarduerak gauzatzeko plataforma bikaina osatzen du".

Gainera, plan berriak KZgunea sarea "Herritar Aktiboan" alorrean sartzen du. "Barneratze" atalean aipatzen du KZgunea sareak muga digitalaren kontrako tresna izaten jarraituko duela; izan ere, "talde zehatzak, hau da, 55 urtez gorakoak, emakumeak eta langabetuak Informazioaren Gizartearen oinarriko zerbitzuen erabilera trebatzea ahalbidetu du".

• *(infoegitura) - azpiegiturari edo ekipamenduari balioa gehitzen dien elementuak (hezuntza, zientzia eta teknologia, sistema legala, edukiak eta abar) txertatzen dituen kontzeptu berria. Azpiegitura bider infoegitura berdin Informazioaren Gizartea ateratzen da.

ZEGAMAKO KZGUNEAN

Gaur egun nahiz eta egunero ez egon Kzgunean turore bat, hamabostean behin ostiraletan etortzen da erabiltzaileek dituzten zalantzak argitzeko. Tutorearen bisita egunei buruzko informazioa Kzguneako atean eta mahai gainean aurkitzen dira eguneratuta.

Baina Kzgunearen zerbitzua ez da mugatzen tutorea dagoenera bakarrik. Edozein herritarrek KZgunea erabili nahi badu nahikoa du goizeko 9:00etatik 14:00etara Udaletxera joan eta giltza eskatzea, edo 17:00etatik 19:00etara liburutegian. Hori bai, aurrez Kzguneako erabiltzaile izan behar da. Norbait oraindik Kzguneako erabiltzaile ez bada eta bertako zerbitzuak erabili nahi baditu nahikoa du bertan aurkituko duen inskripzio orria betetzea eta atzealdean sinatzea, baina 16 urte izatea beharrezkoa da. Honekin tutoreak bere datuak KZgunearen sarean sartuko ditu eta berarekin harremanetan jarriko da erabiltzaile izena eta pasahitza emateko. Aurrez erabiltzaile den pertsona bat KZgunera joan eta ez bada bere datuetaz gogoratzen Ordiziko KZgunera (943884378) edo Beasaingora (943160147) deitu eta bere NAN zenbakiarekin emango zaizkio.

KZgunearen historia eta erabilerari buruzko informazioa eskaini ondoren gustatuko litzaidake gaur egungo Zegamako Kzgunearen egoera zenbakitan adieraztea:

6 urte pasa ondoren Zegamako KZgunean 117 pertsonak eman dute izena. 2008an 13 pertsona berri egin dira Zegamako KZguneako erabiltzaile. Erabiltzaileen %65 emakumeak dira eta %35 gizonetzkoak.

Susana Gomez

Zegamako KZguneako tutorea

CARLOS SASTRE

FRANTZIAKO TOURREKO

GARAILEA ZEGAMAN EZAGUNA

Carlos Sastre El Barraco (Avila) herrian jaiotako txirindulariak 2008ko Frantziako Tourra irabazi berri du. Bere maila gorena 2008 urtean lortu duen arren, aspaldiko txirindularia dugu Carlos zegamarrok ondo dakigunez. Ospetsu egin diren beste txirindulari batzuekin batera, Manolo tabernan egondakoa dugu Carlos Sastre ere; Zegama inguruko aldapak igoz zaildua eta Manolo tabernako giroak gozatua.

2007ko Errege bezperan Manolo tabernak ateak itxi zituen 62 urtetan zehar zegamarrontzat hain garrantzitsua izan den topaleku honek. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Arizkorreta Etxarte sendiari "Manolonen" igaro izan ditugun momentu ederren lekuko izateagatik.



Carlos Sastre hunkiturik



Manolo tabernako Manuel Arizkorreta bere seme-alabekin



AMEZTI Elkartea

Aurten ere, abendua iritsi zaigula-eta, atzera begirada bat bota beharrea gaude. 2008.a ere oso azkar igaro dela iruditzen zaigu, atzoko egunari begira gaudela dirudi.

Urte honetan Amezti Elkartetik antolatu dugun lehen ekintza otsailaren 9an ospatu zen, "Elkarteen Arteko Mus Txapelketa hain zuzen ere. Hainbat bikote hurbildu ziren elkartera arratsalde pasa kartetan egiteko asmoz. Txapelketan parte hartu zuten bikoteen artean Sebastian Lujanbiok eta Jose Manuel Debak osaturikoa suertatu zen garaila eta txapelkunorde postua berriz Fermin Mazkarian (Maxki) eta Jose Ramon Urbizrentzat izan zen.



Sebastian Lujanbio eta Jose Manuel Deba txapelkunak, Juan Berasategi Ameztiko Lehendakariarekin

Maiatzean, Amezti Elkarteko batzarra ospatu genuen eta batzar horretan, Lehendakari, idazkari eta upeltegiko arduradun berriak aukeratu ziren. Ordura arte lehendakari izan zen Juan Berasategik Jose Mari Bitarteri utzi zion lehendakari kargua, Izaskun Igoak berriz Eli Arrietaren esku utzi zuen idazkari izatearen ardura eta azkenik, Fernando Urbizuk hartu zuen ordura arte Jose Luis Galdosek bete zuen upeltegiko arduradunaren lana.

"Maiatzaren 25ean 7. aldiz jarraian ospe itzela jaso duen Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia ospatu zen, Amezti Mendi Elkartearen zuzendaritza teknikoarekin. Frogak eskaini zituen emaitzak eta gorabeherak jakinak badira ere, aurtengoan gogoratu beharrea gaude gure arteik joan den Ascen Arizkorreta Aldanondo, Zegamako Maratoiko zuzendari teknikoa eta elkarteko bazkidea den Alberto Aierberen emaztea eta frogako antolakuntzan murgilduta egonik, hainbat

lan egin eta hutsune betetzen zituena. Ziur gaude Ascen bidelagun izango dugula eta berak Zegamako Maratoiar zion maitasuna eta ekintza hau ahalik eta ondoen egiteko jartzen zuen ilusioa eta dedikazioa adibide gardena izango dugula gure jardunean.

Uztailaren 11an, uda iritsi zela aitzakiatzat hartuta eta urtero egin ohi dugun bezala, Amezti Elkarteko lagunarteko afaria egin genuen giro paregabearekin!

Aipaturiko ekintza hauez gain, herri mailan antolatu diren zenbait ekintzetan ere hartu dugu parte Amezti Elkartekook. San Bartolome jaietan, urtero legez Paella Lehiaketan parte hartu genuen, sagardo eta sardina dastaketan ere han ibili ginen esku bat botaz eta baita San Martin azokako gazta banaketan ere.

Aurtengo urtea ere konturatu gabe pasa zaigu. Datorren urterako ere beste hainbat ekintza prestatzen saiatuko gara.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON OPA DIZUEGU ZEGAMAR GUZTIO!



Ascen mendi lasterketa baten ondoren



GESTIÓN
SERVICIOS
RESIDENCIALES



**EGUNEKO ZENTROAN
GAUDEN GUZTIOK
GABON ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRIO ONA
OPA DIZUEGU**

Olaran kalea, 2 Bajo 2 • Telefonoa: 943 801 610 • E-mail: c.d.zegama@gsr.coop



ORMAZPEi, S.L.

2008 URTE ZORIONTSUA OPA DIZUEGU

URTE BERRI ON !!

**OLABERRI AUZOAN
AZKEN DUPLEX-AK
SALGAI**

**SAN JUAN AUZOA 20-LEHENA AXIRI ERAIKUNTZA
AZKOITIA • 943 85 73 54**



AIZKORRI

Guraso Elkarte



Zaintza zerbitzua

Urte urte bezala aurkezpen moduan, Aizkorri Guraso Elkarte, Aitxuri Herri Eskolako Guraso Elkarte dela adierazi nahi dizuegu. Beraz Herri Eskolako ikasle guztien gurasoek osaturiko elkarte. Berez guraso denak izan arren Elkarteko partaide, hauteskunde bidez aukeraturiko ordezkari bat arduratzen da Elkartearen betebeharrak kudeatzen eta aurrera eramaten. Bi urtetik ordezkari horren erdia berritzen da. Eta dokumentu hau idazten ari garen momentu honetan, hauteskunde prozedurak martxan jartzen ari gara, batzarkide batzuk beraien betebeharrak uzteko garaia iritsita, berriak aukeratzeko. Ondorengo zerrendan, azaroaren erdian elkarteak duen ordezkari ageri da, abenduan kideen erdiak berriak izango direlarik. Kide berriak 2009ko urtekarian agertuko dira.

- Vicente Rivas
- Elixabet Arrieta
- Xabier Arizkorreta
- Iker Goiburua
- Jon Elorza
- Xabier Ormazabal
- Karmele Ormazabal
- Juani Arzelus
- Txema Martin
- Alicia Acha
- Eba Larrea
- Ainhoa Sukia
- Ramoni Apaolaza
- Carlos Moran
- Maider Azurmendi

Beste behin gogora arazi nahi genuke Elkartearen egitekoa seme alaben heziketan Eskolako Irakasle Klaustroari laguntzea dela, eskola orduz kanpoko aktibitateetan eta aktibitate osagarrietan gehienbat. 2008an ere ohiko zenbait ekintza egin dira beste berri batzuen artean.

Ondoren aipatzen diren ekintzak egiteko barne antolaketa lanak ere izaten dira, ikasleen ekintzak koordinatu eta guztia aurrera ateratzeko gestioak eginez. Besteak beste honetarako guraso talde osoari oharrak bidaltzen zaizkio eta instituzio desberdinekin harremanak mantentzen dira helburuak betetzeko laguntza lortzeko.

Finantziario aldetik, gurasoen ekarpen eta Udal zein Foru Aldundiaren ohiko diru-sarrerak jasotzeaz gain, inguruko enpresa batzuen laguntza ere jasotzen denez guztiei lerro hauetatik eskerrik beroenak luzatu nahi genizkieke.

Aurretik aipatu den moduan Elkarteak antolatzen dituen aktibitate asko ohitura bihurtu dira, eta urtero ospatzen dira, baita 2008 urtean ere. Ondorengoak izan dira:

1. Inauterietako ostiralean txokolatada bertaratutako guztiei.

2. Kurtso amaierako festa haurrentzat puzgarri eta jolasekin.

3. Kurtso hasierako kirol festa irailean, Xabier Intsaustiren antolaketa eta gurasoen laguntzarekin.

4. San Martin festa: Pailazoak (Pirritx eta Porrotxen "Eskerrik asko" ikuskizuna aurtengoan) polikiroldegian eta ondorengo txokolatada.

Azken hiruhilabeteko honetan igandeetako pelikula emanaldiak ere jarri dira Kultur Etxean. Igande arratsalde hotzak pasatzeko aukera paregabea.

Aurtengoan bi ekimen azpimarratu nahi genituzke. Lehenik esan eskola komunitatearekin batera, Bizikidetzeta edo elkarbizitza plana egin ondoren, gatazken behatokia jarri dela martxan. Bestalde zenbait urtetan ahalegina egin ondoren ZAINZA edo eskola orduetatik kanpoko zaintza zerbitzua abiatu da. Hasiera batean beharra aztertu eta goizeko 8etatik 9etara eskaintzen da zerbitzu hau, eta Marian Telleria monitorea izaten da ordutegi horretan zerbitzua eskatzen duten ikasleekin. Momentuan hiru ikaslek erabiltzen dute zerbitzua finko bezala eta beste batzuek puntualki. Zerbitzua eskolako jangela eskaintzen da. Ikus argazkia.

ODOL EMAILEEN

Elkarte

2008an ere, 2007an bezala, hiru aldiz izan da odola emateko aukera Zegaman. Lehenbiziko eguna urtarrilaren 14a izan zen eta egun horretan 42 emailek eman zuten odola. Bigarrena maiatzak 26an izan zen eta urtarrilean baino jende gehiago animatu zen odola ematera, 50 guztira. Hirugarren eta azken aukera irailaren 29an izan zen eta kopurua igo egin zen 53 emailera iritsiz.

Aurten, Odol Emaileen elkarteak hiru zegamar omendu ditu odola ematerako

garaietan adierazi duten fidelotasuna eskertze aldera. 2008ko omenduak Joxe Anjel Telleria (25 emanaldirekin), Juan Mari Ormazabal (50 emanaldirekin) eta Guillermo Zubizarreta (25 emanaldirekin) izan dira.

Aipatzekoa da, aurten Gipuzkoako Batzar Nagusiak, sari berezia eman ziela, Gipuzkoako hainbat herriri, beren odol emaile kopurua, batez bestekoaren gainetik dagoelako. Horietako



Jose Anjel Telleria, Juan Mari Ormazabal eta Guillermo Zubizarreta odol emaileen elkarteak omenduak

bat Zegama izan da eta zorionak odol emaile guztioi!

TARTALOETXE

Kultur Elkarte



Inma Berriozabal Zegamarrek egindako ongi etorri irribartsu

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Zegamako Tartalo-Etxe Kultur elkarteak urtero ohi duen moduan, bere bazkideei eta Zegamako herriari zuzendutako hainbat ekintza egin ditu aurten ere.

Ekimen guzti hauekin saiatu gara, elkarte «gastronomiko» soila ez izaten eta urtero bezala herriaren aldeko kultur eta gizarte ekintzak egiten, horrela, aurtengoan ere gure nahiak beteta ikusi ditugu. Hau horrela izanda, hurrengo urteetan Kultur-Elkarte bezala aurrera jarraitzeko indarra ematen digu. Beste batzuen artean, honako ekintza hauek burutu ditugu joan den urtean zehar: mus txapelketa, sagardotegira irteera, bertso saioak, txakolin dastatzea, euskal preso, iheslari eta senideen aldeko ekimenak, sukaldaritza txapelketan parte hartzea...

Tartalo-Etxe Pilota Kirol-Elkarteak bestetik, aurrera jarraitzen du gaztetxoiei pilotan jokatu eta federatu gisan txapelketetan parte hartzeko aukera emanez.

2008ko EKINTZAK

Jarraian 2008. urtean zehar parte hartutako nahiz antolatutako ekimenen aipamena egingo dugu:

URTE ZAHARRETAKO PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO GAZTAINA JANA

Urteko azken egunean egin ohi den preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzearekin bat eginez, ohi den bezala gaztaina jana antolatu genuen. Falta zaizkigun herritarrek gogoratu agurtzen dugu urtea, dagoeneko usadio bihurtu den gaztaina jatean, eta aurten ere hor izango gara. Herritar guztiei luzatzen diegu gonbidapena denon ahotsak aldarrikapen bakarrean batu ditzagun:



**PRESO ETA
IHESLARI
GUZTIAK
ETXERA!!!**

IX. ARRANTZA LEHIAKETA

Urtero bezala, Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak herriko gaztetxoentzat arrantza lehiaketa antolatu zuen martxoak 15ean. Nahiz eta eguraldi paregabea ez izan, gaztetxoek eguna argitu orduko ekin zioten arrantzari.

Gazteen artean arrantzarako grina eta ilusioa urtetik urtera gorantz doala ikusita lehiaketa honekin aurrera jarraitzeko asmoa

daukagu. Ea, beraz, hurrengo urtean aurtengoan baino amuarrain gehiago harrapatzea lortzen dugun!

IPARRA - HEGOAN LAPIKO ARTEAN

Aurten ere ondoko herriko "bizilagunen" gonbitea jasota, gure elkarteko bi bikotek parte hartu zuten Seguran, Iparrá-Hegoa aste kulturalaren baitan egiten den sukaldaritza txapelketan. Ohiko den bezala gure elkarteko abileziak agerian geldituko zirela zalantzarik ez genuen. Hurrengoan ere han izango gara gustuko badute behintzat.

TARTALO-ETXE_rekin SAGARDOTEGIRA

Martxoaren 29an urteko ekintzarik arrakastatsuenetakoa izan genuen, herri guztiari zabalduriko irteera. Azken urteetako ohitura dugu sagardotegira irteera, eta egun horretan, Astigarragako Alorrenea sagardotegira joan ginen.

Autobusa beterik, 60 bat herritar joan ginen bertara. Sagardotegian bapo afaldu eta giro ederrean egon eta gero Astigarragan botatako parranda ere ez zen nolana hikoia izan.

2009rako ere, iazko arrakasta lortze asmotan, herri guztiari gonbitea luzatzen diogu eta egun ederra pasatzera animatu.

TARTALO-ETXE KULTUR ELKARTEAREN XV. Urteurrena

Aurtengoan maiatzaren 17an ospatu genuen elkartearen festa, nahiz eta XV. urteurren eguna maiatzaren 23a izan. Bertan laurogei bat lagun bildu ginen eta egun ederraz gozatzeko aukera izan genuen.

Hamaiketako eder batekin hasi genuen eguna Zegamako plazan sagardo kupel batek lagunduta. Bertaratu ziren guztiek aukera paregabea izan zuten eztarria goxatu eta sabela betetzeko. Batzuk jan eta edanean zebiltzan bitartean, berriz, herri kirolariak lanean izan genituen. Elkarteko bazkide Joxe Mari Esnaola eta Ugarteburu lagun, aritu ziren aizkora lanean. Bizkaia aldetik etorritako Joxe Lapazaran eta Ibon Irazola bestetik, lasto altxatzen aritu ziren. Ikuskizun polita eskaini zuten lau kirolariak.

Ondoren bazkari herrikoia izan zen Tartalo Etxe elkartearen eta bazkal ostean bertso-

saioa ere izan genuen. Joxe Munduate eta Unai Muñoa bertsolariak izan ziren giroa alaitzeaz arduratu zirenak.

Eguna bukatzeko berriz, herrian zehar trikitilariekin poteoa egin genuen, eta izan zen gaua asko luzatu zitzaionik ere.

PAELLA LEHIAKETA

San Bartolome jaietan ospatzen den Elkartearen arteko paella lehiaketan, Tartalo-Etxe elkartetik bi bikote aurkeztu ziren aurtengo jaietan. Bikoteak Tomas Lasa eta Xanti Bautista batetik, eta Anartz Oiarzabal eta Karlos Zuñiga izan ziren bestetik. Saririk lortu ez bazuten ere, giro ederrean lagundu zuten festa giroa jartzen; bat baino gehiagok sabela ondo beteta eraman zuten etxera.

ZEGAMAN EZ GAUDE DENOK

2008ko San Bartolome jaietan, Zegamako Preso eta Iheslarien aldeko taldeak egun berezia antolatu zuen, jai horiek etxekoekin ospatzeko aukerarik ez dutenak gogoan izateko. Egun horri amaiera ezin hobea emateko, Tartalo-Etxe Kultur Elkartearen laguntzarekin afari ederra egin zuten kioskoko plazan 70 lagunek.

Bestetik, gogoratu behar dugu gure herritar Inma Berriozabal 18/98 makrosumarioa dela eta aurtengo urtarrilean Guardia Zibilak atxilotu zuela, handik gutxira aske geratu bazen ere. Zegamako herritarrek hainbat elkarretaratze egin zituzten atxilotua zegoen artean haren askatasuna eskatuz, baita ongi-etorri beroa ere herrira itzuli zenean.

PAPELERAKO LIBURUAREN AURKEZPENAZ

Joan den irailean aurkeztu zuen Tartalo-Etxeko bazkide Angel Irigorasek 1865-1987, Zegamako papelera: 122 urte lanean liburua elkartearen bertan. Liburuaren aurkezpenaz gain, elkartearen hainbat paneletan papeleraren historiaren gaineko kontuak irakur zitezkeen. Aurkezpenak piztu zuen interesik, inguratu ziren guztien artean 128 liburu behintzat saldu baitzituen. Hainbat oroitzapen ekarri zituzten gogora, eta batean baino gehiagotan momentu hunkigarriak bizi izan zituzten.



Joxe Mari Esnaolaren erakustaldia Tartalo Etxe Kultur Elkartearen XV. urteurreneko ospakizunean Tartalo Etxeko sukaldariak San Bartolometako paella lehiaketan

XV. MUS TXAPELKETA

Hamabost urtetako esperientzia bizkarrean dugula, aurten ere egin genuen horrenbeste biltzen duen Mus Txapelketa. Iraileko azken ostiralean egin ziren kanporaketak eta urriaren lehenengo ostiralean berriz, finala.

Aurtengo mus txapelketa XV. izan zen eta parte hartu zuten 32 bikoteetatik


Jaun eta Denis Perez anaiak izan ziren garaile, Joxe Angel Alberdi eta Peio Apaztegi bestetik, bigarren gelditu ziren. Mus txapelketa arrakastatsua izan zen, eta elkartearen izenean partehartzaile guztiei gure esker-ona eta hurrengo urtean ere berriz elkartzeko gonbitea luzatzen diegu.

Beste aldetik, gure eskerrik beroenak laguntza eman diguzuen guztiei: Zegamako Okindegia, Aitzkorpe Edaritegia, Zegamako Kasinoa, Benito Harategia, Vendi Janaridenda Sebas Lujanbio, Mikel Matxinandiarena Arotza-Eraberritzeak, Txanton Edaritegia, Haizea Edaritegia, Caldas Harri-Lanak Antonio Castro, Mikel Igeltseritza, Ostatu Jatetxea, Ibañez Margolaria Iñaki Lasa, Tomas Margoak, Joakin Aroztegia, Joxe Telleria S.M. Aseguruak- korreduria, Txurreria Tabako-Edaritegia, Intxausti Arrandegia, Zegamako kooperatiba, Atxa Oilategia, Hirulan tailerrak

SAN MARTINETAN TXAKOLI DASTAKETA

Dagoeneko ohitura den bezala San Martin azokaegunean, Tartalo-Etxe Kultur Elkarteak txakolin dastatzea antolatu zuen. Aukera polita da hainbat txakolin dastatu, salda bero bat hartu eta mokadutxo bat egiteko. Aurtengoan Olaberriko Bengoetxea Txiki baserrian egiten den txakolina dastatzeko aukera izan zen, baita ohikoak diren Etxaniz eta Amezttoi txakolinak ere.

Esan beharrik ez dago inguratu ziren 200 laguneren artean solasaldi ederrak izan zirela giro jatorrean, bazkatzeko ordua iritsi bitartean.



TARTALO-ETXE PILOTA ELKARTEA

Azken hamarkada honetan bezala, herriko haur, gazte nahiz helduek aukera ederra izan dute pilotarekiko zaletasunaz gozatu eta goza arazteko. Asteazken zehar ia egunero izan da pilotaren zarata hotsa Toki Alai pilotalekuan. Asteazken eta ostiralean Pilota Eskolako haurrak ibili dira eta astelehen eta ostegunetan aldiz, Gipuzkoako Pilota Federazioan Tartalo-Etxe Elkartearen izenean federaturik dauden gazteak. Gaur egun 8 gazte ditugu elkartearen federaturik.

Aipatu beharra dago zenbait gaztetxoren kasua, non oraindik "umetxo" batzuek zirelarik hasi ziren frontoira joaten pilotan jolasteko intentzioarekin. Orditik urte batzuk pasa direlarik, takoak jarri eta hasieran ibiltzen ziren pilota goxoak alde batera utzi eta orain tokedun pilotari nola ematen dioten ikusi besterik ez dago. Pilota elkarteak kideentzat benetan pozgarria da hau, pilotarekiko afizioa dagoen seinale eta entrenatzaileentzako aurrera jarraitzeko ezinbesteko motibazioa.

Aurtengoan kadete eta afizionatuak, Gipuzkoako klubaren arteko txapelketa eta Udaberri Txapelketa buru belarri lehian ibili dira. Txapelketa hauei esker, urterretik apirilera eta irailera abendura, ia astebururo pilota partidak eduki ditugu ikusgai Toki-Alai pilotalekuan. Gipuzkoa osoa ere zeharkatu dute partiduak jokatu: Astigarraga, Hernani, Zumarraga, Beasain, Azpeitia, Azkoitia, Irun, Oiartzun, Añorgan, Donosti, Elgetan,

Arrasate, Bergaran... Hirugarren mailako kadetetan, Udaberri txapelketa, Unai Atxa eta Lander Ugalde segurarra Gipuzkoako txapelkun suertatu dira, finalean Donostiako aurkariei gailenduaz.

Parte harturiko beste txapelketei buruz aipatu beharra dago, maiatza eta ekainean antolatzen den "5 Herrien Arteko Txapelketa" (Zegama, Segura, Idiazabal, Zerain, Mutiloa), zegamarrak buru bularri ibili direla benjamin, alebin, infantil, kadete eta nagusien mailetan eta lorturiko emaitzak onak izan direla. Aurtengoan Segurako San Juan jaietan jokaturiko finalean, alebinetan finala zegamarren artean lehiatu da non Luis Bautista eta Iban Matxinandiarena garaile suertatu diren eta Xabier Azurmendi eta

Josu Oiarbide txapeldunorde. Infantiletan aldiz, Unai Atxa Segurako Lander Ugalde-rekin eta nagusien mailan Iker Zabaleta Segurako Jon Otegi-rekin bikotea osatuz, garaile suertatu dira.

Honez gain benjamin eta alebinak Lazkaoko torneoan parte hartu zuten eta Xabier Azurmendi eta Josu Oiarbide txapeldunorde gelditu ziren beren mailan. Momentu honetan, alebin eta infantil mailan buruzburuko norgehiagoketan parte hartzen ari dira Goierriko zenbait herritan.

Bukatzeko, Tartaloetxe Pilota Elkartetik, Gabonak ondo igaro ditzazuen eta 2009 zorionsua opa dizuegu herritar guztioi.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



Tartalo Etxe Pilota eskolako pilotari gazteak

ZEGAMAR BATASUN Elkarateak

Urtero bezala, zenbait ekintza edo jaialdi antolatu ditugu.

Hurrengo lerroetan aipatu eta zehaztuko ditugu banan-banan.

BERTSO JAIALDIA

Aurreko urtean bezala, aurten ere Erlezain Egunarekin lotu dugu bertso jaialdia.

Egun honetan, hau da, apirilaren 6an, izan genituen Toki-alai polikiroldegian eta Jon Zaldúa gai jartzaile zutela, azkeneko Gipuzkoako txapelketako finaleko zortzi bertsolariak:

Jexux M^a Irazu, Beñat Gaztelumendi, Unai Agirre, Andoni Egaña, Aitor Sarriegi, Ion Martin, Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia "Txapi" herritarra.

Aparteko giroa sortu zuten hauek, eta han bildutako jendetzak baita eskertu ere bere txalo zaparradekin.

KASINOKO XX IPUIN LEHIAKETA

Aurten ere, "Aitxuri" Herri Eskolako haurren arteko ipuin lehiaketa aurrera eraman dugu, bai herri eskola bertako irakasleekin eta bai kultur etxeko batzordearen laguntza paregabearekin ere.

Hauek dira aurtengo irabazleak epai-mahaiaren erabakiaren ondoren:

1. Maila

OIHANE PELAEZ PARRA
EGOITZ RIVAS LARREA

2. Maila

OIHANE TELLERIA EZAMA
ITXASO BERASATEGI ALBISU

3. Maila

ARANTXA ORTIZ ELORZA
ANE ASURMENDI LAZKANO

4. Maila

AINHOA SAEZ DE MATURANA ORMAZABAL
UXUE ARRIZABALAGA BEGIRISTAIN

5. Maila

AINHOA BERASATEGI ALBISU
IOSU OIARBIDE ARZELUS

6. Maila

MIKEL BERASATEGI ASURMENDI
MADDI ORMAZABAL ARIZKORRETA

Gustora asko haurrak bere oparixkoekin!

KASINOKO MUS TXAPELKETA

Baita ere, urtero bezala, mus txapelketa jokatu zen azaroaren 21 eta 28an.

Bertan 36 bikotek hartu zuten parte eta hilaren 21an murriztu ziren 8 bikoterarte beraiei tokatutako partidak jokatu eta gero. Beraz, 8 hauek, hilaren 28an neurtu zituzten bere habileziak txapela lortu asmoz. Azkenean Bernat Berasategi eta Gorka Lozanok lortu zuten bere burua estaltzea finala irabazi ondoren.

Bigarren Eugenio Ormazabal eta Pako Gomez gelditu ziren.



Kasinoak antolatutako bertso jaialdia



Mus txapelketako sarituak

ZEGAMAKO Zentro Meteorologikoa

Jarraian datu meteorologikoen batz-besteak azalduko ditugu. Gaur egun, www.euskalmet.euskadi.net web orrialdean informazio guzti hau eskaintzen dute. Beraz, afizioa duzuenontzat, hortxe datu zehatzak lortzeko modua.

PREZIPITAZIO GEHIEN EMAN ZEN EGUNA
2008-03-24

T. MAXIMOA EMANDAKO EGUNA
2008-07-23

T. MINIMOA EMANDAKO EGUNA
2008-02-12

HEZETASUN ERLATIBO HANDIENA EMANDAKO EGUNA
2007-11-23

ARGIBIDEAK

Prezipitazioa l / m2 Euria, m2 bakoitzean zenbat litro.
T. max Tenperatura edota hozberorik altuena
T. min. Tenperatura edo hozberorik txikiena
Haizea abiadura max. (km / h) Haizearen indarririk handiena, orduko zenbat kilometro
Hezetasun Bat. Best. Hezetasun handieneko eguna %

	Prez. (l/m2)	T. max. (°C)	T. min. (°C)	Haizea abiadura (km/h)	Hezetasun erlatiboa (%)
Azaroa 2007	42.8	23.7	-3.2	82.1	99
Abendua 2007	63	16.2	-1.4	110.9	207
Urtarrila 2008	98.4	16.2	-2.1	98.6	100
Otsaila 2008	36	17.7	-3.2	95.8	98
Martxo 2008	290.7	22.0	-0.3	78.1	78.1
Apirila 2008	182.7	25.9	1.5	115.9	115.9
Maiatza 2008	160.8	26.1	3.3	18.9	97
Ekaina 2008	134.3	30.6	7.6	22.7	97
Uztaila 2008	21.5	31.4	9,2	18.8	97
Abuztua 2008	78.9	30.7	10.1	21.7	97
Iraila 2008	32.1	27.6	8.6	17.5	97

GAZTE HEREXA Elkarateak

Gazte Herexako
kide batzuk
antolatu zituzten
San Bartolometako
haurren jolasak



Beste urte berri batez ere, hemen gatzogaz Zegamako Gazte Herexako kideak urtean zehar eginiko ekimenak narratzera.

Urtearen hasiera aldera Gazte Herexako kide den Arkaitz Ariznabarretaren familiari laguntzeko saski bat egin genuen herriko elkarte eta hainbat saltoki eta tabernen laguntzaz. Laguntza hauek izan ez bagenu ezin izango genuen horrelako saski ederra sortu, beraz, eskerrak eman nahi genizkieke beraien laguntza eskaini zigun orori. Izan ere, ekimen honekin diru kopuru polita lortu baikenuen familia honentzat, berriz ere, guztiei gure eskerrik beroenak.

Ohiturari jarraituz, inauterietan gazte poteoa alaia izan genuen ostiral iluntzean. Segidan herriko pilotalekuan mozorro afaria egin genuelarik, bukatzeko dantza lehiaketa izan genuen aurten ere. Giro jator batean murgildurik iragan zen gau partea, nahiz eta beti bezala sari banaketarekin guztiak ez ados jarri. Bi sari mota izan genituen mozorro onenari saria eta dantzako bikote onenari saria, epaileek lan gogorra izan zuten baina azkenean hartu zuten beren erabakia. Lehen saria Pipiz jantzi ziren neska talde bati eman zitzaion eta dantzako saria berriz, Jaun Perez eta Iñaki Izkori. Saria urdaiazpiko

bana izan zen.

San Bartolome jaietan ere gazteak ez ziren atzera geratu eta abuztuaren 30ean (larunbatean) zegoen hutsunea probestu genuen Gazte Afaria egiteko. Betiko moduan trikitixa eta panderoaren laguntzaz hasi genuen iluntze partean poteoa herriko taberna ezberdinetatik, ordu zehatzik jarririk ez genuenez, jendea gutxinaka-gutxinaka joan zen inguratzen. Gosea nabaritzen hasi zen eta onena afaltzera joatea zela erabaki genuen. Afaria giro alai batean pasa ondoren herriko festetaz geratzen zitzaigun apurra disfrutatzeko asmoz irten ginen denok festara.

Herriko ganadu azoka dela eta, San Martin egunaren inguruan egiten dena, txerrikumearen zozketa da eta aurten ere egingo dugu. Pilotalekuaren kanpoan eduki dugu txerrikumea, umeen entretenigarri izaten da normalean, eta errifak ere bertan izan ditugu saltzeko. Pilotaleku barnean gazta lehiaketaren sari banaketaren ondoren egin dugu zozketa.

Euskal usadio zaharrak mantentzeko asmotan Abenduaren 24ean Gabon eskean ateratzeko asmoa dugu. Aurreko urteetan bezala, gazte guztiak elkarrekin

herriko ostatuan bazkaldu eta bi taldetan banaturik abiatuko dugu eskea. Talde bat goiko baserrietara joango da eta beste bat berriz, beheko baserrietara; hori bai, talde bakoitzak trikitilari eta panderojole bana eramango dituelarik bidea alaitzeko. Egia esan, giro polita sortzen da eta guztiok gonbidatu nahi zaituztegu parte hartzera horrelako ekintzetan.

Bukatzeko esan, urtean zehar eginiko ekintza guztietan Zegamako Gazte Herexak lortu duen diru guztia Arkaitz Ariznabarretaren familiari eman zaiola, berarekin gure konpromisu eta laguntasuna adierazi nahian. Aurrerantzean ere Zegamako Gazte Herexak aurrera jarraituko du bere ekintzak gauzatzuz eta denon babesa eta laguntza eskertua da alde zuretik.

AIZKORRIKO Lagunen eguna



IX. AIZKORRIKO LAGUNEN EGUNA

Uztailaren 6an, ospatu zen Aizkorriko Lagunen Eguna. Goizeko 6:00etarako batzuk Aizkorri aldera eta 7:30etarako besteak Aratz aldera abiatu ziren.

Goizeko 6:00etako zitara urtero mendian ibiltzen oso ohituak daudenak joan ziren eta 7:30etarako zitara, mendi eta kultur iteera nahasian egitera animatu zirenak

joan ziren. Izan ere, Aratzeko bidea hartu zutenek, Aratzeko elurzuloa bisitatu zuten, Antton Burcio, erreskate taldeko kideak aurrez sokak jarri zituelako bertara jeisteko eta barnean, Isabel Elorzaren azalpenak izan zituzten bertaratuek elurzuloari buruz. Txango majikoa izan zen, izan ere, entzun, askok entzun dute Aratzeko elurzuloari buruz zerbait, baina sartzeko zortea ez du hainbeste jendek izan.

Ondoren, bi txangoetakoak Sancti Spiritun elkartu, eta Iñaki Arantzadiren meza entzuteko aukera izan zuen nahi zuenak, Zegamako trikitilarien doinu hotsarekin eta Udalak eramandako otarteko eta edangarria lagun. Ondoren, eguerdiko 13:00etan herrira abiatu zen jendea eta herrian salda beroa eskaini zitzaion partaideei.



Aratzeko elurzulotik ateratzen



Sancti Spiritu elkartu ziren Aizkorri eta Aratzen izendakoak

Zegaman hirugarren sektoreko hainbat zerbitzu ditugu. Hauen artean estetizista, ile-apaintzaile, esku-terapeuta eta fisioterapeutak. Batzuk, beste herrietara atera dira beraien lanbidea aurrera ateratzeko. Alde profesionalari eta bezeroa zaintzeari garrantzia handia ematen dioten pertsonak ditugu.

ELKARRIZKETA

Estetizista



Pili

Arizkorreta Etxarte

Bezeroak kariñoz hartzea eta beraietaz arduratzea gustatzen zait

Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman, 1966ko urriaren 5ean.

Nola erabaki zenuen ikasketa horiek egitera?

Eskulanak egitea beti gustatu izan zait, eta estetizista ikasketak egiteko izena eman nuen. Gero eta gehiago gustatu zaidan lanbide bat izan da.

Noiz ireki zenuen Ximen edergintza?

1989ko urriaren 5ean ireki nuen, 19 urte daramatzat zerbitzu hau eskaintzen Zegaman.

Zer zerbitzu eskaintzen dituzu?

Depilatu, makilatu, pedikura, manikura, azala garbitzea, aurpegirako tratamenduak, gorputzerako tratamenduak, solariuma. Kosmetika, jantzi-osagarriak, etab.

Urte hauetan kosmetika produktuetan zer aurrerapen sumatu dituzu?

Urteen poderioz produktuak ezagutzen joan naiz. Nik produktuak erosten dizkiodan etxeak kalitate-prezio eskaintza ona egiten duela uste dut. Gainera, bezeroak ere erosten dizkirate eta niretzat bezeroei ematen diedana ona izatea oso garrantzitsua da.

Depilazio mundua asko aldatu da?

Depilatzeako makinatxoak sortu zirenetik jende askok etxean egiten ditu lan horiek. Bestalde, bezeroek gero eta tratamendu gehiago egiten dituzte. Eta



Andraitz, 1 kaleko edergintza zentroa

berrikuntza nabarmena laser bidezko fotodepilazioa da.

Bi hilabetetik behin etortzen zaizu enpresa bat hori egitera, ezta?

Bai, horrelako herri batetarako ezin zen horrelako makina garesti bat ekarri. Beraz, saiatu nintzen bi hilabetetik behin enpresa batek konpromisoa hartu eta zerbitzu hori Zegaman eman zezan.

Laser bidezko fotodepilazioa garestiagoa da, baina uste dut epe luzera merezi duela

Zeintzuk dira laser bidezko fotodepilazioaren abantailak?

Garestiagoa da, baina uste dut merezi duela epe luzera begiratu gero. Azal zurietan eta ilea iluna denean oso ongi funtzionatzen du.

Edade guztietako jendea etorriko zaizu.

Bai, baditut emakume edadetu zoragarriak, helduak, gazteak, bai neska eta bai mutil.

Mutilak gero eta gehiago beraz?

Bai, depilatzaera etortzen direnak eta beraien azala zaintzera etortzen direnak. Kirola ohikotasunez egiten dutenentzat berriz oso komodoa da depilatzea, masajeak emateko, etab.

Zure lanean ari zaren bitartean jendearekin hitz egiteko denbora ere badago

Niri jendearekin egotea asko gustatzen zait, jendearengana iristea. Niretzat oso garrantzitsua da bezeroak kariñoz hartzea, bezeroak ongi sentiaraztea.

Zer gehiago eman dizu ogibide honek?

Lanbide honek asko eman dit. Nire alabak hazten ziren bitartean beraiekin egon ahal izan dut, sendiarengandik gertu, lanbidea eta sendia uzartu ahal izan dut.

BEGOÑA ALBISU

Amaia

Viana Martinez de Apellaniz

Bezeroak nire bizitzako zati garrantzitsu bat dira

Non eta noiz jaio zinen?

Maeztun (Araba) jaio nintzen 1961eko azaroaren 27an.

Nola hasi zinen ile-apaintzaile izateko ikasketak egiten?

Nik pediatria ikasketak egin nituen Iruñean, eta lana aurkitzea zaila ikusi nuen. Beraz, Gasteizen euskara ikasten hasi nintzen goizetan eta arratsaldez ile-apaintzaile izateko ikasketak egiten. Betidanik gustatu izan zait ile-apaintzaileen lana eta orduan egokitu zitzaidan ikasketak egiten hastea.

Eta han ezagutu zenuen Karmele Telleria, ezta?

Bai, Karmele ere ile-apaintzaile izateko ikasketak egitera joan zen Gasteiza. Biok oso lagun egin ginen, ahizpa moduko bat bihurtu zen niretzat. Karmelek oso garbi zuen ile-apaindegi bat ireki nahi zuela Seguran eta berarekin etorri nintzen.

Ile-apaindegiari esker bizimodua aurrera atera dut eta lagun onak egin ditut

Bi neska gazte beraz Seguran. Zer oroitzapen dituzu?

Oso oroitzapen onak ditut. Lan asko izaten genuen. Elkarrekin oso ondo moldatzen ginen eta bion artean ile-apaindegia eramatea oso polita izan zen, beste txispa bat ematen dio negozioari ere.



Ugarteburu auzoko bere ile-apaindegian Amaia lanean

Bartzelonara ere joaten zineten zuek eguneratzeko ikastaroak egitera

Bai, gazteak ginen, 22 urte inguru, beste loturarik ere ez genuen. Bartzelonara ere joaten ginen eguneratzeko eta hobetzeko ikastaroak egitera.

Baina, Jose Ramon ezagutu eta Zegaman geratu zinen

Nik uste ez nuela, ni ez bai nintzen hona etorri geratzeko asmotan. Maitasun kontuak ordea, horrela izaten dira eta pozak zoritzen nago hemen.

Zure ibilbidea zabala da: Beasainen, Zegamako Artzaneko lokalean ere aritua zara.

Bai, jada 26 urte daramatzat ile-apaintzaile gisa. Bi alaba ere izan ditugu eta dena eraman behar da aurrera. Beasaingo lana utzi egin behar izan nuen bigarren alabaren haurdunaldian eta Idoia izan ondoren Artzaneko lokala ikusi nuen eta bertan jartzera animatu nintzen.

Beraz bezeroek urte asko eramango dituzte zurekin

Nik ditudan bezeroak orokorrean nirekin urteasko daramatzate. Haurretan niregana etortzen zirenak ere, orain ezkondu eta umeekin ikusten ditut.

Gizonezkoak nolakoak dira ile-apaindegian?

Gizonezkoekin lan egitea erraza da. Erraz konformatzen dira eta beti pozik joaten dira.

Neguan lan gutxiago egiten duzue?

Nik ofizio honetan hasi nintzenetik agenda guztiak gordeta ditut eta lan gutxi egin den hilak azaroa eta otsaila dira. Eguraldi hobekak hasten direnean, jendea ere animatzen hasten da.

Ez dakit deskonektatzen, oporretarako zortzi egun hartzen ditudanean ere bezeroetan pentsatzen aritzen naiz

Urte hauetan zein aldaketa nabarmenduko zenituzke?

Produktuetan asko aurreratu da. Ilea askoz gehiago zaintzen da orain. Bestalde, ile-apaindegiaren itxura asko zaindu behar da, jendeak asko begiratzen dio orain irudiarri.

Zure lanbidetik, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Asko gustatzen zait egiten dudana, beti gustatu izan zait.

Ile-apaindegiak hitz egiteko aukera ere ematen du

Ile-apaintzaileok "psikologo" ere izan gaitzke. Jendeak bere gauzak kontatzen dizkidanean nirekin konfiantza badutelako dela pentsatzen dut. Uste ez dugun arren, jende asko dago norekin hitz egin ez duena. Eta niretzat bezeroak nire bizitzako zati garrantzitsu bat dira. Ile-apaindegiari esker, bizimodua aurrera atera dut eta lagun onak egin ditut.

BEGOÑA ALBISU



Idoia

Apaolaza Etxepare

Ile- apaintzaileen artean giro ederra dugu

Non eta noiz jaio zinen?

Lesakan, 1969ko abuztuaren 1ean. Nik hiru urte nituenean etorri ginen Zegamara.

Nola animatu zinen ile-apaintzaile izatera?

Nire aitaren arreba gazteenak animatu ninduen, izeba Maria Jesusek. Berak betidanik ikasi nahi omen zuen eta hala biok batera ikasi genuen Logroñon.

Noiz ireki zenuen zure lehenengo pelukeria?

22 urterekin. 1991kako urriaren 11n. Olaran auzoan etxea erosi genuen eta hantxe egokitu genuen ile-apaindegia. Gaztea nintzen, hasieran ez dakizu nola aterako den, eta ahizpa Ramoni eta biok hasi ginen elkarren babesean. Han hamar urte egin nituen.

Eta gero Beruntze-Txikin ile-apaindegia jarri zenuten


Bai, etxe hauek egin zituzten eta ondoko lokal hau erosi genuen. Handia da, goxoa, etxetik bertan dut.

Etxe ondoan ile-apaindegia izatea abantaila handia izango da, ezta?

Bai, pauso batean nago. Ile-apaindegiko lanak egin eta seme-alabez arduratu naiteke; bizitza familiarra eta lana uztartzeko abantaila handia da.

Bezero gehienek telefonetik hartzen dute ile-apaindegira etortzeko ordua?

Bai, telefonoz hitz egiten dugu. Biontzat erosoagoa da, nik badakit zer ordutan etorriko zaidan eta berak ere ez dauka zain egon beharrik. Horrela hobeto antolatzen gara.



Beruntze-Txiki kaleko Idoiaren ile-apaindegia

Zure lanetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Bezeroa gustura doala notatzea da gehien gustatzen zaidana. Eta ispilu aurrean jar daitezela, beraien burua ikusi eta zerbait aldatzea, desgastatzea nahi badute, nahiago dut esatea eta konforme joan daitezela.

Ile-apaindegian oso elkarrizketa politik sortzen dira. Ni pozik egoten naiz

Orain ile motxa gehiago ikusten da

Bai, erosotasunari gehiago begiraten zaio, orain ez dira ikusten lehenengo ile luze haiek, informalago ibiltzen gara.

Tintek, metxak asko erabiltzen dira

Koloreekin asko jokatu daiteke. Nahiz eta bi pertsoneri ile-ebaketa berdina egin, kolore desberdina ematean pertsona horri bere estiloa ematen diozu.

Gizonezkoak beraien itxuraz ardurtzen dira?

Mutil gazteak orrazkera desberdinak nahi izaten dituzte. Krestak, gominak, metxak...

Gizon helduak errazago etortzen dira. Orain dela urte batzuk bazirudien hauek

bakarrik emakumezkoentzako ile-apaindegiak zirela.

Jendeak modan dagoena egiteko eskatzen dizu?

Bai, batzuk bai. Batez ere orrazkeraren bat oso modan jartzen denean. Dena den, orokorrean azkenean guri ongi geratzen zaigun ile-orrazkerarekin geratzen gara.

Jendaurrean lan egitea erraza egiten zaizu?

Bai, niri ez zait ezer kostatzen. Uste dut izaera ona dudala horretarako. Umetatik Baztartzon ere ohituta nengoen.

Tertulia politik ere sortuko dira, ezta?

Bai, lanean ari naizen bitartean beste pertsona batzuk ere zain egoten dira eta guztion artean oso elkarrizketa jatorrak sortzen dira. Oso gustura egoten naiz.

Herriko ile-apaintzaileak elkartzten zarete?

Urtean afari bat egiten dugu, ederki pasatzen dugu. Ikastaroetara ere elkarrekin joaten gara, norbaiti produkturen bat falta bazaio besteari eskatzeko konfiantza badago. Gure artean giro ona dago.

Pelukeria zerbitzuaz gain, zer gehiago eskaintzen duzu?

Solariuma ere badut, erabiltzen ditudan produktu guztiak salgai daude, lepokoak, belarritakoak, koloniak, etab.

BEGOÑA ALBISU



Juan Mari

Elorza Izeta

B arbero lanean beti gustura ibili naiz

Non eta noiz jaio zinen?

Seguran jaio nintzen 1945eko apirilaren 30ean.

Nola hasi zinen barberitzan?

Hamaika urterekin hasi nintzen. Segurako Juan Kruz Zabala, "Barbero Txikia" bezala ezagunak, laguntzaile bat behar zuela eta, gure aitarekin hitz egin zuen. Horrelaxe hasi nintzen hari laguntzen larunbat eta igandetan.

Nolakoa zen orduko barberitza?

Jende gehiena asteko bizarra kentzera etortzen zen. Larunbatean ordu bietan hasi eta gaueko hamaikak edo hamabiak arte aritzen ginen eta igandetan goizeko bostak aldera aldaba joka izaten genuen beti norbait 6:30etako mezetarako txukun joateko.

Zenbat urte egin zenituen "barbero txikiarekin"?

Lau urte izan ziren hari laguntzen. Labainarekin aritzen ginen orduan. Nik bizarra beratu, alkoholarekin makinak garbitu, eta ilea mozten geroxeago. Hamabost urterekin berak aholkatuta, gehiago ikas nezan, Ordiziako Simon Olea barberoarengana joan nintzen. Han astelehenetik larunbatera lanean aritzen nintzen.

Barberitzatik bakarrik ikusten al zen etorkizunik?

Ez. Ordiziako Simon Olearekin bi urte egin eta Idiazabalgo Bellota fabrika hasi nintzen lanean.

Nola jarraitzen du zure ibilbideak?

Barberitzarekin lotuta orduan ere, lima fabrikatik Segurako "Barbero Txikia"ri laguntzen jarraitzen nuen, iluntzetan eta aste bukaeretan soldaduskara joan behar izan nuen arte. Baina gaztetan ikasi



la 40 urtetan izan da Juan Mari barbero

nuenetik etxekoentzat eta auzokoentzat ni nintzen barberoa. Emakumeei ordea, sekula ez.

Soldadutzan ere ordea barbero izan zinen zu

Bai, nire ofizioa han ere barberitza izan zen.

**Hamaika urterekin
hasi nintzen Segurako
"Barbero Txikia"ri
laguntzen**

Soldaduska eginda laster Zegaman jarri zenuen zeure bizartegia.

Bai, Seguran lau barbero bazeuden eta hemen nik jarri nuenean Inazio Arizkorreta zebilen. Juan Kerejetak denda eduki zuen lokal hartan jarri nintzen lehenbizi. Gazteagoek ulertzeko, Santi Martin eta Kontxi Otaegiren arrandegia egon zen hartan. Han hiru edo lau urte egin eta neure lokala erosi nuen Buztinkalen.

Beti ibili zara geroztik fabrikako lanean eta barbero bezala iluntzetan eta larunbat arratsaldetan?

Bai, horrela jarraitu dut. Gogoratu nahi nituzke lehenbiziko urteak: larunbat

iluntzetan jendea kalera mokadutxo bat, tragotxo bat hartzera etortzen zen eta barberian tertulia ederrak, presarik gabe, sortzen ziren. Barberia beti izan da tertulia goxoak sortzen ziren lekua.

Zer aldaketa nabarmenduko zenituzke?

Lehen bezeroei ilea busti gabe mozten genien ilea, guraizeak herdoildu egiten ziren orduan. Guraizetan asko aurreratu da. Tolosako etxe batetik erosi ditut nik beti. Bestalde, lehen hilean behin etortzen zen jendea barberira ilea moztera. Lehen halaxe zen, ilea txukun eta motx eramaten zen.

Berrogei urtetan makina bati ilea moztuko zenien, zuri nork moztzen dizu?

Segurako barberoa izan dena, Gregorio Urrujolegi, etortzen da eta elkarri moztzen diogu ilea.

Udaberrian itxi zenuen barberia. Faltan botatzen duzu?

Bai, tertuliak eta, faltan botatzen ditut. Aldaketa bat da baina ohitzen ari naiz. Orain bilobekin eta beste bizi modu bat dut. Bilobei, semeei eta etxekoei ilea moztzen jarraitzen dut.

BEGOÑA ALBISU



Leire

Ugartemendia Arin

Nire ilusioa beti izan da ile-apaindegi propioa izatea

Non eta noiz jaio zinen?

Billabonan, 1976ko abuztuaren 12an.

Hemen izeba, osaba eta lehengusuak izanda Zegama txikitatik ezagutuko zenuen, ezta?

Bai, osaba Juan Mari Elorza gainera herriko barberoa izan da. Gero Joseba Izagirre ezagutu nuen, nire senarra, eta Zegamara etorri nintzen bizitzera.

Txikitatik ile-apaintzaileen lana gustatzen zitzaizun?

Bai, gogoratzen dut pelukerietan ile-apaintzaileek nola lan egiten zuten begira egoten nintzela. Txikitatik erakarri nau lan honek.

Ikasketak hasterakoan garbi izan zenuen orduan?

Bai, B.B.B.ko ikasketak amaitu ondoren, 18 urterekin, nik garbi nuen hura ikasi nahi nuela. Etxekoek, beste zerbait aurretik ikastera nahiago zuten, bai nik garbi nuen barrutik ateratzen zitzaidana hura zela eta pelukeria ikasketak hasi nituen.

Zenbat urte izan ziren?

Ikasketak bi urte eta beste urtebete hobetzeko. Ikasketak hasi eta berehala lanean hasi nintzen asteburuetan ile-apaindegi batean. Gero, zortzi urte egin nituen beste ile-apaintzaile batzuentzat lanean Andoainen, Tolosan, Donostian eta Billabonan.

Eta Zegaman zure ile-apaindegia ireki zenuen

Bai, 2003ko urrian ireki nuen. Nire ilusioa beti izan da ile-apaindegi propioa izatea, baina ez zen erraza izan. Nirearekin laugarren ile-apaindegia zen hemen. Goiekin bideragarritasun-azterlan bat



Leirek Olaran auzoan du bere ile-apaindegia

egin genuen eta irekitzeko erabakia hartu nuen, oso pozik nago.

Ile-apaindegiko zerbitzuaz gain, zuk zerbitzu gehiago ematen dituzu

Bai, nik depilazioa ere egiten dut, makilatu, manikura eta pedikura, solariuma ere badaukat.

Nik bezeroak ile-apaindegitik gustura irtetzea nahi dut

Denetik beraz, ez daukagu inora joan beharrik dotore-dotore jartzeko

Nahi izanez gero behintzat, hemen gaude. 1.500 biztanleko herria izateko denetik daukagu Zegaman. Ni ere Billabonakoa izanda herri txiki asko ezagutzen ditut, eta beti esaten dut, hemen denetik daukagula.

Mutil gazteak modernoagoak al dira?

Batzuk bai, mutil gazte batzuk mozketa modernoak eskatzen dituzte, depilatzera etortzen dira, kolorea ematera gutxi, mutil gazte modernoak ere badaude.

Haurrentzako tronua ere baduzu

Beraiantzat toki berezia da. Batzuk erlaxatu egiten dira, baina beste batzuk

ez dira geldi egoten, haur batzuk geldi edukitzea ia ezinezkoa da, normala den bezala.

Zer moduz moldatzen zara komertzialekin?

Batzuk astun xamarrek ere jartzen dira, baina beraien lana egiten ari dira. Bakoitzak badaki zer produktuekin lan egiten duen, zer nahi duen bere ile-apaindegian, eta etxe batzuekin lan egiten duzu.

Eguraldi onarekin lan gehiago egiten duzue?

Bai, asko nabaritzen da. Egunak luzatzen hasten direnean, ezkontzak eta jaunartzeak datozenean gehiago apaintzen gara. Gainera nik makilatu ere egiten dut, depilazioa...udaberrian dena mugitzen da.

Orain herri txiki batean ari zarenez jendearekin harreman sakonagoa izatea errazagoa izango da

Gure ofizio honetan lanean ari garen bitartean bezeroarekin hizketan aritzen gara. Nik biei ematen diet garrantzia. Nik nahi dut ate horretatik jendea gustura ateratzea. Horretarako bezeroarekin konfiantza izatea garrantzitsua da, berak zer nahi duen jakiteko eta bestalde, harreman bat sortzen da. Ni lagun izan ninteke, pertsonari entzun... Batzuk presaka etortzen dira eta gero joateko ez dute presarik izaten.


BEGOÑA ALBISU



Mainer

Garaiar Lardizabal

Lanera gustura etortzen naiz, gustatzen zaidanean ari naiz lanean, ile-apaindegia



Aseginolaza Anaiak, 11 kalean du Mainerrek ile-apaindegia

Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman, 1976ko maiatzaren 20an.

Txikitan ile-apaintzaile izan nahi zenuen?

Bai, betidanik garbi eduki dut ile-apaintzaile izan nahi nuela. 17 urterekin hasi nintzen horretarako ikasten. Bi urtetako ikasketak izan ziren Donostiako "Paris Bi" akademian. Ondoren, hobetze kurtso bat egin nuen, eta baita Bartzelonako "Cebado" ile-apaintzaile katean ikastaro bat ere.

Zenbat urterekin ireki zenuen zure lehen ile-apaindegia?

20 urterekin jarri nintzen Mayi janari-denda izan zeneko lokalean. Han 7 urte egin nituen. 2002. urtean neure lokala erosi eta ile-apaindegia jartzea erabaki nuen.

Jendaurrean lan egitea erraza egin zitzaizun?

Bai, niri ez zitzaidan ezer kostatu. Ohituta nengoen. Amak Seguran taberna eduki zuen eta han ohituta nengoen.

Ile-apaindegiko produktuetan asko hobetu al da?

Bai, produktuak ileari kalte gutxiago egiten diote orain. Alergia arazoak zituelako orain dela urte batzuk jende kopuru batek ezin zuen tinterik erabili, orain ordea badaude horientzako ere tinteak.

Gizezkoak zaintzen al dute beraien itxura?

Orain gehiago arduratzen dira beraien itxuraz. Moda ere gehiago jarraitzen dute. Lehen ilea luzatutakoan moztera bakarrik etortzen ziren.

Jendea prest egoten da orrazkera aldatzeko?

Gazteak gehiago, ausartagoak dira.

Ezkontzetarako orrazkera bereziak eskatzen dizkizute?

Bai, jendea ezkontzetarako asko prestatzen da. Ile-biltzeak, orrazkera landuagoak, kardatuak, etab. Jaunartzeak eta ezkontzak datozenean asko mugitzen da ile-apaindegia.

Betidanik garbi eduki dut ile-apaintzaile izan nahi nuela

Gauza gehiago ere badituzu hemen salgai

Ile-apaindegian erabiltzen ditudan produktuak salgai daude. Belarritakoak, lepokoak, eskumuturrekoak, lepo-zapiak, bufandak, aterkiak. Gehienbat herrian aukera bat edukitzeko dauzkat, norbaiti opari bat egin nahi badiozu, etab.

Ile-apaintzaileak ordu asko zutik egiten dituzue. Bizkarretik sufritzen duzuz?

Bai, niri bizkarra kargatzen zait. Askotan joaten naiz masajistarena. Burua garbitzen postura txarrean aritzen gara, besoak beti gora altxatuta, ordu asko zutik...

Aldizkariek, telebistak, zerk markatzen du moda?

Aktoreen orrazkerek asko eragiten dute. Goya sariak, Oscar sarietara aktoreek eramaten dituzten orrazkerek tendentzia markatzen dute. Aldizkari eta telebistetan asko ateratzen dira eta jendeak horrelako orrazkerak eskatzen ditu. Victoria Beckham orrazkera oso famatua izan da.

Eguneratzeo ikastarorik egiten duzuz?

Bai, urtero egiten ditut, eta ikasteaz gain lankideekin egoteko ere aprobetxatzen dugu. Gipuzkoako Ile-apaintzaileen Elkarteko kide naiz eta urtero feriak, galak eta ikastaroak antolatzen dituzte. Madrilan, Bartzelonan eta Donostian izan naiz.

Zegamak izan duen biztanleriaren gorakadak eraginik izan al du zure lanean?

Bai, asko. Kanpotik jende asko etorri da eta nire ile-apaindegia ikusi egiten denez, asko nabarmendu dut.

Gustura zaude ile-apaindegian?

Lan aldetik ezin dut gehiago eskatu. Lanera gustura etortzen naiz, gustatzen zaidanean ari naiz lanean, ile-apaindegia nirea da eta ondo doakit.

BEGOÑA ALBISU



Ainhoa

Irastorza Larrea

Txikitatik izan nahi nuen ile-apaintzaile

Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen 1974ko abuztuaren 25ean.

Txikitatik izan nahi zenuen ile-apaintzaile?

Bai, betidanik gustatu izan zait ile-apaintzaile izatea. Txikitan ere ahizparekin ile-apaintzaileetara jolasten genuen.

Ikasketak non egin zenituen?

Ile-apaintzaile izateko lehen ikasketak Donostian egin nituen. Hobetzeko beste urte bat Iruñean egin nuen eta eguneratzeko ikastaroak Donostian egiten ditut.

Zenbat urte daramatzazu ile-apaintzaile bezala lanean?

Hamahiru urte dira jada.

Donostiara joatearena nola izan zen?

Aukera on bat izan nuen eta bizitza honetan aukerarik ezin denez galdu, aprobetxatu egin nuen. 1995etik 2000ra arte Antiguu auzoko Seminario ondoan nuen ile-apaindegia. Gero, Benta Berrin lokal handiago bat erosteko aukera eduki nuen eta leku komertzialagoa denez, bestea saldu eta ile-apaindegi berria ireki nuen.

Ainhoa Irastorzaren ile-apaindegiaren helbidea zein da, non aurkituko zaitugu?

Jose Maria Sert Enparantzan gaude, 10. zenbakian.

Ile-apaindegiaz gain, zerbitzu gehiago eskaintzen dituzu?

Bai, estetika zerbitzua ere eskaintzen dut.

Zure lanetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lehen esan bezala txikitatik gustatzen zaidan lanbide bat da, baina bat bakarra esan beharko banuke gehien gustatzen



Donostiako Benta Berri auzoan aurkituko dugu Ainhoa

zaidana bezeroarekin dudan harremana dela esango nuke.

Langileak badituzu? Nola eramaten da nagusi izatearena?

Bai, bi langile ditut eta oso gustura nago beraiekin. Gure artean oso giro ona dugu, urteak daramatzagu elkarrekin eta nagusi izatearena ez zait zaila egiten.

Bezero finkoak ditut, batzuk orain dela hamahiru urte hasi nintzenekoak

Lehiakortasun handia sumatzen da Donostian?

Nik ez dut bizi arazo hori, baina egongo dela pentsatzen dut. Bezero finkoak ditut, batzuk orain dela hamahiru urte hasi nintzenetik. Bestalde, Donostia turismotik asko bizi denez, pasaeran beti sartzen da norbait.

Esan ohi da hiriburuetan ile-apaindegiek irudiari (lokalaria) garrantzia gehiago ematen diotela, horrela dela iruditzen zaizu?

Nire iritziz hala da, orokorrean badirudi hiriburuetan horrela dela.

Zegaman ile-apaintzaileak astelehenetan ez dute lanik egiten, hor nola egiten duzue?

Norberaren arabera izaten da hori hemen. Nik astelehenetik ostiralera irekitzen dut eta larunbatetan 13.00ak arte.

Zeuri ile orrazkera aldatzea gustatzen zaizu?

Ikasten hasi nintzenean frogak egitea gustatzen zitzaidan eta hainbat orrazkera ezberdin ibili nituen. Orain aldatzea ez zait hainbeste gustatzen.

Anekdotaren bat edo gauza bereziren bat gogoratzen duzu?

Urte hauetan asko izan ditut. Behin, herriko bat urte asko ikusi gabe egon ondoren ile-apaindegira etorri zitzaidan eta ez nuen ezagutu. Eta orain dela gutxi gertatutakoa: bezero batek bere heriotza programatu eta bere buruaz beste egin ondoren, niretzako idatzitako agur karta bat ekarri zidatela.

Zegamarrak zure ile-apaindegira joaten zaizkizunean poztuko zara, ezta?

Bai, asko pozten naiz. Herriko gorabeherak komentatzen ditugu, oso pozgarria da herrikoak hemen ikustea.

Zegamara sarri etortzen zara, ezta?

Bai, asteburutan beti Zegaman hor izaten naiz.

BEGOÑA ALBISU



Karmele

Telleria Muñoa

Jendeari laguntzen saiatzen naiz

Non eta noiz jaio zinen?

Zerainean, 1963ko urtarrilaren 14an

Hamazazpi urterekin Gasteizen hasi zinen ile-apaintzaile ikasketak egiten.

Bai, hamazortzi hilabeteko ikasketak izan ziren eta han ezagutu nuen Amaia Viana. Gero hobetze ikastaroak egitera joaten ginen Bartzelonara.

Handik Seguran ile-apaindegia ireki zenuten hemeretzi urterekin

Bai, ez zen erraza izan baina azkenean lokal bat aurkitu nuen. Geroago ahizpa Mari Luzek edergintza ireki zuen han bertan.

Hogeita sei urte beraz ile-apaintzaile?

Gustuko lanean segituan pasatzen da denbora. Urte hauetan hilero jornala atera ahal izan dut. Papelera itxi zenean hortik bizi izan ginen. Eta suerte handia da, gustuko lanean lan egitea. Askotan pentsatzen dut, nik bezero honi kobratu beharrean ordaindu egin beharko nioke, pasatu dudan denbora goxo honengatik.

Edadean arabera zer ile orrazkera nahi du jendeak gaur egun?

Lan egiten duten emakumeek erosotasuna nahi dute, emakume edadetuek ilea orrazkera eginda eta gaztetxoak dira ilearekin lan gehien hartzen dutenak.

Eta gizonzkoen buruz?

Gizonzko batzuk ile-mozketa batera ohitzen dira eta horixe nahi dute. Beste batzuk kanak disimulatzea nahi izaten dute. Gazteen artean berriz, Zegaman ikusten ditut orrazkera modernoagoak Seguran baino.



Segurako Lardizabal kaleko 27. zenbakian du Karmelek ile-apaindegia

Askotan izan dituzu neska gazteak zuri laguntzeko?

Bai, orain Nagore dabil nirekin. Idoia, Edurne, Ziortza, etab. Uste dut gazteen bultzada oso garrantzitsua dela. Bestalde, bezero gazteekin hobeto konektatzen dute beraiek.

Askotan pentsatzen dut, "nik bezero honi kobratu beharrean ordaindu egin beharko nioke", gustuko lanean aritu eta hain une goxoa pasatzeagatik

Jende aurrean lan egitea nolakoa da?

Aritzeak berak erakusten dizu. Jendea egin diozunarekin pozik ateratzea nahi duzu. Ni saiatzen naiz jendeari ahal dudan hobekien egiten Bestalde, garbitasunari garrantzia handia ematen diot. Beti da atsegina jendearekin tratatzea. Jendeak asko ematen dizu.

Zer zerbitzu eskaintzen dituzu?

Ile-apaindegiko lanaz aparte, depilatu eta makilatu. Nik erabiltzen ditudan produktuak ere jendeak erosten dizkit.

Eguneratzeko ikastaroak egiten jarraitzen duzue?

Bai, beharrezkoak ditugu. Zegaman eta Seguran ile-apaindegia ditugunak elkarrekin joaten gara hala egokitzen denean. Giro ona dugu gure artean.

Beste ile-apaindegi batzuk ikusten dituzunean begia hara joaten zaizu?

Bai, dudarik gabe. Gainera batzuetan bi ile-apaintzaile elkartu eta joan izan gara beste ile-apaindegi batera bezero bezala. Nola lan egiten dute ikusten duzu eta esaten diozu zuri buruari, nik ere hori egiten badakit eta gustura etortzen zara.

Etxeetara ere joaten zara?

Bai, hainbeste urte lanean eramanda, bezero batzuk jada ezin dira etorri, eta beraien etxeetara joaten naiz.

Lanbidea eta sendia uztartzea nolakoa izan da?

Niri inguruan beti oso jende ona tokatu zait. Bai etxeko eskaileran eta baita ile-apaindegi inguruan ere. Horien laguntza izan dut.

Zenbat ile-apaindegi dituzue Seguran?

Hiru gaude Pili Otaegi zegamarra, Izaskun Agirre segurarra eta ni.

BEGOÑA ALBISU



Loli

Otaegi Lazkano

Txikitatik hasi nintzen anaiari eta ahizpari ilea mozten

Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen 1957ko irailaren 13an

Txikitan gustatzen zitzaizun ile-apaintzaileetara jolastea?

Bai, anaiari txikitan hasi nintzen ilea mozten. Eta ordutik nik moztu diot, baita bere ezkontza egunerako ere. Nik ez banion mozten beste inorengana ez zela joango esan zidan. Ahizparekin berriz, behin kopetako ilea moztu nahi zuela eta, mozten hasi eta zuzen geratzen ez zenez, azkenean moztu eta moztu, erabat gaizki utzi nion eta denboralditxo batean haserretuta egon zen nirekin. Beti gustukoa izan dut eta txikitan ere hala ibiltzen nintzen.

Nola izan ziren ile-apaintzaile izateko pausoak?

Nik sekretariado ikasi nuen eta "Plásticos Mel"en eta Papeleran lanean aritu nintzen. Papelera ixteko hotsak hasi zirenean ile-apaintzaile ikasketak egiteko nire aukera huraxe zela pentsatu nuen. Beti izan nuen ile-apaintzaile izateko har hori eta orduan gauzatzen hasi nintzen.

Non ikasi zenuen?


Donostian ikasi nuen eta gero hobetze ikastaro bat egin nuen Bartzelonan.

Zure ile-apaindegi propioa ireki nahi al zenuen?

Bai, Zegaman irekitzea pentsatu neukan. Aurretik Elgoibarren eta Zumarragan lanean aritu nintzen beste ile-apaindegi batzuetan eta gero proposamen bat jaso nuen Seguran ile-apaindegia itxi zuen batengandik.

Nola izan zen hura?

Bera Donostiara zihoan bizitzera eta nik han jarraitu nahi al nuen proposatu zidan.



Segurako Lardizabal, 13an du Lolik bere ile-apaindegia

Niri ordura arte ez zitzaidan burutik pasatu ere egin han jartzea, baina horrela izaten dira gauzak eta hantxe jarri nintzen.

Noiz ireki zenuen zure ile-apaindegia?

1989ko uztailaren 7an izan zen.

Zer da gehien gustatzen zaizuna zure lanetik?

Ilea moztea dela esango nuke, zer aldaketa ematen zaion pertsona baten itxurari, nola etorri den eta nola joaten den ikustea.

Atsegin dut ikustea nire lana egin eta zer aldaketa izaten den etortzen direnetik joaten diren arte

Nola zaindu behar dugu ilea?

Nire ustez ongi elikatu behar gara. Ileari dagokionez, ile motaren arabera txanpu on batekin garbitu, maskarillak jarri, etab. Ilea pertsona baten egoerari buruz asko esaten digu.

Eta tinterik gabe, ile zuria ondo eramateko zer egin behar dugu?

Gaur egun bakarrik txanpu urdin bat dago ile zuria ondo eramateko, ileari horitasun hori kentzen diona.

Zer da ile-apaindegietan gehien egiten dena?

Nik uste ilea moztu eta tintea, metxak edo brilloa ematea dela gehien egiten duguna.

Zein egunetan egiten da lan gehien ile-apaindegian?

Ostiral eta larunbatetan. Baina sumatzen da aldaketa. Lehen, ni hasi nintzenean, jendea asteburuetako gehiago prestatzen zen. Orain ez zaio asteburuan ondo egoteari hainbeste begiratzen eta behar dutenean etortzen dira, astearte batean ostiralean bezala eduki dezakezu lana.

Gizonezkoak nolako bezeroak dira?

Beraiekin lan egitea oso erraza da. Esker onekoak dira, ez dira ezertaz kexatzen. Mutil gazteak, batzuk behintzat, mozketa modernoak nahi dituzte eta oso garbi dute zer nahi duten. Jaunartzea egiteko ilea moztera datozenak ere beraiek esaten dizute zer nahi duten, orain ez da izaten amak esandakoa egitea, nahiz eta bederatzi urte izan.

Beste ile-apaindegi batzuk ikusten dituzunean begira geratzen zara?

Bai noski! Eta oportetara joaten garenean ile-apaindegi batetara sartu eta bezero sentitzea asko gustatzen zait.

Eguneratzeo ikastaroak egiten jarraitzen duzue?

Bai, behar beharrezkoak dira. Bartzelonan eta Madrilen ibilia naiz. Baina sendia duzunean, zailagoa da egun askotarako joatea

BEGOÑA ALBISU



Arrate

Igoa Arizkorreta

Masajea emateak oreka lortzen laguntzen du

Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman, 1975eko apirilaren 17an

Nola animatu zinen ikasketa horiek egitera?

Beti izan dut gogoko biosanitaria adarra. Hortik jotzeko asmoa nuen. Gero, aitak istripua izan zuen eta urtebeteko errehabilitazioa izan zuen. Etxean bizi izan genuen. Hala animatu nintzen Donostiako Kiro's akademian masaje ikasketak egiten hastera.

Zenbat urteko ikasketak dira?

Kurtsoka egituratuta dago. Guztira zazpi urte izan ziren. Nik masaje terapeutikoa, kirol-masajea, drainatze linfatikoa, reedukazio posturala, bendajea ikasi nituen.

Noiz hasi zinen lanean?

1998an hasi nintzen. Gurasoek Txarapen pisu bat badute, eta han hasi nintzen. Irakasleek esaten ziguten lanean hasteko horrela ikasten zela.

Eta gero Andraitz kaleko zentroa ireki zenuen

Bai, 2000an ireki nuen plazako lokala, askoz erosoagoa da. Jada baneraman denbora bat lanean eta aurrera jotzea erabaki nuen.

Bezero edadetuen artean zer da ohikoena?

Gehienak ajeak dituztelako etortzen dira, desgasteak, artrosiak, artritidak eragindako minak pairatzeko. Artikulazio arazoak, etab. Bakarrik moldatzeko arazoak dituztenen etxeetara ere joaten naiz beraiei gauzak errazteko.

Helduen artean zer da gehien eskatzen dizutena?

Lunbagoa, ziatika, bizkarreko mina, belauneko mina...Lehen esan dudan bezala artikulazio arazoak izaten dira gehienbat eta horrek eragiten duen



Arrate Andraitz kaleko esku-terapia zentroan

inguruko muskulaturaren kontrakturak. Baita bizkar eta oinetako arazoak desgasteak eragindakoak gehienak.

Eskuekin lan egite horrek, "kontaktu" eta erlazio horrek, pertsonari onura fisikoaz gain, onura siko-emozionala ere eragiten diola esango nuke nik

Eta bezero gazteek?

Lanean beti mugimendu berdinak egitearen ondorioz sortzen diren lesioengatik, lan estresak eragindako tentsioak libratzeko, kirolariak hankak kargatzen zaizkielako, kalanbreak libratzeko, lesiorik badute ari begira, etab. Orokorrean erlaxatzeko ere sarri etortzen dira, bai kirolari eta kirolaria ez dena ere.

Zertan laguntzen du masajea emateak?

Eskuen igurtziaren bidez inflamazio edo handituak jaitsi eta kontrakturak askatzen. Aldi berean nerbio sistema erlaxatu egiten da, gorputz osoaren erlaxazioa lortuz. Masajeak gorputza ahalik eta bere modu hoberenera eramaten laguntzen du. Oreka lortzen laguntzen du.

Eskuekin lan egiten duzu. Horrek zer onura dakarzkio pertsonari?

Dauzkagun arazo fisiko asko tensionalak eta emozionalak dira. Pertsonen arteko erlazioa ere gero eta hotzagoa da. Gero eta indibidualistagoak bihurtzen ari gara eta ez badirudi ere honek emozionalki asko eragiten digu. Oraingo bizi erritmoak ere ez digu batere laguntzen eta tentsio asko barneratzeak ez dio gorputzari mesede egiten.

Beraz, eskuekin lan egite horrek, "kontaktu" eta erlazio horrek, pertsonari onura fisikoaz gain onura siko-emozionala ere eragiten diola esango nuke.

Lanean daramatzazun urte hauetan zer aldaketa nabarmenduko zenituzke?

Jendea gero eta kontzienteago da masajeak zer onura ekartzen dituen eta gero eta gehiago joaten da horrelako zentroetara. Esan liteke bakoitzak geure gorputzaren armonia gero eta gehiago estimatzen dugula. Hala behar gainera!

Zure lanetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lana bera gustuko dut. Jendearkin izaten den konfiantza harremana, zenbait arazo konpontzen direla ikustean, eta neure burua horiek konpontzeko gai naizela ikustea.

Pertsoneni mina kendu eta gutxitu egiten diezu. Zeuri ere poza emango dizu horrek

Bai, satisfazio handia da, zuk egindako lanak ondorio positibo bat izaten duelako eta pertsonari on egin eta ondo sentitu arazten diozulako.

BEGOÑA ALBISU



Naiara

Gomez Larrea

Hitz bitan esateko, fisioterapiak gorputzeko estruktura guztia bere onera ekartzean datza

Non eta noiz jaio zinen?

Tolosan, 1982ko urriaren 5ean.

Erdia ordea, Zegamakoa zara

Bai, ama Arantxa Larrea, Zegamakoa da. Aitona Bernardo Igartugoena baserrikoa nuen eta amona Joxepa Koba baserrikoa da.

Eta amaren jaioterrira itzuli zara fisioterapia zentro bat irekitzera. Non ikasi zenuen?

Fisioterapia ikasketak Madrilgo Alfonso X El Sabio Unibertsitatean egin nituen.

Betidanik ikasketa horiek egin nahi izan zenituen?

Bai, txikia nintzenean behin fisioterapeuta batengana joan ginen eta ikaragarri gustatu zitzaidan. Gero, ikasketa horiek eginda bizimodua atera zitekeela pentsatu nuen eta hala joan nintzen Madrilera ikastera.

Nolakoa da ikasketa programa?

Alde praktikoa asko lantzen da. Hasieran klasean traumatologia praktikak egiten genituen: kolpeak, kontrakturak, giharretako arazoak, kirol-lesioak, etab. Ondoren, zentro neurologiko batean egon nintzen garun-perlesiak, meningitis, Down- sindromeak tratatzen. Azkenik, Gomez Ulla Ospitalean egon nintzen. Haurdunaldiaren ondoren eta heldutasunean izaten diren genu isuriak tratatzen, etab.



Naiarak Andraitz kalean du bere fisioterapia zentroa

Oro har, zertan datza fisioterapiak?

Hitz bitan esateko, gorputzeko estruktura guztia bere onera ekartzean datza.

Presaka bizitze honek gorputzari ez dio mesederik egingo, ezta?

Ez, gero eta presa gehiagorekin bizi gara, gero eta gauza gehiago egin nahi ditugu, eta gorputzak ez du dena aguantatzen. Gorputzak erlaxatu egin behar du.

Niretzat oso garrantzitsua da lanean ari naizen bitartean bezeroari zer daukan, zer egiten ari naizen eta zergatik azaltzea

Noizean behin gorputza erlaxatzeko saio bat ondo letorke orduan?

Bai, bi hilabetetik behin giharrak askatu eta gorputza erlaxatzea eguneroko martxan jarraitzeko komenigarria da. Bestela gero, gorputza kargatu egiten da eta okerrago da.

Eskuarekin lan egitea garrantzitsua da?

Bai niretzat eta baita bezeroarentzat ere. Askoz hobeto sumatzen da eta kontaktua garrantzitsua da.

Tratamendua egiten ari zaren bitartean azaltzen diozu bezeroari zer egiten ari zaren?

Bai, niretzat oso garrantzitsua da hori. Zer daukan azaldu, zer egiten ari naizen eta zergatik.

Eskuaz aparte, zer aparatuz baliatzen zara laguntzeko?

Elektroterapia, ultrasoinuak eta terapia konbinatua. Baita bentosa bidezko masajea, parafina bidezko masajea eta infragorritzko masaje-aparatu bat ere badut.

Kurtso gehiagoren tituluak badituzu hemen. Zeintzuk dira?

Madrilgo Universidad Complutensen "Experto en Acupuntura para Fisioterapeutas" egin nuen, eta euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialean ondorengo hauek: "Kinesiologia lokomozio-aparatuan aplikatuta", "Lunbalgiak eta ziatalgia: azteketa, diagnostikoa eta tratamendua" eta "Eskuekin egindako drainatze linfatikoa"

Uztalean ireki zenuen Andraitz kalean fisioterapia zentroa

Bai, Madrilan bazegoen lana, baina ez nuen hiri handi batean geratu nahi. Euskal Herrian ez dago hainbeste lan eta hirietan jada badaude fisioterapia zentroak. Nik ere, herri txikiak oso gustuko ditut eta hemen jartzea pentsatu genuen.

BEGOÑA ALBISU



Alaitz

Zubizarreta Otaegi

Jendeari bere osasun arazoetan laguntzea gogoko dut

Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen 1975eko martxoaren 8an.

Nolatan animatu zinen fisioterapiako ikasketak egitera?

Lanbide atsegina iruditu zitzaidan, jendeari bere osasun arazoetan lagundu ahal izatea gogoko nuen. Aldi berean, bezeroekin izaten den hartu eman zuzena ere oso aberasgarria izango zela pentsatu nuen eta hala izan da.

Non egin zenituen fisioterapia ikasketak?

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egin nituen fisioterapia ikasketak. Euskal Herrian ez zegoen ikasketa hauek egiteko aukerarik eta beraz, Bartzelonara joan behar izan nuen.

Gogorra izan al zen etxea utzi eta Bartzelonara joatea?

Hasieran gogorra egin zitzaidan, ez nuen han inor ezagutzen eta lekua ere erabat arrotza zen niretzat. Hala ere denbora pasa ahala bertara ohitzen joan nintzen eta orain oso gustura joaten naiz bertara ikasle garaiko oroitzapenak berrituz.

Ikasketak bukatu eta gero zer?

1997an bukatu nituen ikasketak eta urte hartan bertan Donostiako Gurutze Gorrian hasi nintzen lanean. Bertan hiru urte eman eta gero, Gurutze Gorriak funtzionamendua aldatu zuen ospitale izateari utziz. Orduan, Gurutze Gorriko lankide batzuk elkartu eta Donostian eta Ordizian errehabilitazio kontsulta propioa sortu genuen. Orain, Donostia eta Ordiziako zentroak utzi eta neure bidea jarraitzea erabaki dut Lazkaon ireki berri dudan zentroan.



Alaitz Lazkaoko Magala zentro berrian

Erronka handia kontsulta propioa sortzea ezta?

Bai, lan ordu asko eskatzen ditu eta baita erantzukizun gehiago ere. Hala ere baditu bere alde onak, honela lana neure erara antolatu dezaket.

Osteopatiak hezurak eta muskuluak lantzeaz gain gorputzeko beste organo guztiak hartzen ditu kontuan

Zein zerbitzu mota eskaintzen dituzu?

Errehabilitazio tratamenduak eta osteopatia zerbitzua eskaintzen dut bai partikularrentzat bai seguruetatik datozen jendearentzat.

Bestalde, zentroan bertan lan egiteaz gain, etxeetara ere joaten naiz zentrorra joateko ezintasunak dituzten pertsonen tratamenduak egitera.

Osteopatia zerbitzua ere eskaintzen duzula esan duzu, zertan datza osteopatiak?

Osteopatia, eskuzko teknika berezietan oinarritutako medikuntza natural mota da. Fisioterapiak ez bezala, osteopatiak hezurak eta muskuluak lantzeaz gain beste gorputzeko organo guztiak hartzen

ditu kontuan. Honela, digestio aparatuko, arnas aparatuko, iraitz aparatuko... disfuntzioak sendatzen eta arintzen laguntzen du. Eskuzko teknika hauek, gorputza desorekan jartzen duten blokeoak topatu eta askatzeko balio dute.

Non egin dituzu osteopatia ikasketak? Zergatik?

Osteopatia ere Bartzelonan ikasi dut. Fisioterapiari mugak ikusten nizekion eta osteopatia ikasteak nire lan esparrua zabaldu egingo zuela eta jendeari bere osasun arazoetan laguntzeko oso baliagarria izango zela iruditu zitzaidan. Horregatik ikasi dut osteopatia.

Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Jendeari izaten duzun zuzeneko tratua da gehien gustatzen zaidana. Jendeak zuk egindako tratamenduaren ostean onuraren bat sentitzen badu normalean oso esker onekoa izaten da eta hori da ni ere zoriontsu egiten nauena eta lanean jarraitzeko indarra eta gogoia ematen dizkidana.

Zer eskatuko diozu urte berriari?

Lazkaon hasi berri dudan proiektuan zorte pixka bat izatea eta osasuna.

BEGOÑA ALBISU

San Bartolome Jaiak

ABUZTUAK 23, LARUNBATA

Lainoturik eta goibel esnatu bazen ere abuztuaren 23. eguna, goizean goizetik ez zen umorerik eta festa gogorik falta izan herriko kaleetan. Zegamako haurrak izan ziren beren txirrindu, kasko eta guzti Zegamako plazara hurbiltzen lehenak.

Festetako ekitaldiei hasiera, haur eta gazteen txirrindu lasterketek eman zioten. Aurten gainera, berritasun bat izan genuen txirrindu lasterketetan, mutilentzat nahiz neskentzat izan ziren sariak. Hona hemen aurtengo txirrindu frogetako emaitzak mailaz-maila:



Neska kuadrilla
arro podiumera
igota



Herriko txirrindulari gazteak jaiari hasiera emanez

XXXVII.
Apeaderora
igoera hasteko
prest Kortaberriko
bidegurutzean

7 urtetik beherakoak

▶ NESKAK

Nerea Berasategi				
Izaskun Malkorra	2	1	3	Uxue Elorza

▶ MUTILAK

Alain Garzarain				
Iñaki Galdos	2	1	3	Hodei Barbarin

7-8 eta 9 urtekoak

▶ NESKAK

Oihane Telleria				
Sara Irastorza	2	1	3	Ainhoa Saez de Maturana

▶ MUTILAK

Eñaut Mendia				
Jon Arakama	2	1	3	Andoni Saez de Maturana

10 eta 11 urtekoak

▶ NESKAK

Dikra Yaya		
2	1	3

▶ MUTILAK

Aitor Oiarbide				
Xabier Azurmendi	2	1	3	Mikel Rey

12 eta 13 urtekoak

▶ NESKAK

Oihane Telleria		
2	1	3

▶ MUTILAK

Ibai Arrizabalaga				
Joseba De la Hera	2	1	3	Iban Matxinandiarena

14 urtetik gorakoak

▶ MUTILAK

Ander Perez				
Borja Urzelai	2	1	3	Unai Agirre





Haurren bolo jokoko irabazleak

Behin txirrindu frogak amaituta, ofizialki hasiera eman zitzairen herriko jaiei txupinazoarekin eta belearen jaitsierarekin. Plaza jendez gainezka, mozorrotutako koadrilak kaba botilak eskuan zituztela, eta "Impresentables" txarangaren musika lagun, festa lehertu zen Zegaman.

Mozorro bikainak izan genituen aurten ere herriko kaleak alaituz, San Ferminetako korrikalariak, militarrek, suhiltzaile eta supiztaileek, harriketarrek, Arantzazuko apostoluek... denek ospatu nahi izan zuten Zegamako San Bartolome jaien hasiera. Mozorrotutako koadrilek makina bat barre algara sortu zuten aurten ere Zegamara hurbildu zen jendetzaren artean.

Eliza atzeko plazan bazkari legea egin ondoren, txarangarekin batera, herriko polikiroldegira hurbildu ziren mozorrotuak futbito txapelketako finala girotu asmoz.

Bien bitartean, herriko agintariak, urteroko ohiturari jarraituz, San Bartolome ermitan "bezperak" entzun ondoren, Txarape auzoko bolo-lehiaketara joan ziren txapelketari hasiera ematera. Bolo jokoa, lehendabizi, herriko txiki eta gaztetxoek hartu zuten parte, eta bertan, Maitane Berasategi izan zen garaile, bigarren postua Unai Berasategirentzat izan zen eta hirugarrena berriz, Aitor Txurrukarentzat. Jarraian, helduen txanda izan zen eta bertan, Joseba Albizu izan zen garaile 11 puntu lortuta.

XXXI. Futbito txapelketako finala, Shalky 07 eta Tripiren artean lehiatu zen aurten ere Joan Antonio Auzmendi epaile zutela. Bi taldeak gogor aritu ziren partidak irau zuten 60 minutuetan eta azkenik garaipena Shalky 07rentzat izan zen 5 eta 1eko emaitzarekin. Atezain onenaren saria Urko Agirreri egokitu zitzaion eta Pitxitxi saria berriz Eneko Arratibelek lortu zuen.

Futbito partida amaituta, Erraldoi eta Buruhandien txanda iritsi zen. Herriko txikienen ilusio eta ezinegona zabaldu zen udaletxe aurrean erraldoi eta buruhandiak



Kabaret artista bikaina



Ero-bike taldearen ariketa saioa



noiz plazara aterako zain. Suziriaren ezindari jarraiki, umeen garrasiak nagusitu ziren herriko kaleetan txarangaren doinuekin batera. Kalean gora eta behera ibili ziren korrika buruhandien zartakoak ekidin nahian.

Buruhandiek atsedean hartu zutenean, koadrila mozorrotuak izan ziren berriro ere protagonista herriko plazan. Denak, adi-adi egon ziren sariren bat suertatuko zitzaizaienaren esperantzaz. Aurtengo sariak, mozorro hauei egokitu zitzaizkien:

► **12 ETA 16 URTEKOEN ARTEAN,**
bere osotasunean mozorro hoberenaren saria Zegamako suhiltzaile gazteentzat izan zen "Zeamako Bomb"entzat alegia.

► **18 URTETIK GORAKOETAN**
Mozorro landuenaren saria harriketarrek jaso zuten eta giro gehiena jarri zuen taldearen saria berriz Ero-bike taldearentzat izan zen.

► **AURTENGO BAKARKAKO SARIA**
Aritz Irastorzarentzat izan zen.

Lehenengo jai egunari, Gau Bela taldearen berbenak eman zion amaiera.



Zeamako bomb suhiltzaile taldea



Harriketarrak beren "tronkomobil" eta guzti

ABUZTUAK
23, LARUNBATA



XXXI. Futbito txapelketako finalistak



Herritarren arteko bolo txapelketako irabazlea

ABUZTUAK 24, SAN BARTOLOME EGUNA

Urtero legez, San Bartolome eguna, Segurako III. Adinekoen egoitzara bisita eginez hasi zen. Zegamako Udalak, pastelak eta kaba bidali zizkien bertako adinekoei eta hauen zaintzaileei San Bartolome eguna ospa zezaten.

Bien bitartean, herriko Txistulari-taldeak, Zegamako kaleak alaitu zituen txistu eta danbolin hotsez. Eguerdiko hamaiketan, urteroko ohiturari jarraituz eta San Bartolomei ohore eginez, prozesioa abiatu zen San Bartolome ermitatik Elizaraino herriko txistulari eta dantzariak lagundurik.



San Bartolome deunaren prozesioa txistulari eta dantzariak lagundurik





Udal agintariak soka dantzan



Oinak arin astindu zituzten Toberako dantzariak

Meza nagusia entzun ostean, herriko udal-agintarien Soka-dantza saioa izan zen plazan. Gorporaziokide gehienentzat benetako froga izan zen herritarren aurrean dantzan egitea baina hala ere, urduritasunak urduritasun, txukun astindu zituzten oinak.

Jarraian, Tobera musika-eskolako dantzarien txanda izan zen. Zapiak, arrantzale-saskiak, zintak...hartuta, erakustaldia eman zuten herriko dantzari gazteek. Dantza-saioan etenalditxo bat eginez, "Leiho eta lorategietako apainketaren sariak banatu ziren. Aurtengo irabazleak hauek izan ziren:

Leiho eta balkoi apainenaren saria Maria Rosario Arakamarentzat izan zen eta lorategi apainenarena berriz Jose Anjel Telleriarentzat.

Arratsaldean, herriko pilotari federatu eta gaztetxoek pilota partidak izan genituen. Gaztetxoek mailan, Luis Bautista eta Iban Matxinandiarena lehiatu ziren Xabier Azurmendi eta losu Oiarbideren aurka eta azken hauek lortu zuten garaipena 14 eta 22ko emaitzarekin.

Federatuen mailan Unai Agirre eta Jon Otegi aritu ziren Eñaut Alberdi eta Andoni Urteagaren aurka. Bi bikoteek merezi izan bazuten ere garaipena, Unai eta Jon izan ziren garaile 22 eta 21eko emaitzarekin.

Nahitaezko erraldoi eta buruhandien kalejiraren ostean, Joselu Anaiak taldearen dantzaldiarekin jarraitu zuen festak herriko Maiora plazan ordu txikiak arte.



Jose Anjel Telleria eta Maria Rosario Arakama lorategi eta leiho apainenaren lehiaketako sarituak

Zegamako pilotari gazteak jokoan hasteko prest



ABUZTUAK 25, SAN BARTOLOME BIGARRENA

Egunari hasiera Tobera Musika-Eskolako trikitilariak eman zioten beren soinua eta panderoak herriko kaleak alaituz. 10etan urtero legez, hildakoen aldeko meza izan zen San Bartolome ermitan eta 12etan berriz, Olaberriko auzokideek antolatutako Toka Txapelketa Jose Maiora enparantz. Jende ugari bildu zen bertara Zegaman tokarako dagoen zaletasuna agerian utziz. Aurtengo txapelketako irabazleak hauek izan ziren hurrenez-hurren: Luis Mari Ormazabal lehenengo postuan, Jose Larrea bigarren postuan eta Imanol Ruiz de Eginu hirugarren postuan.

Tokalariek beren jarduna amaitu eta bertsolarien txanda iritsi zen. Euripean bazen ere, Joseba Albizuren aginduetara, saio ederra eskaini zuten Iñaki Murua, Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluzek. Behin plazako bertso-saioa amaituta, herriko Ostatuan eman zitzaion jarraipena bertso jardunari bazkari eder baten ostean.



Toka txapelketa jendetsua plazan



Toka txapelketako hiru irabazleak irribartsu



Bertso bazkari umoretsua Ostatuan

Arratsaldeko 17.00etan, Hipo eta Toma pailazoaren aldrebeskeriak izan ziren ikusgai kultur etxeko plazan eta bapo bazkaldu ondoren, arratsaldeko 18.30etan ekin zioten berriro ere bertsolariak bigarren saioari. Arratsaldeko saioan, eguraldia lagun, jende gehiago hurbildu zen plazara hiru bertsolarien ateraldiekin gozatu asmoz.

20.30etan txikien gozamenerako Erraldoi eta buruhandien kalejirak eman zion jarraipena festari eta ondoren, haur, gazte eta heldu, herriko polikiroldegian elkartu ginen lumagorri oilaskoa eta Sant Sadurni D'Anoiako kaba dastatzeko asmoz. 500 pertsonatik gora bildu ginen aurtan ere, geroz eta ospe gehiago hartzen ari den herri-afarian. Afaria amaitu ostean, hiru kaba botila zozketatu zituen Joan Amat Sant Sadurni D'Anoiako alkateak bertaratutakoen artean eta Unai Berasategi, Santi Martin eta Xabier Ormazabal izan ziren kaba-botila etxera eramanez zutenak.

Festak herriko plazan jarraitu zuen Joselu Anaiak taldearen dantzaldiarekin goizaldera arte.



Xanti Martin, Unai Berasategi eta Xabier Ormazabal kaba botilen irabazleak irribartsu



Zegamako trikitilariak buruhandi eta erraldoiekin kalejiran

ABUZTUAK 30

Paella
lehiaketa
arrakastatsua

San Bartolomeetako bigarren txanpa Urantzu Dultzaina joleen goiz eresiarekin hasi zen. Goizean goizetik gogotsu irten zen eguzkia eta ez zen giro izan Zegamako kaleetan abuztuaren 30garrenean. Goizeko hamarretarako prest ziren plazan herriko 5 elkarteetatik bina bikote paella lehiaketan parte hartzeko. Egin zuen beroa kontuan hartuta, eskertzekoa da lanean aritu ziren hogei sukaldariek egin zuten esfortzua. Behin paella prestatuta, Ostatuko Mentxu Izagirre eta Aitor Zabaletak jardun zuten epaile lanetan. Beraien epaiaren arabera hauek izan ziren aurtengo lehiaketako bi bikote irabazleak:

Lehenengo saria Jubilatuen elkarteko Jabier Del Prado eta Begoña Etxezarretarentzat izan zen eta bigarren saria berriz Txarape elkarteko Noemi Bonikowsky eta Maria Esther Ocamporentzat.

Sari banaketa egin ondoren, prestatutako paella guztiak herritarren artean banatu ziren eta arrakasta itzela izan zuela esan behar, segituan hustu baitziren hamar kazuelak!

Maiora plazan paella egiten ari ziren bitartean, kultur-etxeko plazan haurren jolasek hartu zuten leku. Haur ugari bildu zen plazara zein baino zein mozorro dotoreagoak jantzita eta jolasetan parte hartzeko gogo biziz. Nahikoa jolastu ondoren, opari banaketarekin eman zioten saioari amaiera.

Arratsaldean, Laredoko Nitandu Nitandellu kale animazio taldea izan genuen herriko kaleetan beraien ikuskizuna eskainiz.

Ondoren, egunero lez, Erraldoi eta Buruhandien kalejira izan zen Urantzu Dultzaina joleen doinuek lagunduta. Eta hura amaitu ondoren, Gazte Herexa elkarteak antolatutako, V. Gazte Afaria egin zen frontoian.

Festari jarraipena herriko plazan eman zitzaion Trikizio taldearen dantzaldiarekin.



Nitandu Nitandellu animazio taldea kaleak alaituz



Paella lehiaketako bi elkarte irabazleak




Haurrak mozorrotuta jolasten hasteko prest

ABUZTUAK 31

Jaietako azken eguna, Iruñako Gaita-Eroen dultzaina doinuekin esnatu zen. Laster ziren San Bartolome txirrindulari proban parte hartu behar zuten txirrindulari eta teknikoak ere herriko kaleetan beraien giharrak berotzen. Bide luzea eta gogorra zuten egiteko! Txirrindulari-probari goizeko 10etan eman zitzaion hasiera eta eguerdiko ordu bata bitartean, lau aldiz pasa ziren Zegamatik.

Txirrindulariek beren lana hastearekin batera, Txarapeko bolalekuan Probintziako bolo-txapelketako lehen jardunaldiari eman zitzaion hasiera. Gipuzkoako bolari hoberenak bertan bildu ziren eta baita erakustaldi bikaina eman ere!



San Bartolome txirrindulari probako irabazlea helmugara iristen



San Bartolome txirrindulari proba ikustera jende ugari

Zegamatik hainbat aldiz pasa ondoren eguerdiko ordu bata aldera iritsi ziren lehenengo txirrindulariak Zegamako helmugara. Aurten, Telco taldeko Paul Kneppers holandarra izan zen garaile, eta bigarren eta hirugarren postuak berriz Azpiru taldeko Diego A. Tamayo eta Guillermo Lanarentzat izan ziren hurrenez-hurren.

Txirrindu probako sari banaketa egin ondoren, Iruñako Gaita-Eroen saioa izan zen plazan.

Arratsaldean, puzgarriak izan ziren igerilekuan haurren gozagarri eta Probintziako bolo txapelketako bigarren jardunaldia izan zen jokoan Txarapeko bolalekuan. Aurtego bolari txapelkunak hauek izan dira:

Pedro Agirre legazpiarra lehenengo postuan, Martin Lizeaga urnietarra bigarren postuan eta Patxi Arrondo zeraindarra hirugarren postuan. Gazte mailako saria Lander Ugalde segurarrarentzat izan zen.



Puzgarriak herriko igerilekuan



Probintziako bolo txapelketako irabazlea




Bola jokoa amaitu eta polikiroldegian jarraitu zuen eguneko kirol festak herri kirolen saioarekin. Bertan, Anjel Arbelaitz (Euskadiko txapelduna) eta Joxe Lapaza (Euskadiko txapeldunordea) izan ziren lastoa altxatzen, lastoa botatzen eta ingudearekin erakustaldia emanez. Aizkoran berriz Unai Otaño, Iñaki Azurmendi eta Jose Mari Esnaola Zegamarra aritu ziren.

Herri kirolak amaitu ondoren, Sagardo dastaketa eta sardina jatea izan ziren herriko Maiora plazan. Jende ugari bildu zen plazan zintzurra busti eta tripa betetzeko asmotan, horren lekuko izan ziren sardinak probatzeko sortu zen ilara luzea. Sardinak prestatzen Joseba Albizu, Eugenio Galdos, Santi Bautista Ramon Malkorra eta Maider Garaiar aritu ziren. Sagardoa berriz sagardotegi hauetatik ekarri zen: Zeraingo Oiharte eta Oatza sagardotegietatik, Adunako Aburuza eta Zabalatik, Beasaingo Artzaieneatik, Ataungo Urbitartetik, Tolosako Isastegitik, Legorretako Auliatik eta Ikaztegiatiko Begiristainetik.

Nahikoa sardina jan eta sagardo dastatu ondoren, Buruhandi eta Erraldoien txanda izan zen Iruñako Gaita-Eroen doinuez lagundurik.

Iluntzarekin batera, aurtengo festei amaiera emateko garaia iritsi zen. Gaueko 11etan, Piroteknia Zaragozanaren eskutik suziri eta traka erretzea izan zen ikusgai eta 12etan berriz, malko eta hasperen artean, Beleari Adio esan genion datorren urtera arte.

Festa egunetan zehar, zenbait herritarrek egindako eskulanean erakusketa egon zen Kultur-Etxean.



Joxe Mari Esnaola sasoi betean



Adio beleari



Eskulanean erakusketa kultur etxean



Suzirik argitu zuten jaietako azken gau beltza



Martin

Gorospe Azurmendi

Gaur baino askoz jende gehiago bizi ginen Gosategi Aldean

Non eta noiz jaio ziren Martin?

Ni Potentenea baserrian jaio nintzen 1929ko azaroaren 16an.

Zenbat senide zineten?

Lau senide ginen eta ni naiz lauretan zaharrena.

Beraz, kuadrila polita bizi zineten Potentenen

Bai, guraso eta lau senideez gain, aitona-amonak eta osabak (aitaren anaiak) ere gurekin bizi ziren, bederatzi hamar bat lagun guztira. Aita zen Potentene baserrikoa eta ama berriz, Altziturri baserritik etorri zen.

Egun baino askoz jende gehiago bizi zen inguruko baserrietan ere; Opaintegin eta Gosategin ere koadrila galantak zeuden!

Zein zen zure aitona-amonak eta gurasoen lanbidea?

Aitona itzaina zen eta gure aita ere berari laguntzen ibiltzen zen. Otzaurtetik hasi eta Maitegrainoko bidea konpontzeko harria garraiatzen ibili ziren gurdiak hartuta, idiak lagun zituztela. Errepideraino harria garraiatu, harria bota, jo eta hura banatzen ibili ziren.

Aitona hil zenean kendu zituen aitak idiak. Nik orduan 9 urte nituen eta Ormakioko basotik egurra ateratzen ari zirela gogoratzen naiz. Baso hartako lana amaitzean, idiak saldu eta haien ordez bi behi gorri erosi zituen Gosategi Barrenatik.

Zu ez al zinen itzain lanetan ibili?

Bai, ni ere ibilia nago aitona eta aitari laguntzen! Gogoratzen naiz behin Azkonietako Xepeinoren semea eta biok Ormakiara nola joan ginen idiak eramatera! Aita eta Xepeino lehenago joan ziren egurra preparatzera eta bi



Martin soldadu trajearekin

mutikoak berriz atzetik joan ginen, idiak geldi ibiltzen baitziren! Egun osoa pasatu genuen mendian eta egur biaje ederra ekarri ere!

Beraz, idiak saldu eta behiak erosi...

Bai, idiak saldu eta haien ordez bi behi gorri erosi genituen, uztarrarian ibiltzen ohitutakoak.

Garai hartan bagenituen baserrian bost edo sei behi eta hauek, baserriko lanetan laguntzeko, esnetarako eta txahaletarako erabiltzen genituen.

Behiez gain, txerriak, oiloak eta konejuak ere bagenituen baserrian.

Ordiziako perira joaten ginen baserriko generoa saltzera

Beraz, baserrian jarraitu zenuten lanean...

Bai, ni baserritik bizi izan naiz. Hala ere ibilia naiz etxetik kanpo ere lanean. Ezkondu aurretik (1953-1954 urte inguruan), kaminoan ibili nintzen lanean Urruzti kaminoa egiten. Orduko duroa kobratzen genuen eta asko zen hori orduan!

Klaudio eta Luisekin igeltsero lanetan ere ibili nintzen denboraldi batez Klaudioaren etxeak egiten (Alderdi Ederreko etxeak). Aurretik paretak egiten ibili nintzen igeltsero ofizioa ikasten.

Baina, baserrian lana zegoenez, hara bueltatu nintzen berriro eta han jarraitu dut jubilatuta nintzen arte.

Zein ziren baserrian egiten zenituzten lan nagusiak?

Udaberrian artoa eta indabak ereiten ziren eta hauek erein ondoren, garia jorratzen izaten zen lana. Garia jorratzearekin batera, arbia ereiteko lekuan simaurra banatzen hasten ginen. Ekaina aldera, "belarrete" hasten zen. Belarretako lanak egiten ari ginen bitartean garia heltzen zen eta orduan, belarretari utzi eta gari-lanak egin behar izaten ziren (garia ebaki eta garia jo). Gari-lanak amaitu eta gero, berriro ere belarretarekin jarraitzen genuen. Belar lanak amaitzean lurra maneatu eta arbia ereitea izaten zen hurrengo lana.

Arbia ereiterako San Bartolomeak bertan izaten ziren eta orduan aste bat jai egin ondoren, garoa ekartzen hasi behar! Garoa ekartzeko jadanik garia ereiteko garai izaten zen.

Neguan lan gutxiago egoten zen soroan baina ganadua izanez gero ez zen orduan ere lan faltarik izaten. Urte osoa lanean!

Begiratzen al zenioten ilargiari uzta ereiterako eta biltzerako orduan?

Patata ereiteko garaian soilik begiratzen genion ilargiari, gainontzekoan ez. Hala ere, garai hartan oso patata gutxi egiten zen eta egiten zen apurra leku txarren batean! Orduan gaztaina eta porrusalda izaten ziren!

Non saltzen zenituzten baserriko produktuak?

Esnea, Alegiko esnezaleari saltzen genion. Guk esnea marmitetan prestatuta jartzen genuen eta bera etortzen zen kamioiarekin esne bila. Bazuen berak esnea neurtzeko ontzi bat eta zenbait esne eraman genion neurtu ondoren, bere zisternara botatzen zuten esnea.

Oiloak, oilaskoak, konejuak, arrautzak etab. berriz Ordiziako feriara eramaten genituen saltzera. Hala ere, auzokoei ere saltzen genizkien behar zutenean.

Garia, indaba eta artoa ere asko izaten genuen garai hartan.

Nondik ekartzen zenuten garoa?

Guk markesaren terrenoetatik ekartzen genuen garoa, Otzaurteko tren geltokira igotzeko dagoen lasterbide ingurutik alegia. Urtean zazpi "biaje" inguru ekartzen genituen. Garoa karroan (gurdian) ekartzen genuen behiek lagunduta.

Urtzelaietakoa zen markesaren aginduz lur haiek zaintzen zituena eta bera zen, lur haietan zer egin behar zen esaten zuena eta garo-biajeak kobratzen zituena. Elorriak ere baziren lursail haietan eta gure aitak, garoaz gain elorriak ere ekarri ohi zituen sutarako. Pena handia hartu zuen gure aitak terreno haietatik garoa ekartzeko aukera kendu zienean.

Urte batean Partzuergora ere joan ginen garo bila, Leotarana hain zuzen ere. Han baseritar bakoitzak bere lur zatia izaten zuen eta zati hartako garoa ekarri behar izaten zuen. Han suziria (altxafuegoa) bota zain egon behar izaten zen garoa ebakitzen hasteko. Lehenengo egunean igitaiarekin moztu behar izaten zen eta bigarren egunean berriz segaz ebakitzea libre izaten zen.

Garoa ebaki ondoren gurdia eta naza garoz kargatu eta Otzaurteko Mikelete etxera jaisten ginen. Han garo biajea bi pezeta ordaindu ondoren, etxera eramaten genuen.

Zu jaiotzerako ba al zenuten ura eta argia Potentenen?

Bai, argia eta ura bagenituen etxean. Argia oso txikia zegoen eta ura berriz, ni jaio baino pixka bat lehenago jarri omen zuten. Haizea zen guztietan argirik gabe gelditzen ginen, alanbre zahar batez eginda baitzegoen linea eta berehala puskatzen ziren alanbreak.

Nondik hartu zenuten etxeko ura?

Garai hartan, idiek "Naparmina" esaten zien gaitz bat harrapatzen zuten batzuetan. Gaixotasun hau zutenean, 40 egunetan zehar ezin izaten ziren idiak ukulutik kanpora atera. Hori dela eta, nire aitona eta auzoko beste bitzainak lanera joaterik ez zutenez, zer asma zebiltzan eta ura aurkitu behar zutela pentsatu zuten.

Gure aiton-amonak beheko solairuan zegoen logelan egiten zuten lo eta beraiek ziotenez, neguan ur hotsa entzuten omen zen logelaren azpian. Hori dela eta, hiru itzainek han ura egon behar zuenaren errezeloa zuten.

Hasi eta baita bilatu ere! Tiroak eginez zebiltzala, orain sagastia dagoen soroan ura irteten hasi omen zen. Arbelezko bi pareten artean doan errekatxo estu batetik omen zetorren ura. Hamar metroko luzera zuen haga bat sartu eta ez omen zuen bazterrik jo.

Handik jarri omen zuten ura etxean eta gerostik ez dugu inoiz urik falta izan.

Haizea zen guztietan argirik gabe gelditzen ginen, alanbre zahar batez eginda baitzegoen linea

Noiz hasi zineten eskolan?

Eskolan sei zazpi urterekin hasi nintzen. Hala ere orduan ahal genuenean joaten ginen eskolara, etxean lana bazegoen ez zegoen eskolara joaterik! Guk etxean ez genuen hitzik ere egiten erdaraz eta eskolan berriz ezin euskaraz hitzik egin! Kale aldeko jendea, lehenago hasten zen eskolan eta haiek guk baino gehiago ulertzen zuten erdaraz.

Eskolan 130 ikasle inguru ginen eta maisu bat genuen guztiontzat. Lau erregelak (gehiketak, kenketak, biderketak eta zatiketak), irakurtzen eta idazten ikasi genuen.

Eguerdian, nahiz eta kantuan gelditzeko aukera izan, nik ez nuen nahi izaten han

beste ikaskideren bat euskaraz hizketa harrapatzen bazuen, hau da, eraztuna jarri. Baina eraztuna jartzeaz gain, behatz puntako ederrak ere jasotzen genituen euskaraz egiten bagenuen!

Eskola utzi eta gero non jarraitu zenuen ikasten?

Eskola utzi eta gero Don Hilario maisuarekin ibili nintzen pixka batean partikular. Gero, hamalau urtera arte gau eskolan ibili nintzen.

Nolakoa zen Zegamako herri-gunea garai hartan?

Kalean jende gutxi bizi zen garai hartan. Etxeak ere egun baino askoz gutxiago zeuden: plaza inguruan eta handik Olaberrira eta Txantonenera bitartean zeuden etxeak soilik. Gosategi aldean askoz jende gehiago ikusten zen kalean baino!

Ba al zenuten herrira etortzeko ohiturarik?

Igandean elizara etortzen ginen eta zapatuan berriz noiz behinka barberira. Barberia egun Txanton taberna dagoen lekuan zegoen. Jose Mari apaiza eta bere aita aritzen ziren han barbero lanetan. Barberian jende asko bazegoen, txanda hartu eta txanda iritsi bitartean musean aritzen ginen. Honela, denbora azkarrago pasatzen zen. Gure



Martin bere emazte Milagrosekin

gelditu, ez zitzaidan gustatzen kantineko janaria eta ezta kalean egotea ere. Indaba askoz hobeak jaten nituen nik etxean!

Hamar urterekin utzi nion eskolara joateari baina gero ere jarraitu nuen ikasten.

Zer gertatzen zen eskolan euskaraz hitz eginez gero?

Maisua, ikasleren bat euskaraz hizketan ari zela ohartzen bazen, eraztuna jartzen zion ikasle horri. Ondoren, eraztuna zeraman ikasleak gauza bera egiten zuen

gazte denboran ile luzearekin ez zen jendea ibiltzen eta beraz, sarri etorri behar izaten genuen barberira.

Zein ziren zure jolas gogokoak?

Guk mutikotan txori-habia bila ibiltzea oso gustuko genuen eta udaberrian ziza bila ibiltzea ere bai. Hortaz gain, "un, dos ,tres" jokuan ere ibiltzen ginen neskak bezala; lurtean karratuak marraztu eta hanka bakarrean karratutik karratura salto egitean datza joko horrek.

Zein izaten zen garai hartan erregeen oparia?

Ezer asko ez! Falta egiten zuen zerbait edo bestela "kamelu"ren batzuk. Orduan gurasoek ez zuten dirurik eta beraz, erregeek ere ez zuten ezer askorik ekartzen. Orduko erregeak pobreak ziren!

Ba al duzu gerra garaiko oroitzapenik?

Garai hartan etxean izandako jeneroa kendu egiten zutela eta, gure etxean lixiba egiteko erabiltzen zuten ojalatazko tina ezkutatzen zuten indoabea. Gero, lurrean zuloa egin eta han sartzen zen indoabaz betetako tina. Azkenik, tina sartutako zuloa simaurrez estaltzen zuten.

Gari hartan gure etxean 14 anea indoaba jasotzen ziren. Anea bakoitza 52kg indoaba izaten ziren.

Gogoan dut baita gorrien beldurrez nola gure auzoko gizonak Zuloaga Muño azpian dagoen ur-saltoaren atzeko zuloan ezkutatu ziren. Izan ere, gorriek harrapatzen zutena kartzelara eramaten zutela esaten baitzuten.

Dinti auzoko jendea ere egon zen gure auzora etorrita gorrien beldurrez. Gure etxean Altziturrikoak egon ziren.

Soldadu joateko adina pasatuta zeuden gizonak, hiru edo lau aldiko, herria zelatatzen egoten ziren tropak noiz zetozen jendeari abisatzeko.

Egin al zenuen soldaduska?

Bai, Donostian egin nuen soldaduska, Martuteneko kuartelean. Astea Donostian pasatzen nuen eta larunbatetan etxera etortzen nintzen. Astelehenetan autobusa hartzen nuen Beasaina joateko eta handik trenean joaten nintzen Martuteneraino. Amak astelehenetan patata tortila bokadilo bat prestatzen zidan afaltzeko eta gainontzeko egunetan, Martuteneko trenaren geltoki ondoan zegoen taberna



Martin bere etxeko atarian duten labearen ondoan

batetara joaten ginen meriendatzera. Astea pasatzeko amak hogeituro ematen zizkidan eta sobratu egiten zitzaidan dirua.

Dena ez zen lana izango ezta...

Ez, festa ere egiten genuen. Pazkoatan eta San Joanetan festa handiak izaten ziren, karnabaletan ere jendea moztorra jantzita ibiltzen zen eskean eta hilean behin ganadu

feria ere egiten zen. Komeriak ere egiten ziren eta politak gainera!

Eta San Bartolomeak? Gogoratzen al duzu San Bartolometan antolatutako ekitaldi berezirik?

Bai, behin guk geuk antolatu genuen festa herrian! Barrenaldekook desafioa bota genien herriko beste auzoetakoiei sokatiran egiteko. Kaletarrek onartu ziguten desafioa eta ikuskizun ederra eman genuen San Bartolome batzuetan. Barrenaldeetik pisu handiko mutilak joan ginen desafiara eta baita irabazi ere!

Udaletxeak, herrian ikuskizuna jartzeagatik ardoa eta "banderilak" eman zizkigun debalde. Etxera zuzen iritsi ginen baina gero ibili genituen komeriak logela bueltaka hasi zenean!

Beste behin zezenak ere izan ziren herriko plazan! Ez ziren orain ateratzen diren bezalako "bakila" txikiak, handiagoak ziren. Herriko jendea ibili zen zezenak toreatzen kapa eta guzti.

Baserrira itzuliz, alde handia al dago oraingo eta lehengo eguraldiaren artean?

Bai, gure gazte denboran eguraldia gaur egungoa baino sanoagoa zen. Garai hartan neguak hotzagoak izaten ziren eta udarak berriz lehorragoak. Orain berriz, hego haizea sartzen da askotan eta horrek lainoak ekartzen ditu. Egun daukagun eguraldiarekin ez litzateke garirik helduko; indabak ere heldu baino lehen zimurtu egiten dira.

Zein dira baratzean izaten diren belar txarrak?

Uztaua eta Muitea (sustraiak arrosario itxura dute) dira baratzean kalte gehiena egiten duten belarrak. Hala ere bada beste bat berria kanpotik erositako landareekin sartu dena, barrabasa alegia.

San Bartolome batzuetan, Barrenaldekook kaletarren aurka sokatiran aritu ginen



Martin Elkartearen arteko Mus txapelketa irabazi ondoren

Gure aitak bazuen uztauak biltzeko ohitura, izan ere, haziak soroan banatuz gero azkarrago zabaltzen baitzen!

Bada beste belar bat ere guk "zorbeldarra" esaten dioguna, maita belarraren antzekoa da baina egituraz "maxkalagoa", "juntura" guztietan sustraiak ematen ditu eta azkar zabaltzen da.

Zein da gogoratzen duzun uholderik handiena?

Gure aurrekoek kontatzen zutenez, eurite batean Zulaa Muñoko errekek salto egin omen zuen. Dirudienez, errekek Arbeltxora igotzeko bidean dagoen zubira egurrak ekarri zituen eta zubia itxi egin omen zen. Ondorioz, errekek zubitik kanpora salto egin eta Gosategi Goenakoei ukuiluan sartu omen zitzairen ura. Ukuilutik gurdia eta txerriak eraman omen zizkien urak baina erreka handira iristerako txerriek lortu omen zuten uretatik ateratzea.

Gure "akuerdoan" izan diren uholderik handienak San Antoniotakoak eta San Bartolometakoak izan dira.

Eta elurterik handiena?

Elurte handiak asko ezagutu ditugu baina negurik kaltegarriena 1956koa izan zen. Urte hartan ez zuen elurrik egin baina bai izotza eta antzigarra! Otsailean hasi zuen izotza eta antzigarra eta jadanik loretan zeuden aran arbolak eta landareak denak galdu zituen.

Noiz ekarri zizuten lehenengo bizikleta?

Lehenengo bizikleta 18 bat urterekin izan nuen. Makina bat urtean aritu nintzen aitari bizikleta eske! Aitak astoa saltzen zuenean ekarriko zidala esaten zidan eta hala egin ere! Astoa saldu eta Beasaindik bizikleta ekarri zidan.

Orain kotxe txiki bat daukat, gidabaimenik behar ez duen horietakoa. Gaztetan ez nuen karneta ateratzeko beharrik izan eta orain ezin ba hasi lan horietan! Kotxe



Martin eta Milagros urrezko ezteiak ospatu zituzten egunean

txikia primeran etortzen zaigu Potentenera joateko!

Noiz ezagutu zenuen zure emazte Milagros?

Milagros eta ni auzo berekoak ginen eta beraz, betidanik ezagutzen genuen elkar. Nobiotan 18 urterekin hasi nintzen berarekin. Hala ere, hasi eta denbora dezente egin genuen elkarrengandik aparte, izan ere, Milagros Saturrarango seminarioan eta Deban egon zen lanean. Gero Segurara etorri zen eta orduan gehiagotan egoten ginen elkarrekin.

Aitak astoa saldu eta Beasaindik bizikleta ekarri zidan

1955en ezkondu egin ginen, nik 26 urte nituela. Ezkondu behar ginen egunean nire aitona hil zen eta aste bat atzeratu behar izan genuen ezkontza. Ezkondu Zegamako elizan egin ginen eta ezkon-bazkaria Elorriñen egin genuen. Ezkonbidaian Zaragozara joan ginen eta bertan aste bete pasa ondoren berriro etxera.

Geroztik izan al duzu oporrik?

Gerora arte ez naiz izan oporretan. Lehen joan izan nintzen behin edo behin koinatuarekin kamioiean Murtzia, Eltxe... aldera eta baita emaztearekin Urbiara eta Lodosara ere baina besterik ez. Gerora mundua gehixeago ikusteko aukera izan dut, Mallorkan, Torremolinos-en, Konpostelan eta Torreveijan izan gara.

Urte hauetan zer da gehien aldatu dena?

Egun ez dago lehen bezalako kidesunak baserriarren artean, orain kalean bezala bakoitza bere aldetik gabiltza. Lehen Barrenaldean ume ugari ibiltzen zen etxe inguruan jolasean, orain berriz denak ezkutuan egoten dira.

Bestalde, lehen jende asko bizi ginen Barrenaldean, orain berriz baserriak husten ari dira. Lehengo alaitasunik ez dago orain gure auzoan!

Nolako etorkizuna ikusten diozu baserriari?

Orain ez dago baserri bizi bizi. Baserriko lana oso lotua da, han ez dago oporrik. Bulegoan edo fabrian lan eginez gero soldata hobe irabazten da eta jubilatuta ondorengo soldatan ere antzematen da hori. Nik behintzat ez dut inor baserrian ikusi nahi.


OIHANA ZUBIZARRETA



Martin eta Milagros Potentene baserriaren aurrean

San Martin Feria

AZAROAK 15, LARUNBATA



Gazta lehiaketako hiru sarituak, beren gazta eskuetan dutela

2008ko San Martinak, Zegama, Beasain eta Ordiziako udalek adostutako egutegiaren arabera, azaroko hirugarren larunbatean ospatu ziren, azaroaren 15ean alegia. Hala ere, nahiz eta egun nagusia azaroaren 15ekoa izan, aurreko astean zehar hainbat ekitaldi antolatu ziren azokaren osagarri.

Azaroaren 11an, San Martin egunean, hainbat gazta mota ezberdin dastatzeko aukera izan genuen Amezti Elkartearen Jose Ramon Agiriano aditua gidari genuela. Dastaketarako ardi, ahuntz eta behi esnez eginiko hainbat gazta mota ezberdin ekarri zituen: Extremadurako Torta del Casar gazta eta ahuntz esnearekin eginiko beste gazta bat, Zamorako gazta bat, Tetilla behi gazta, Cabrales gazta eta Fuerteventurako beste ahuntz gazta bat. Gazta dastatzeaz gain, 4 ardo mota ezberdin dastatzeko aukera

ere izan zen. Agirianok, gazta nahiz ardoa dastatzeko jarraitu beharreko pausuak erakutsi zizkigun eta gazta nahiz ardo mota bakoitzaren ekoizpen prozesuari buruzko hainbat xehetasun azaldu. Bertaratu ginen 20 lagunak pozik atera ginen dastatzetik, gaztaren eta ardoaren ekoizpenari buruz hainbat gauza ikasi genituen eta hauek dastatzean, ziur lehen kontuan izaten ez genituen hainbat ezaugarritan erreparatuko dugula aurrerantzean.

San Martinetako bigarren ekitaldia Joxe Mari Artola zegamarrak eskaini zuen. "Zegama 1936-1995" ikus-entzunezkoaren lehenengo atala ikusteko aukera izan genuen herritarrok lehenengo garaia oroimenera ekarriz. Kultur Etxeko areto nagusia txiki gelditu zen ikus-entzunezkoa ikustera hurbildu zen jendetzarentzat baina hala ere, jendea pozik atera zen emanalditik. Jadanik desagertuak diren hainbat eraikin ikusi ziren bertan eta urte gutxian herria zenbat aldatu den ohartarazteko balio izan zigun guztioi. Helduek haurtzaroko oroitzapenak berritzeko eta gazteek garai hartako Zegama ezagutzeko parada eskaini zuen emanaldiak.

Ostegunean, azaroak 13, Esteban Atxa herritarra izan genuen hizlari

Kultur Etxean. Eusko Labela duten arrautzen ekoizpenaren inguruan aritu ziztaigun solasean Esteban. Ekoizpena ezezik, Atxa oilotegiaren hastapenak ekarri zizkigun gogora eta Atxa oilotegiek egun lortu duten zabalkundea lortu ahal izateko jarraitutako bidea azaldu zigun Estebanek. Argazki bidez bada ere, Eusko Labeldun arrautzak ekoizten diren oilotegien instalakuntzak ezagutzeko aukera izan genuen eta Euskaber (Euskal Arrautza Bereziak) enpresaren nondik norakoak ere azaldu zizkigun. Hitzalditik opari eta guzti atera ginen gainera! Esteban eta Pili Eusko Labeldun arrautzak oparitu zizkigun bertaratu ginen guztioi eta honela, beren arrautzak dastatzeko aukera ere izan genuen etxean.



Aurtengo hiru gazta sarituak



Esteban Atxa labeldun arrautzen ekoizpenari buruzko xehetasunak ematen



Amezti elkartearen hainbat gazta ezberdin dastatu ahal izan ziren J.R. Agirianoaren eskutik



Joxe eta Eulogio Albizu haria egiten



Jabier Arrieta egurra tailatzen



Zegamako ferian abere ugari



Barazkiak erosteko aukera ere izan zen ferian

Ostiralean, urtero lez, profesionalen bi pilota partida izan genituen: Lehengo partida 2. mailako 41/2ko finalerdietako ligaxkako lehengo partida izan zen: Beloso eta Cabrerizo II-ak jokatu zuten eta Beloso izan ziren garaile 22 eta 17ko emaitzarekin. Bigarren partida, 1go mailako eskuz binakako partida izan zen: Gonzalez-Nalda III 11 eta Olazabal-Pascual 22 emaitzarekin amaitu zen partida.

Larunbata, San Martin jaietako egun nagusia, goibel esnatu zen zirimiripean. Hala

ere, eguraldi tristeak ez zituen abeltzainak, artzainak eta artisauak kikildu eta beste urte batez jarraian festa polita ospatu genuen Zegamako kaleetan. Goizeko 9etarako eskola inguruan ziren herriko abeltzainak beren abere ederrenak arro erakutsiz: ardiak, bildotsak, zaldiak, zezanak, ahuntzak, etxe- eta mendi-behorrak, hainbat arraza ezberdinetako behiak...garai moderno hauetan Zegamak nekazal eta abeltzain izaera ez duela galdu argi gelditu zen beste behin ere. Abererik ederrenak aukeratzea Jose Inazio Aldasoro albaiteoaren eta Lizarralderen lana izan zen aurten.

Bien bitartean, udaletxe azpian, herriko artisauak beren postuak atontzen hasiak ziren: Marcela eta Andresek eskuz egindako kandela koloretsu ugari jarri zituzten ikusgai, zegamartutako bi neska alemaniarrek

berriz, sendabelarrekin eginiko xaboi, olio eta gatzak jarri zituzten salgai. Bestalde, Joxe eta Eulogio Albizu anaiek ere ez ziguten hutsik egin eta ariletik abiatuz haria ehuntzeko eta galtzerdiak egiteko erabiltzen ziren teknikak ezagutzeko aukera eskaini ziguten aurten ere. Beren lanbidea galtzen utzi nahi ez eta erreleboa hartuko duen norbait bilatzeko ahaleginetan aritu ziren biak lan eta lan. Jabier Arrieta ere hemen izan genuen urtero bezala egurra lantzeko duen abilezia beste behin ere agerian utziz.

Udaletxeazpianbertan, euskalgastronomiari ere egin zitzaion tarte bat eta herriko gazte batzuk Tolosako labeldun babarrunak banatu zituzten azokara hurbildu zirenen artean. Babarrunak jan ostean, eguraldi hotzari aurre egiteko, talo beroa dastatzeko aukera ere izan zen Saldiasoko talogileei esker. Bat baino gehiago joango zen etxera bazkalduta!

Elizako portiko azpian berriz, beste hainbat salmenta puntu izan ziren, bitxiak, eskuz margotutako galtzerdi eta nikiak... bertaratutako guztiek aurkitu zuten gustuko zerbait.



Maxki gaztainak erretzen



Eliza aurreko kiosko plaza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Arizmendi mintegiko Andres Aierbek zuhaitz eta zuhaixken erakusteka jarri zuen eta bertan izan zen Maxki ere danbolinari jira eta buelta gaztainak errez. Ez zuten gaztaina haiek gatz eta piperrik falta izan!

Herriko polikiroldegian, festaren gune nagusian, kanpoko eguraldi lardatsetik babesean, giro beroa zegoen. Aizkorri eta Urbiako X. Gazta Lehiaketan parte

hartu asmoz artzainek beren gaztarik onenak ekarri zituzten txapel preziatua etxera eramateko esperantzaz. Guztira 17 gazta aurkeztu ziren eta epaimahaia lan atsegina bezain nekeza izan zuen hauetan hoberena aukeratzeko. Aurten epaimahaikideak hauek izan ziren: Andoni Aizpuru (EITBko aurkezlea), Pedro Mari Goikoetxea (EITBko aurkezlea), Joan Amat (Sant Sadurní d'Anoiako alkatea), Albert Batalla (Seu d'Urgell-eko alkatea), Luis

Estaún (Biescas-go alkatea), Jose Ramon Agiriano (Idiazabal Jatorri Izendapeneko kidea), Alfredo Fernandez (Idiazabal Jatorri izendapeneko kidea) eta Joan Asurmendi Uztaran baserriko artzaina.

Gazta lehiaketaz gain, bazegoen zer ikusi polikiroldegian. Barazkiak, ezitia, Errezil sagarrak, gozo eta pastelak, txerriak eta nola ez, gaztak. Erlezain elkartekoek ere jarri zuten erakusketa txiki bat eztingintzari eta erleei buruzko hainbat xehetasun adieraziz.

Zegamako turismo bulegoek aurten Aitxuri Herri Eskolako haurrentzat marrazki-lehiaketa bat antolatu zuten. Marrazki lehiaketako gaia Aizkorri-Aratz Parke

Naturala izan zen eta ongi adierazi zuten beren marrazkien bidez haurrek zer den Aizkorri-Aratz Parke Naturala. Marrazki lehiaketako epaimahaikideak, haurrak

eurak izan ziren eta honela, bakoitzak bere marrazki gustukoena aukeratzeko parada izan zuen. Bozka guztiak kontatuta hauek izan ziren marrazki-lehiaketako irabazleak:

3 Urtekoetan:

- Beñat De Prado Ormazabal
- Malen Otaegi Arizkorreta
- Naroa Otero Etxaide

4 urtekoetan:

- Eider Matias Solis
- Miguel Anjel Ramirez Berrio
- Irantzu Urbizu Lasa

5 urtekoetan:

- Manex Ormazabal Apalategi



1. Mailan:

- Alain Lucas Arrieta
- Uxue Elorza Arsuaga
- Andrei Ioan Filip Filip

2. Mailan:

- Izaskun Malkorra Rodrigo
- Maialen Martin Goikoetxea

3. Maila eta 4. Maila:

- Gorka Arizkorreta Lasa
- Oihane Telleria Ezama
- Unai Berasategi Asurmendi
- Arantxa Ortiz Elorza

5. Maila:

- Saez de Maturana Ormazabal anaia-arrebak
- Oriana Pardo Parra
- Uxue Arrizabalaga Begiristain

6. Maila

- Valentina Alvarez Silva
- Ainhoa Berasategi Albizu
- Garazi Ormazabal Arizkorreta



Andoni Aizpuru Albert Batalla, J.R: Agiriano eta P.M. Goikoetxea epaimahaikideak gazta hoberenaren bila

Banatu ziren opariak ere bereziak izan ziren, naturari eta garapen jasangarriari egoki zetozkionak alegia: eguzkiaren energiaren bidez martxan jartzen ziren jostailuak.

Behin marrazki-lehiaketako sariak banatuta abere eta gazta onenaren sariak banatu ziren polikiroldegian. Sari banaketan Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu diren Iñaki Galdos (Kirol eta Kanpo ekintzarako departamentuaren diputatua) eta Karlos Ormazabal (Garapen Iraunkorreko departamentuaren diputatua) izan genituen gure artean eta baita Kutxako Iñaki Almandoz ere. Rafa Uribarrenen (Landa Ingurunearen Garapeneko departamentuko diputatua) bisita ere jaso genuen

Eguerdiko ordu batean, Abereen lehiaketako sari banaketari hasiera eman zitzaion. Aurtengo irabazleak hauek izan dira:

Ardietan:

Ibai Aizpeolea

Bildotsetan:

Pablo Berasategi

Pirenaika arrazako behietan:

Ibai Aizpeolea

Behi mestizoetan:

Juan Kruz Arrizabalaga

Behi suizoetan:

Juan Azurmendi

Zezenetan:

Andres Zabaleta

Zaldietan:

Ibai Aizpeolea

Etxe behorretan:

Jose Mari Esnaola

Mendi behorretan:

Migel Zubeldia



X. San Martin Pilota Torneoko finalistak

Abeltzainak saritu ostean, artzainen txanda iritsi zen eta epaimahaiaren arabera aurtengo gaztarik onenak hauek izan dira:

1go saria: Arantxa Segurola (Legazpi)

2. Saria: J. Aranburu elkarte (Idiazabal)

3. Saria: Aitxa koop. (Araia)

Sariketa amaitu eta gero, lehiaketara aurkeztutako gaztak azokara hurbildutako jendetzaren artean banatu ziren herriko elkarteetako hainbat kidek lagunduta.

Ondoren denok etxera babarrunak, odolkia, txorizoa eta saiheskia jatera!

Arratsaldean, buruhandien zartakoek eman zioten festari jarraipena eta ondoren, polikiroldegian herritarren arteko X. San Martin pilota torneoko finalak jokatu ziren. Hona hemen aurtengo emaitzak:

Unai Berasategi-Aitzol Arrondo	3
Iñaki Galdos-Aitor Barbarin	12
Alvaro Ramos-Cristofer Somocueto	9
Lander Mendizabal-Luis Bautista	16
Joanes Etxaide-Josu Oiarbide	11
Xabi Azurmendi-Iban Matxinandiarena	18

Zorion Barandiaran-Axier Berasategi	18
Aitor Zabaleta-Luis Sodupe	22
Eñaut Alberdi-Iker Zabaleta	18
Unai Agirre-Estebe Ariznabarreta	22

Igandea ere, larunbata lez, goibel esnatu zen baina hala eta guztiz ere jende ugari hurbildu zen frontoira XVII. DV torneoko pilota partidak ikusi asmoz. Aurtun promesetan Perez eta Albisu izan genituen Mendinueta eta Zubiriren aurka eta Senior mailan berriz Urrutikoetxea eta Uzkudun, Larrañaga eta Castilloren aurka. Asko borrokatu ostean honela gelditu ziren norgehiagokak:

Perez-Albisu	17
Mendinueta-Zubiri	22
Urrutikoetxea-Uzkudun	22
Larrañaga-Castillo	10

Eta festari amaiera emateko, igandean arratsaldeko 17.00etan txikienek izan zuten zita polikiroldegian. Makina bat algara eta kantu egin zuten Pirritx eta Porrotx pailazoan xebebrekeriekin. Ondoren, txokolate beroa hartuz amaiera eman zitzaion 2008ko San Martin jaiei.



Zegamako elkarteetako kideak gazta banatzen

Pirritx eta Porrotxen emanaldi arrakastatsua



Gipuzkoako 10. Ezti
Lehiaketako irabazleak

Apirilaren 6an Erlezain Eguna ospatu genuen Zegaman. Erlezain Egunean, erlezaina baldin bada ere lehen protagonista, eztiak ere bere lekua hartzen du eta aurtengoan X. Gipuzkoako Ezti Lehiaketa antolatu zen, Gipuzkoako Erlezain Elkartearekin batera.

Hala ere, aurreko astean, urtero bezala hitzaldi eta kirol ekimenak antolatu ziren:

Apirilaren 2an, Giez berri, S.L. ko Martxel Aizpuruk, "eztiaren labela nola lortu" gaia jorratu zuen. Hain zuzen ere, Eusko Labelen sartzeko, eztiak bete beharreko baldintzen xehetasunak eman zituen.

Apirilaren 3an, urtero bezala, Gipuzkoako Erlezain Elkarteko, Julian Urkiolaren eskutik, Aitxuri Herri Eskolako haurrek ezti dastatu eta erlei buruzko diapositibak ikusteko

aukera izan zuten. Aurtengoan, Gipuzkoako Erlezain Elkarteak eta Udalak, ezti potetxo bana oparitu zien ikasleei.

Apirilaren 5ean, 2008ko Urrezko Aizkolarien Txapelketarako kanporaketa jokatu zen Udal pilotalekuan.

Senosiain II.a, Atutxa II.aren aurka aritu zen eta Atutxa suertatu zen garaile. Bestalde, Patxi Mindegia, Iñaki Aierberen aurka aritu zen, hemen Patxi Mindegia sailkatuz.

Azkenik, Perurena aita-semeen erakustaldi zoragarria ere izan genuen kiroldegian. Oraindik ere, bai aita bai semea sasoi betean daudela erakutsiz.

Apirilaren 6an ospatu zen X. Gipuzkoako Ezti Lehiaketa Erlezain Egunaren barnean.

Aitxuri Herri Eskolako ikasleak
pozik ezti potetxoak etxera
eramateko hartzen



**ANTTON ADARRAGA
GOZOGILE EZAGUNAK
UTZI GAITU**



Uztailaren 24an Antton Adarraga gozogile ezagunaren heriotzaren berri izan genuen. Euskal gozogintzak ez ezik euskal gizarteak ere pertsona paregabea galdu duelakoan gaude. Erlezain Egunaren barnean, Euskal

Herriko gozogintzari buruzko erakusketaren bultzatzaile eta laguntzaile paregabea izan dugu Zegaman. Urtero-urtero parte hartu du bere gozoki paregabe eta goi mailako txokolatearekin eta bere presentziaz gozatzeko ohorea izan du Zegamako herriak azken urte hauetan. Etorikizuneko Erlezain Egunak, ez dira beraz, orainarteko bezain gustagarriak izango, baina Antton Adarraga, gure oroimenean izango dugu dudarik gabe!! Lerro hauen bidez, gure doluminik sentikorrenak helarazi nahi dizkiogu bere sendiari.

Besteak beste Gipuzkoako X. Ezti Lehiaketa izan zen garrantzi handieneko gaia eta bestalde, Euskadiko Gozogile onenen erakusketa eta dastatze ere ikusgarria izan zela azpimarratu behar. Parte hartutako gozogileak honako hauek izan ziren:

Adarraga (Hernani), Gorrotxategi (Tolosa), Ezeiza (Tolosa), Unanue (Ordizia), Zegamako Okindegia, Egaña(Azpeitia), Raizabal (Bergara), Oiarzun (Donostia), Larrañaga (Bergara), Arruti (Andoain), Hawai (Irun eta Hondarribia) eta Gasteizko Lopez de Sosoaga.

Antton Adarraga gozogile famatuak marmitakada bat txokolate bero ere banatu zuen bertaratutako en artean.

Gipuzkoako X. Ezti Txapelketaren epaimahaiakide Mikel Sarasola eta Lierni Aranburu Erlezain Elkarteko teknikariak, Aitor Perez Arrieta eta Ordiziako Unanue gozotegiko Jose Mari Jauregi aritu ziren. Hona hemen lehiaketaren aurtengo emaitzak:

1go saria: Juan Iñurritegi (Legazpi)

2. saria: Ramon Lopetegi (Belauntza)

3. saria: Miren Usarralde (Hernani)

Gipuzkoako Erlezain Egunean egiten den beste pisuzko ekitaldia, erlezainak omentzea da eta Gipuzkoako Erlezain Elkartek honako hauek proposatu zituen omentzeko: Jose Zurutuza lezoarra, Santi Matxain lazkaotarra, Jabier Ugarte oñatiarra eta Juan Iñurritegi legazpiarra.

Azkenik, erlezainek aurten ere “durrunba” egin zuten herriko kaleetan zehar, “erlekumearen bilketa antzetzeko, urtero ikusle ugari bilduz antzerkia ikustera.

Eguna jai giroan eta bertso giroan jarraituz, Zegamako Kasino Elkartek antolatu eta Udal Kultura Batzordeak lagundurik bertso jaialdi bikainaz gozatzeko aukera izan genuen, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Jexux Mari Irazu, Aitor Sarriegi, Unai Agirre eta Iker Zubeldia.



Aurtengo omenduak txapela, oroigarria eta loreak eman zietenekin



Erlekumea nola biltzen den erakusten digute



Martxel Aizpuru, Giez-Berri, S.L.ko eztiolako gerentea hitzaldia ematen



Pastelak dastatzeko prest




Perurena aita-semeen erakustaldia



Igande arratsaldean kiroldegia bete egiten da Gipuzkoako bertsolari onenak entzuteko

ZEGAMAKO Intxaur Pastak



Gaur egun arte beraien etxeetan errezeta mantendu dutenak

Erlezain Egunaren inguruan, Jose Mari Gorrotxategi pastelgile famatuak apirilaren 3an eman zuen hitzaldira eta ondorengo Zegamako Intxaur Pasten aurkezpen ofizialera herritar ugari hurbildu zen.

Jose Mari Gorrotxategi Zegamako intxaur pasten kalitatea goreski zuen eta bere hitzaldian **Zegamako baserrietan garai batean zeuden hiru osagaiekin egindako pastak zirela azpimarratu zuen.** Azukre beltza, intxaurreak eta arrautzak. Beraz bertako produktu bezala azpimarratu zuen, ez baitu beste errezetarik aurkitu bere liburutegian hiru osagai hauek bakarrik dituenik.

Zegamako intxaur pasten errezetaren berreskurapen honetan Udala ibili da aitzindari, eta paregabeko lankidetzara jaso du Kepa Galparsoro Zegama okindegiko okin eta zalantzarik gabe Zupier baserriko Tere Guridirengandik.

Honela, herritarrei galdezka aritu ondoren, aspaldidanik Zegamako baserri batean,

Tere Guridi, Jose Mari Gorrotxategirekin



Zupier baserrian, belaunaldiz-belaunaldi, egin den intxaur pasten errezetaren berri izan zuen Udalak eta ondoren, errezeta hau argitara ateratzea izan da Udalaren helburua.

Ekimen horretarako ezinbestekoak diren aldekotasanak izan ditu Udalak:

- 1) Alde batetik, Zupiergo, Tere Guridiren jarrera txalogarria, bere etxeko errezeta, ezagutzera emateko ez duelako erreparorik izan.
- 2) Tere Guridiren inguruko lagunengandik laguntza eta esperientziak ematen duen jakintzaren ekarpena, intxaur pasten gainean. Hauek ere urte askotan aritu baitira errezeta hau egiten bere sukaldeetan. Besteak beste, Mari Karmen Zabaleta, Nieves Oiarbide, Karmen Otaegi eta Lupe Guridi dira, Tererekin batera errezeta hau urteetan egin dutenak.
- 3) Zegama Okindegiko buru den Kepa Galparsororen lankidetzara, bere profesionaltasuna gure herriaren interesetara jarritz.
- 4) Jose Mari Gorrotxategi gozogle famatuaren laguntza.

Osagai guzti hauek beharrezkoak izan dira Zegamako Intxaur Pastak, komertzializatzeko.

Zegamako Udalak, bitartekari lanaz gain, intxaur pasten kaxaren diseinua eta lehen

1.000 pasta-kaxaren kostua bere gain hartu zuen, era honetara Zegamako Okindegiaren esfortzua pixka bat lagunduz eta bidea ireki asmoz egitasmo honi. Udalak guztira 2210,16 € ordaindu ditu ekimen hau aurrera ateratzeko.


Intxaur pasten kaxak, Zegama eta Aizkorriren argazkia darama gainean eta bi intxaur ale, bata aletua eta bestea aletu gabea.

Intxaur pasten aurkezpena, Kultur Etxean egin zen, 2008ko apirilaren 3an, bertan plaka bana eman zion Udalak errezeta gau gorde eta zabaldu duten herritarrei: Tere Guridi, Mari Karmen Zabaleta, Karmen Otaegi, Nieves Oiarbide eta Lupe Guridiri.

Bestalde, Zegama Okindegiko Kepa Galparsorori ere, Udalak eskerroneko plaka bat eman zion, Zegamara etorri zenetik, herriarekin izan duen lankidetzara jarrera eskertu asmoz eta baita Jose Mari Gorrotxategiri ere, bere laguntza eskaintzeagatik.

Zegamako intxaur pastak beraz, 2008ko apirilaren 6an jarri ziren lehenengo aldiz salgai jendaurrean, Erlezain Egunaren Egunean, hain zuzen ere. Kaxaren salneurria 6 €koa da.

Kepa Galparsorok ondorengo herri hauetako dendetan saltzen ditu intxaur pastak: Irun, Donostia, Hernani, Usurbil, Lazkao, Legazpi, Beasain, Lasarte, Erreterria, Pasaia eta noski Zegaman. Irteera ona duen produktu bat da eta horrela segi dezala!



Zegama Okindegiko Kepa Galparsoro eta Lourdes Lakuntza

QUEBRANTAHUESOS

BIZIKLETA MARTXA OSPETSUA

Ekainaren 23an ospatu zen Quebrantahuesos txirrindulari proba. Pirinioetako maldei erronka eginez, 205 kilometroko etapan, 7.556 lagunek parte hartu zuten eta tartean hainbat zegamar. Guztiek amaitzerik lortu ez bazuten ere, honako hauek izan ziren aurtengoan amaitu zutenen denbora eta sailkapen nagusiko postua.

Perez Arrieta, Ander	6:03:06	(41)
Irastorza Arrieta, Aritz	9:55:15	(5.697)
Etxeberria Imaz, Urtzi	11:06:00	(6.450)
Urzelai Larrea, Borja	6:41:40	(505)
Zabaleta Apaolaza, Ruben	9:55:14	(5.696)
Arizkorreta Asurmendi, Pedro	9:01:31	(4.624)


ZEGAMARRAK BEHOBIA

DONOSTIA FROGAN

Eguraldi polita izan zuten Zegamako hamahiru korrikalariak azaroaren 9an korrikalari kopuru ikaragarria biltzen duen froga honetan. Herrikoak ere gehiago joan ziren aurtengoan, kategoria desberdinetan sailkatuik norberak berea ematera.

Hemen doakizue aurten zein postutan geratu diren sailkapen orokorrean, izen-abizenak, kategoria eta bakoitzaren denbora. Bejondeizuela!

198	IKER	ELORTZA UGARTEMENDIA	SENIOR M	01:14:11
331	GUILLERMO	PINILLOS RODRIGUEZ	SENIOR M	01:16:21
384	XABIER	MORILLO MENDIZABAL	SENIOR M	01:16:55
668	CARLOS	MORAN ALONSO	VETERANO	01:19:28
1205	AITOR	URBIZU TELLERIA	SENIOR M	01:22:46
1231	JON BRAULIO	ELORTZA UGARTEMENDIA	SENIOR M	01:22:55
4886	IKER	ALZELAI ARAKAMA	SENIOR M	01:34:58
7296	IGOR	ELIZEGI ARRIZABALAGA	SENIOR M	01:41:35
8084	ASIER	BERASATEGI URDANGARAIN	SENIOR M	01:44:00
8207	AZURMENDI	IRANZU IMANOL	VETERANO	01:44:23
8964	JUAN LUIS	URTZELAI UGARTE	VETERANO	01:46:53
11345	MIKEL	MANTXIANDIARENA ARROSPIDE	VETERANO	01:55:45
12542	JOSE FRANCISCO	ALUSTIZA AZURMENDI	VETERANO II	02:02:28



BEROLAN, S.L.

BEROGINTZA - ITURGINTZA - GASA - ENERGI BERRIZTAGARRIAK
CALEFACCIÓN - FONTANERÍA - GAS - ENERGÍAS RENOVABLES

EXPOSICIÓN CALEFACCIÓN Y TALLER:

Barce Industriales, 26

20210 LARNAO

Guipúzcoa

Tel. 943 866 183

Fax 943 864 339

EXPOSICIÓN BARROS:

Industria Ederbera, 27

20010 BEASAIN

Guipúzcoa

Tel. 943 911 277


Fax 943 990 833

“Urdanetaren sekretua”

DOKUMENTALEAN ZEGAMARRAK

Orain 500 urte Ordizian jaio zen Andres Urdanetaren urteurrena ospatu da 2008an. Itsasgizon honen bizitza islatzen duen “Urdanetaren sekretua” dokumentala filmatu dute Mikel Urretabizkaiaren zuzendaritzapean. Filmak ordubete irauten du eta bertan jasotzen dira Andres de Urdanetak itsasoan bizi izan zituen ekintza gogoangarriak, Carlos V.a enperadorearekin eta haren seme Felipe II.a erregearekin izan zuen harreman estua eta ‘Tornaviaje’ bidearen aurkikuntza, besteak beste.

Dokumental hau, Filipinetan, Mexikon, Valladoliden, Madrilen, Lisboan eta Euskal Herrian (Azpeitiako Loiolako Santutegian, Lazkaoko Beneditarretan, Segurako kaleetan...) aritu dira filmatzen. Bertan zegamar batzuk ere izan dira protagonista, hala nola, Ignazio Urbizuk Felipe II. Erregearen mezulari papera egin du, grabaketak Loiolako Santutegian egin zirelarik. Bestetik, Urdanetaren zaldun bezala Jose Luis Acha, Jose Ignazio Oiarbide eta Josetxo Etxezarretak jardun zuten Segurako kaleetan zehar egindako grabaketan. Guztiek ere, aktore lanak egiten iaioak direla erakutsi dute.




magala
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

BLANITZ ZUBIZARROTA



Zorionak!

ELISABETH KALEA, 3-BEHESA
20210 LAZKAO
☎ 943 028415

TRADIZIOAK



Olentzero abenduaren 24an Zegamako kaleetan ibili zen

GABONAK

Egun aipagarria izan ohi da gure egutegian abenduaren 24a. Kantu eskean irtetzeko ohitura dago aspaldidanik Zegaman. 2007an ere atera zen jendea ezta iriak berotzera; goizez Aitxuri Heri Eskolako haurrak izan ziren lehenak Zegamako kaleetan zehar kantari, bazkalondoan Gazte Herexakoak baserrietara bidean abiatu ziren eta arratsaleko 18:00etan herritarrak orokorrean, Olanan auzoan elkartu ziren Olentzerorekin batera gabon eskean ibiltzeko iluntzeko bederatiak arte.

SANTA AGEDA

Aurtengoan astelehenez tokatu zen Santa Ageda bezpera, otsailaren 4a. Arratsaldeko 18:00etan zine ondoan elkartu eta herritar kuadrila bat herrian zehar aritu zen gauerarte Santa eskean koplak eta bertsoak abestuz.

Ondoren, hotzak berotzeko asmoz, Udalak eskeinuta, Ostaturun egin zuten luntx-a parte-hartzaileek.

IDIAZABALDARREI HARRERA

Maiatzaren 18an zegamarrek harrera egin genien idiazabaldarrei Olaberriko Gurutze Santuko Ermitaren ondoan. Asier Elizegi Zegamako alkateordeak ongietorria eta bere agintari makila utzi zion Idiazabalgo loritz Imaz alkateari. Txistularien laguntzarekin Zegamako herria igaro eta Txurrerian Zegamako Udalak hamaiketako eman ondoren Segura alderako bidea hartu zuten.

SAN JUAN BEZPERA ETA SAN JUAN EGUNA

Ekainaren 23an, San Juan bezpera egunez jaso zen arbola ohiko lekuan. Gauean Olaberriko aparkalekuan egin zen sua eta tximista eta trumoi artean jende ugari bildu zen suaren epeltasunera, Tobera Musika Eskolako dantzariak parte hartu zutelarik bertan.



Arantzazuko peregrinazioa sustraietan daramagu

San Juan egunez, ekainaren 24ean, ohiturari jarraituz udal arkupeetan Udalak ardoa banatu zuen betidanik erabili izan diren lurrezko pitxar eta edalontzi berezietan.

ARANTZAZUKO PEREGRINAZIOA

Maiatzaren 11 eta 12an ospatu zen aurtengoan Arantzuko Peregrinazioa. Igandean eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, jendetza bildu zen Zegamatik Arantzazuko mendietan zehar.

Urtero lez, sukaldariek salda eta kafe ederra prestatu zuten eta Udalak Ostaturun prestatutako xerrazko ogitartekoak banatu zituen bazkaltzeko, baita ardoa eta ura ere.

Astelehenean, eguraldia lagun, Goiko Bentatik Santutegiraino prozesioa egin zen, Udal agintari, herriko txistulari eta Bittorio Zabalgoeaskoa frantziskotarraren atzetik zegamar ugari bilduz.

Bazkal ondoren, oinez edo kotxez zetozenak itzulerako bidea hartu zuten, guztiak Zegama aldera abiatu. Behin Zegamara iritsita elizara joan ziren erromesak Ama Birjinaren ongietorria jaso ondoren.



Arantzazuko peregrinazioa sustraietan daramagu. Astelehenean, Oazurtzan otarteko bana eta edaria izaten da guztientzat



San Adriango ermitan Bittorio meza ematen

ERMITETAN MEZAK

Olaberriko Gurutze Santuaren Eguna

Maiatzak 5ean ospatu zen meza Bittorio Zabalgogeaskoaren eskutik arratsaldeko 7:00etan. Eguneroko meza parrokiaren entzuten detenak ere egun horretan Gurutze Santura igo ziren. astelehena izan arren, giro ederrean egon ziren elizkizunaren ondorenean.

Sancti Spirituko Ermita

Maiatzaren 18an eguerdiko 11:30etan ospatu meza zen eguraldi bikainarekin. Ohi bezala, umore ona, adiskidetzat ospatzeko eta naturaz gozatzeko unerik ez zen falta izan.

San Pedro Ermita

Ekainaren 30ean ospatu genuen Jose Luis Agirretxe erretorearekin. Beste urteetan baino jende gehiago inguratu zen. Goialdeko auzokoek ez dute ahazten egun hau elkarrekin egoteko; askok eskola ere han ezagutu zuten. Meza ondoren, mokadutxo eta tertulia ederra izan genuen.



San Pedro ermitan elizkizuna entzun ondorengo mokadutxo eta tertulia

San Adriango Ermita

Ekainak 22an ospatu zen meza Bittorio Zabalgogeaskoaren eskutik. Udalak meza ondoren ohikoa den bezala hamaiketako eskaini zuen. San Sadurní d'Anoiatik ere etorri ziren Zegamako beste usadio bat ezagutzera.

Aizkorriko Gurutze Santua Ermita

Abuztuak 3an egin zen meza ospakizuna Bittorio Zabalgogeaskoaren eskutik. Ehun lagun inguru bildu ziren. Aizkorriko ermitan, meza ematea, zegamarrok aspaldidanik dugun ohitura da, eta esan behar da, berau dela herrian dugun ermita ezagunena,

izan ere, mendizale gehienek ezagutzen baitute ermita hau, nahiz eta, behar bada askok ez dakiten, Zegamako Udalerriaren dagoela kokatua Aizkorriko gailurra bezala. Oso eguraldi ona izan zen aurtengoan. Udaletxeak gazta, ardoa, ura eta pastak igotzen ditu eta ongi hartzen dira beherako bidetara ekin aurretik. Urtetik urtera kanpoko jende gehiago biltzen da.

San Bartolome Ermita

“Bezpera Nagusiak” abuztuaren 23an ospatzen dira Udala agintari eta herritarrekin herriko jaien etorrera modura. Abuztuaren 24an, San Bartolome eguna, San Bartolome Santua San Martin parrokiaraino jeisten da prozesioan: Udala agintari, herritar eta txistularien doinuak lagundurik.

Abuztuaren 25ean urtean hildakoen aldeko meza ospatzen da San Bartolome ermitan goizeko 10:00etan

Iruetxetako Ermita

Elurretako Amaren eguna abuztuak 5ean ospatu zen Bittorio Zabalgogeakoaren eman zuelarik meza arratsaldeko 7:00etan. Elizkizunetik irtetzerako udako eguraldi trumoitxua eta euri-jasak ekin zion. Ondoren udalak, mokadutxo bat eskaini zien bertaratuei.



Sancti Spirituko ermita bere edertasunean ikus dezakegu irudi honetan



Abuztuaren 3an eguraldi ederrarekin meza ospatu zen Aizkorriko ermitan

SAN MARTIN

Parrokia

2008. urtean zehar Zegamako Parrokian izan ditugun ospaketak hauek izan dira:

MAIATZAREN 18a: LEHENENGO JAUNARTZEAK

Aurten Lehenengo Jaunartzea ospatu duten haurrak sei izan dira:

ANNE ASURMENDI LAZKANO

EUKEN OLAZIREGI ALBIZU

LANDER MENDIZABAL SUKIA

ORIANA PARDO

SARA IRASTORZA APAOLAZA

UXUE ARRIZABALAGA BEGIRISTAIN

Urteroko ohitura onari jarraituz, meza-ospakizunaren ondoren, Parrokiak "luntx" bat prestatu zuen jaunartzea egindako haurrentzat eta beraien familiartekoentzat. Egun ederra eta alaia denontzat!

BATAIOAK

Urtero lez, aurten ere hiru saiotan ospatu dira bataioak. Lehenengoa Jesusen bataioaren igandean ospatu zen, bigarrena pazkoko bigarren igandean eta hirugarrena berriz iraileko azken aurreko igandean. Aurten 11 izan dira bataioa hartu duten haurrak:

ENEKO AGIRRE BERASATEGI

GARAZI ALUSTIZA ARANDO

ELORRI GOMEZ ORMAZABAL

MAIALEN BALERDI GARMENDIA

PAULA URABAYEN OCHOA-AIZPURUA

MADDI MENDIZABAL LEKUONA

URTZI ETXEBERRIA OYARBIDE

AIMAR GARCIARENA GURIDI

ENAITZ LANDA TELLERIA

JULEN GALDOS IMAZ

Honelako ospakizunak beti dira alaiak, bizi berri baten hasierak poz handia sortzen du familian eta inguruan. Zorionak guraso guztioi!

EZKONTZAK

Zegamako Parrokian bi ezkontza izan dira 2008 urtean. Beste puntu batzuetan ere izan dira ezkontzak baina ez dugu horien zerrendarik.

IGNACIO IRAOLA LAPIZONDO eta ANA M^a RUIZ LOPEZ

MIKEL GOIBURU GOIA eta AINARA ARRIETA ARANZA

HERIOTZAK

Aurtengo urtean ere hildakoen zerrenda gutxitu egin zaigu, hauek dira aurten utzi gaituztenak:

JOSE M^a ASURMENDI ARRIZABALAGA

M^a CASIMIRA BERASATEGUI ARRIETA

JOSE ARRONDO ARRONDO

JOSE GOYA AZURMENDI Apaiza

FELISA GURIDI ETXEBERRIA

PILAR BIDAOLA ASEGINOLAZA

M^a ISIDRA TELLERIA BERASATEGI

JOSE M^a BADIOLA ZINKUNEGI

FRANCISCO CALDERON MORALES

PATRICIO ARRIETA ORMAZABAL

AGUSTIN AZURMENDI ZABALETA

M^a ASCENSION ARIZKORRETA
ALDANONDO

ANTXON ALTOLAGIRRE GORROTXATEGI

JESUS URBISTONDO GOIKOETXEA

MAITERE LARREA ORMAZABAL

Itxaropenak eta fedea eraginda gerorarte esanez ospatu genuen gure senideen agurra. Jainkoak digun maitasunaren zerrendan seguru daudela sinesten dugu! Agur eta bakean goza dezatela!

Hauek dira aurten parrokiari izan ditugun ekintzak eta ospaketak. Barkatu norbait zerrendan jarri gabe gelditu bada edo-eta zerbait gaizki idatzi izan badut.

BAKE ETA ON GUZIOI!



Lehen Jaunartzeko haurrak

ARATZEKO

Elur-zuloa



Elurzulora jaisten

Aurtengo Aizkorriko lagunen elkarteko eguna ospatzeko bi irteera antolatu ziren: bata ohikoa, klasiko bihurtu den Zegama-Aizkorri igoera; bestea hainbeste ibili nahi ez zutenentzat lehenengo aldiz burutu dena, Zegamatik Aldaolaraino autobuses gerturatuz, Aratzeko elur-zulora.

Elur-zuloa aukeratzeko arrazoiak desberdinak izan ziren baina garrantzitsuenetakoa, Aizkorriren historiaz betetako txoko desberdinak ezagutaraztea.

Historiaz beteta esaten denean gure arbasoek erabilitako hainbat errekurtsu natural erakustea adierazi nahi izan da. Hauetako bat elurra da. Elurraren erabilera eta honen funtzioak antzinatik ezagunak izan dira, adibidez: jakiak mantentzeko, uda beroetan edariak fresko banatzeko edo hainbat osasun arazo konpotzeko, sukarra hauen artean. Baina elurra XVI mende arte, aberatsen produktua besterik ez zen eta hainbat jauregi garrantzitsuetan elur-zulo edo izoztutako elurra mantentzeko leku bereziak ezagutzen dira. Garai honetatik aurrera elurraren erabilera herrikoitzen joan zen eta elur-zuloak askoz ere zentzu zabalagoa hartzen joan ziren.

Bi motatako elur-zuloak aurki daitezke: Artifizialak eta naturalak. Artifizialak, gizakiak egindakoak, gehienetan kupularrak izaten ziren eta aldapa txikiekin eraikiak galtzen zuten ura kanalizazioa errazarekin desbideratu ahal izateko. Aratzeko elur-zuloa naturala da. 1400 metro inguruko altueran kokatua, koba-zulo itxura hartzen duena, baina ikus daitekeenez bi zulo irekiak ditu zerura begira. Aldapatxoa jaitsi ahala ikus daiteke lehenengoa, goian zulo handia eta barrura joanez gero, alboan beste zulo itxiak elurra pilatzen bazen bertara erretiratu ahal izateko. Elur-zulo hau pasata, arrastaka bi edo hiru metro joanez bigarren elur-zulora sar daiteke; honek ere zeru aldera zulo bat du, elurra sartzen den lekua (arrastaka pasa nahi ez dutenek, goitik, kanpotik, oso ondo ikusteko modua dute); alboan bere zulo lehorra du.

Elurra ahal zen denbora gehien mantendu ahal izateko, zulotan pilatzen zihuan ahala, zapaldu egiten zen, izotz tankera hartu arte. Ondoren, elur-izoztua, garo bidez edo larru bidez estali egiten zen. Askok bazegoen erretiratu egiten zen zulo lehorretara. Hainbeste ez bazegoen bertan utzi eta gainean eroritzen zenarekin prozedura bera

burutzen zen. Horrela kapa desberdinak osatzen ziren. Elurra behar zenean ez zegoen dena pilatuta baizik eta kapaz-hapa antolatua erabilera erraztuz. Hauetako kapa bat agortu arte ez zen besterik irekitzen.

Aratzeko elur-zuloko elurra mandoak edo astoak erabiliz, gaez eramaten zen behar zen lekura. Gipuzkoarrek erabiltzen bazuten ere, Arabarrek ateratzen zioten etekin gehiago eta artzain batzuk komentatu izan dute San Juanetako Aratzeko elur-zulotik Araiara elurra eramaten zutela edariak fresko mantendu ahal izateko. Elur-zuloaren jabeak gehienetan udaletxeak edo monastegiak baziren ere, batzuk partikularren esku ere egoten ziren eta herri garrantzitsu gehienak elurra saltzeko lekua zuten, hau produktu preziatua baizen.

Gaur egun elurraren iraupenerako ezer egiten ez denez, San Juan garaian ez da elurra Aratzen mantentzen baina hala ere, elur-zulo natural hauetan, elurrak mendian baina askoz ere gehiago irauten du eta urtero ez bada ere, batzuetan maiatza erdialdean elurra topa daiteke Aratzeko elur-zuloan.

ISABEL ELORZA PUYADENA



Elurzuluan estalaktitik eta hainbat bitxikeria daude

GURE BASERRIAK eta parajeak (II)



Goikoetxalde



Irion



Zupier



Sagasti



Intxaurtxota



Dirinti Garakoa

VII. ZEGAMA AIZKORRI

Mendi Maratoia



BADATOR ZORTZIGARREN EKINALDIA 2009KO MAIATZAREN 24EAN

Urte zahar urte berri, badira dagoeneko zortzi Zegama-Aizkorri maratoia antolatzen daramatzagunak. 2009 urte berri honetako maiatzaren 24ean egingo da zortzigarrena. Berritua ere Munduko Kopako SkyRunner World Series txapelketan sartua oraingoan, 2008koa Europako Kopa erabakitzeke lasterketa bakarra izan ondoren. Txapelketa batean edo bestean egoteak badauka, zalantzarik gabe, bere garrantzia maratoiarentzat eta Zegamarentzat, baina, egia esan, ez da hori gure maratoia handi, eder eta lehiakor egiten duen arrazoia edo ezaugarri nagusia. Izena, izana eta sona, lortuak eta ongi lortuak dituen neurrian, beste ibilbide eta ekimen batzuren ondorio eta emaitza dira, 2008ko maiatzaren 25eko Zegama-Aizkorri maratoiak berak ere ongi erakutsi zigun bezala.

Inolako zalantzarik gabe, 2008ko maiatzaren 25ekoa egun berezia izan zen, behin berritan, Zegaman. Aurreko urteetan bezala, nola partaidetzaren aldetik, hala kirolarien eta jendearen erantzunagatik ere egun bikaina guztira. Nolanahi ere, beste urte batzuekiko, bost gauza azpimarratu beharko genituzke.

ZEGAMARRAK

Postua	Dortsala	Izen-deiturak	Denbora
101	107	CARLOS MORAN ALONSO	5:13:20
115	101	GUILLERMO PINILLOS RODRIGUEZ	5:17:29
126	102	JESUS MARI ZABALETA LEKUONA	5:21:55
132	104	IKER ELORZA UGARTEMENDIA	5:22:19
184	109	URTZI ETXEBERRIA IMAR	5:39:23
190	105	IÑAKI LASA AGIRRE	5:42:59
236	103	JON ELORZA UGARTEMENDIA	6:06:30
308	108	AITOR URBIZU TELLERIA	6:44:09
313	110	UNAI LARREA LOPEZ	6:35:00
321	111	JOSEBA AIZPEOLEA ALUSTIZA	6:38:31

Honela esnatu zen hainbeste
itxarondako maiatzaren 25^a



2. OMENALDIA MIKEL GARMENDIARI



Mikel Garmendiari merezitako omenaldia

Laneko ezbehar batek gazte askorik gure artetik eramana, zor zion Zegamako maratoiak aitormenik Mikel Garmendia idiazabaldarrari, aurreko urte guztietan Zegama-Aizkorri maratoian partaide zintzo eta lehiatsu izan genuelako. Alarguna, bi semeak, senideak eta lagunak bertan zirela, maratoiar hasiera emateko unean eskaini zitzaion omenaldia, bihotzaren zuztar-zuztarretik sortua eta berezko sentimenduz adierazia. Euririk ez baina malko sentikor eta goxorik bai, maratoiar irteera eman aurretiko uneetan, Mikel Garmendiaren omenez:

*Horra, gure Mikel,
sendiko eta herriko,
senar eta guraso,
lagun eta auzo.*

*Horra, gure Mikel,
berezko eta sasoizko,
kaleko eta baserriko,
etxe eta Aizkorriko.*

*Horra, gure Mikel,
betiko.*

Mikel Garmendiari, bihotzez.
Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia.
Zegaman, 2008ko maiatzaren 25a.



Ricardo Mejia colonbiarra ez da berriro galduko

3. RICARDO MEJIA, GALDU

Gure artean izan genuen mexikarra, Zegamakoa ez ezik, munduan zehar ere hainbat mendi-lasterketa irabazi izan dituena eta Zegamako maratoi honi aparteko zaletasuna dion gizona. Txapeldun gaien taldean ibili zen Aizkorri eta Atxuri gainetik pasa eta Oltzeko kontrolgunerako jaitsierari ekin zion arte, baina, hortxe galdu zuen ibilbidearen arrastoa eta ez zen Oltzeko kontrolgunerik igaro, arautegiak eskatzen duen gisan. Umore ederrean aitortu zuen gertakaria helmugara iritsi eta 3 minutuko zigorra ezarri ziotenean: "En adelante me llamarán Ricardo el fantasma que se perdió y volvió a aparecer". Gorabeherak gorabehera, bosgarren amaitu zuen lasterketa [4:13:42] eta zazpigarren postuarekin hartu behar izan zuen etsipena [4:16:42], epaileek ezarritako hiru minutuko zigorra medio.



JESUS ZABALETA LEKUONA

Azken urteetan mendi lasterketek son handia hartu dute. Hauetan zegamar korrikalarien parte-hartzea gero eta nabariagoa da. Aipamen berezia merezi du aurtengoan ordea Jesus Zabaletak. Bere 53 urterekin hainbat mendi lasterketetan parte hartu du 2008. urte honetan eta beteranoen mailan lortutako emaitzak bikainak izan dira, hala nola:

Lakuntzan lehengo, Isaban eta Etxon bigarren, Saran hirugarren eta Bera, Azpeiti eta Zegamako mendi lasterketetan ere sailkapeneko aurreko postuetan ibili da beteranoen sailean. Bejondeizula Jesus eta segi horrela urte askoan.

Fisioterapia

ZENTRO BERRIA



Naiara Gomez Larrea amaren jaioterrira etorri da fisioterapia zentroa irekitzera Madrilgo "Alfonso X El Sabio"n karrera egin eta sakontzeko ikasketa gehiago egin ondoren. Herri txikiak maite eta herritar eta ingurukoei aukera bikaina eskaintzen digu. Uztailaren batean ireki zuen bezperan inagurazioa eginda. Hasiera izaten da gogorrena, zorterik onena opa dizugu!

Taberna berria Zegaman

MORDOXKA

2008ko apirilaren 5 eguerdian, Erlezain Egunaren bezperan, "Mordoxka" tabernak atea zabaldu zituen. Iñaki, Sara eta Josu Irastorza anai-arrebek irekitako taberna berria Zegamako Santa Barbara kalean dago kokatua. Zegamarren artean harrera ona izan duela dudarik ez dago, izan ere adin guztietako jendearentzat topaleku da Mordoxka taberna. Zorte on Mordoxkako taldeari!





Jose Mari

Ormazabal Ormazabal

Gure ekonomia-aren ardatz nagusia den industria, lehiakortasunaren bidez mantendu eta hobetzeko bideak landu behar direla ondorioztatu da

Goierri Fundazioko arduradun zarenetik zein izan da zure lanarekin lotuta Zegamako Udalarekin eta herritarrekin oro har izan duzun harremana?

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa sortu zenetik, Zegamako udalaren ordezkariak bertan izan ditugu, bailarako beste herrietakoekin elkarlanean, eskualdeko etorkizuna garatzen laguntzeko ahaleginetan ekarpenak eginez. Horregatik, Zegama herri osoari eta bereziki urte guzti hauetan lan isil honetan jardun diren herritarrei eskerrak eman nahi dizkiet

Ze motatako lanketa egin da Goierri eskualdearen etorkizuna lantzeko?

Goierri eskualdeak, etorkizuna eraiki egin behar dela aspalditik garbi izan du. Bestela, etorkizuna sufritu egin beharko da. Horrela, 1992. urtean eginiko hausnarketa estrategikoan, industria mantentzearen aldeko apustu sendoa gauzatu zen eskualdean. Orain, Agenda21 estrategikoa landu denean ere, gure ekonomia-aren ardatz nagusia den Industria, lehiakortasunaren bidez mantendu eta hobetzeko bideak landu behar direla ondorioztatu da.



Goierriko kuspegi orokorra

Gaur egun, zertan ari da Goierri Fundazioa?

Goierri Fundazioak, gaur egun dugun egoera aztertu eta etorkizuna eraikitzen lagunduko duen ekimen bat jarri du martxan. Goierri eskualderako oso garrantzitsua den "Goierri Berrikuntza Gunea" proiektua. Proiektu honek, Goierri berrikuntza gauza dadin baldintza egokiak sortu nahi ditu.

Goierri bailarako industriak zein ezaugarri ditu gaur egun?

Enpresa gehienak metal-mekanika sektorean espezializatuak daude. Nazio artean bere jardura hedaturik duten enpresa liderren multzo bat dago eta honek eragin zuzena du eskualdeko egitura industrialdean: azpikontratazko prozesua.

Aipatutako enpresa liderrak biztanleriarentzat erreferenteak dira; hala ere, enpresa hauek eraldaketa sakonei aurre egin behar diete: globalizazioa, aurrerakuntza teknologikoa, aldaketa demografikoa, ingurumen aspektuen integrazioa, pertsonen kudeaketa.

Azpikontratazkoan dabilzan enpresek berriz ezaugarri desberdinak dituzte; hala nola, tamaina txikiak dira, eta orokorrean ez dute produktu propioirik. Bestetik, langileak aurkitzeko lehia handiak izaten dituzte enpresa liderrekin eta aldi berean,

egunerokotasunak hainbat erronkei aurre egiteko zailtasunak ezartzen dizkie (antolaketa, kalitatea, seguritatea, etab.).

Zein da bailarako egoera ekonomikoa?

Zenbaki handiei begiratuta, oso baikorrak dira (langabezia %5a baino txikiagoa da), hurrengo urtetarako aurreikusten den erronka nagusia egungo enpresek lehiakor izaten jarraitzea da eta beraz, gerorantz iraunkorrak izatea.

Zein behar azaltzen dituzte Goierriko enpresek?

Alde batetik nazioartekotasuna bultzatzearen beharra, hau da, enpresa liderrek dagoeneko horretan diharduten arren, beste enpresak lehia honetarako prestatu behar dira. Honez gain, tokiko ingurunean "lo" dauden aukerak suspertu behar dira, izan ere, zenbait proiektu bazterrean utzi ditu eguneroko jarduerak. Bestalde, biztanleria aktiboa sustatzearen beharra ikusten da; beraien eskubideak eta betebeharrak ere ezagunak dituztenak eta hauek praktikara eramango dituztenak, enpresa inguruan eta erakundeetan erantzukizunak hartuz.

Berrikuntza, enpresen lehiakortasuna eta posizioa mantendu eta hobetzeko enpresa liderrek berrikuntza hau bi esparrutan jorratu beharko dute, alegia, produktuetan eta prozesuetan. Beste enpresen erronka



Goierri Fundazioa

ordea, prozesuen hobekuntzan zentratuko da, izan ere, normalean produktua kanpotik definiturik izango dute.

Esandako guzti horri aurre egiteko, kualifikatutako teknikariak behar dira.

Goierri Fundazioan zentratuz, zein da Fundazio honen ibilbidea eta gaur egungo egoera?

Goierri Fundazioa, 1986. urtean sortu eta Goierriko eskualdearen zerbitzura dagoen tresna bat da. Bere eginkizun nagusiak pertsonen heziketa eta eskualdeko garapen tekniko, ekonomiko eta soziala gauzatzen laguntzea da. Bere aginte organoetan, 18 udal eta 44 enpresa daude, eta bere aktiboaren artean Goierri Lanbide Eskola, Ikaslan, Goierri eta Orientazio zerbitzua daude. Azken urte hauetan, eskualdean abian jarri diren hainbat ekimenen ardatza izan da, hala nola Goieki Garapen Agentzia eta Lortek zentro Teknologikoa aipa ditzakegu. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundia, gure aginte organoetan ez badaude ere, oso garrantzitsua izanda beraien inplikazioa gure proiektua aurrera ateratzeko garaian.

Etorkizunari begira zein erronka ditu Goierri Fundazioak?

Egun dauden baliabideak gaurkotuta mantentzea ezinbesteko bilakatzen da datozkigun erronkei erantzun ahal izateko.

Hasitako bideei jarraituz, berrikuntza arloan enpresen eskaera geroz eta handiagoa izango da, berrikuntza horretara zuzendutako egitura egonkorrek ezinbestekoak izango direlarik. Enpresak "ingurune lasaiak" eskatzen ari dira beraien I+G+B-rako. Ingurune honek, aldi berean, azpiegitura zientifiko nahikoa eskaini behar die.

Hau guztia kontuan harturik, etorkizun hurbilean Goierri bailarak Ingeniaritza eta Lortek ikerketa zentroa eta Goierri eta Lanbide Heziketako Ikastetxea uztarturik izango dituen Berrikuntza Gunea aurreikusten du. Berrikuntza Gunea,

Goierriko etorkizuna eraikitzen laguntzeko oso ekimen garrantzitsua izan daiteke.

Goierriko Berrikuntza Gunea proiektuak zein filosofia eta irizpide nagusi izango ditu?

Enpresa, teknologia zentro eta Unibertsitatearen arteko elkar ongarriztean oinarritutako den proiektua

da. Honez gain, berrikuntza iraunkorrari zuzenduta egongo da, hau da, ikerketa eta berrikuntza sendotuko dituen dinamikak bultzatuko dira. Gainera, eskualdeko industriaren beharrak kontuan izango dira eta hauen berrikuntza modu egoki batean gauzatu dadin bide egokiak aurkituko dira. Eskualdean txertaturik dauden enpresei ere

zenbait zerbitzu eskaintzen dituen ingurua da.

Proiektuaren gauzatzea nola egingo da?

Baliabide ekonomikoak eta beharrak oinarri hartuta, proiektua lau fasetan egitea aurreikusten da.

Lehenengo fasean, egungo eraikinetatik at ikerketarako eraikin berri baten beharra ikusten da eta eraikin berri honetan Berrikuntza Guneak beharko dituen zerbitzuak antolatuko dira. Bigarren fase batean, punta puntako teknologian oinarritutako enpresak kokatzeko gunea eraikiko da. Hirugarren fasean berriz, Enpresetako Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza unitateei gune "isilak" eskainiko zaizkie; beraien produktu eta zerbitzu berriak diseina ditzakete enpresetako egunerokotasunak horretarako dituen oztopoetatik isolatuta. Honez gain, enpresa berriak bere sorreran behar duten babesa eskaintzeko, inkubategi berri bat eraikiko da. Proiektuaren amaierako fasean, Lortek teknologia zentroa kokatuko da bere beharren arabera diseinatutako eraikin berri batean.

Zein inbertsio aurreikusten da proiektua gauzatzeko? Eta zeintzuk izango dira epeak?

Proiektuak, bere osotasunean hartuta 50,5 milioi euroko inbertsioa eskatzen du. Hauetatik 16,6 milioi euro teknologia zentro eta ingeniaritzako ikerketa guneak sendotzeko eta beste 33,9 milioi euro enpresei eskainitako guneak eraikitzeko. Epeei dagokionean, aurreikuspenen arabera 5 edo 6 urteko epean proiektua garatuta izango dela espero da.

AINITZE AZURMENDI

Goierriko Berrikuntza Gunea izango da datorren urteetarako erronka

lehiakorrek izan daitezela lagunduko zaie. Eta guzti hau, ekimen publiko eta pribatuaren elkarlanean oinarritua egongo da.

Non kokatuko da proiektu berri hau?

Proiektua gauzatzeko kokagune aproposa Goierriko Eskola, Ingeniaritzako Mondragon Unibertsitatearen kanpua, Lortek zentro teknologikoa eta Goierri Fundazioak beste



Etorkizunako Berrikuntza gunea ikus daiteke planoan



Bittori

Agirre Ariztimuino

Gure ama
**7 umerekin gelditu
 zen alargun,
 senide gazteenak
 3 urte besterik ez
 zituela**

Non eta noiz jaio zinen?

Ni Altziber Behekoa baserrian jaio nintzen 1923ko uztailearen 28an.

Zein bizi zineten Altziber Behekoan zu umea zinela?

Ni umea nintzenean Altziberren gurasoak, 7 senideak (Doroteo, Maria, Pio, Joxepa, ni Bittori, Julian eta Joxe) eta amona bizi ginen Altziberren.

Aitak "kaminoan" egiten zuen lan, ez zeukan lan fijoarik kaminero bezala baina lana zegoenean "pegoi" moduan aritzen zen bertan. Hala ere, aita oso gazterik hil zitzaigun, 44 urte besterik ez zituen! Gure ama zazpi umerekin gelditu zen alargun. Senide gazteenak 3 urte besterik ez zituen.

Ez zen amarentzat erraza izango zazpi seme-alabak bakarrik haztea

Ez horixel! Oso zailak izan ziren gure amarentzat garai haiek. Lana eginaren poderioz irten ginen aurrera. Senide zaharrena, Doroteo, laster hasi zen fabrikari lanean eta ahizpa zaharrena berriz, Maria, neskame joan zen. Beste senideak baserrian gelditu ginen eta lan eginaren poderioz, ez genuen goserik pasa.

Nolakoa zen Altziber zu umea zinenean?

Oraingo modukoa, han ez da ezer aldatu. Beheko pisuan ukuilua eta artegia esaten genion lokal handi bat zegoen. Ukuiluan lau behi eta "kaballeri" bat genituen. Kaballerie baserriko lanetarako erabiltzen genuen eta behiak berriz txahaletarako eta esnetarako.

Artegia esaten genion lokal horretan garoa gordetzen genuen, ez geneukan ardirik.



Bittori gaztetan

Goiko pisuan lau "koarto" eta sukaldea genituen. Sukaldean beheko sua genuen, gorantz paretara jasotzen zen mahai bat eta armairu bat. Argia bazegoen baina urik ez nuen ezagutu. Edateko ur bila Maitegiko

**Goizeko hiruretan
 jeiki eta garo bila
 joaten ginen
 Otzaurtera**

metal iturrira joaten ginen. Altziber goiko mendian ere bazen metal iturri bat, baina honek Maitegikoak baino metal gehiago zeukan. Bazen "Erreka Handia"ren kontra Lojatik aurrera joanda beste aska txiki bat ere, alper iturria esaten geniona eta oso ur hotza jaiotzen zen bertan. "Koartoetan" oheak zeuden lastaizko koltxoiarekin.

Nolakoa zen umetan edo gaztetan Bittorirentzat egun bat Altziberren?

Goizean seietan jaiki eta inprentara joaten nintzen lanera oinez gosaria besotik zintzilik nuela. Ordu bietan lanetik irten eta etxera etortzen nintzen, bazkaldu eta lanera, orduan ez zegoen siesta egiteko astirik! Aitzurra hartu eta artajorrara edo itulan egitera! Behi zain ere ibiltzen ginen. Beste batzutan berriz, goizeko hiruretan jaiki eta Goialdera joaten ginen gurdian garo bila.

Jai egunetan berriz goizeko zortzi eta erdietako mezatara joaten ginen eta arratsaldean bezperetara. Bezperetara joaten ez baginen ez zegoen orduan kalera joaterik! Elizatik atera eta plazan txistua egoten zen eta bertan gelditzen ginen dantzan. Urtzelaietara ere joaten ginen dantzara, han Roman Goenaga izaten zen soinujole eta oso giro ona egoten zen, oso ondo pasatzen genuen. Garizuma garaian berriz ez zen musikarik egoten, "jokuan" egitea ere debekatua zegoen garai horretan.

Zein zen zuen eguneroko menua? Arrainik jaten al zenuten?

Egunero menu berdina izaten genuen, edo oso antzekoa. Etxean genituen janariak



Bittori elizarako bidean bere ezkontza egunean

jaten genituen, "indoabea", taloa eta esnea, ogia, txerrikoa etab. meriendatzeko berriz ontzaren bat txokolate izaten genuen eta afaltzeko porru patatak.

Arraina oso gutxitan jaten genuen, noiz behinka sardinaren batzuk. Garai hartan arraina Joan Otaegi Rubiok ekartzen zuen. Gerora, Beasaindik ekartzen zuten bizikletaz arraina.

Nolakoa zen Barrenalde auzoa garai hartan?

Barrenaldean garai hartan bizi gehiago zegoen gaur egun baino. Arrigetxen, Intxaustin eta Larrekon tabernak zeuden. Festa berezirik ez zen ospatzen baina jaietan Arrigetxen musika egoten zen eta askotan joaten ginen bertara dantzara. Roman Goenaga etortzen zen soinua jotzera. Geroago, Intxaustiko tabernan egoten zen musika.

Larrekon, taberna egoteaz gain "generoa" ere saltzen zuten. Margarita ibiltzen zen "kballeriarekin" etxez-etxe generoa saltzen.

Intxaustin buztinezko ontziak egiten zituzten eta buztin eta berniz errota bat zuten. Ontziak egiteko buztina Altxiber baserriaren goi aldean dauden lurretatik eramaten zuten.

Altxiberren berriz, telleri bat ere ba omen zen. Nik ez nuen ezagutu martxan, ni umea nintzela garoa, belarra eta baserriko erremintak gordetzen ziren bertan eta erlauntz pilo bat egoten zen. Kaminoaren goialdean bolalekua ere bazegoen. Bolalekua ez zen gurea, auzokoa zen eta bertan ibiltzen ziren auzoko gizonak eta gazteak jolasean.

Paisaiari dagokionean, lehen ez zegoen pinudirik, dena zelai eta soroak ziren. Pinuak ni ezkondu eta geroago hasi ziren landatzen.



Bittori bere senar Patxirekin eta bere biloba Iñaki eta Asierrekin ezkontza batean.



Bittori bere bi alabekin

Barrenaldean garai hartan egun baino bizi gehiago zegoen, Arrigetxen, Intxaustin eta Larrekon tabernak zeuden

Goialdean hainbeste santu eta ama birjina egonik, Barrenaldean nolatan ez daukazue bat ere? Formalagoak al zineten zuek Goialdekoak baino?

Orain ez dago Barrenaldean ermitarik baina garai batean ba omen zen "Zulaa" alde horretan baten bat. Zulaa inguruko mendiei "Santalde" ere esaten zaie. Esaten da ermita horretako ama birjina Arabarrei saldu zitzailela patata hazi zaku baten truke baina ez dakit egia ote den.

Joaten al zineten inguruko herrietako festetara?

Bai, Segurara, Zeraina eta Idiazabala. Garai hartan ez zegoen kotxerik eta oinez joan behar izaten genuen. Han dantzaldi bat egin eta etxera! Garai hartan neskak ez genuen dirurik izaten eta beraz, ezer hartu gabe etxera etortzen ginen bueltan! Jaien batean mutilen batek gonbidatzen bagenituen "txurrerira" ondo!

Zer moduz konpontzen zineten segurarrekin?

Gaizki! Gure ahizpa zaharrena Segurara ezkondu zen eta harengana joaten ginenean Aldata Barrena baserri inguruan "Kuak Kuak!" egiten ziguten eta gu isilik egon behar! Umil-umil pasatzen ginen.

Hala ere segurarrak Zegamara etortzen zirenean gu ere ez ginen isilik gelditzen! "Zopajale, zopajale!" esaten genien.

Nahiz eta gertukoak izan, ez genuen joerarik

izan Segurara, Arrabiolako errotara baino ez ginen joaten.

Orain gaupasak egitea oso normala da. Zuek egiten al zenuten gaupasarik?

Bai, Gabon gau batean egin nuen nik gaupasa. Etxean afaldu eta Gosategi baserriko mandiora joan nintzen. Urtean behin, Gabon gauean, Gosategin festa egoten zen, txokolatea ematen zuten eta soinua ere egoten zen. Soinujolea Aldabatik etortzen zen. Gau osoa festan pasa ondoren, goizean baratxuri-zopa jan eta "lastazoak" piztuta lehenengo mezatara joan ginen. Mezatan sartu aurretik plazaren erdira lastazoak bota eta beraien inguruan dantza egin genuen. Gero meza entzun eta etxera.

San Bartolomeez gain, zein festa gehiago ospatzen ziren garai hartan Zegaman?

Aste Santuak

Oso festa inportanteak ziren garai hartan Aste Santuak. Ostegun Santu egunean eta Ostiral Santu egunean prozesioak egiten ziren. Ostegunean elizatik Gurutze Santuko ermita aldera egiten zen eta Ostiralean berriz elizatik beherantz. Garai hartan Aste Santuetan traje eta soineko berriak estreinatzeko "moda" zegoen. Gure "etxeokaneko" Leonak josten zizkigun arropak, jostun oso ona zen! Telak berriz Perfektanean erosten genituen.

Karnabalak

Karnabaletan mozorro jantzi eta eskean ibiltzen ziren koadrilak. Gure anaia zaharrena eta koadrila Landerritu baserriraino joaten ziren eskean adarra joz.

Santa Agedak

Egun honetan ere koadrilak kantari eta eskean ibiltzen ziren baserri baserri. Lehenengo batek koplak kantatzen zituen eta ondoren koadrila osoak kantatzen zuen. Koplak normalean etxeok nagusiari edo etxeok andreari kantatzen zitzaizkion.

Gabonak

Orain bezala, Gabon egunean eskean ibiltzeko ohitura zegoen gabonetako abestiak kantatuz. Intxaurrak, pikuak etab. ematen zizkiguten kantuaoren ordainetan eta noiz behinka txakur handiren bat ere bai.

Egin al zenion Ezkioko amari bisitarik?

Ni neu ez nintzen behin ere joan baina hemendik jende asko joaten zen Ezkiora. Autobusa jartzen zuten jaiero bertara joateko. Bazen Zegaman Ama Birjina ikusi zuela esaten zuenik ere. Gu jaiero, bide ertzera irteten ginen eta galdetzen genien: Ama Birjina ikusi al dezu? Beraiek ez ziguten erantzuten.

Noiz hasi zinen eskolan?

Eskolan zazpi urterekin hasi nintzen Zegaman. Lehenengo Doña Nikolasa izan genuen maistra eta geroago Karmen Jauregi. Eskola goiz eta arratsalde izaten genuen, batzuetan bazkaltzera etxera joaten ginen eta beste batzuetan berriz eskolako "kantinan" gelditzen ginen. Oso ongi ematen ziguten kantinan bazkaltzen, "indoabea" urdai puska batekin eta ogia nahikoa. Neguan berriz, kapa bat ematen ziguten hotza edo euria zenerako.

Eskolan "multiplicar", "sumar", "leitzen" etab. erakutsi ziguten eta baita "bainikak" egiten eta bordatzen ere, hori bai, dena erdaraz. Eskolan komunio handia egin arte jarraitu nuen eta gero lanera!

Eskola amaitu eta gero zer?

Hamalau edo hamabost urterekin inprentan hasi nintzen lanean. Nire lana "sobreak" egitea eta kontatzea zen. Astelehenetik zapatara egiten genuen lan bi errelebotan. Lehenengo erreleboa goizeko sei etatik eguerdikoko ordu bietara izaten zen eta bigarrena ordu bietatik gaueko hamarretara. Enkargatu Manolo Caballero ibiltzen zen, inprentako nagusiaren lehengusua. Jornala 2 pezetakoa izaten zen eguneko.

Inprentan 16-17 urtera bitartean ibili nintzen lanean eta gero, Iruna neskame joateko "komentzie" izan nuen. Han "Fabrica de



Bittori eta bere senar Patxi Olatxon

Mundua ikusteko gogoa nuen, gauza berriak ikastekoa eta horregatik joan nintzen Iruna neskame

Cerillas"eko nagusiaren etxean egin nuen lan, Zaragueta familiaren etxean. Irunen bost urte pasa ondoren berriro etxera bueltatu nintzen, "nobioa" bilatu eta ezkondu egin nintzen.

Zergatik joan zinen inprenta utzi eta Irunaino? Soldata hobea zelako akaso?

Ez, inprentan eta neskame lanetan soldata berdina irabazten nuen, 14 duro hilean. Mundua ikusteko gogoa nuen, gauza berriak ikastekoa eta horregatik joan nintzen Iruna

neskame. Gainera, inguru hartan familia arteko asko nituen eta beraz, etxean bezala egon nintzen. Nire lehenengo irteera hura izan zen, Iruna neskame joatea! Orduan ikusi nuen itsasoa lehenengo aldiz eta baita irratia ere.

Irundik bueltan Patxiarekin hasi zinen irteten, biok auzotarrak izanda umetatik ezagutuko zenuten elkar ezta?

Ez, Olatxon joera handia zuten Segurara joateko eta Patxi bera ere Segurako fraideetan ibili zen eskolan. Patxi kalean ezagutu nuen geroago. Nik 24 urte nituela hasi ginen elkarrekin irteten eta bi urte nobio bezala ibili ondoren 26 urterekin ezkondu nintzen 1950eko otsailaren 12an. Ezkondu Zegamako elizan egin ginen eta "banketea" berriz Olatxon bertan eman genuen, etxe ondoko "tejabanan". Otordua Segurako Ramonita kozinerak prestatu zigun eta soinua jotzera Roman Goenaga ekarri genuen. Trajea Mazkiarango Joxepak Arrizabalaga josi zidan. Altxiberdik elizarako bidea eta elizatik Olatxorakoa autobusez egin genuen inbitatuekin batera.

Ezkondu eta Altxiberdik Olatxora etorri zinen. Aldaketa handia izan al zen?

Bai, "uren eraa, beera!" Altxiberren baserriko lan gehiago genituen, Olatxon ere lana bazegoen baina gutxiago.

Olatxon ez zen umorerik faltako ezta? Senarra soinujolea izanda!

Bai, Patxi "kordiona" jotzen zuen. Ez dakit ziur noiz eta non ikasi zuen jotzen baina ezkontzaz-ezkontza ibiltzen zen gaztetan soinujole. Dintiko Inaxi eta Toribioren ezkontzan ere Patxi izan zen soinua jotzen. Maiatzean ezkondu ziren eta sekulako elurtea egin zuen, gure gari-uzta txiki-txiki eginda utzi zuen.

Hala ere nirekin ezkondu ondoren ez zuen jarraitu ezkontzetan soinua jotzen.

Ezkondu eta...

Ezkondu eta bi alaba izan genituen, Maite eta Begoña. Biek hiru urte baino egun bat gutxiagoren aldea dute. Patxi berriz Papeleran zebilen lanean, hasiera batean fabrika bertan aritu zen lanean baina gero kamioia ekarri eta pasta eta paperaren garraioan hasi zen papeleran bertan. Handik urte batzuetara kamioi handiagoa erosi zuen eta orduan erremolatxa ere garraiatzen zuen. Horrela atera genituen bi alabak aurrera!

Ikasi al zenuen bizikletan ibiltzen?

Bai, lehenengo bizikleta fabrika utzi baino pixka bat lehenago ekarri zidaten. Nire anaiak mutilen bizikleta bat hartu, barra moztu eta niretzat egokitu zidan. Geroago, ezkondu ondoren, senarrak ekarri zidan beste bat berri-berria. Garai hartan Arriarango festetara joaten ginen



Bittori lagunekin Galiziara oporretara joan zirenean



Bittori familiarekin bere birbilobaren bataio egunean

Patxiren familiakoek gonbidatuta bazkaltzera eta harantz joateko estreinatu nuen bizikleta berria.

Iruna egin zenuen zure lehenengo irteera. Geroztik ibili al zara munduan?

Bai, nire lagunekin leku askotan izan naiz oporretan eta ez naiz gainera batere damutzen! Benidormen, Tenerifen, Galizian, Saloun, Mallorcan...

Zer moduzko bizimodua darama gaur egun Bittorik?

Goizean 9etan jaiki eta nire alaba Maiteri laguntzen diot etxeko lanak egiten. Gero bazkaldu eta Jubilatuen "Hogar"era joaten naiz lagunekin arratsalde pasatzera. Kafesne bat hartu, kartetan egin...Hiru txapelketa ere irabaziak ditut kartetan, bat punttuan eta bi briskan. Birbiloba ere zaindu behar izaten dut batzuetan baina etxe barruan! Nik jadanik ezin diot jarraitu Janireri korrikan!

OIHANA ZUBIZARRETA

ANGEL IRIGORAS

"KALEKO"

Azken urte hauetan Angel Irigoras herritarrak liburuak idazteari ekin dio eta kaleratu berri du bere hirugarren liburua. Aurretik, bere lehen lana, 2002an "XX. mende hasierako Zegamako artzaintza" izenburupean plazaratu zuen liburua izan zen. 2006ko abenduan beste liburuxka bat kaleratu zuen, 1936ko gerra zibila gaitzat hartuta, "Herri Zapalkuntzaren lekuko batzuk" izenburuarekin. Bi liburu hauen ostean, 2008ko irailean "1865-1997, Zegamako Papelera: 122 urte lanean" liburua plazaratu du. Liburu honekin, Zegamako langileei eta batez ere Papelerakoei omenaldi xume bat egiteko asmoa izan du Angelek.

Egileak dioen moduan, Zegamako papeleraren historiaren zati txiki-txiki baten islada da liburua. Berak azpimarratzen duenez, papelera zegamarron bizitzan ondo sustraituta egon da XIX. mende erdialdetik (1865ean sortu zen) itxi zuten arte (1987an).


Liburua, hamazazpi ataletan banandua azaltzen da, bertan besteak beste papera eta papeleraren historia laburra, San Bartolome auzoa, Papelerako Tximinia eta Tutua, lehenengo "transportistak", langileak, langileei eginiko hainbat elkarrizketa, paper klase ezberdinak, uholdeak, 1980ko hamarkadako restrukturazioak, Zegamako Papeleraren gain-beherakada,



Imprentea, Electra Aitzgorri S.A., Elektrokimikoa, etorkinak eta geratzen dena izenburuak dituzten atalak daude.

Finean, Zegamako 122 urteko papergintzaren garrantzi-galeraren ondorioz, besteak beste, gaur egungo Zegama hein handi batean liburuxka horretan kontaktzen saiatu da egilea.

Aipatu, liburuak arrakasta handia izan duela Zegaman eta baita hemendik kanpo ere, hala nola, Ataungo liburu eta disko azokara deitu dute bere liburua aurkezteko. Aurreikuspenak gaindituz, liburu kopuruen hedapena handia izan da.



**ARROZTEGI ETA ZERRATEGIETAKO ASPIRAZIOAK
GALDARAGINTZA OROKORRA ETA MOTA
GUZTIETAKO HERRERIGINTZA**



ZEGAMA
943 802 044
650 420 109

www.itsasgama.com
itsasgama@itsasgama.com

¡URTE BERRI ON!



Jose Mari

Artola Agirretxe

Zegama bihotzean daramat

Non eta noiz jaiotakoa zara?

Zegaman jaio nintzen, Olaberri auzoan duela 56 urte. Bertan 28 urtez bizi izan nintzen, urte zoragarriak izan ziren.

Egun non bizi zara?

Orain Donostian bizi naiz. Ez nuen uste inoiz Zegamatik aterako nintzenik, baina baten bizimodua askotan aldatzen da. Nire kasuan, lana zela eta Donostiara etorri nintzen eta orain bertan bizi naiz.

Zein familia duzu?

70. hamarkadan, Donostia eta inguruko jende asko etortzen zen Zegamara euskara ikastera. Honela ezagutu nuen gaur egun nire emaztea dena. Hiru seme alaba dauzkagu, Maialen, Naroa eta Aratz.

Non ikasi zenuen?

Monjetan hasi ginen ikasten, frontoi ondoan. 6 urterekin Eskola Nazionala joaten ginen. Bertan 9 urte bete arte D. Tomas Arrieta maisuarekin egoten ginen eta 9 urtetatik 14 urte bete arte D. Tomas Cabezon maisuarekin. Esan beharra dago, Zegamako bi maisuek oso esku arina zutelara eta gogor jotzen gintuztela. Euskal giro eta kulturaren aurkakoak ziren guztiz, izan ere, eskola orduetan, garaiko mugimendu nazionalaren ideologia eta proiektua lantzen ginen.

Eskola Nazionala ikasketak amaitu ondoren, gehiengo Goierriko Eskola Profesionalera joaten ginen. Bertan ofizio bat ikasten genuen eta lanean hasteko prest ateratzen ginen.

Nolakoa izan zen zure gaztaroa Zegaman?

Gaztetako oso oroitzapen onak dauzkat. Olaberri auzoan talde ederra ginen eta hainbat joko eta solasaldi ezberdin antolatzen genituen. Esan beharra dago herriko beste auzokideekin nahiko "pike" izaten genituela, baina garrantzirik gabekoak, herriko gaztedia oso ongi moldatzen ginen. Beranduago parrandan ateratzen hasi ginen, baina beti ere

kontzientzia soziala eta euskal giroa galdu gabe. Hori bai, parrandan ateratzen ginenean parranda, baina lana egin behar zenean lana egiten genuen.

Non egin zenuen lana?

Garmendia fabrika egon nintzen lanean. Fabrika Intxausti auzoan zegoen, eta katu hidraulikoak egiten ziren. Nagusiak, Juan Patxi, Joxe eta Leontxio Garmendia ziren. Fabrika, nagusiek eta langileok egiten genuen lana. Esan beharra dago, Garmendiatarrak oso pertsona jatorrak zirela eta herriari oso loturik egon den fabrika bat izan dela, nik beti identifikatu izan dut Garmendia S.A. Zegamako herriarekin.



Artola Agirretxe sendia 1963. urtean, Jose Mari 11 urte zituela

Beti izan naizena izaten jarraitzen dut: euskalduna eta abertzalea

Egun non egiten duzu lan?

Gaurko egun, Oiartzungo fabrika batean egiten dut lan. Plastikozko piezak diseinatu eta fabrikatzen ditugu; batez ere merkatura atera behar diren auto berrientzako.

Nolakoa zen Zegama Franco hil aurreko urtetan?

Garai hartan, zegoen industria nahiko garrantzitsua zen; Papelera, Inprenta, Elektrokimika, Aitz eta Garmendia fabrikak zeuden. Era berean hainbat garraiolari zeuden, batez ere Olaberriko auzoan.



Olaberria auzoan ezkerretik eskubira: Antonio Irastorza, Jose Mari Artola eta Juan Mari Irastorza

Autonomia zen jendea ere bazegoen, igeltseroa, arotza, iturgina eta baita dendariak eta tabernariak ere.

Hala eta guztiz ere langile multzo bat kanpora ateratzen zen lanera, batez ere, Beasain, Ordizia, Lazkao eta Legazpi aldera. Gainera, beste herritar batzuk, Ameriketara emigratu behar izan zuten, artzain bezala edo mendi lanak egitera.

Baserrietatik bizi ziren beste herritar batzuk ere bazeuden, baina industrializazioaren eraginez herritar hauek fabriketan lan egiten hasi ziren.

Lehen hauteskunde demokratikoetan zinegotzia izan zinen. Nolakoa esperientzia izan zen?

Esperientzi oso ona izan zen, ni Euskadiko Ezkerraren kide nintzen. Alderdiko kideek eta jarraitzaileek eginiko programa bat genuen herrirako eta horrek asko erraztu zuen nire lana. Garbi genuen herriko politika herria hobetzea zela, bai azpiegitura, hirigintza, etab. Hauek dira herriak barrenean zituen hainbat arazo, eta era berean epe motzerako zein luzerako plan estrategiko bat lortu nahi genuen herrirako. Hala nola, Euskal Herrian bizi genuen egoera politikoak hainbat eztabaida sortzen zituen, baina esan beharra daukat, herrian ondo konpontzen ginela.

Nolakoa zen ideologia ezberdinetako pertsonen arteko harremana? Politikak asko baldintzatzen zuen elkarbizitza Zegaman?

Zegaman, Euskal Herriko herri guztietan bezala, gerra ondorengo egoera bizi izan zen. Alde batetik irabazleak, hau

da, Espainiako mugimendu nazionalaren aldekoak, eta bestetik galtzaileak, hots, errepublikanoak eta euskalzaleak.

Ezin ikusiak egongo ziren, baina batzuk agintari ziren beraien politika espainiarra egiten eta besteak isilean eta ezkutuan egiten zuten lan, gure identitatea ez galtzarren, eta egunen batean, Zegama, herri librea eta euskalduna izateko.

Beste zatiketa triste eta mingarri bat 1979 urte inguruan eman zen. Lehenengo aldiz, eta makina bat borroka egin ondoren, udaletxean eta Espainiako parlamentuan hauteskundeak egitea lortu zen. Baina ezker abertzaleen barruan bi ikuspegi desberdin zeuden hauteskunderen inguruan. Alde batetik, Euskadiko Ezkerrak, elektzioetan parte hartu behar zela esaten zuen, bestalde, Herri Batasunak, kontrakoa zioen, ez zela parte hartu behar. Ikuspegi desberdin hauek zatiketa ekarri zuten bai lagunen artean, baita sendien artean ere, orokorrean, herria zatitu zuen. Gainera eguneroko ikusi behar gure artean, lantokietan, etxean, kalean... Guztientzako egoera benetan tristea eta penagarria izan zela pentsatzen dut.

Udal-ordezkarria zinenean zeintzuk ziren Zegamak zituen beharrak?

Guk ikusten genuenez, behar garrantzitsuak hauek ziren: Hirigintza aldetik plan berri bat eta "Red Viaria" bat egitea. Irakaskuntza aldetik, ikastolak ondasun ekonomiko eta azpiegituraz hornitzea behar beharrezko zituen. Kultura aldetik, ondare historikoaren kontserbazioa, euskara administrazio mailan jartzea eta Udal liburutegi bat sortzea. Baserriarrei zegokionez, sektore honen egoera sozio-ekonomiko eta politikoaren errebindikazioa eta defentsa Udaletxean. Gazteriarri zegokionez, lokal baten sortzea eta haurrentzako parke publiko baten sortzea. Azkenik, osasunari buruz ere hainbat neurri azaldu genituen. Lan egiteko hainbat proposamen ere egin genituen bailara mailan, inguruko herriekin: Segura, Zerain, Mutiloa eta Idiazabal.

Nola ikusten duzu egun Zegama?

Herria erabat aldatuta ikusten dut, ez dauka zer ikusirik gure gaztetako herriarekin. Gaur egun, etxe asko egin diren herri bat ikusten dut, ondo planifikatuta dagoela iruditzen zait, ondo zaindua, eta ondare kultural bat duen herri ireki bat bezala.

Eta etorkizuneko Zegama?

Ez dut Zegamako eguneroko bizitza ezagutzen, beraz ezin dut etorkizunari buruz hitz egin.

Nik, urrutitik ikusita, bi bide posible ikusten ditut lantzeko, nahiz eta ziur egon lantzen arituko direla. Alde



Kudrilarekin San Bartolome jaietan 1970 inguruan

batetik, industri mailari dagokionez, industria herrian sortzeko eta baita erakartzeko ere erraztasunak eman beharko lirakekeela uste dut, honela lanpostu berriak sortuz herrian bertan. Bestalde, Zegamak paisaiak

Herri bat bere biztanleek egiten duten modukoa da

eta lasaitasuna ditu, eta natura aldetik balio handia dauka, eta batez ere orain daukan parke naturalarekin. Hori saldu behar da kanpoko jendeari, batez ere gaurko bizimodu estresatu honetan bizi diren hainbat pertsoneri, eta batez ere gertuen ditugun herrialdeei, bai Espainia baita Frantziari ere. Osagarri bezala, Zegamak baditu bere jaiak eta entzunda daukat, Edurne alkatea gogor ari dela lanean Santiagoko bideak bere garrantzia izan dezan Zegamako pasabidean. Eta barkatu



Jose Mari 20 urte inguru zituenean

nire atrebimendua, ideia bat besterik ez da.

Uztailaren 18an Udaletzeko portikopean XX. Mendeko Zegamaren irudiak eta testigantzak jasotzen zituen ikus-entzunezkoa eskaini zenuen. Noiz hasi zinen lan horretan eta zergatik?

Bi arrazoi izan ditut lan hau egiteko. Alde batetik, beti izan ditut nire buruan Zegaman bizitako urteak, nire ustez ekintza garrantzitsuak gertatu ziren eta garaiko giroa jasotzea interesgarria izango litzatekeela pentsatu nuen. Bestalde, Zegama bihotzean daramat. Beraz, urte askotan zehar hartzen joan naizen irudiekin herriko pelikula bat egiten hasi nintzen, afizio moduan.

Errepublika, Francoren diktadura, demokrazia. Nolako izan da Zegama eta bere jendearen bilakaera?

Gerra ondoren, Euskal Herriko herri guztietan, eta noski Zegaman ere bai, Espainiako mugimendu nazionalak, egitura bat jarri zuen euren politika lantzeko eta era berean herriko mugimendu guztiak kontrolatzeko. Euskaldunak eta abertzaleak isilean eta ezkutuan egiten zuten lan, urte haietan errepresio izugarria egon arren. Noiznahi espetxeratuak izateko arriskua zuten.

Zegaman ere borroka barnean zegoen. Udaletxean itxi ginen hainbatetan, hainbat manifestazio egin ziren herriko kaleetan eta greba orokorrak fabrika guztiak geldituz eta denda eta taberna guztiak itxiz.

Aldaketa garrantzitsuak ere etorri ziren herrira, izan ere, guraso batzuei esker Ikastola sortu zen eta honen inguruan ekintza pila bat egin ziren proiektu berri hau aurrera ateratzeko.

Ikurrina legalizatu zen. Hau gertatu aurretik makina bat borroka egin ziren honen alde.

Alderdi politikoak legalizatu ziren. Lehenengohauteskundedemokratikoak izan ziren herrian. Amnistia orokorra lortu genuen, preso eta atxilotu guztiak etxeratu zituzten. Gauza asko eta garrantzitsuak gertatu ziren denbora gutxian. Aipaturiko gertakizun guzti hauek herriko etorkizuna markatu zuten.

Noizko bakea eta berradiskidetzea Euskal Herrian?

Bakea. Hau da denok nahi duguna. Gaur egun politikan bizi dugun egoera dela eta, ez dut gertu ikusten. Indarkeria erabiltzen den bitartean oso zaila izango da elkartzea eta politika egitea. Indarkeria desagertzen denean posible izango da bakean pentsatzea eta berradiskidetzea.

Euskadiko Ezkerreko militantea izan zinen. Alderdia desagertu zenean bere militante eta jarraitzaileak bide ezberdinak hartu zituzten. Egun, non kokatzen duzue zure burua?

Euskadiko Ezkerra, trantsizio garaian politika ezkertiarra eta abertzalea egiteko asmoz jaio zen. Helburua, Euskal Herri independente eta sozialista lortzea zen. Lana ez genuen ongi egin eta herriaren konfiantza galdu genuen, honela ba, taldea desagertu egin zen. Militante eta jarraitzaileak banatu eta bakoitzak bere bidea segitu zuen. Orduz geroztik, ez naiz inongo alderdiko militante. Beti izan naizena izaten jarraitzen dut: euskalduna eta abertzalea.

Ez al zaizu iruditzen ideologiarik gabeko gizarte batean bizi garela, globalizazioa eta indibidualismoa nagusi direlarik?

Bai, erabat ados nago. Benetan tristea da, baina horrela da; kapitalismoaren aurpegi gogorra da.

Kapitalismoak helburu garbiak ditu, zenbat eta aberatsago izan orduan eta hobeto, eta honek ez du jakin nahi ez herriarekin ez tradizioarekin eta ez hizkuntza eta kulturarekin. Sistema honek dirua bilatzen du gauza guztien gainetik. Lurraldeek markatzen diote bakarrik kontsumoaren

merkatua, eta hori aski denean lurralde berriak aurkitzen dituzte.

Lurraldeak kontuan hartzen dituzte kontsumo baxerik interesatzen ez zaielako. Horrela batzuk neurri gabe aberastu egiten dira eta gehiengo pobrezian bizi da.

Gu geu ere errudun gara, sistema kapitalistaren barrenean sartu gara eta kontsumismoaren menpeko bihurtu gara. Eta honen erruz oso indibidualistak bihurtzen gara eta gurea bakarrik ikusten dugu. Honen ondorioz gure identitatea galtzen dugu, bai pertsona bezala baita herri bezala ere, gure helburuak ideologiarik gabe utziz.

Zerbait gehiago erantsi nahi?

Urte haietako gertakizun batzuk gogoratu ditugu. Herri bat bere biztanleek egiten duten modukoa da. Urteetan zehar bere historia egiten doa. Ahal den guztia jaso behar da, herri hau zer izan den eta nondik datorren beti jakin dezagun. Egun hauetan Angel Irigorasek "kaleko" Zegamako



Jose Mari, Brus bere txakur leialarekin

papelerari buruz kaleratu duen liburua irakurri dut. Asko gustatu zait, beharrezkoak dira horrelako lanak herriaren memoria historikoa mantentzeko. Gaurko egunez herria oso ongi ikusten dut eta etorkizuna berea da. Besterik gabe, zorionak eta eskerrik asko.

BEGOÑA ALBISU



Olaberri auzoa 1969an

XABIER ARAKAMA

Bederatzi urte zituela izan zuen Xabier Arakama zegamarrak bere lehenengo soinu txikia esku artean. Hasiera batean, Euskal Herri guztian zehar txapelketetan ibiltzen zen, emaitza oso onak lortuz, beti hiru lehenengoen artean. Denbora pasa ahala, beste esparru batzuetan hasi zen: bere arreba Mari Jose eta Garbiñekin festa ezberdinetan jotzen, ezkontza talde txiki bat osatu eta horrekin ere lanean, dantza taldeetan musikari bezala...

Urte batzuk beranduago, taldetxo bat ere osatu zuen arrebarekin. Harekin erronomia ugari eginda gero, bere lehenengo musika-bidaia egin zituen: Estatu Batuak, Gales eta Frantzia. Klaseak ematen ere, garai haietan hasi zen. Zegama, Ormaiztegi, Aretxabaleta, Irurtzun, Elorrio, Iruña, Lazkao...

Ondoren, TRIKIZIO osatu zuen, tartean beste talde batzuekin ere jotzen zuelarik. Lan asko egin eta leku asko ezagutu ditu Xabi-k bere taldearekin eta bakarlarik bezela: Suiza, Holanda, Japon, Eskoziak, Frantzia, Estatu Batuak, Finlandia... leku batzuetara hainbat aldiz jun delarik. Aurten TRIKIZIOren lehen lan luzea ere argitaratu du: EusCat, non Euskal eta katalandar musikari haundien kantuak moldatu dituen. Aipatu beharra dago diska honetan Zegamako Orkatz abesbatzak ere kantu bat abesten duela, oso berezia eta ondo interpretatua. Obrint Pas eta Banda Bassoti talde famatuaren nazioarteko biran parte hartu du, 20.000 pertsonatik gorako kontzertuetan jotzen duelarik askotan. Xabi-k batzuek beste, urtero 150 emanaldi egiten ditu bere musikari lan ezberdinetan.



Xabier Arakama Obrint Pas taldearekin kontzertuan

Duela urte pare bat soinu enpresa profesional bat ere sortu du, bertan batzuek beste 10 lagunei lana ematen dielarik. Enpresa ere pixkanaka haunditzen ari da eta oso talde garrantzitsuei jartzen die bere soinu ekipoak: Su ta Gar, Anje Duhalde, Gatibu, S.A., Berri Txarrak, Mikel Urdangarin, Gose...eta beste hainbat.

Beti bezela, 2.009 urteari begira, proiektu berriak ditu dagoeneko esku artean eta gogor hasita dago lanean...

AITOR PEREZ ARRIETA

Extremadura -Spiuk taldean aritu da aurtengo denboraldian Aitor Perez txirrindulari profesionala, taldeak zenbat arazo izan eta gero, azkenean lortu zuten errepidean jartzea. Babesle garrantzitsu batek azken orduan bizkarra eman zion taldeari eta urte guztian zehar eraman behar izan da zama hori. Babesle berri baten bila urte guztian ibili ondoren, azkenik ez da iritsi hain irrikatua zen laguntza hori eta beraz aurreikuste okerrenak baieztatuz, hurrengo urtean Extremadura taldea ez da errepidean izango.

Hala ere, Aitorrek denboraldi txukuna burutu du, garaipenik lortu ez badu ere gertu ibili da eta ohorezko postu asko lortu ditu, hauek posturik garrantzitsuenak:

Mallorkako txalengean

1.etapan: 10

2.etapan: 7

3.etapan: 5

Generalean: 2

Andaluziako itzulian

2.etapan (Reinan): 4

3.etapan: 9

5.etapan: 8

Generalean: 11

Murtziako itzulian

1.etapan: 3

2.etapan: 2 (etapa honen ondoren itzuliko LIDERRA bi egunez)

Generalean: 12

Gaztela Leongo itzulia

2.etapan: 8

3.etapan: 4

5.etapan: 8

Generalean: 44

Llodioko klasikoa 25

Turkiako Tourra

4.etapan: 3

Hauek dira posturik esanguratsuenak, jakinda denboraldi bukaera ezin izan duela lehiatu Portugalen izandako erorketa larri baten ondorioz, 3 hilabetez geldirik egon eta gero jadanik datorren denboraldira begira da. Oraindik ez dago ziurtatua zein taldetan korrituko duen baina badirudi datozen egunetan talderen batekin datorren urterako konpromezua hartu dezakela. Zorrikerik hoberena opa diogu ibilbide berri horretan.





Maria

Arizkorreta Olaran

Ni jaiotzerako bagenuen argia etxean baina ez oraingoa bezalako! Orduko argia oso txikia zen, ipurtargiaren modukoa

Non eta noiz jaio zinen?

Ni Gosategi Goena baserrian jaio nintzen 1922ko urriaren 24an. Laster 86 urte beteko ditut.

Nor bizi zineten garai hartan Gosategi Goena baserrian?

Gurasoak, amona eta zazpi senide bizi ginen. Amona nik bi urte besterik ez nituela hil zen. Nire senideak: Axintxio, Antolina, Antonio, Pia, Jexux eta Luxio ziren. Hala ere, gure ahizpa zaharrena 7 urterekin Bilboko izebaren etxera joan zen bizitzera alaba-lekuko.

Zein zen zuen aitaren ogibidea?

Itzaina zen, idiekin ibiltzen zen baserriz-baserra, egurrak ekarri... Lizarraraino ere joan izan ohi zen idiekin generoa eramatera, 3-4 bat egun pasatzen zituzten bidaia hori egiten. Egun batez, Lizarratik bueltan zetorrela Lizarragako tunelean idi bat akabatu zitzaion eta gau hartan bertan jaio omen zen gure anaia Luxio.

Nolakoa zen Gosategi Goena baserria zu umea zinela?

Sukaldean su baxua geneukan hasieran, eta gero, ni koxkortu nintzenean, ekonomika jarrita genuen. Suaz gain mahai bat eta "aasea" geneuzkan. "Aasea" fregaderaren ondoan geneukan armairu bat zen eta ontziak gordetzeko erabiltzen zen. Ontziak metalezkoak



Maria, berak egindako Kailkua soinean duela

(latoia) erabiltzen genituen batik bat, lurrezkoak gutxi, erraz hausten baitziren! Amak alanbreekin txukun konpontzen bazituen ere laster puskatzen ziren.

Koartoetan oheak genituen eta koltxoiak artilezkoak ziren. Udaran, koltxoi denak desegin, barruko artilea lurrean zabaldu eta eguzkitan jartzen genuen. Gero, makilarekin jo bat eman eta berriro koltxoiak josi egin behar izaten ziren.

Inprentatik irten eta gero, nire anaiarekin hasi nintzen sastrerian lanean

Zein animalia zenituzten baserrian?

Gosategin garai hartan lau behi, txahalak, behorra, txerria, bi idi eta astoa genituen. Idiak aita erabiltzen zituen lanerako, behiak txahaletarako eta esnetarako izaten genituen, astoa berriz baserriko lanetan laguntzeko eta txerria etxeko mantenurako izaten zen.

Noiz jarri zenuten argia eta ura etxean?

Ni jaiotzerako argia bageneukan etxean, baina ez oraingoa bezalako! Orduko argia oso txikia zen, ipurtargiaren modukoa. Gero, Papelerari esker argi ona jarri ziguten.

Urik berriz ez genuen, gu nahikoa koxkortuta gero jarri ziguten etxean ura. Gure gurasoek eta auzoko hiru etxeetako gurasoek ura aurkitu zuten eta Potentene aurrean jarri zuten aska bat ura biltzeko. Hara joaten ginen etxerako ur bila eta bertan jotzen genuen lixiba ere.

Lixibea jotzearena lan gogorra ezta?

Arropa eskuz jabondu ahala, tiña handi batera botatzen joaten ginen arropa. Tiña hartatik ateratzen zen ura, ontzi batean biltzen genuen eta ondoren sutan jartzen genuen berotzen eltze batean. Ura berotu eta gero, tiñara botatzen genuen ur beroa behin eta berriz arropak ongi garbitu arte. Tiñaren azpitik ateratzen zen ura garbia zegoela ikusten genuenean, arropak garbitu zirenaren seinale zen. Orduan, arropak tiñatik atera, Potenteneko askara eraman eta han akklaratu egiten genituen. Bi pertsonen artean arropa ondo "bihurritu" eta "ixe" egiten genuen.

Gari hartan ez genituen orain bezala zortzian behin izarak aldatzen! Ez zegoen egunero arropak garbitzen aritzerik!



Maria, bere ezkontza egunean

Joaten al zineten Goialdera garo bila?

Bai, beharko joan! Goizean jaiki, "Galera" hartu eta Oilaritik gorantz, Telleriraino joaten ginen. Handik gora ezinezkoa zen galerarekin joatea, bidea txarra baitzen. Beraz, menditik Telleriraino garoa ekartzeko leraz edo nazaz baliatu behar izaten ginen. Garoa Tellerira jaitsi eta hurrengo lana, lera edo naza deskargatzea eta galera garoz kargatzea izaten zen. Ez zitzaidan lan hori batere gustatzen!

Zer dira galera eta naza?

Galera, lau gurpleko gurdi handia zen eta aurreko bi gurplek eskuinerantz eta ezkererantz mugitzen zitzaionaren berezitasuna zuen. Bi idik mugitzen zuten.

Naza berriz, zarbaz egindako lera moduko karro bat zen, gurplek gabea eta arrastaka ekartzen zena. Naza, lera eta galera pasatzeko moduko lekuri ez zegoen lekuetan erabiltzen zen.

Beste ze lan egin behar izaten zenuen baserrian?

Behi zain ere ibiltzen nintzen, goizeko 6etarako Arbeltxotik gora izaten nintzen behiak hartuta. Altxibergo Bitoriana ere behi zain izaten zen askotan eta elkarri kantari aritzen ginen mendi batetik bestera.

Zer oroitzen dituzu eskola garaiaz?

Eskolan sei urterekin hasi nintzen. Oraingo moduan, goiz eta arratsalde joan behar izaten genuen eskolara. Udar oporrak izaten genituen eta neguan berriz, belauetarainoko elurra egonagatik ere ez genuen barkamenik izaten, joan egin behar!

Goizean, sumar, restar, historia sagrada, irakurtzen, eskribitzen etab. ikasten genuen eta arratsaldez laboreak egiten genituen (josi, jertseak egin, bordatu etab.)

Eskola publikoan 12 urtera arte ibili nintzen eta ondoren, mojetara joan nintzen ikastera. Mojetan 17 urte bete nituen arte ibili nintzen ikasten.

Eskolan hiru edo lau maistra ezberdin izan nituen: Doña Nikolasa, Otzaurtekoa beste bat eta Mari Karmen Jauregi.

Kantinan gelditzen al zineten bazkaltzen?

Bazkaltzera etxera etortzen ginen, non eta kantinan norbaitek kale egiten ez zuen. Guk, nahiz eta kalean ez bizi, ez genuen postu fijoarik kantinan, ordezkoak ginen eta beraz, fijoak zenen batek kale egiten zuenean bakarrik izaten genuen kantinan bazkaltzeko aukera.

Garai hartan, matematikak garrantzia handia zuen baina erlijioak ere bai, ez al zenuten dotrinarik ikasten eskolan?

Ez eskolan ez, hori elizan ikasten genuen. Adinaren arabera, talde ezberdinak egiten zituzten eta talde bakoitza elizako leku ezberdin batean aritzen ginen dotrina ikasten. Dotriña Don Jose Kruzek erakusten zigun.

Eskolatik irten eta zer egin zenuen gero?

Eskolatik irten eta 9 hilabetetan zehar inprentan ibili nintzen lanean. Guk, izeba bat genuen Bilbaon eta hura gaizki jarri zenean, berarekin bizi zen nire ahizpa Antolinari laguntzera joan nintzen hiru hilabetez. Horregatik inprentako lana utzi egin behar izan nuen. Bilbotik bueltan, sastrerian hasi nintzen lanean.

Beraz, inprentatik sastrerira. Nolatan?

Nire anaia Jesus sastrea zen eta orain Txanton taberna dagoen lekuan sastreria zuen. Nire ahizpa Pia eta biak aritzen ziren lanean bertan. Nire ahizpa ezkondu zenean, utzi egin zion sastrerira joateari eta ondorioz bakarrik gelditu zen nire anaia. Orduan, ni hasi nintzen berari laguntzen.

Nire anaia, Zegaman sastreria jarri aurretik Ordiziako sastreri batean ibili zen ikasten. Nik berriz, eskolan ikasi nuen josten.

Jende gehiena "ostiela santutako" eta "San Bartolometako" joaten zen traje berria egitera



Maria eskulanak egiten

Zein zen zure lana sastrerian?

Nire lana, anaiari trajeak prestatzea zen gero berak josi zitzaiz. Nik tela ebaki eta ilbandu egiten nuen anaiak marra batez markatzen zidan lekutik. Orduan anaiak lehenengo proba egiten zion bezeroari eta trajea montatu ostean bigarrena. Praktikak berriz sobrelatu egin behar izaten ziren eta hori ere egiten nuen. Jostea, anaiaren lana izaten zen.



Maria behorrekin Igartu Goena baserrian

Telak ere zuek saltzen al zenituzten?

Anaiak tela "muestrario" bat izaten zuen, hango telak erakutsi eta gustuko zutena eskatzeko aukera izaten zuten bezeroek. Telak Bartzelonatik eta Bergaratik ekartzen zizkiguten eta baita hari, botoi, jostorraz eta horrelako josteko erremintak ere. Bergaratik laneko arropak egiteko tela urdina ekartzen genuen. Nahiz Bartzelonatik nahiz Bergaratik, telak korreoz bidaltzen zizkiguten.

Hala ere kasu batzuetan bezeroek heuren ekartzen zuten tela.

Garai hartan modari kasurik egiten al zenioten?

Ez, bezeroak esaten zigun moduan josten genituen arropak. Gizonentzako arropa bakarrik josten zen, emakumezkoenik ez. "Pantalo" sueltoak eta trajeak josten genituen batik bat, baita lanerako buzoak ere. Emakumeentzat abrigoren bat akaso baina normalean ez.

Urteko zein garaitan izaten zenuten lan gehiena sastrerian?

Jende gehiena "ostiela santutako" eta "San Bartolometako" joaten zen traje berria egitera. Bezero gehienak azkeneko momentuan etortzen ziren eta anaia lorik egin gabe ibili behar izaten zen enkargu denak egin ahal izateko.

Jendea nahiko exigentea izaten zen, berak esandako egunerako ez bazenien trajea josten, bronka laster izaten zenuen!

Noiz arte aritu zinen sastrerian lanean?

Sastrerian 5 urte inguru aritu nintzen lanean. Gero, 26 urterekin ezkondu eta sastreriko lana utzi egin nuen.

Noiz hasi zinen Pakorekin?

Gertukoak ginen eta txiki txikitatik ezagutzen genuen elkar. Hiru lau bat urte ibili ginen nobiotan eta nik 26 urte bete baino pixkat bat lehenago ezkondu ginen. Ezkondu Zegamako elizan egin ginen, Arretzeko garajea izan genuen bazkaria eta kozinera, Igartuago izaba aritu zen. Ezkonbidaiaren Donostiara eta gero Bilbora joan ginen. Donostiara lehengusuaren kotxean joan ginen (kabran) eta guztira 5 edo 6 egun pasa genituen. Baziren urrutirago joaten zirenak!

Eta ezkondu eta gero zer?

Ezkondu Igartugoena baserrira egin nintzen eta bertan, baserriko lanetan jarraitu nuen nire senarrari laguntzen, bera ere baserriatik bizi baitzen. Lau behi eta 3-4 bat txahal edukitzen genituen etxean eta nire lanetako bat, haien mantenurako belarra ekartzea izaten zen. Behorra hartu eta sega bizkarrean nuela, segan egitera joaten nintzen ganaduarentzat belarra ekarriz.

Txahalak eta esnea salduz diru pixka bat ateratzen bagenuen ere, beste diru iturri batzuk ere ondo etortzen zitzaizkigun! Semea, aitona eta senarra pinudian ere ibiltzen ziren lanean eta horri eskerrak! Izan dugu pinudien beharra!

Geroago, senarraren anaiek kamioia erosi zuten eta kamioilari ere ibili zen lanean senarra. Mel plastiko fabrika ere ibili zen denboraldi batez.

Hiru seme-alaba izan zenituzten ezta?

Hiru seme-alaba izan genituen, seme bat (Felix) eta bi alaba, (Pakita eta Kontxi).

Lana ezezik, festa ere egingo zenuten ezta? Oso dantzari ona omen zinela entzun dut, egia al da hori? Nork erakutsi zizun dantzan?

Olatxoko Bittori eta biok izaten ginen bikote, oso gustuko genuen dantzan aritzea. Guri ez zigun inork dantzan erakutsi, jendeari begira ikasi genuen, orduan ez zegoen dantza-eskolarik gaur egun bezala!

Nolakoak ziren orduko San Bartolomeak?

Oraingoak baino hobeak ziren gure gazte denborako San Bartolomeak! Prozesioa gaur egun egiten den moduan egiten zen, arratsaldean musika egoten zen eta horretaz gainera bola-jokoa. Bola tokia, orain gutxi arte Migelen karnizeria egon den kantoi hartan zegoen, "La rana" (Intxaustin egiten zen asko) eta toka jokoa ere egoten ziren. Komeriak eta teatroa ere egoten zen Zirkuloan.

Mariak egindako Kaikua



Komerianteak edo teatroa egiten zutenak herrikoak izaten ziren. Nik ere, eskolan nenbilen garaian, egin nituen komeriak paper txikia izan banuen ere.

Beste zein festa egiten ziren lehen Zegaman?

San Joanetan festa handiak izaten ziren lehen. San Joan bezperan arbola jartzen zuten eta dozena erdi zapi edo erasten zizkioten hari. San Joan bezperako gauean berriz sua egiten zen eta hari saltoka ibiltzen zen jendea. Udaletxeak, ardoa ematen zuen doan eta musika ere egoten zen plazan.

Karnabaletan mozzorro jantzita ibiltzen ziren mutilak. Kanean ibiltzen zirenak, zakuz egindako mozzorroa jartzen zuten eta trajea lastoz betetzen zuten gizen itxura hartuz.

Baserriz baserri ibiltzen ziren mutilak berriz, ez ziren horrela jartzen. Haiak traje zuri dotoreak jartzen zituzten eta "kornetea" joz baserriz baserri ibiltzen ziren eskean. Normalean "kordeona" jotzen zekien norbait ibiltzen zen beraiekin eta honela, baserriko neskek dantzara ateratzen zituzten. Eskean txorixoa, arrautzak... biltzen zituzten. Gero, bildutakoarekin afaria egiten zuten eta afal ondoan berriz juerga!

Gerra garaiko oroitzapenik ba al duzu?

Etxean izaten zen laborearen erdia eraman egin nahi izaten zuten eta beraz, benetan jaso genuena baino uzta txikiagoa izan genuela esan behar izaten zen. Indabarekin ibiltzen ginen gaizki, hura etxearen aldamenean erdi erorita genuen oilategi batean ezkutatzen genuen barrika baten barruan. Barrika goitik betetzen genuen babarrunaz eta gero, behetik eskua sartzeko adinako zulo bat eginez, handik ateratzen genuen astein edo egunean behar zen babarruna. Kendu egiten ziguten bestela!

Igartugoena baserrian ere antzeko ibiliko ziren...

Bai, Igartugoenan ere antzeko ibili ziren. Esaten zuten, txerria hiltzen ari zirela inor konturatu ez zedin, borrarrekin jotzen omen zuten buruan txerria hil baino lehen. Honela, txerria tontotuta gelditzen zen eta beraz, kutxiloa sartzekoan irrintzirik ez zuen ateratzen txerriak. Gero, etxetik 600m ingurura dagoen txabola txiki batean gordetzen omen zituzten txerriak soldaduentzat eraman ez zitzaten. Udaletxeak gizon bat jarri zuen etxeak errebisatu eta bakoitzean zegoen uzta eta animalien berri emateko.



Egun ere, eskulanak egiten jarraitzen du Mariak

Bizikletarik ba al zenuen?

Sastrerian lanean nenbilela, 6 bat buelta egin behar izan nituen Villafrancara bizikletaz. Lan gehiegi genuenean, Ordiziako sastrerira bidaltzen genituen arropa batzuk jostera. Nik ez neukanez bizikletarik, Intxaustiko neskek uzten zidaten Villafrancara joatea tokatzen zitzaidan.

Fabrikari hasi nintzenean ekarri zidaten lehenengo bizikleta, baina ez bizikleta berria, anaiarena konpondu zidaten.

Sastreria utzi eta gero ere, eskulanak egiten jarraitu dut enkarguz

Ezagutu al zenuen martxan Intxaustiko errota txikia?

Bai noski! "Txokolatea" egiten ari zirenean makina bat aldiz egon ginen begira! Buztina koladorara sartu eta bueltaka-bueltaka ura boteaz lokatza egiten zuten. Gero, lokatza koadro batean zabaltzen zuten eta han uzten zuten lehortzen. Lehortzen zenean, buztina koadroetan moztu eta intxaustira eramaten zuten ontziak egiteko. Ontziak nola egiten zituzten ikusten ere egon izan ginen makina bat aldiz.

Gaixotasunik pasa al zenuen umetan? Zein gaixotasun ziren ohikoak zure umegaraian?

Bai, "Garrotillo" (difteria), harrapatu nuen umetan. Aditzera dudanez, Altziberren



Maria bere 85. urbetetze egunean

bi senide hil omen ziren gaitz horrek jota. Nire ama goizeko 4etan konturatu omen zen nire ezdarri hotsarekin, aita esnarazi eta medikuarengana bidali omen zuen. Medikua zenbat denbora neraman horrela galdetu omen zion aitari eta denbora gutxi zenez, oraindik sendatzeko esperantzak bazeudela esan omen zion. Indizio bat eman zidaten eta sendatu egin nintzen. Oraindik hemen nago behintzat! Gorriña, anjinak eta txutxurrutxu eztula ere oso arruntak ziren garai hartan. Ahal



Maria bere familiarekin bilobaren ezkontza egunean

zela, etxeko erremedioekin sendatzen genituen, belarrak erabiliz:

-Eztarriko minaren kontra belar luxe batzuk erabiltzen genituen eta baita esnea agurdintarekin nahastuta ere.

- Katarroaren kontra Mostaza eta berbena enplastoak egiten genituen. Mostaza hazi bat da eta petxuaren gainean jarrita asko berotzen du. Enplastoak, belarra arrautza zuringoarekin nahastuz egiten genituen.

Nahiz eta sastreria utzi, ez zenion eskulanak egiteari utzi ezta?

Nik beti izan dut eskulanetarako gogoia eta nire alabei ere nik erakutsi nien eskulanak egiten.

Ezkondu eta gero ere, nahiz eta sastreria utzi, eskulanak egiten jarraitu nuen enkarguz. Nire bezero gehienak hemen ingurukoak

ziren baina banituen Donostiakoak ere! kanpoko jendearentzat: umeentzako arropak, kaikuak...egiten nituen.

Nola egiten zenituen kaikuak?

Lan horretan alabek laguntzen zidaten. Nik ematen nion hasiera kaikuari eta gero beraiek ematen zioten jarraipena. Kaikuak aurrealdean eta bi besoetan Euskal Herriko probintzietako armariak eramaten ditu eta armari horiek "punto kruzean" egiten dira. Behin atal guztiak eginda, nik muntatzen nuen kaikua. Azkenean borlak egiten genituen kaikuari erasteko.

Zein da bizitza gehien erraztu dizun aurrerapena?

Argi indarra eta labadora dudarik gabe! Labadora lanean utzi eta beste lan batzuk egiteko aukera ematen dizu. Hori gauza handia da!

OIHANA ZUBIZARRETA

ZEGAMAKO AIZKOLARIAK

OMENDUAK



Sagardotegi denboraldiaren hasieran, Urtarrilaren 27an, omenaldi berezia antolatu zuen Jose Antonio Iparragirre Zeraingo Oatza sagardotegikoak; Aizkorpe bailarako 72 urtetik gorako sei aizkolarik omenaldia jaso zuten, hiru zegamarrak izanik: Juanito Apaolaza "Goiena", Gabriel Apaolaza "Goiena" eta Jose Larrea "Apaztegi". Aizkolari hauek, inguruko herrietako festetan giro aparta jarri izan ohi zuten, nahiz eta profesional izatera ez ziren iritsi.

Omenaldi festa honetan ez zen ikuskizunik falta izan. Trikitilariak giroa alaituz, aizkora saio bat egin zen eta parte hartutako bikoteen artean hiru izan ziren zegamarrak: Joxe Mari Esnaola eta Pako Mendizabal, Jesus Oiarbide Paxkuali eta Imanol Berasategi Mendiata, Imanol Azurmendi eta Mikel Matxinandiarena. Saioaren ondoren omenduei ororigarri bana eman zien Jose Antonio Iparragirrek eta segidan giro ederrean bazkaltzeko aukera izan zuten bete beteta egon zen Oatza Sagardotegian.

Urte gutxian asko aldatu da Zegama herria eta bertako bizimodua. Egun, Zegaman oinarrizko zerbitzu guztiak ditugu eta baita hain oinarrizkoak ez diren beste zenbait ere. Zegaman ez daukagun zerbait behar izanez gero, autoa hartu eta laster gara Beasain, Tolosa edo Donostian. Garai batean ordea gauzak bestelakoak ziren, kotxe gutxi zeuden herrian eta ez zen hain erraza batetik bestera mugitzea. Ondorioz, Zegamatik kanpo egin beharreko enkarguak errekadistari ematen zitzaizkion. Ofizio hau zuen familia bat badago Zegaman, eta familia horretako errekadista izan zen Ramonirekin solasean aritu gara errekadista lanaren nondik norakoak jakin nahian.

ELKARRIZKETA

Ofizio baten desagertzea



Ramoni

Arizkorreta Murgiondo

Nire ama izan zen gure familian lehenengo errekadista

Noiz hasi zinen errekadista lanetan?

Nire ama izan zen errekadista eta bera gaixotu zenean hasi nintzen errekadista lanean amaren lanbideari jarraipena emanez.

Amari medikuak lan horretan jarraitzea ez zitzaiola komeni esan zion, izan ere, errekadista lana gogorra da. Amak pena izugarria hartu zuen lana utzi beharra zeukala aditzean eta nik neuk jarraituko nuela hitz eman nion.

Beraz, zure aurrekoak ere errekadista lanetan ibili ziren. Familiako tradizioa al da?

Ez, ez da tradizio bat, nire ama izan zen gure familian lehenengo errekadista. Nire amaren aurretik Gosategi baserriko Mari Kruz Arizkorreta ibiltzen zen lan horretan. Mari Kruzek denda zuen Donostian eta astean behin, Zegamara etortzen zen bere dendan saltzeko elikagai bila. Denetik eramaten zuen, arrautzak, gazta, txorizoak, solomiloa...elkarteetarako ere

Errekadista lana izenak dion bezala enkarguak egitean datza



1. Maria Murgiondo, 2. Jose Manuel Arizkorreta, 3. Ramon Mazkarian, 4. Ramon Mazkarianen emaztea, 5. Ramoni Arizkorreta, 6. Justina Arizkorreta, 7 eta 9: Donostiako ama-alabak, 8. Mari Kruz Arizkorreta, 10. Jose Arizkorreta

asko saltzen baitzuen! Nire amaren lana baserri baserri elikagaiak biltzea eta hauek prestatzea izaten zen Mari Kruz etortzen zenerako.

Nolatan hasi zen zure ama errekadista lanetan?

Nire ama Mari Kruzek denda uztean hasi zen errekadista lanean. Mari Kruz bera izan zen lan horretan hastera animatu zuena. Zalantzas beteta bada ere proba egin zuen eta 30 urtetan zehar jarraitu zuen lan horretan, oso gustukoa zuen lana!

Zertan datza errekadista lana?

Errekadista lana izenak dion bezala enkarguak egitean datza. Guri Donostian San Martingo azokan egoten ziren "rebendedorak" nahiz bestelako bezeroek Zegamako produktuak enkargatzen zizkiguten eta haiek eramaten genizkien

Donostiara. Bestalde, zegamarrek ere ematen zizkiguten enkarguak Donostiara eramateko edo-eta Donostiatik ekartzeko eta hauek ere ekartzen genituen.

Nola joaten zineten Donostiara?

Ni errekadista ibili nintzenean kotxez eramaten ninduten aitak edo senarrak Donostiara baina nire amak autobusez



Maria Ramoniren ama bere biloba Joan Manuelekin



Maria bere senarrarekin

eta trenez joan behar izaten zuen.

Nolakoa zen errekadista baten lan eguna?

Lehenengo lana Donostiara eramateko elikagaiak biltzea izaten zen. Elikagai biltzea astean bi egunetan egiten zuen gure amak. Egund batean, Olanan eta Barrenaldeko baserrietan egiten zuen biltzea eta beste egund batean Kaleko auzotik hasi eta Dintitik barrera Mendalderaino eta handik Gorospe baserriaraino joaten zen. Gehienbat arrautzak biltzen zituen eta saskia bete-bete eginda iristen zen etxera, lan gogorra izaten zen! Papeleratik papera ere hartzen zuen.

Eraman beharreko generoa prestatu ondoren, Donostiara joaten zen hura saltzera larunbatero.

Nola moldatzen zen horrelako pisuak eramateko?

Zegaman Konstantinoren autobusa hartzen zuen Beasaina joateko eta Konstantinok berak laguntzen zion saskiak autobusera igotzen, jaisten eta baita Beasainen trenean sartzen ere. Gero, Donostian "karretero" bat zain izaten zuen. Haren karroan saskiak jarri eta berak eramaten zizkion paketeak San Martin azokaraino.

Zein izaten zen Donostian egin beharreko lana?

Donostiara iristean, San Martin azokaraino joaten zen eta han, "rebendedorei" eskatutako generoa uzten zien, arrautzak nagusiki. Gero, sobratu zitzaion generoarekin Bretxa merkatura joaten zen eta han, Bretxa aurrean postua jartzen zuen sobratu zitzaizkion arrautzak saltzeko.

Haiak saldu ondoren, herritarrek egin zizkieten enkarguak egin behar izaten zituen. Baziren 40 enkargu zituen egunak ere! Korrika ibili behar izaten zuen batetik bestera enkargu guztiak egin eta arratsaldeko 18.30etako tranbia hartzeko.



Kutzako fototekak utzitako garai bateko Donostiako Bretxa merkaturako argazkia

Zein enkargu mota ematen zizkien herritarrek?

Mota askotako enkarguak egin behar izaten zituen. Garai hartan Zegaman ez zegoen egund bezainbeste zerbitzu eta ondorioz, jendeak Donostiara jo behar izaten zuen: Tindategietara eramateko prendak, "zurzidoreei" eramateko arropak, apaizgaientzat paketeak... eramane behar izaten genituen.

Tabernari nahiz dendariak ere ematen zizkiguten enkarguak. Garai hartan banatzaileak ez ziren gaur egund maiztasunarekin etortzen eta beraz, falta zuten generoa eskuratzeko "biajanteari" itxoin ordez, guri esaten ziguten ekartzeko. Makina bat enkargu egin genizkien Manolo tabernakoei, Sakristauenekoei, Eugeniari, Konfiterikoei, Txurrerikoei...

Udaletxeak ere urtero enkargatzen zizkigun 30 kilo karamelu Pazkoa egunerako

Udaletxeak ere urtero enkargatzen zizkigun 30Kg karamelu Donostiako karamelugile batzuei erosita Pazkoa egunerako.

Sarriegi enparantzan zegoen Kojonea tabernako biltegian uzten zizkiguten Zegamara ekarri beharreko pakete guztiak eta guk handik jasotzen genituen. Karretero



Ramoni Donostian errekadista lanetan zebilela

etortzen zitzaion tabernara nire amari eta handik karroan hartu eta trenera eramaten zizkion pakete guztiak. Trenera sartu aurretik biletea hartu behar izaten zuen eta honen salneurria, zeramatzen pakete kopuruaren

araberakoa izaten zen. Hala ere nahiko merkea izaten zen.

Treanean azkar sartu behar izaten ziren paketeak eta lan horretan karreteroak eta larunbatero trenean etortzen zen Zeraingo Patrizio Aldasorok laguntzen zioten.

Zure ama errekadista ibili zenetik aldaketarik izan al zuen lanbide honek?

Bai, ni hasi nintzenean jadanik elikagaiak etxera ekartzen zizkidaten, ez nintzen ni baserri baserri elikagaiak biltzen ibiltzen. Hala ere, Zegaman ez zegoen zerbait enkargatzen bazidaten, babarrunak adibidez, Ordiziako feriara joan behar izaten nuen autobusez hura erostera.

Bestalde, nire garairako kotxez eramaten ninduten Donostiara eta beraz, ez nuen autobusa eta tren hartu beharrik izaten. Kotxea "Ilepo" kargatuta joaten ginen! 5 kotxe eta 2 furgoneta pasa genituen lan horretan ibili nintzen bitartean!

Gainera ni errekadista hasi nintzenerako Bretxaren barruan jarri ziguten postua eta beraz, leku finkoa nuen nik. Oso leku onean tokatu zitzaidan gainera postua.

Zein oroitzapen dituzu Bretxako merkatuaz?

Oso gustura joaten nintzen ni Bretxako merkatura, oso giro polita genuen saltzaileen artean. Hasera batean, kanpora joan behar izaten genuen gosaltzera eta kanpoan geunden bitartean, beste saltzaileen kargu uzten genuen postua. Makina bat aldiz saldu nizkion nire ondoan egoten zen saltzaileari esnea eta mamiak! Bestalde, lanik ez genuenean, barazkiak saltzen zituztenei ere egoten ginen babak eta ilarrak aletzen laguntzen, bestela ez zizkietela erosten eta! Gerora, su txiki bat jarri ziguten eta barruan gosaltzen genuen.

Urtebetetzeak ere ospatzen genituen guk han, pentsa zein giro ona geneukan gure artean!

Eta bezeroez?

Oso bezero onak izan nituen denak, oso gustura joaten nintzen larunbatero merkatura eta oraindik ere mantentzen dut erlazioa bezero batzuekin. Badira oraindik Gabonetan deitzen didatenak ere! Bezero finkoak nituen eta beraz, banekien gutxi gorabehera zer salduko nuen. Normalean eramandako dena saltzen nuen.

Zenbait urtez ibili zara lan horretan?

30 urte baino gehiago ibili nintzen ni ere lan horretan eta izugarritzko pena eman zidan utzi behar izan nuenean.

Zergatik utzi zenion lan horri?

Bretxako merkatuan obrak egin zituzten eta postuen alokairua asko garestitu zen. Nahiz eta astean behin joan merkatura, egunero joango banintz bezala ordaindu behar izaten nuen alokairua eta ez zidan konpentsatzen, horregatik utzi nion errekadista lanari.

OIHANA ZUBIZARRETA



Mari Karmen

Berrioategortua Solaguren

Otzaurteko ermita, Zegaman ditugun ermiten artean berriena da

1967an eraiki zen auzokoei, mendizaleei eta trenbideko, harrobietako nahiz azpi-estazio elektrikoko langileei ospakizun erlijiosoetan parte hartzeko aukera emateko xedearekin.

Hala ere, badira bertan hain berriak ez diren hainbat pieza, gotiko estiloko Andre Mari amabirjinaren eta San Kirikoren irudiak edo-eta eraikinaren inguruan daude hilarriak adibidez. Bi irudi hauek jatorriz San Adrian ermitakoak dira eta hainbat istorioren oinarri ere bai. Ahozko tradizioak Zegaman zera dio: San Kiriko, San Adrian inguruko mendietan ibili zela ikazkin lanetan eta Andre Mariren irudia berriz Santa Julita omen dela, San Kirikoren ama. Egun, San Adriango festa ekainaren 16an ospatzen da, San Kiriko eta Santa Julita egunean hain zuzen ere. Jadanik desagertuta dagoen Santa Agedaren ermitako ur bedeinkatu ontzia ere bertan dago.

Bestalde, San Joseren eskultura amaitu gabe bat ere badago bertan. Eskultura hau Julio Beobidek hasi zuen baina eskultura egiten hasi eta handik gutxira hil zenez, eskultura amaitu gabe gelditu zen.

Egun, Otzaurteko ermita zaintzearen ardura Andikoetxea baserriko Mari Karmen Berrioategortuarena da eta berarekin aritu gara solasean zerbait gehiago jakin asmoz:

Zenbait urte daramatzazu ermita hau zaintzen?

Eraiki zutenetik gure etxean egon da ermitako giltza. Egun, ni arduratzen banaiz ere ermita zaintzeaz, garai batean auzotar batzuen artean genuen banatuta ardura hori. Txandaka egin izan ohi genuen ermitaren garbiketara. Gaur egun berriz, auzoa ia hutsik ari da gelditzen eta beraz, niri tokatu zait ermitaren ardura hartzea.

Gaur egun, lan asko ematen al dizu ermitak?

Tarteka garbitu egin behar izaten dut ermita eta horretaz gain, jendea ermita ikustera etortzen denean, ermita irekitzea izaten da nire lana, besterik ez.

Egiten al da ospakizunik ermita honetan gaur egun?

Gaur egun ez da mezarik ematen ermita honetan. Hala ere, noizean behinka ezkontzaren bat edo izaten da, baina lehen baino askoz gutxiago.

Don Lorentzok igandero meza ematen zuen eguerdiko ordu batean

Eta lehen?

Lehen bai, igandero meza izaten zen eguerdiko ordu batean. Don Lorentzo izaten zen meza ematen zuena. Bere garaian eginiko ermita izanik, sekulako debozioa zion Don Lorentzok ermita honi.

Nor etortzen zen Otzaurtera meza entzuterara?

Batik bat mendizaleak izaten ziren meza entzuterara etortzen zirenak. Goizean mendi buelta egin eta gero hemen gelditzen ziren meza entzuten. Zegamatik ere etortzen zen jendea baina Nafarroa aldetik apenas.

Ermitaren barruan, jatorriz San Adriango ermitan zeuden bi irudi daude: San Kiriko eta Andra Mari. Noiz eta zergatik ekarri ziren hona?

Behin, mendizale batzuk, San Kirikoren irudi puskatua hartuta etorri ziren mendian aurkitu zutela esanez. Badirudi norbaitek ermitatik hartu eta haiz batetatik behera bota zuela. Hori ikusirik, Otzaurteko ermitan jarri zituen Don Lorentzok bai, San



Otzaurteko ermita

Kiriko eta baita Andra Mari ere. Helburua, irudiak babestea izan zen. Egun, San Kirikoren kopia bat dago San Adriango ermitan jarrita.

Jende asko etortzen al da ermita ikustera?

Bai, mendizale ugari etortzen zait ermita erakusteko eskatuz. Hala ere, jendeak ez du ohiturarik kandelak jartzeko beste ermita batzuetan egin ohi den bezala.

Egin izan al da festarik Otzaurteko ermitaren inguruan? Zein festa egiten zen?

Bai, bi edo hiru urtetan zehar egin zen festa baina orain aspaldian ez da egin. Festa, San Jose Obrero egunean egin zen, maiatzaren 1ean alegia. Bertsolariak, trikitilariak, tiro platoa eta txerri harrapaketa izan ziren besteak beste antolatu ziren ekintzetako batzuk. Festa antolatu zutenak, Otzaurteko auzotarrak izan ziren. Hala ere, diru faltagatik edo, ez zuten jarraitu festa antolatzen.

Jaso al du ermita honek bisita bitxirik?

Bai, ermita eraiki eta gero gogoratzen naiz nola Madrilgo kardinala edo kargu altuko elizgizonen bat etorri zen Don Lorentzorekin ermita ikustera.

Azken bi urte hauetan berriz, Italiako talde bat etorri da Arantzazutik barrena oinez Otzaurtera. Ermitan meza entzun eta gero autobusez joan ziren berriro. Meza, taldean zetozen bi apaizek eman zuten eta oso ospakizun polita egin ere! Gitarra eta guzti etorri ziren!

OIHANA ZUBIZARRETA

IKER ZUBELDIA

PLAZAZ PLAZA BERTSOTAN

2007ko abenduaren 16an ospatu zen Ikerrentzat bertsolaritza munduan izan den erronka garrantzitsuena, Giuzkoako Bertsolari Txapelketa hain zuzen ere. Gogo eta irrikaz igo zen Iker oholtzara jendez lepo zegoen Ilunbe zezen plazan eta saioko agurrean esan zuen moduan, zezena burduntzian erreta jatera zetorrela eraso egin zuen. 8 bertsolari izan ziren finalista eta horietako bat izan genuen herritarra. Maila bikaina azaldu zuen saio guztian zehar beste zazpi bertsolari bikainen aurrean eta azkenik, 8. postu preziatuarekin gelditu zen Iker.

Honez gain aipatzekoa aurten Ikerrek Beterriko I. Bertsolari Txapelketan jardun zuela. Ezaugarri bereziko txapelketa izan zen hau; 26 eta 32 urteko 12 bertsolarik parte-hartu zuten, lau taldetan banatuta. Txapelketa saioak oholtza gainean egin ordez, mahaiaren bueltan egin ziren afal osteetan. Hiru kanporaketa saio egin ondoren, Iker Zubeldiaren taldea, Ttottondeggi, Asteasun egin zen finalerako sailkatu zen. Martxoaren 1ean, Ttottondeggi taldeak eraman zuen txapela etxera.



2008 urtean, Gipuzkoako Txapelketan goian egoteak plazetan bertsotan aritzeko ateak ireki dizkio eta gaur egun Gipuzkoako bertsolari gaztetan plazaz plaza gehien dabilenetakoa dela esan behar. Gaurko estereotipotik aparte samar dabilena da, entzulearengana erraz iristen dena eta jendeak estimatzen duena. Segi horrelaxe Iker guztion belarrien gozamerako!

XABIER AZURMENDI ALUSTIZA

18 URTEREN ONDOREN

AGUR TXAPELKETEI



Sei urte besterik ez zituela hasi zen Xabier dantza munduan. Bere hastapenak Zegamako dantza taldean egin zituen eta urtebete beranduago Billabonako dantza eskolan jarraitu zuen. Orduan jada, bere dantzarako sena nabarmena zen, bizitasuna eta arintasuna antzematen zen bere bi oinetan. Zazpi urterekin parte hartu zuen Lezon lehenengo dantza txapelketan eta hortik aurrera Euskal Herriko hainbat herritako festa eta txapelketatan izan da 18 urtetan zehar dantzako bere bikote izan den Janire Urbietaren bergararrarekin. Euskal Herrian zehar Zegama eta Bergara herrien ordezkari finak izan dira biak. Urte guzti hauetako lana gogorra izan bada ere (entsaioak, txapelketak...), esfortzu honen fruituak ezin hobeak izan dira bikotearentzat, txapel eta garaikur anitz jaso dituztelarik. Aurten ordea, 18 urte dantza soltean ibili ondoren, agur esan diete Janirek eta Xabierrek txapelketa munduari. Besteak beste, 2008an lau txapelketetan parte hartu dute: Estibalizen 2. postua eskuratu zuten, Segurako Euskal Herriko Txapelketan 4., Hernanin 2. eta Zumarragan, bere azken txapelketa izan zen honetan, 3. postua.

Hemendik, zorionik beroena eman nahi diogu Xabierri urte guzti hauetako ibilbide oparoarengatik eta horrenbeste urtetako ahalegina eskertu.

Montajes Eléctricos Hernani S.L.



MONTAJES E INSTALACIONES

ELECTRICAS

AUTOMATIZACIÓN Y CONTROL

Donostia Ibilbidea, 66 - nº12

20115 ASTIGARRAGA

(Guzipizcoa)

943 33 13 35 - 943 33 35 33

www.beysa.es

e-mail: beysa@beysa.es



Maria

Mujika Arrieta

Mariak irrafarra dauka berezkoa, lasaia, erakargarria eta halaxe hartzen zaitu beti, Zegamako Olaberri auzoan, Ugarte baserriko atari leihoan, irrifar gozo batez. Doloretako Ama Birginaren egunean, irailaren 15 batean jaioa da – horregatik izen osoa bera ere, Maria Dolores - eta, aurten, 2008an bete ditu 93 urte. Hori ere irrifartsu aitortuko dizu, adinaren eta urteen aitzakiarik ahotan alperrik erabili gabe.

Mari Cruz Arrieta eta Miel Anton Mujikaren alaba da Maria, sei senidetan zaharrena. Ondoren, Bitoriano, 2007ko martxoaren 17an zendua eta gero, Jexux, urte askoan Donostian bizi izana, Herrerako auzoan, eta Pasaiako portuan lan egina, eta duela urte batzuk zendua. Gero, urrenez urren datoz, Juanita, Zegaman bizi dena, Gabino, Ugarten bertan, eta Inazio, gazteena, argina ofizioz eta, orain, jubilatuta, Beasainen bizi dena.

Ugarteko atarian, garai bateko usadio zaharrean, Ave Maria! hots eginez gero, litekeena da, Maria bera agertzea sukaldeko atetik, baina, litekeena, baita, Pilar, Bitorianoren alarguna, edota Gabino izatea diosalaka agertuko zaizuna. Orain, maiz, Juanita ere bai, Joxe, senarra hil zitzaionetik, maiz biltzen baita bera ere Ugarteko sukaldera. Senide arteko tertulian eman ohi dituzte orduak, beheko su indartsu baten arrimura udazken-neguko hozkirriari ihesi, eta Ugarteko horma zahar zabalaren freskuran babestuak uda-mineko eguzki egunetan.

Hantxe bizi dira, Ugarte baserri-etxe handian, eguneroko zeregintxoei lotuak, osasunaren ajei aurre eginez, garai bateko baserri-lan neketsurik gabe, kontu zahar eta berrien danbolinari eragin eta eragin, eta gaurko bizimoduak eskaintzen dituen hainbat aurrerapenez eta erosotasunez lagunduta. Astebarruan ez bada asteburuan, han egongo dira zain, nor noiz etorriko, eta, norberak beretik, zer berri ekarriko: Joxe Mielek Billabonako egoitzatik, Pili Hondarribiko kamarerotza lanetatik, Begoñak eta Jexuxek Lierni gaineko baserrietik, Maitek eta Jabierrek, eta hauen seme-alabek, Iratik, Mattinek eta Aritzek, Berastegiko baserrietik. Nolanahi ere, bisitan datorkienari atea ireki eta sukalderrainoko bidea erakusteko prest beti.



2005ko ekainaren lauean, Bitoriano Mujika-k eta Pilar Arrondo-k, Juanita Mujika-k eta Jose Arrondo-k, urrezko eztaiak ospatu zituzten. Ugarte baserriko gaurregungo hiru belaunaldietatik Aritz da argazkian falta den bakarra, Berastegiko amonak pasieran baitzerabilkien bere karrotxoan)

Ugarteko sukaldeak beti ezagutu du belaunaldien arteko elkarbizitza. Lehen aitona-amonak, gurasoak eta senideak izan ziren, gero, Bitoriano eta Pilarren ezkontzatik sortu ziren seme-alabak eta, orain ere maiz elkartzen dira, nola lanerako hala mahain inguru eta otordurako ere, amona, ama, osaba-izebak, sema-alabak, errain eta suhi, eta belaunaldi urratu berria osatzen duten Berastegiko neska-mutiko koskorrak. Mariak ondo asko gordetzen du beregan elkarbizitza horren gorabehera eta euskarrien ezagutza eta irakaspidea. Belaunaldien arteko elkarbizitza ez ezik, baserriko lanak, artzantza eta ikuiluko abereen mantenu eta zainketa, lantegiko ordutegiak eta etxeko lan-jira atzendu ezinak, biak bat egiten asmatu izan duen bizimoldea, alegia. Beheko sutik, ekonomikara eta ekonomikatik bitrozeramika berrira, sukalde lanik franko egina da Maria, etxeoentzat beti, bisitariontzat maiz. Baina, ez da bere bizialdia Ugarte sukaldeko kontua bakarrik izan. Hamalau urterekin eskolako ikasketak utzi ("Liburukote aundi bat eman ziguen eta leitzen ere ba al genekin ba? Erderaz entenditu're gauza aundik ez...") eta berehala hartu behar izan zuen etxeko hainbat lanen martxa eta ardura. Baserri-etxeko betebeharrak eta atzetik errenkan zetozen senideen kuidoak. Gero, ordea, 20 urteko neska gazte zelarik, beste sukalde eta otordu batzuren ardura hartu zuen urte batzuetarako.

- "Artzanen bizi zan gure amonaren aizpa bat eta ara jun nitzen neskame-lanak ikastea. Akordatzen naiz nola autza jun, da jaiegun bat zan, eta Artzaneko komedoren maikada bat pastel nola zeon. A ze nolako pastel-jana ein non. Etzian inork ezer esan, kontuauko zien baño... Asko nai zian izeba arek neri. Ta ba al dakizu ze ein'tzon? Zortzi millana duro jarri zien bere besotakoei, eta neri ere jarri nai zian, baina gure amonak ura aittu zonen, kentzeko andik, ni e'nintzela aren besotakoa, gozoa jarri zan ba gure amona ori, klaro, ni bere besotakoa nitzen-da. Akabo antxe nere zortzi milla duro aiek! Dirue zan gero garai artako!

Parre algaraka amaitu du Mariak bere kontakizuna. Halaxe bukatu omen zen bi ahizpen arteko pasadizoa eta xextraldia,



Maria, "Ugarte sukaldeko dama", dotore asko, familiako ospakizun-otordu batean

eta kariñoz gogoratzen ditu Mariak Artzanen, izebarekin egin zuen egonaldia hartako kontuak.

Gero, hogeita hiru urteko neska gazte, Don Andresen, Zegamako Erretorearen etxerako deia jaso zuen Mariak. Erretorearen arreba hil berria omen zen denbora hartan eta Don Andresen ama, berriz, laurogeita ta hamar urtetik gorako emakumea ordurako, hala etxeko lanen ardura hartuko zuen norbaiten premian suertatu ziren eta hura izan zen Mariarentzako aukera berria. Hogeitaz egin zituen bertan, hogeitahirurekin hasi eta berrogeitahiru bete artekoak hain zuzen ere.

- *"Bizi bai, lana gogotik, baino ondo bizi, kontentu bizi, ori da kontue! Etxe arta jun nitzen ledanbiziko eunen ama zaarra pasillon eroi eta kopetako aundie artu zon, ola, emen, kopeta-aurre ontan odola ta dana ein zikon. Don Andres elizan zan eta nik bakarrik jaso, oira eraman eta, zea, oiñaleko txisatan bustitako trapukin ein nion kurea.*

- *Don Andresi eman al zenion horren berri?*

- *Bai, Elizatik etorri zanen esan nion eta zea esan'zon: 'ori baldin bada ona, ondo!' Berahala sendau zikon amai kopetakoa. Ala zien kontuk ordun, guk besteik ezkenekin-da.*

Elizako zenbait garbiketa eta bestelako lan batzuk ("bataioko, ezkontzako eta olako partidak'e nik billatzen nitun, elizako liburu aundi aitan, preparau eta neonek diktatzen nion Don Andresi berak eskribitu bearrekoa"), baratzeko martxa, bi pisuko etxea, elurte eta izozte aldietan ganbarako itukinen kezka, etxekoentzako sukaldelana eta gero, gainera, bisitak, bisita asko, gonbidatu asko urtean zehar, otordu garairako gehienetan.

- *"Asarratu're askotan, bai oixe! Ba aldakizu ze esan omen'zion bein gure aittek amai, Don Andresen etxan bazkaltzen eon'tzien baten, zea, Don Andresek nik esandakoa eitten'tzola! Bearko batzutan zerbait asarratzea're! Eize gustatzen zikon asko ta asteunen meza eman ondoen juten zan Zeamatik Beundea oinez, batzutan bere anaie Zakarias'e etortzen zan Donostitik. Sukalde kontun'e zerbait ikasie zan eize gauzak nola preparau-ta... Ala ikasi nittun nik'e. Don Andresek bazeuzken bere gauzak, baino gizon bromosoa, txistosoa eta alegrea zan".*

- *"Garizuma garaien mixiok izaten'tzien eta Arantzazuko fraillek etortzen'tzien, Agirretxe, Olaizola eta Garmendia. Gosete garaie zan eta Agirretxe ori flako-flako zeon, ikustekoa zan zein flako zeon, ezur da azal, eta goizen, eliza jun aurretik arkume pusketa bat ematen nion kafesnen aurretik. Ogie're eukitzen gendun, Aitamarrango señora zan kosexerea, eta arek ekartzen'tziun zakukada iriñe eta nik eitte'non ogie etxen eta fraille oiek gustora jaten'tzuen".*

Don Andres Erretorearen etxean neskametzan egindako hogeitaz urteak pasa



Maria, Juanita eta Pilar, Ugarteko sukaldean kontu-kontari

eta, berriro ere, Ugarteko sukaldera itzuli zen Maria, eta gaur arte, hantxe bizi da orain Olaberriko auzo inguruan. Eraikitzen joan diren etxebizitzek, auzo inguru eta kaleetako aldaketek, eta Ugarte etxeko aurrealdeak berak ere, itxuraldaketa eta berritze txukun eta ederra bizi izan dute azken urteotan, eta, nabarmenago, oraindik-orain Udaletxeak burutu dituen urbanizazio-lanak direla medio. Ugarte baserria bera ere, gozo eta polit jarria dago, atari zabal eta sukalde eder batekin, gora eta behera eroso ibiltzeko igogailu eta guzti. Gaztaroaz galdetzerakoan, ordea, Ugarte sukaldeko berriketaldian elkartuta daudenen aurpegia alaitasun-txinparta berezi batez pizten dira, Mariarengandik hasi, Pilar, Gabino eta Juanita berarenganaino. Zegamako Olaberri auzoak, hango soinu-festak, taberna giroak, eta Ugarte baserriak berak ere bai, izan zuten nonbait, orain galdutzat, baina oroitzapen gozoen aldarera igota daukaten garai biziago bat:

- *"Olaberri oso alegrea zan garai artan gu gaztek giñenen, ikusi ein bear'tzan ze dantza-saio eta nolako festak izaten zien" – aitortzen dute, ia ahobatez, Juanitak eta Pilarrek.*

- *"Goialden iru edo lau lekutan izaten zan soinue ordun eta jende asko etortze'zan ona jai arratsaldetan eta, bizikletaz, eta oinez'e bai" – gogoratzen du Mariak, aurpegia alaitzen zaiola!*

- *"Bizikletak gordetzeko lekue're jarri zon gure aittek emen baserrin eta txapon batzuk kobratze'zittula gañea, oso ezaune zan gure aitte ori, Miel Anton, emendik hasi ta Seguraño, etxe eta leku guztitan" –*



Gabino, Ugarteko sukaldean

Gabinoren oroitzapena, gaztaroko kontuak berriro arazi dizkiogunean.

Orduko jende gehienak bezala, ez zuten gaztoaroan herritik kanporako irteera handirik egiteko aukerarik izan. *"Ordun e'tzan jendea orain bezela munitzen, batetik bestera ibiltzen, orain zuek ibiltzen zeaten modun"*. Arantzazurako erromesaldiak, Lierniko erromerirako joanetorriak, noiz edo noiz, Estibalitz, Urkiola eta gisa horretako lekuetara *"kun-kun deitzen genion papelerako autobus baten sartuta"*, baina, nolana ere gaurko konturik ez.

Mariak berak modu berezian gogoratzen du Madrilan egin behar izan zuen egonaldia, Gabinori belauetan egin behar izan zioten ebakuntza bat zela medio:

- *"han ibiltzen nintzen ni bakar-bakarrik metron sartu eta ospitaletik Lista izeneko paradaraño. Gero lurpetik irten eta oñez Pio Berasategiren tiaren etxeraño, eskaparateak ikusiz..."*



Maria, Ugarte baserriko atarian (2008)

Baina, gaurko konturik ez, erreztasunik ere ez gaurregun bezala munduan zehar ibiltzeko, berdin gertutik gerturako nahiz urrutirako joanetorrietan.

- *"Eta zuk Maria, orain hemezortzi urte bazenitu, zer gustatuko litzazuke egitea, zer aldatuko zenuke zure bizimodutik?"*

- *Emendik aldein beintzet, emezortzi urte baneuzke, eztaikit noa jungo nitzeke, baino, beste bizimodu batzuk ezautzea-ta, noa edo ara jun beintzet..."*

Bejondeizula, Maria, Maria Dolores. Ibiliko da bazterretan zu baino bidaia-lagun petral eta eskasagorik. Aurpegi irribarretsu horrekin, gainera, seguru nago, Miel Antonek berak baino lagun gehiago egingo zenukeela, noranahi joanda ere. Inora joan gabe ere bai, Zegamako Ugarte baserriko atarian norbaitek Ave Maria! hots egitea nahikoa. Bejondeizula!

JULIAN BELOKI



Luis

Arraiago Ormazabal "Xeama"

Sei senide ginen, denok Areson jaioak eta 1940an etorri ginen Zegamara bizitzera Arantzaza Azpikoa baserrira

Noiz eta non jaio zinen?

Areson jaio nintzen 1931ko abuztuaren 24ean.

Zenbat urterekin etorri zinen Zegamara?

Sei senide ginen, denok Areson jaioak eta 1940an etorri ginen Zegamara bizitzera Arantzaza Azpi baserrira. Bertan 5 edo 6 urte egin genituen eta ondoren Ubitarte baserrira joan ginen. 19 urte nituela, abenduan Papeleran hasi nintzen lanean eta 25 urte bete arte bertan ibili nintzen. Hurrengo martxoan Arantzazura joan nintzen fraile.



Gomistegi baserrian izan dira Luis, Juan, Bedaio eta Nikolas



Luis Mertxor, Gaspar eta Baltasarrek

Ordur geroztik beti Arantzazun egon al zara?

1960an Zarautzera joan nintzen nobiziadoda egitera, baina bestela bai, beti Arantzazun bizi izan naiz. Zarautzen 6 hilabete postulante eta urte bat nobizioan pasa nituen eta gero berriro Arantzazura bueltatu nintzen.

Zer egiten da Postuladoan?

Hau prestaketa moduko bat da, zer egin

Nik 25 urte nituela sentitu nuen Jainkoaren deia eta hura jarraitzea erabaki nuen

behar den edo nolako bizimodua eraman behar ikasten dugu.

Nola hartzen da Papeleran lana utzi eta fraide joateko erabaki hau?

Benoa, erabaki hau Jainkoak hartuta izaten du. Nik 25 urte nituela sentitu nuen bere deia eta hura jarraitzea erabaki nuen.

Hori dena baino lehen nola gogoratzen duzu zuk haurtzarora?

Areson eskolan urte gehiagoan ibili nintzen Zegaman baino Zegamako oroitzapenak badituz ere. Ezberdinak ziren Zegamako eta Aresoko eskolak, Areson irakasleak

erdaldunak ziren eta Zegaman berriz euskaldunak. Hala ere ez nintzen eskolan urte askoan ibili, beharrezkoa soilik ikasi nuen. Ez ginen erregularlari joan eskolara, ahal zenean soilik!

Zer lan egiten zenuen Papeleran?

Ni trituratoran aritzen nintzen, paper zaharrak edo behar ez zirenak trituratzen nituen berria egin ahal izateko

Papeleran lanean ibili zinen garaiko zein oroitzapen dituzu?

Nik ez daukat bertan lanean aritu nintzeneko oroitzapen txarrik. Garai hartan 10 opor egun ematen zizkiguten eta nik normalean bakarka hartzen nituen, etxean belarretarako edo lanak egiteko behar nituenean. Ez zidaten inoiz eragozpenik jarri.

Gainera uste dut ongi ikusia izan nintzela bertan. Ni Papeleratik irten nintzenean Roman Ormazabal "Herreroa" sartu zen nire tokian.

Akordatzen naiz nola behin Andres Laskibarren emazte Pepik nola esan zidan: "Nik ez dakit zuek nondik ateratako jendeazareten. Zuen ama ere horrelakoxea zen. Sei seme-alaba etxean eta hala ere nonbaitetik lanerako deitu edo abisatu eta beti lanerako prest. Izugarri langileak zarete!"

Arantzazura joan zinenean, aurreneko hartan, zein zen zure lana?

Arantzazura joan eta lehen hamabost egunetan, "colegioa" esaten zitzaion eraikinean umei mahaiak prestatzen jarri ninduten jangelan. Handik baserrian (Gomestegin) arduradun zegoenak atera ninduen eta harrezkero bertan bizi izan naiz.

Hala ere nik adina logela izan dituen gutxi izango da! Hainbat toki ezberdinetan ibili nintzen lanean edo laguntzen eta ondorioz 3 gela izatera iritsi naiz. Bata etxean, Gomestegin, bigarrenena Arantzazuko komentuan eta hirugarrena Bidaurreta izeneko baserri batean. Bidaurretan baratzean aritzen nintzen lanean eta beraz, bertan lotan gelditu behar nuenerako gela bat nuen niretzat. Baina hau guztia beharrak eragindakoa izan da.

Baina bizi gehiena edo denbora gehiena Gomestegin egin duzu zuk ezta?

Bai, baina egunero joaten nintzen Komentura esne banatzera jaitsitakoan. Orain ere hala egiten dugu, bazkaltzera eta afaltzera komentura jaisten gara.

Gidabaimena 26 urterekin atera nuen eta berehala ikasi nuen gidatzen bertan zen kotxe txiki batekin. Gogoratzen naiz nola traktorea ekarri zutenean ere nik erabiltzen nuen gehien, izan ere karnetik ez zutenek kanbioekin ez zuten asmatzen.

Arantzazun zer ardura edo lan izan dituzu?

Ni baserrira joan nintzenean ahate gutxi batzuk baziren, baina batez ere esne behien eta baratzearen ardura hartzea interesatzen zen. Ni hasieratik esnea banatzen eta baratzean aritzen nintzen lanean.

Arantzazun bertan zeuden ikasle, fraide etab. entzako esne eta barazkiak ateratzen ziren gure behi eta baratzetik. Urte batean 64.000 porru sartu genituen (1966ean izan zela uste dut).

Baratzaren ardura izateaz gain behien ardura ere izan nuen 22 urtez. Hauekin gertatu zaidan gauza harrigarri eta politena Meltxor, Gaspar eta Baltasar jaio zirenekoa izan zen: Hasi zen behia lehen txahala erditzen eta hau oso txikia zen 22 kilo eta erdi izango zituen. Honen atzetik bigarren bat zetorrela konturatu ginen, hura bai arraroa! Bigarrena erditu zuenean hirugarren bat ere bazetorrela ikusi genuen, hori bai izan zela polita! Azken bi hauek 20na kilo besterik ez zituzten pisatu baina oso politak ziren. Momentu benetan bitxia eta polita izan izan genuen!

8 egun zituztenerako jadanik bazituzten 36 kilo. Hau izan zen nik 3 txahal batera jaiotzen ikusi nuen aldi bakarra.

Gero, 1983an, behiak kendu zirenean, terenoarekin zerbaitegin behar zela eta txerriak eta 400 ardi jarri genituen, baina ez nuen nik hauen ardura hartu. Txerrien ardura Juanek hartu zuen eta ardiarena berriz Nikolas eta Pedrok. Animalia hauek guztiak zaintzeko hiru pertsona gutxiegi zirenez, hauei laguntzen ibili nintzen bai ardiekin, bai txerrieekin.

Gaur egun ardiak bakarrik ditugu, gehienbat artzain eskolarekin lotuta eta hauen esnearekin egiten den gazta ere izugarri ongi saltzen da.

Barazki ikusgarri ugari ere jaso dituzure baratzetik ezta?

Beno, izan dudan tipularik handienak 1 kilo eta 300 gramo inguru pisatu zuen. Orain gutxi 8 kiloko azaburu bat jaso dugu eta porrurik handiena berriz 2 metro ingurukoa izan da.

Nolakoa da orain zure eguneroko bizitza?

Goizean jaiki eta Gomestegin bertan Angelusa izaten dugu lehenik eta mezarekin batera Laudusa bigarrenik. Hauek amaitu eta gero gosaldu egiten dugu. Igandeetan berriz komentuan egiten ditugu ospaketa hauek guztiak.

Egun baserrian Juan, Nikolas eta ni bakarrik gaude eta astean zehar 7 kapilau etortzen dira, eguneko bat. Bazkaltzera komentura jaisten gara eta arratsaldean berriro gure lanetara.

Iluntzean 19:30ak aldera komentuan bezperakizaten ditugu, ondoren errosarioa eta meditazioak eta hauek amaitutakoan afaldu egiten dugu.



Luis, Gomistegi baserriko kapilaua

Gomestegin, zuen etxean, artzain eskola sortzeak izango zuen eraginik zuen eguneroko bizitzan ezta?

Egia esan behar bada izugarri aldatu zaigu bizitza, izan ere orain gure etxean kanpoko jende asko ibiltzen da eta bisitan etortzen direnak ere asko dira. Nolabait esateko intimitatea galdu dugu.

Momentu honetan 14 ikasle daude eta hauek ere beti ematen dute lana.

Baina beno, gustura egiten ditugu lan hauek guztiak nahiz eta baratzea ere pixka bat utziago daukadan.

JAIONE GORROTXATEGI




Luis Gomistegi baserria atzean duela



Luis bere lagun batzuekin



Luis 1,300 K. tipulak hartuta kontentua



Luis egun ere izugarritzko baratza ederra erakusten du



Luis, berak ekoiztutako porru bikainak eskuan dituela

OTZAUURTEKO BENTAK

kalitate turistikoaren saria

Otsailaren 27an, Castillo Hotelean egin zen Goierriko II. Turismo Gala. Bertan Kalitate Turistikorako Konpromezuaren ziurtagiriak banatu ziren Goiturren eskutik, konpromezu hau hartu dutenen artean eta esan, Zegamarrik ere bazela bertan, Otzaurteko Benta hain zuzen ere. Galan Goierriko ostalaritzako profesional ugari bildu zen agintari politikoeekin batera. Besteak beste Ana Agirre Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua izan baitzen bertan. Goiturreko kideen %95 eskuratu du iada

Kalitate Turistikorako Konpromisoaren ziurtagiria. Kalitate Turistikorako Konpromisoa Turismo Idazkaritzaren ekimena da, eta Euskadin Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak sustatzen, garatzen eta kudeatzen du Euskaliten bidez.

Kalitate Turistikorako Konpromisoaren ziurtagiriak honako helburu hauek ditu:

- Enpresa turistikoen barne-kudeaketa ziurtatzea.

- Kontrolak ezartzea, bezeroen gogobetetasuna bermatzeko.
- Instalazioen segurtasuna eta konforta bermatzea.

Otzaurteko Bentari emandako ziurtagiria jasotzera, Jon Oiarbide bertako semea joan zen.

Zorionak, beraz eta segi bide horretatik !!!



Kalitate turistikorako konpromezuaren ziurtagiria jaso zuen Otzaurteko Benta

Mega Garmendia S.A.

ITXI DA

Mega Garmendia S.A. lantegiaren hastapenak aurkitzeko denboran dezente urte egin behar ditugu atzera. Garmendia tailerraren oinarriak Leontxio Garmendiak jarri zituen 1952 urtean frontoiaren alboan tailerra irekiz. Lana gehitu ahala, frontoi alboko tailerra txiki gelditu zitzaien eta Intxaustiko lehen tailerra eraiki zuten 1966an 64 langile izatera iritsiz. 1969an Mega izeneko enpresarekin sozio egin ziren, Megak Garmendia erosi eta ondorioz Mega Garmendia S.A. enpresa sortu zen. Mega enpresak Berrizen du egun bere egoitza eta bertara joaten dira lanera Zegamako "Garmendiane"ko langile batzuk. Zegamako "Garmendiane"k aurtengo martxoaren 14an itxi ditu atea zegamar askori lana emanda hainbeste urtetan.



BA AL Zenekien?



Zegamatik pasatzen den Norteko Ferrokarrila 1858-1864 urte bitartean eraiki zela?

Eta garai hartan Zegama zela Goierri bailaran biztanle gehien zituen herria 2487 biztanlerekin?

Eta trenbidea eraikitzera etorri ziren langile asko frantziarrak eta italiarrak zirela?

Eta langile kanpotar hauei ostatu emateko Zegamako baserri, saletxe, etxola eta biltegi guztiak bete zirela?

Eta lantokitik gertu jarri zirela bizitzen Oazurtza aldean?

Eta Zegamak izan zuen hazkundera zela eta herritar nahiz kanpotarrek tabernak eta likorea saltzeko dendak ireki zituztela?

Eta garai hartan hain ugariak ziren borroka, lapurreta... saihestu asmoz Zegamako udalak kuartel bat jartzea eskatu zuela?

Eta Zegaman 1858-1867 urte bitartean kanpotarrek izandako 139 haur bataiatu zirela?

Eta Zegamako lurretan 12 tunel eraiki behar izan zituztela?

Eta trikitixa instrumentua uste denez Zegamako trenbidea egiten aritu ziren italiarrek ekarri zutela Zegamara eta hemendik trenbidearen bidez zabaldu zela Euskal Herrira?

ATZOKO

Zegama



JEXUXI GARCIA-NIKOLAS ALUSTIZAREN EZKONTZA

Argazki hau 1958 urtekoa da, Jexuxi Garcia eta Nikolas Alustizaren ezkontza eguna hain zuzen ere. Olaberriatik kaleruntz oinez doazenen artean, aurreneko ilada, ezkerretik eskuinera: Joxe Mari Ormazabal, M^a Pilar Arrondo, M^a Karmen Garaiar, M^a Dolores Irastorza, Anttoni Arrondo eta Antonio Ormazabal.



ESKOLA PUBLIKOA

40. hamarkadako argazkia da hau. Gaur egun etxeak daude bertan eraikita, Kultur Etxearen ondoan, Olaran auzoan zegoen garai bateko eskola publikoa.



ZEGAMAKO GAZTE KOADRILA

Ezkerretik esubirra: Jose Luis Gorrotxategi Begiristain, Jose Manuel Landa Arizkorreta, Juanito Berasategi Berasategi, Pedro Azurmendi Zabaleta, Jesus Arizkorreta Lazkano, Jose Andres Larrea Goia, Antonio Azurmendi Munduate, Santi Irastorza Saigos, Maximo Larrea Azurmendi eta Pedro Zubizarreta Arana



ELURTEA

1956. urteko elurtea ageri da argazki honetan. Buztinkale eta atzealdean Azkonieta. Argazkian Joakin Calvo eta Nieves Calvo azaltzen dira. Ezkerraldean, gaur egun Aseginolaza Anaiak kaleko etxeak eraikita daude garai batean txabola eta baratzak zeuden tokian.



GIZONEZKOAK

50. hamarkadako Buztinkale inguruan ateratako argazki honetan, ezkerretik eskuinera dauden herritarrak hauek dira: Antonio Oiarbide, Juanito Arrieta, Roman Ormazabal, Tomas Telleria, Juanito Irastorza eta Pako Arrondo.



◀ GOIALDEKOAK SAN ADRIANEN

Irudi honetan, goialdea auzoko haurrak agertzen dira. San Adriango kobazulora irteera bat egin zuten San Pedro eskolakoek 1962 urte inguruan. Ezkerretik eskuinera hauek agertzen dira: Juan Jose Zabaleta, ezezaguna, Eulali Mazkieran, Jesus Zabaleta, Jose Ramon Zabaleta, Juan Jose Alustiza, Kontxi Ruiz de Eginola eta Mila Alustiza, Don Javier Leceta apaizarekin. Argazkia ateratzen berriz orduan irakaslea zen Belen Azpeitia beasaindarra.

KUADRILA ARANTZAZURA BIDEAN

Argazki hau 1968 urte ingurukoa da. Ama Birjinaren iturritik Arantzazurako jeitsieran dagoen txabola batetan ateratakoa da. Bertan agertzen direnak, ezkerretik eskubira: Jabier Azurmendi, Joxe Mari Azurmendi, Joxe Antonio Ormazabal, Pedro Azurmendi, Juanjo Gorrotxategi, Sebastian Ormazabal, Santi Azurmendi eta Juan Mari Ormazabal dira.



◀ SAN MARTIN EGUNA

Duela 30 bat urte inguruko argazkia da San Martin egunez ateratakoa. Orduan, ganaduen sariak plazan jasotzen ziren ganadu irabazlearekin joaten zelarik saria jasotzera.

OTZAUERTEKO ERMITA

Eraikuntza berria da. Don Lorenzo Arakama (Altami baserrikoa) Zegaman apaiz zela egindakoa da Otzaurteko Andra Mari ermita. Argazki honetatik gaur egungo errealitatera ere aldaketak eman direla ikus daiteke, batez ere, ermita inguratzen duten zuhaitz eta landareak falta dira.

Bitxikeria moduan, tenplu honek Kantauriar eta Mediterraniar isurialdeak bereizten ditu, honela, euria egiten duenean, hegoaldeko teilatutik erortzen den urak Mediterraneo aldea hornitzen du eta ipar aldeko teilatutik erortzen diren urak berriz, kantauriar isurialdera bideratzen dira.



ZEGAMA ETA TRASHUMANTZIA

Argazki zahar honetan artalde bat herritik igarotzen ikus daiteke. Goialdean, San Bartolome auzoa, behean mojak egoten ziren etxea eta ondoan Zirkuloa. Bazterrean Perfektane etxearen zatitxo bat ikus daiteke eta erdian Juan Telleriaren monumentua.



SAN PEDRO AUZOA 1

Saadar mendi ingurutik ateratako argazkia da hau. Azpikaldean Zegamatik Otzaurterako bidea ikus daiteke. Behetik gora hasita, Arakama-Enea baserria, San Pedrokoermita eta Amiano-Goena baserria. Argazkiaren goraldean, eskuinaldean, Iruetxeta ageri da. Ikus daitekeenez, oraindik autoz baserri horietara igotzeko errepiderik egin gabe zegoen. Belardiak gailentzen dira eta zuhaitz gutxi bertako parajeetan. Gaur egun, belardi horietako asko zuhaitzen beteta daude.



SAN PEDRO AUZOA 2

Aurreko argazkiarekin alderatuz, San Pedroko eskola berria eraikita ikus daiteke atzean Arakama-Enea baserriarekin. Eskolaz gain, maixu etxea (goiko aldea) eta eliza nabarmendu daitezke. Ondoan frontoia ageri da. Goruntz joanda, San Pedro ermita (frontoi ondoko eskola egin aurretik auzokoen eskola izan zena), Amiano-Goena baserria eta Iruetxeta baserria ikus daitezke Aizkorriren magalean.



KLAUDIO OTAEGIRI OMENALDIA

1991ko argazkia da, Zegamako Udalak Claudio Otaegiri omenaldia egin zioneko. Bertan ikus ditzakegu Claudio Otaegiren iloba, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua, Eduardo Telleria Alkatea, Xabier Azurmendi apaiza eta idazlea eta Juan Mari Lekuona olerkaria.

UKENDUAK



ZAURIAK GARBITU

ETA SENDATZEKO

UKENDUA ETA ERRETRAPUAK

Osagaiak:

- 10 gramo Pasmobelarra
- 10 gramo Berbena
- 10 gramo Intxusaren bigarren azala
- 10 gramo Argizari
- 100 gramo Oliba olio



Ukenduaren prestaketa:

Belarrak xehetu gabe oliba oliotan jarri ontzi batean berotzen. Bi edo hiru orduz eduki behar dira sutan ahal bada olioak irakin gabe. Gero, sutatik atera eta olio iragazi egiten da zapi batean belar zati guztiak ondo kentzeko. Ondoren, olio beroa dagoela argizaria nahasten zaio. Olio eta argizaria ondo nahastu direnean, ontzietara botatzen da honela, hoztean gogor gogor gelditzen delarik.

Erretrapuen prestaketa:

Lauedobost gasajartzen dira elkarrengainean ontzi batean. Ukendua beroa dagoela, gasa botatzen zaie gainera. Ukendua hozten denean hau gasari erantsita gelditzen da. Ondoren, gasa zati hauek erretako zauriaren gainean jartzen dira. Erretrapuak edozein ukendu motarekin egin daitezke.



Nati Otaegi Berasategi

AZALA LEUNTZEKO

ETA HIDRATATZEKO UKENDUAK

Osagaiak:

- Kalendula
- 10 gramo argizaria
- 100 gramo oliba olio



Ukenduaren prestaketa:

Kazo batean kalendula lorea jarri eta olio bota. Hauek 2-3 orduz su baxuan eduki eta ondoren zapi batean iragazi lore zati guztiak ongi erauziz. Ondoren argizaria nahastu eta ongi irabiatu olio eta argizaria nahastu arte. Ondoren, dagokien ontzietara bota eta hozten utzi.



DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK

Pol Intxausti, Pab. 14 I - ZEGAMA

943 801 243

doilan@doilan.com

IRUNBIDE S.L.

- GOMAZKO ZORUAK • HIRI MOBILIARIOAK (MOBILIARIO URBANO) •
- HAUR JOLASTOKI EDO PARKEETAN SEGURITASUNEZKO ZORUAK •
- BELAR ARTIFIZIALEZKO FUTBOL ZELAIK •

C/ Aldapeta 2 -1º B IRUN - 943 636 277 • irunbide@irunbide.euskalnet.net



ZORIONAK !!!

ZEGAMA OKINDEGLA

OGI NATURALA ETA ERREPOSTERIA

Intxausti eremua 14 G-H pabiloak • ZEGAMA
943 801 066

*Zorionak eta
Urte Berri On!*

2009 urte
zoriontsua
opa dizuegu






sestra

INGENIERÍA Y ARQUITECTURA


*¡Gabonak ondo eta
Urte Berri On!*

Zuatzu Kalea, 2 - Igeldo Edificioa 1go Oina - 10. Lokala • 20018 DONOSTIA
Tfnoa: 943 316 655 Faxa: 943 316 273 e-maila: sestra@sestra.es



Zegamako
Ostatua

- TABERNA
- JATETXEA
- LOGELAK



Zorionak eta

Urte Berri On

San Martin 3 - ZEGAMA • 943 801 051

Goilaser S.A.

LASER BIDEZKO EBAKETA

CORTE POR LASER

*¡Gabonak ondo pasa
eta
Urte Berri On!*



**INTXAUSTI
INDUSTRIALDEA 14
K-L PABILOIAK
20215 ZEGAMA
943 16 25 02**



Hidroereinketak

Kirol guneen mantentzeak

Ingurumen arloko hobekuntzak

Jardineritzako landaketa eta lur mugimenduak

Lorategien mantentzeak orokorrean

¡Zorionak!

Lapatx Erreka 20216

ORMAIZTEGI

Telefona: 943 160 424




ZEGAMAKO UDALA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Berrikuntzarako eta Jakintzaren
Gizarterako Departamendua



ORMIXIZPEI S.L.
San Juan auzoa 20, lehen
Aiziri Eraikuntza
AZKOITIA • 943 857 354

ZEGAMA OKINDEGLA
Intxausti eremua 14,
G-H-pabilioiak
943 801 066



INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA
Zuatzu Kalea, 2 - Igeldo Edifizioa
943 316 655 • DONOSTIA
e-maila: sestra@sestra.es



EXPO.CALEF. Y TALLER | EXPO. BAÑOS
Ibabe industrialdea, 26 | Nafarroako Etorbidea, 27
LAZKAO • 943 888 193 | **BEASAIN • 943 161 277**



Elosegi kalea, 3-Behea
LAZKAO - 943 028 415



HERRERIGINTZA ETA FORJA ARTISTIKOA
ALUMINIOZKO ETA METALEZKO AROZGINTZA

Pol. Industrialdea, 10-11
ORDIZIA- 943 881 563
aukera@goierriaukera.com



ORDIZIA
619 462 289



Mikel Urbiztondo Larrea
IGELTSERITZA LANAK
ZEGAMA - 943 800 424
600 024 508



AROZTEGI ETA ZERRATEGIETAKO ASPIRAZIOAK
GALDARAGINTZA OROKORRA ETA MOTA
GUZTIAK HERRERIGINTZA

ZEGAMA
943 802 044 • 650 420 109
www.itsasgama.com
itsasgama@itsasgama.com



PEDRO IPARRAGUIRE, S.L.
Kale Nagusia, 48 Bajo - **IDIAZABAL**
943 188 008 • 670 588 472



ORMAIZTEGI
943 160 424



LASER BIDEZKO EBAKETA
Intxausti industrialdea 14
K-L Pabilioiak
ZEGAMA - 943 162 502



Nafarroa, 23
BEASAIN • 943 884 605
www.fotoetxe.com



Joan Iturralde, 1 Entrepanta
BEASAIN - 943 887 914
943 160 401



ALTZARIAK
AZPEITIA • BEASAIN
OLABERRIA
B° REKALDE • DONOSTIA



Pol. Intxausti, 14 E-F-M
ZEGAMA • 943 800 058
arrano@arrano-sl.com



MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA
Guardigain poligonoa
IDIAZABAL • 943 187 483



HIRI MOBILIARIOAK
Calle Aldapeta 2 -1° B
IRUN • 943 635 277
irunbide@irunbide.euskalnet.net



KALDERERIA
Zegamako Industrialdea, z.g.
ZEGAMA • 943 800 187



Olaran Kalea, 2 Bajo 2
ZEGAMA 943 801 610
c.d.zegama@gsr.coop



DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK
Pol Intxausti, Pab. 14 I
ZEGAMA • 943 801 243
doilan@doilan.com



IBILGAILUEN KONPONKETA MEKANIKA

Barrenalde Auzoa 2/6
ZEGAMA
943 801 311 • 653 709 648



B. Gosategi, 33 - **ZEGAMA**
629 420 198



Zegamako Ostaturia

TABERNA, JATETXEA TA LOGELAK
San Martin 3
ZEGAMA • 943 801 051



ZEGAMA - 943 801 293



Montajes Electricos Hernani, S.L.

- MONTAJES E INSTALACIONES ELECTRICAS
- AUTOMATIZACIÓN Y CONTROL

Donostia Ibilbidea 66-nº12 • 20115
ASTIGARRAGA - 943 331 335
www.beysa.es - beysa@beysa.es